

S. ONAINDIA



OLERKI GUZTIEN BILDUMA

Edizioaren prestatzaille:

JULEN URKIZA

S. ONAINDIA

OLERKI GUZTIEN BILDUMA

Jon Garaiakoa jenerai,
biki-biki-ker.
Aida Inaudea

KS-2

KARMEL SORTA
Zuzendari: Julen Urkiza

© KARMEL

I.S.B.N.: 84-404-4448-6

Legezko Gordailua: BI - 998-89


IGARRI, S. C. L. - Rafaela de Ybarra, 1 - Deusto - 48014-Bilbao

AITA S. ONAINDIA

OLERKI GUZTIEN BILDUMA

**Edizioaren prestatzaille:
JULEN URKIZA**

**Larrea - Zornotza
1989**



KARMEL SORTA - 2



IZKAIKO FORU ALOUHOIA



AMOREBIETA-ETXANOKO UDALA



EUSKO JAUFILAFITZA

GOIZNABAR
1929-1950

Amorebieta-Etxanoko Udalak, datorren hilean Aita Santi Onaindiari egingo deuson omenaldiarekin batera plazaratuko da liburu hau, eta beronen argitalpenean Udalaren partaidetza agerian ixteko asmoz, hona hemen lerro gitxi batzuk, Udalaren izenean Aita Santiri gure goralpena eta miresmena agertzeko.

Liburu honetan batu da Aita Santiren lan poetiko guztia, eta honekin, aukera ezin hobe da idazle honen sormenezko lanik interesgarriena ezagutzeko. Julen Urkizak ekin deuson olerki-bilketari eta benetan eskertzekoa da bere lana.

Sormenezko lana garrantzitsua izanik ere;- ezin daiteke ahaztu Aita Santik urteotan egindako lana euskal kulturaren alorrean: aldizkariak sortzen, idazle berrien idazlanak ezagutzera emonez, euskara irakasten, lan klasikoak itzultzen, artikuluak idazten, etabar.

Udalak idazle honen omenez zenbait egintza prestatu haditu ere, gerora begira garrantzitsuena zera da: berak itzitako obrak eta batez ere, bere jarrera euskarenganako. Horixe hartu beharke geunke eredu moduan. Horregaitik argitaratu dira liburu hau eta bere bibliografia osoa batzen dauan beste bat, eta bestetik, euskal literaturari buruzko ikerketa-lana bultzatzeko, Santiago Onaindia izeneko beka hat sortu dogu. Azken honen helburua, Aita Santi Onaindiaren idazlanen jarraipenaren agerpena izatea litzateke.

Alkate moduan. eta Udalaren izenean, omenaldi hau euskal kultura eta literaturarenganako zaletazuna gu denongau bizteko baliagarri izatea gura neuke, baita Santiago Onaindiaren idazlanari zabalkunde handiago cmateko ere.

Amorebieta-Etxano, 1989ko Apirilak 20

*JOSE ALBERTO GURTUBAI
Amorebieta-Etxanoko Alkatea*

AITA SANTI ONAINDIAREN OLERKIGINTZA

Eraskota lana du euskal olerkigintzan egina Aita Santi Onaindiak. Zabalkunde eta irakaskuntz mailan hor dugu berriz *Milla euskalolerki eder* (1954). funtsezko idaztiturria gertatu dena gerrondoko gurc literatur giroan. Gero, olerki itzulpenetan oso gutxi cskain dezake berearen idazki aberastasunik: liburu mailan, Hoineroren *Odisea* (1985), Bergiliren *klazlanak osorik* (1966) eta Dante Aleghieriren *Jainko-antzerkia* (1985); antologi mailan, berriz, hor ditu Esoporen *Ipuiñak* (1966-1986), Horatiren *Odak* (1955-1969), Gabriela Mistralen olerkiaukera (1952-1986), Rabindranath Tagoreren olerki aukera (1958-1963); eta poema-sorta mailan, azkenik, bi dozn inguru erdal autoreen olerkiak. Hitz batean, euskal olerkigintzaren muina eskaini digu, eta bera kanpoko hainbat maisuren ckarritz aberastu.

Olerki mugimentu baten euskarri eta cragile izan dugu Aita Santi. "Olerki" aldizkariaren sortzaile eta zuzendaria izan da, ordu zailtan bere bizkar hartzen duelarik euskal olerkiak plazaratzeko zregina. Eta esan dezagun, aldizkariak nortasun poetiko jakina ematen diola euskal olerkigintzaren zcrbitzari, biztaile eta defendatzaile izan dugunari. Aldizkariak behartu du poesiaz gogoetak egitera, zcnbakfn osogarri eta aberasgarri dircn poemak sortzera edota itzultzera, eta. belaunaldi berriei beren lekua ukatu gabe. gerraurreko olerkarien babesle gertatzera, joera berriagoen aurrean lehenagokoaren testigantza eginez.

Oso czagunak eta eskertuak izanik ere Aita Onaindiak euskal olerki munduan eginiko zabalkunde eta eragile lanak, ez zaio hainbeste eskerrik ckarri, behar bada, berak sorturiko poemei, bere poemagintza pertsonalari. Denok dakigu poema asko eta asko idatzi dituela, eta hori ale honetan ikus daiteke ongienik. Denok dakigu bi olerki liburu badituela. mardulak eta arnas haundikoak. Baina, beste hainbat poeti gertatzen zaionez, oso gutxi hurbildu dira Santi Onaindiaren poesigintza bere osoan aztertzeraz. edota, gutxienez, aurkezpen zehatzago bat egitera.

Ez da bakarrik horrelako bakardadean. batez ere bere benaunaldikoei begiratzan badiegu. Oraindik azterketen zai daude Etxaniz, Gaztelu, Bordari, Monzon, Muniategi, Iraizoz, Zaitegi, Kerexeta, Ugarte eta beste gehiago. Autore bakarrcn bat ezezik, ia belaunaldiaren parte edo bat edukitzeaz ongarri ez denez, eta gutxiago gurea bezalako egoeran. uste onenez ekin nahi diogu gerrondoko gure poeta baten aurkezpen zabalari eta behin-bchineko azterketari.

1. EDERKERAZ GOGAPENAK

Aita Santik espreski ez digu aurkeztu berc olerki proiektua, ez digu zuzenean landu norberezeko poetika taxatua. Baina eskuarki berak zuzenduriko aldizkarietan teorizatzaile eta adore emaiie ere izan denez, olerki alorrean argitaraturiko aleetan, gogapenak egin dizkigu estetikari buruz, olerkia eta olerkaria zer diren gauzatuz.

Bere olerkigintzari buruz proiekturik eta poetikarik zuzenean agertu ez badu ere, bi dozena artikulu inguru ditu ederrari eta oierkiari eskainiak. Beraz, estetikaren aidentik azaltzen dizkigun kezkek, gauza jakina da. hor azpian, zeharka bederenik, poetika pertsonalaren hari nagusiak adierazten dizkigutela. Eta iruditzen zaigu, autoreak teorikoki esandoak, lagungarri on izango direla, Aita Santiren poemagintza sakonagotik harrotu dezagun.

Olerkiari eta olerkariari dagozkienetan, gerraurreko eta gerrondoko poesiari buruz izan diren eztabaidak kontuan hartzen baditugu, iritzi oso garbia du gure autoreak: "oberik jagi arte, gizaldi onen barruan Lizardi, Orixé, Lauaxeta...dira jainko nagusi" ("Oleriti". 1969, 10or.). Istiluak istilu, honek adierazten digu, Santi Onaindiaren poetika, eta behar bada landuena eta adierazgarriena den hura, gerraurreko ederkera lantzerantz lerratzen dela, batez ere Lauaxetaren ildotik.

1.1. *Olerkia eta olerkaria*

Ikuspegi idealdutik marraztu izan digu inoiz Aita Santik olerkariaren irudia. Bi belaunaldien arteko tenka ispilatzen da hitzon azpian: gerraurreko olerkigintzaren eta poesia sozialaren artekoa. Eta gure autoreak oso goian ipintzen ditu olerkariaren dohaiak eta egitekoak, eta goitasun honen arabera epaitzen ditu lehengoak eta oraingoak, gerraurrekoen lan ona aldezkatzuz.

"Irakurri bai, Lizardi'ren *Biotz-begietan*, Lauaxetaren *Arrats-beran* eta Orixeren olerki-lan jakingarriak. Arein mamiña ta arein azala! Or egiazko olerkia. olerki iraunkorra! Mundu ontako gauza kaskarrez beste mundu zoragarri bat eratu dauskue. Baiña, naiz jainko andi naiz txiki, olerkaria beti jainko, aztru, asmatzaille jator. Eta jainko dan bitartean, bebil ortik. azkar eta gogotsu, erriaren zuzendari, zeruko Jaungoikoaren adierazle. Goiko naiz beeko, bitzuen lanak eder ta aintzagarri" (Ibid).

1.2. *Erti-lana*

Jakingarriena ez da, behar bada, Aita Onaindiak erti-lanaren osagaiak nola ikusten eta adierazten dituen aipatzea. Olerki liburua, erti-lana den aldetik, nola aurkezten duen ikustea, adierazgarria dela esan daiteke. Adibide eran, bi bat pasarte aipa ditzagun:

"Beste goiz bateari be zelairantz artu dozu. Aldatz-gora zoaz gaiñeko muiñora igon nairik: baiña nekatu egin zara ta apur baten ertzean jarri zara. Lilluragarri dagoz inguruak oro, goi ta bee, urriñerarte bakezko pozaren betetasuna. Luzaroan ederrez asetuta gero, sakelean daroazun Lizardi'ren

"Biotz-begietan" edo Orixe'ren "Barne-muinetan" egegi dozu. Lizardiren "Arrats-Gorri" deritxan olerkia irakurten asi zara...Ezin irakurten jarraitu. ...Geiago ezin irakurriz, egiazki atsegin yako aapaldi orrek arrotu dau-tson poz-atsegin bete-betea" ("Kamel'!", 1979-3, 55 or.).

Badu antzeko beste pasarte bat, nahiz eta beste egoera batean aipatzen diguna:

"Aireñegun...arrastian, eguraldi gozo, eguzkitsua zalata, ibiltalditxo bat egi-ten joan nintzan. Eguzki ta itzal arteko bide-zidor atsegingarriz niñioian. Ezker-eskuma altz-lizar, aretx eta sarats gaiñetan, atergabeko txori kanta. Ixillik oro; zearka doan errekaostoen polpol eta ulu mea, zorarazten nindun. Olerki liburua neroian esku artean, baiña ezin neban ezer irakurri: izadia neban idaztirik lilluragarriena" ("Kamel", 1980-1, 58-59 or.).

Bai liburu baten ederra bere kontestuan ezartzeko, eta bai olerkariak ederraren hotsegile izan beharduela adierazteko, autoreak izadiko ederrera jotzen du. Lehenean natura kontenplazioaren osagarri duzu, bigarrengoan naturak erti-lana itzali egi-ten du. Balio paradigmatikoa du izadiak Aita Santiren poetika pertsonalean.

1.3. *Olerkiaren osagaiak*

Honela esaten digu "Oleri"-ko aipatu artikuluan: "Olerkiak, osagai bi ditu: irudi adiera (metafora) ta igiera (ritmua). Eder-agerkarietan sustraiko bereizgarri bi ditugu oneik" (8 or.). Gai hauetaz egiten duen azterketa dela eta, esan daiteke metaforiza-zioak eta metrikak zerikusi haundia dutela Santi Onaindiaren poetikan eta olerkigin-tzan.

a) *Amets bat legez da olerkia*

"Ta olerki-mundu orrek, ainbat gauza, guk sarri ikusi ta ikutzen genduza-nak, barriro sortuta, jantzi zoragarri dizditsu, lillurapenik tinkoenean jar-ten daukuz. Gauzen mundu barri bat, guk ez genkiana, bizi, indartsu, dardaraz daukagu aurrean; ots, mundu au ta bertoko gauzak, irudime-nezko mundu egiñik daukaguz" (Ibid. 9 or.).

b) *Gar ta jantzi da olerkia*

"Barnea gar, jantzi azala. Zoragarri izateko, biak bear. Baita guzti ori ore-tu, aragitu ta eun-miesa baten barruko bilbe antzera, dana bateraturik, graziz ta edertasunez jazten dauan beste zerbait be. Zer dozu ori? Igiera; erderaz esan, ritmua" (Ibid. 11 or.).

c) *Poesia, azkenez. biotz zirrada da*

"Ez bakarrik barnean sentikeran, baita esakeran be: poesia esaten dogu-nean. arnas-aldi antzera, dana era bardiñean barik, neurri ez-bardiñetan, saltoka lez, orain zaldiaren *trakata*, *trakata* lez, gero astoaren *txaka*, *txaka* lez neurrian eroan oi dugu. Izkeru neurtua ei dogu gure biotz-ikutuaren berezko adierazpena" (Ibid., 12 or.).

Aipamen hauekin guk ez dugu nahi Aita Santiren ederkeraz ikuspegi zehatza ematerik, baizik eta gure nahia da, autorearen iritzi nagusienez baliaturik, egileak duen berarizko poetika jatorra eskuarki aurkeztea. Gerraurreko olerkigintzaren mirrcslea, olerkiaz eta olerkigintzaz ikuspegi idealdua duena, ederraren ispilu aipatuena naturan ipintzen duena, prezeptiba klasikoan ezezik ederkera modernoan ere zainak dituena. Batez ere, metaforetan eta erritmoan bere emaitza gauzatu nahi lukeen olerkaria dugu. Hau lehenengo hurbilketa bat litzateke Santi Onaindiaren olerki mundura.

2. POEMON BERARIZKO IKUSPEGI JATORRA ZEHAZTEN

Gorago esan dugunez, ikerketa gutxi azaldu zaigu Aita Santiren belaunaldiko poetei buruz. Baina autore horien *Olerki Guztiak* argitaratzen aldetik zerbait ahalegin gehixeago egin dela dirudi: Orixek, Lizardik, Lauaxetak, S. Mitxelenak, Bordarik. Monzonek, eta abarrek badituzte beren olerki guztiak argitaraturik. Eta orain Aita Santi Onaindiarcnak datoz.

Ez dago esan beharrik horrelako idazki osoek dakarten etekina eta mesedea gure poesigintzaz ikaskuntzarik egin nahi bada, nahitaezkoa denez horrelako gaia eskuartean edukitzea, ezer tajuzkorik lortuko bada. Bilduma hauek dakarte lagintza bakoitzaren kokalekua eta balio-irizpide zehatza.

Baina gero, poeta bakoitzaren ezaugarri nagusienak markatu nahi badira, eta autorearen ekarri berezia azpimarratu nahi bada, eta bakoitzaren nortasun poetikoa irudikatu nahi bada, orduan poemen aukera bat egin beharra dago, eta aukeratutako poemon dohairik berezian sailkatu eta balioztatu beharra, eta berorien estetika zehaztu beharra. Hau egin czean, muga estuetan bizitzera behartzen ditugu geure literatur ikerketa eta irakaskuntza. Eta literatur zirkuituetatik kanpo geratzen dira hainbat autore eta hainbat idazlan.

Denok dakigu, literatur kritika eta unibertsital apeta direla eginkizun honen lehen erantzuleak. Eta nahi genuke gauzak bidera daitezen. Baina bien bitartean, eskakizunek eraginik olerki idatzien aurkezle garenok, saiatu beharra daukagu zerbait onuragarri egiten. geure olerkarien mesedetan egin ere.

Aita Santiren olerkigintza lan mardula da eta luzaroko ahalegina: 1929an hasi eta 1988 artekoa. Pentsatzen dugu, bizi-bizi dagoenez, aurtan ere abesten diharduela Larreako galeperrak. Hirurogei urte euskal poesogintzari etengabe emanik. Hala ere, dena ezin izan neurri berekoa: bada landurik. bada hain landua ez denik. Bada aldianaldiko kanturik. bada arnas beteko libururik. Bada autorearen historia hobeto ispilatzen duen piezarik. bada nortasun poetikoarekin lotura txikiagoa agertzen duen bertso-sortarik.

Lan antologikorik egon ezean, guk liburuak bakarrik hartu ditugu gogoan: *Goiz-nabar* (1971) eta *Nere baserria* (1985). Hona zergatik: poema libururen bat kaleratzen duenak, ikerketa estetikoren bat aurkeztu nahi du, edota poemen aukera bat. Eta bi gauzok jakingarriagoak dira eskuarki. motibazio estetikorik gabe eginiko poemak baino. Horregatik gure lehenengo aukera: liburuak bakarrik kontuan hartzea.

Gcro. bestc oharkizun bat badago. liburuok antolatzekeo prozedurak cgin-crazia. *Nere basenia* liburuu. osotasun baten barruan garaturik dago, planu bati atxekia. poema nagusia eta arnas haundikoa gertatuz. Ez hala *Goiznabar*: olcrki bildumarcn eitte haundiagoa du, urterik urte sailak osatzen dirclarik. Badirudi bilduma eittea due-la. Horregatik aukera bat cgin beharra dago, Onaindiaren poemagintz baliagarriena azpimarratu nahi bada. Guk berezienik. 1 Sailla. 1929-1935 eta if Sailla, 1936-1940 ditugu aipagarrien jotzen ditugunak azterkctarako.

Bestalde, noiz eta norako idatzi zucn, eta zernolako bizitz egoeran, guzti hau erc kontuan hartzekoa da. Poemarik landucnak ditu, ahalegin poetikoari begiratz behintzat. olerki lehiaketetako idatzi zituenak, Aitzolek eskatuta "Yakintza"-rako idatzi zituenak, kultur giro bceziren baten eraginpean idatzirikoak. Gainerakoetan, batez ere berak zuzenduriko aldizkarien betelanerako edo idatzitakoek. bistan da ez dutela beste aukeratu borien goitasunik.

Azkenik. ezin dira ikuspegi berberetik epaitu liburuotako poemak. *Goiznabar* jo daiteke Lizardi eta Lauaxetaren harikoa, zchaztasunakzehaztasun. Baina *Nire base-rria*, poema nagusien harikoa dugu. Orixeren *Euskaldunak* poemaren proportzioan. Badu kidesunetik Mitxelenaren *Arantzazu euskal poema* (1949) liburuarekin, eta gu-txiago czagutzen dircn beste poemekin. Ez dugu ahaztu behar, arnas haundiko poemagintza hau indarrean zegoela gerrondoko olerkaricn artean, eta Onaindiak ere bide hori erabili duela. Bigarrcn Aita Santi bat dugu: gaiak luze, moldcak herriko, tradi-zioaz lotura cdukiz, kantagarri diren poemak landuz, ikuspegi historiko-kulturalak kantagai hartuz idatzitako poemagintza.

Beraz, bi liburuok bakarrik digutu begiaurrean geure azterkctan, eta berauetan ardura berezid idatzitakoak arakatu nahi gcnituzke. Baina bieri lehentasun bera eman gabe. Azterketak lchen liburuko zati garrantzitsucnez bakarrik egingo ditugu, uste dugularik berauctan dagoela Onaindiaren olerkigintza bikainena. Bigarren liburuaz ez dugu azterkctarik egingo, baizik eta konparatu egingo ditugu beren artean bi liburuok, horrela Santi Onaindiaren bi une poetikoak azpimarka ditzagun: gerraurrekoen harikoa. apetatsuen, eta gerrondokoa, herrikoia. Larreako poetaren bi ereskinak.

3. "GOIZNABAR"

Azpiko izenburuak honela dio: "Olerki bilduma, 1929-1950". Historiaren aldetik begiratuta, gudadcak utziriko triskantza dago euskal olerkigintzan eta berdin Santi Onaindiaren idazle emaitzan. Poemak elkarren errenko badatoz ere, berauen giroa zeharo bestelakoa dugu urtcaldi batzuetatik besteetara. guda zibila mugarri delarik.

Norbaitek Aita Santiren olerkigintza berc osoan eta sakonean aztertzen due-nean, arakatu bcharko ditu aldi batctik bestcra dauden aldeak, gaien bestelakotasu-nak, nabardura berriak. sentikari berrikuntzak, autozentzurak eta gcrraosteko zailta-sun sozio-kulturalen islada gogorra. Baina guzti hau egitea ezinezkoa zaigunez, beste tratamendu bat eman bcharrean aurkitzen gara liburu honetako olerkigintzari.

Estilo aldetik gauza bakarra bait litzan hartuko dugu Iiburua. Horregatik, neurkera eta metaforen aldetik gauza bakar bat bezala ikuskatuko dugu. Estilo berean dihardu, noski, liburu osoan zehar, metrikari eta iruditeriari dagozkienetan. Hala ere. Aita Santiren bilakabide poetikoan, bi une azpimarkatuko genituzke liburu honetan: 1929-1935 urtealdikoa eta 1936-1940 urtealdikoa.

1929-1935 urtealdia: hasikinak ditugu, esnaerako emaitza erreberoa. Olerkiaren sorreran, "Eusko Olerkiak" bizturiko garra. Asmoz eta jakitez poesia egiten zen garaikoa; egileak lehiaketa eta aldizkari jakinetarako olerkia lantzen zuen garaikoa. Eskakizun haundi batek sakaturik eginiko lan poetikoa, Aitzolen laguntasunean, olerki sariketen eskakizunean, aldizkarien bulko eta ziztadan. Oso kontuan edukitzeko poemagintza geure iduriko.

1936-1940 urtealdia: guretzat sortarik jakingarriena, behar bada. Gerrateko gomuta suminak. Gudarien kapeilau izan zenak, zaurituen eta hildakoen berri hurbiletik zekienak, minberatasun sakon eta fineko poemak utzi dizkigu. Poema eskergarriak, gudako oinazea bezain gai hunkigarria aipatzen diguten poema egia eta dardaratiak.

Horregatik, gure arlorako, puntu hauek bereziko ditugu: metrika arazoa, metaforagintza eta gudatean eroriei eskainitako poemagintza berezia. Ispilaturik geratzen dira neurri batean. Onaindiak gerraurreko belaunaldiekin duen lotura, eta —geure iduriko hau —, berak utzi digun multzorik jakingarriena, gudarien heriotzari zuzendariko olerkigintza.

3.1. METRIKA

Bi puntu dira nabarmen agertzen zaizkigunak gai honetan: oso landua duela estrofaingintza, eredu asko eta aukerakoak erabiliz. Baina, behar bada, ez duela hainbeste lantzen puntuen alorra, eskakizun berezirik ez duelako hoskidetza zehaztu eta aberasteko orduan. Gu hemen, estrofez bakarrik ariko gaituzu, duten garrantziagatik hain zuzen.

3.1.1. *Eskema metnikoak*

Alderdi honetatik begiratuta, aberastasun arretagarria du liburuak. Azaltzen diren eredu desberdinak aurkeztea luzeegia litzatekeenez, geure azterketaren zenbait ondorio bakarrik aipatuko ditugu, garbi aitortuz estrofismoan Onaindiak eginiko lan ederra.

a. *Ereduen ugaltasuna*

Poema guztiak 149 badira. 84k eredu berezia daramate: 76k estrofa molderen bat, eta 6k bertso librea. Beraz, % 56"24k bere molde berezia du, biz bat berria delarik estrofa mota.

Silaben aldetik. berriz, kopuru guztietakoak daude: siiaba batetik hamabost sila-betarainokoak. Estikoak eta distikoak molde nagusiaren, klasikoaren eta txikiaren motetakoak ditugu. Baina mila modutara konbinaturik, efektu crritmiko eraskota-koak lortuz.

b. *Lauko Ixikia ugariarik*

Lauko txikia luzaz dator, bcste gainerako creduak baino ugariago. Denctara 21 aldiz, eta. beraz, % 14'09 aldiz. bataz beste.

Honekin batera lauho klasikoa, 7 aldiz; eta. beraz. % 4'69 batez beste. Asko jeisten dela esan behar lehenagoko eredutik.

Lauko txikia baino silaba gutxiago dituzten beste zenbait lauho ere erabiltzen dizkigu autoreak. Hona hemcn eskemak:

6-	6-	5-	4-	5-
6A,	5A.	5A,	7A,	7A,
6-	6-	5-	4-	5-
6A.	5A.	5A.	7A.	7A.

Lehengotik 4, bigarregotik 3, hirugarregotik 2, laugarregotik 1, eta bostgarregotik 1. Moldeok gunitara, % 7'37.

Lauko nagusi bat ere badu, eta molde honi hurbiltzen zaizkion beste lau eredu. Beraz, % 3'35 hemistiko luzetako estrofa laburrak.

Esan beharra dago, % 29'50 erabiltzen dizkigula autoreak. dela lauho txikia, dela motxagoko beste eskema metrikoak. Ia hirutatik bat hain cstrofa llaburrak erabili izanak. garbi azaltzen du autoreak esaldien malgutahun eta arintahunari dagien aitor-mentena.

c. *Estikoen eraskoiako ereduak*

Badira, 10, 11, 12, 13, 14 eta 15 silabetako estikoak, konbinaketa ugari sortuz. Funtsezko moldeak, hemistikoak barne. hauek ditugu: 10 (5/5) A; 11 (6/5) A; 12 (6/6) A; 13 (7/6) A; 14 (8/6) A; 15 (5/5/5) A.

Estiko hauek baliaturik, autoreak konbinaketa ugari sortzen ditu: estiko berdi-nekin lauhoak eta bostekoak eginez; edota estiko hauek beste eskema metriko luze-a-gotan tartekatuz; edota beste bertso-lerro motekin nahastuz; edota etenen lekuak aldatuz, eta abar.

Estiko hauek erabiltzen dizkigu gutxienez 38 poemetan, era batera nahiz bestera kokatuak. Horrelakoetan. grafiaren aldetik ez du aldakuntzarik egiten hemistikio batetik bestera, honetan ifarraldekoen ohitura grafikoari jarraikiz.

d. *Hausturadun estrofa*

Horrelako ereduak eraskotara datoz: estikoen ondoren, silaba gutxitako bertso-lerroak tartekatzen direnean, edota punturen bat ezabatzen denean, edota molde des-

berdinetako bertso-lerroak elkartzen direnean, edota bi nahiz hiru puntu desberdin estrofaen barruan sartzen direnean.

Dozena eta erdi estrofa aukera daitezke era honetan hausturaren bat dakartean. Berriro ere aipatu nahi genituzke autoreak hemen agertzen dizkigun ugaritasuna eta askatasuna.

e. *Soneloak*

Soneto edo hamalauko hauek aipagarri direla esan behar. Bi dira guk kontrolperatu ditugunak. Hemistikioak 7/6 konbinaketan emanik daude. Eta ehuneko asko ez badira ere, hortxe dago autorearen apeta, molde kulto hau ere erabiltzen digula.

f. *Estrofa gintza libre*

Ez da gaur erabiltzen dugun bertso libre, behar bada. Ez ditu hausten neurkeraren loturak, nahizeta aske ibili lerrozenbakidunak elkartze koorduan. Ez du, noski, eslofismoa baztertzen, baizik eta esanera jartzen da neurria, eta ez alderantziz, estrofismoan ia beti egin ohi den antzera. Berriro ere olerkariaren askatasuna daukagu nabarmen bere estrofa gintza arakatzean.

3.1.2 *Zenbait ondorio*

Azterketa honek, bere behin-behinekotasunean ere, agertzen digu Onaindiaren gerraurreko poemagintzan agintzen duen olerki prezeptiba. Eta esan daiteke, gainera, oso kontuan hartzeko ezaugarriak direla gerraurreko poeten joerak markatu nahi badira. Agirikoenak aurkez ditzagun:

a. *Poema bakoitzari bere neurkera*

Joera hau du kantutegi zaharrak eskuarki, eta joera hori bera, eta oraindik Onaindiak berak baino areago, Lizardik. Ez da, noski, lege zehatza. Baina joera nabari horrek adierazten digunez, sentiberatasun berezia dago neurkerarekiko.

Neurkera loturik dago poemaren nortasunarekin. Nolako eskema metrikoa halako diskurtso poetikoa. Begirune handia zaie multzo fonikoei eta hauen konbinaketa ez-ohitu eta berriei.

b. *Errezitatze gehiago kantatzeko baino*

Ez dugu esan nahi kantagarri ez direnik, asko behintzat, baizik eta olerkiok errezitatze eginak direla asko eta asko, eta ahoskeran datzala berauen "doñudun zer-bait: igiera edo ritmua" ("Oleri", 1979, 11 or.).

Joskeraren luze-zabala eta erritmoa, eta estikoena bat ez etortzea ere, ohartuki bilatzen den desberdintasuna da, testua musikaren loturatik askatuz. Esatariaren beharra legoke, eta ez kantariena, olerkiok jendaurrean eman behar balira.

c. *Estrofa eta estikoen luze-laburra*

Luze-laburraren arabera, estrofen kopuruak honelatsu dira: estrofa luzeak % 46'66; estrofa laburrak % 33'33; eta ertainak % 20.

Askotan estikoak errespetatuz idazten du, ifarraldekoen haritik: Formularik erabiliena 13 (7/6), konbinaketa ugarietan. Eta hemistikioen arabera idazten duenean, berriz. batetik IOera artekoak datoz, azpimarragarria dclarik 4. 5 eta 6 silabako hemistikioen azalpena.

Beraz, ia erdiak joera luzeko estrofak direnez, zama lirikoa hartzen du olerki diskurtsoak. Eta hemistikio mota ugari agertzen den aldetik, eta konbinaketa txikiak nagusitzen bait dira, arriska gintezke esatera, hitz andana eta multzo foniko berriagoen .musika entzuten dela Onaindiaren liburu honetako poesigintzan.

9.2. *IRUDITERIAZ*

Autoreak olerkia nola ikusten duen kontuan hartzea garrantzizkoa dirudi Santi Onaindiaren poetika aztertzen dugunean. Ez liteke bereizi "AitzoF'-en proiektutik. Eta Lizardi eta Lauaxeta, bakoitza bere ñabardurez, ezin ahaztuzkoak dira Aita Santiren ibilpidea mamitzcrakoan. Honela dio olerkiaren zereginaz:

"Olerkia beti yaku eder. Bere barru-eskema damosku, bere zentzun ezkutua. izamenaren barru ixilletik jagitako adierazpen gaiñez-gaiñetikoa, metapisikua. Bere barne-lan biziakaz, munduaren eta bizitzaren gaiñezko egazkadaz, munduan eta bertoko gauzetan beeregi sarturik dabilzan giza-semeai aparteko mandatua dakartse" (Ibid., 6 or.).

Beraz, izadiak barrutik adierazpen metafisiku bat dakar, eta hori ematen digu poesiak bere barruko kemenez, bere zentzun eskutuaz. Eta guzti hori lortzeko, helburu etiko jakina dakar olerkiak: "mundua obetu nairik oneik egiñiko lana beti izan da ontzat artua" (Ibid).

Guzti hau 1969an idatzi zuen Aita Santik, *Goiznabar* idatzi eta handik ia 20 urtera. Hau idatzi zuenerako autoreak igaroak zituen gerrako laztasanak, kartzelako urteak eta gerrondoko samin kolektibo tristeak. Gehiago oraindik: ordurako onenak emanak ziren hemen poesia esistentzialista eta soziala, Onaindiak hau idatzi zuenerako. Ez zen nolana hiko autorearen bizitza poemagintza honetan ari zenean; baina, hala ere, berean dirau gerraurreko ikuspegi poetikoak *Goiznabar* liburuan zehar.

3.2. i. *A dierazpen poetikoa*

Olerki espresioaren azterketa hasi aurretik, poema bikainen aukera zehatza eta urria egin beharko litzateke lehenik. Gero, irudien erabilkera eta metaforizazioa. Eta azkenik, lanaren balioztatzea. Baina guzti hau ezinezkoa zaigunez, hari nagusi zenbait marrazteari ekin beharko diogu.

a. *Alegorizazio joera*

Poemetako protagonistak behin baino gehiagotan izadiko irudiak dira, edota gauza xumez osaturiko mundu bat. Hauen historia ez da kontaktzen agerian, azpi-azpian baizik: sinboloen mila ñabardura aukeratuz, giza bizitza antziruditzen da eta ispilatzen, naturako gertakariak giza esistentziarekin lotuz, irudien ordezkotasuna giza izaeran fokalizatuz. Eta azkenik, irakaspen ezkutuko bat nabari da poema askotan, irudiaren ederra, etika etaonbidegertatzen delarik, ezkutuan behintzat.

Alegorizazio bakoitzak bere eitea dakar, iruditeriaren tratamendu berezia. Adibide modura, ereduren bat edo beste aipa ditzagun.

aa. *"Loreil"*: Irudi matriza bait litzan agertzen da, iekua eta denbora eskaintzen dituena. Eta irudi nagusi honetan, bigarren mailako protagonista xeheagoak: "aizeño, irea, sagarrak, gari saillak, txoriak, iturria, zelaiak, mintegia, liliak, intza, larra-maoa"...Eta urrilaren aipamena, eta heriotza...Eta irakaspena: "Baina, at nigandik be / gogai biur ori", herioarena. Irudietan alegorizatuz giza bizitzaren gaztaroa eta heriotza dasta-erazten dizkigu.

ab. *"Ontziska ta ekaitza"*: Protagonista untzia da, lekua itsasoa, eta ekaitza du gu kondaira xume baten giroa. Lehenengo ontziska agertzen zaigu ugarte hillezko-rraren ametsctan. Gero ekaitza eta garaipena. Eta azkenik, porturatze zoriotsua opa izatea: "Ator, maite...itzat naro yozak ur ontin garbiak". Irudi matriza itsasoa, eta protagonista untzia. Bidaia inizatikoaren azken zoriotsua.

ac. *"Oi, eiztari!"*: Tradiziozko bi protagonista ezagunak, txoria eta ehiztaria. Lehenik tragedia, txindorraren heriotza. Bigarrenik, desolazioa. Eta hirugarrenik, olerkariaren eskabide: "ez bera geziz eratsL.Bide ertzean / maitea dot kantari". Kondaira estilizatua, ohizko alegoria eta azken hunkigarria: bide ertzean dut nire maitea. ez hil!

ad. *"Begiati malkoa"*: Bizitzaren bi mugetan "begian malkoa" irudia, "goi-ametsez" gaztetan, "pozik eztala" zehartzean. Espazio horretan, bizitzako gertakizunak. irudipean emanik: "oianeko itzala" irabio "osteko arnasa": "kaina" maitezko zer-baiten gaiñean; "goiz aizea" urrutiko jaia; "dantza" par-algara; eta "neguaren otza"...Eta irakaspena: "Jakin ez geroa; / zorioa dogu / txit pupibera".

Funtsean alegorizazioak ditugu, mila modutara emanak, kondaira eta zehaztasunen gaineratik lirismoa gaintzen dela, eta irudietan datzala protagonismoa eta mezua-aren isladatze estetikoak.

b. *Izadiaren pertsonaltzea*

Naturako irudiei protagonismo bat ematen badiegu, hauek irakaspen bat eta iorana sortzen badute gure bizitzari buruz, ez da harritzeko irudiei pertsonaren eite bat ematea; eta, olerki alorrean gaudenez, gure bizitzaren alderdi poetikoak irudi horietan ikustea, eta analogiaren bidez, gure giza bizikizunerako argibide gertatzea. Irudiok irakurri eta gozatzean, irakurri eta gozatzen ditugu, eta hobeagotzen, geure giza esperientziak.

Irudien pertsonaltze hori zabala eta bilgaitza denez, eta bestalde nahiko ulertezza, olerki bat bakarrik aipatuko dugu, adibide modura aipatu ere. Funtsezko hiztegi poetiko bat egitea litzateke, horrelako pertsonaltzeen bilketa eta sailkapena. Mundu bat dagoela adieraziz, erakus-aukera txiki bat egin dezagun.

"*Loreil*":

— *Bedats*: gaztea da, lerdena.

— *Aizeño*: maite mindua, eta abereak bezala iraulka eta zinkurin eginez.

— *Gari sailla*: mototsak agiriz.

— *Zelaiak*: irrikoi

— *Mintegi*: ernera barrien oe.

— *Liliak*: alkar mosuka, maiteak abeska.

— *Genza*: oski zurik...

— *Larra-maoak*: maitekor izketan.

c. *Metaforak*

Irudien bidez alegorizazioak garatzeko, eta irudion protagonismoa azpimarratzeko, eta berorien pertsonaltze-kreazioa lortzeko, metaforagintza funtsean prozedura ezinbestezkoa dela esan behar Onaindiaren olerkietan.

Azterketak ezinezkoak zaizkigunez, eta esenpluek ere hain arretagarri ez direnez une honetan, metaforen aipamena bukatzeko esan nahi genuke, prozedura hau ezibestekoa dela, poemaren protagonistak nortasun markatua eta jakina dutenean, hala nola pertsona historikoak naturako edozein izate edota gertakizun direnean. Irudi fokalaren adierazgarri ditugu gainerako irudi ordezkariak, transposizioen bidez irudi protagonisten izaera, historia eta mezua sakonagotik ezagutzen direla.

4. GUDARIEN INGURUKO POEMAK

Lehenengo liburuaren aipamen hau ez nuke amaitu nahi, poemagintza osoko une bat bereize gabe: gudarien heriotzari eta Gernikako erreketari eskainiak ditugu gogoan, 1936-1940 urtealdian datozenak.

Ez dugu esan nahi poemarik landuenak direnik. Beste ertz batera zuzentzen da gure ikuspegia. Autoreak bere bizitzaren bidez poemei ematen dien alderdi semantikoak ari gaituzu: egilearen nortasunak ispliatzen duen estiloaz.

Jakinik Aita Santi gudarien kapeilau izan zela, arretagarriak iruditzen zaizkigu, gudarien heriotzari eta Gernikako erreketari zuzendutako olerkiak. Poema egitiak, lekukoaren poemak ezezik, aitorlearenak ere badira izan, hil zirenen zio beragatik, autoreak ere espetxeak eta desterruak jasan behar izan zituenez.

4.1. "*Ene ereskina*"

"Guztiak dauz loak ar: / oindiñokarren, ai!, itzarrik / ene ereskiña bakar". Olerkariaren bihozkada:

"Ene ereskin negar-bera.
ixil-ekon aratza:
ots samíñez, otoi. birlora
nirc amets baratza".

4.2. *"Ondamena"*

•"Lerkai eta ikiliuen otsa duzu zoraldi biziz"...Eta "beso biak luzaturik, Goikoa dut otoiztu"..."negarra ta criotza":

"Giz-odola zelaietan da bolbol ixuria:
jausiak dira millaka gaztc. Au laido. miña!
Zaurituak bc millaka, samíñez dagozanak!
Suarra don. guda, ire izan muiñeko griña!"

4.3. *"Saseta il da!"*

Gudal buruaren heriotz miñarcn berriak hunkiturik:

"Izkillots, atergea, lurra dart oinpean,
sua, kea, garra. gudean gartsuki;
giza gurenak letxe ereiñoz bekoki
jausi zara azkenez etsaien aurrean".

4.4. *"Ur-egalean"*

Ur ertzean, gorpua aurkitzen du:

"Muiñotik jatsi naz, ta, ur-ertzean etzana.
gudari bat daurkit. Lo ete? Ala illikan?
Bedar-ogean datza dirdai eguzkitan.
esku biak bular gaiñ, bits-jariz ezpana...

Atxur-zartaka dot lur-sabela edegi
ta gaztearen soiña bertan dot eratu.
lore zuriz ta lurrez dana dot apaindu.
Jausi ba'nendi. esku on bat nitzat bedi",

4.5. *"Euria ta uria"*

"Uri errearen / ondar kiskaliak" aipatzen dizkigu eta gizon baten madarikazioa, olerkariak bere egina:

"Espaloian zerar begira gizon bat.
giza-antzik ez, ta negarra dau jaki:
estarran itoz abotsaren oiua.
su ta euriaren triska ur-ur ikuski,

"Madarikatua,
guda zital — diño—;
madarikatua.
i, gizaki gaizto...

Ni be, euri ta uri, minkide zaituet...
 Eta biotzetik
 aut madarikatu
 erriak ondatzen
 ditukan guda uzu".

4.6. *"Gau-oiuak"*

"Ez otsik goian, / ez lerkirik bean", "burdin-gerrikoa" hautsi zenean:

"Gomiz eta Fika —zuen zori txarra—,
 eun gudari datzaz
 oi-u-min, iltzear:
 goiko mendixkatik dantzudaz, itunki,
 eztarri-ots gear.
 bizitz azken indar...

Lurrari itsatsiak, eun gudari illagin.
 Etsai, i aut iguin,
 erioeren aiz duin...

Eun gudari zangar, eun leoi zirenak
 aitu dauz balbeak,
 ezarriz erpeak...

II arren, gazteak, zuen bular-sua
 betikoz ezta aitzen,
 aldiz illezkortzen".

4.7. *"Oinazepean"*

Etsiak orpotik, badoaz bidez-bidez, noraezean. Eta lehengo onera etortzeko deia herriari. badoazen, baina etorriko ere direnen ahotik, itxaropenezko eta kemenez beteriko arrena:

"Agur, geure erri
 zarean lurrik oncna!
 Artu zuk, otoi,
 guk egiñiko arrena:
 ziñez lanari
 lotua zaitez len-lena.
 zeure izatea
 dozula beti maiteena".

4.8. *"Kanpai-otsa"*

"Adur gaizto itzala yabilt ondorik, / izar ta eguzki aiendu barik: / baiña ik ba-dok naiko niretzat pozik".

"Nik, alan be, beti, nai pozkor nai itun,
 i aut zintzoena espetxe-lagun:
 gau baltzez lastargi, nekean gardun".

Gudatcko pocmok cgituraz eta cittez gerraurreko olerkiak bezalakoak izanik erc. tartcan bada gertakaria latza: gerra zibila. Eta gertakaria honek esanahi poetiko berezia damaio Onaindiaren olerkiari. Lehen kontenplalari zena, orain ekile dugu; lhen gogo cta asmamen zena orain edontzi garratz. Aita Santiren bizipena minbera bezain aberatsa dugu. Ez dira gudarien eginak. hauen ehorzketak baizik. Urrikalmentua eta urrutiko itxaropen dira. Ez dira amonaren hiletak, gazteriarenak baizik. Eta ereilcaren kantuak ditugu, haiek hil eta bera bizirik geratu ondoren, hilen esperantza kantatzen duenaren ahotsa. Benetan arretagarriak poemok, dakarten oinaze luzeagatik cta crakustcn diguten bihotzagatik. Euskaldun garen aldetik, hainbeste hunkitzen gaituzten opari-loreak.

5. "NERE BASERRIA"

Hau du bigarren liburua. Mardula, arnas haundikoa. Baina ez da gure asmoa azterketari atxekitzea. czinezkoa izateaz gainera. hain beharrezko ere ez delako gure asmocn arabcra. Guretzat garrantzizkoena da, gainetik bederen azpimarkatzea, kontraste nabarmena dagocla liburu honctako poetikaren eta *Goiznabar-ekoaren* artean.

Pocma nagusia da, baserria kantagai harturik landua. "Etxe" hitzaren etnografia eta etnologia dira hari-albainuak. Gaia sentitzcko eran, zenbait euskal idazleren bihozkada nabari dezakcgu, gaiaren tratamendu poetikoan Mogel, Elissamburu, D. Agirre eta post-erromantikoen sentiberatasun jakina erakutsiz eta dardaratzuz. Eta autorearen lirikotasuna herri-mailako olerkigintzatik ispilatuz.

Lau urtearen aldakortasun bizitik ikusten da baserria, lau zatitan banatzen digularik liburua. Gai bakoitzaren hasieran hitz lauz konstatazio alana egiten digu, zer kantatuko digun adieraziz. Ondoren, bertsoan, lan denotatiboa egiten digu. Sarreran doa kontraeraren haria cta leku-denboren markoa. Gero, kantuaren hots eta higiduran, olerkigintza luze, landu eta herrikoa.

Lehenik nabari dena da metrika alderdia. Kantu guztiek dakarte beren doinua, pocmok kantatzeko egin direla adieraziz. Doinik hauen eskema metrikoa ez da lehen iiburukoa bezain aberatsa estikoen konbinaketez. Haietan molde berriagoak bilatzen zircn bczala, hemen tradiziozkoek dute agintzen eskuarki.

Molde luzeagoetan, zortziko nagusia da gehienik erabiltzen dena: 16 kantutan. Askoz gutxiago bcste molde luze hauek: bereziak 4; koplak nagusia 3; koplak bikoitzak 2; hamarreko nagusia 2; hamarreko txikia 1; koplak luzea 1; zortziko klasikoa I; cta molde librea 1.

Ertainagoko moldeetan zortziko txikia 6 aldiz, nahiz eta esan beharra dagoen, zortziko txikia behin baino gehiagotan bi lauko txiki eginik erabiltzen dela; gero, koplak 3; seiko nagusia 1; eta seiko klasikoa 1.

Molde laburragoetan, iauko txikia darabil gehienik. 18 aldiz; (6/5) moldea 2; lauko klasikoa 1; eta molde berezia 1.

Nahiko nabaria da molde luzeen gehiengoa, honek poetikan duen esanahi guztiarekin. Esaldien ebakidura distikoen eta hemistikioen neurriara egokitzen da, hausturarik gabe. Eta molde luzeen ugaritasunak ezartzen du, nahitaez, zama erretoriko jakina olerki diskurtsoan. Bestalde, badirudi herri-olerkiaren eskakizunetara lerratzen dela poema hauen estilo poetikoa, askok eta entzunaren entzunez ulertzekoa bait litzan poemagintza.

Estiloari eutsiz, epikotasuna hartzen du, mundu baten berri ematen zaigu bertoko gauzak kantatuz. Eta epikotasunetik abiatuz, irudien erabilkera herrikoia da, hau da, irudion alderdi semantikoak kantutegietan hartu ohi duten edukin bereberekoak dira. Gaien tratamenduak lirikotasun indartsua hartzen du. Orixeren klasikotasunetik baino gehiago du post-erromantikoen kantugintza bihozkoietik. Gogoangarri den mundu bat marrazten eta senti-erazten zaigu: batzumentzat jaiotetxeko baserri-min, beste gainerakoentzat jaso beharreko ondare zahar.

Demagun, azkenik, liburu honek, eta garaikide dituen beste poema nagusiek sort-erazten diguten susmoa. Orixeren *Euskaldunak* sakondutako ildotik doaz ia denak. Gehiengoari zuzenduak eta, beraz, kantagarriak eta herriak entzunez goza ditzan eginak. Litekeena da eredu hau, eta besteak, Orixeren araginpean sortuak izatea. Baina susmo dugu, poema nagusiak egiteko apetan, beste arrazoirik ere egon litekeela.

Ezbairik gabe, hor dabil tartean "Aitzol"-en azkenaldiko literatur proiektu eza-guna, batez ere bertsolaritza hartzen zuen hura. Baina galda liteke, baita ere, gerraondoko autozentsura ez ote dabilen horren azpian. Orduko giro hertsian, tradiziozko eta betiko poesia hobeto ikusia zegoen orduko kultur zentsuratzaileen artean. Hori zen orduan egin zitekeen poesigintza bakarretakoa, eragozpen gutxienik sortzen zue-na. Ez hala poesia aurrerakoia, berrizalea eta zailagoa. Eta azkenik, hor zegoen herria esnatu eta birregiteko bide eraginkorra.

Gaurko poesi egoeratik begiratura, euskal literatura poliki poliki bere onera doan honetan, erraz da esaten herriratze hau atzerapen eta inboluzio bat izan zela. Litekeena da estetikaren aldetik begiratuta. Baina zenbait garaitan, ikerketa estetikoen gainetik daude herri bczala irautea, eta horretarako alarma gorriko turutak jotzea. Herriarentzat egin zen, ordu zailetarako, onginahiez eta ioranez beteriko aitor-men-olerkia.

"Ni ez naiz baserrian bizi —esango digu—, ez naiz baserritar lanetan ari. Baiña baserri txairi baten altoan jaiotzen nintzan; beraz, maite dut baserria ta onik zabalena opa diot. Orixegaitik idatzi dizut poema hau, egiazko baserritar ba'nintz bezela. Eusko baserria iraun dedin nai dut biziro. Nere barne arnasa dira bertso alik ondoen biribilduok".*

6. ONDORIOZ

Euskal olerkiari lotu-loturik agertzen zaigu Aita Santi Onaindiaren nortasuna. Denok czagutzen dugu. eta aitortzen crc bai. antologi lanctan, poesi itzulpenetan, aldizkari zuzendaritzan eta literaturaren histori arloan utzi digun lan zabal eta mami-tua.

Ezagupen mugatuago eta murriztagoa du -eta. beraz, aitorpena ere bai—. bere olerki sorkuntzak eta kreazioak. Sorketa luzca egin duen arrcn -etcngabea eta ugari—. agian ez du izan hurbileko kritika zehatzik, ez berarizko ikaskuntz tajuzkorik. Honetan cz da bakarrik, beraren garaikide ere mozdade berean dauzkagunez.

Liburu honetan plazaratzen dira olerki guztiak. urtealdiz-urtealdi sailkatuak. Materiale baliotsua inork ikerketarik egjn nahi balu. Guk, bistakoa denez, bilduma hori nolerebait mugatu behar eta. liburuak bakarrik aukeratu ditugu aztergai. Eta hauetan, *Goiznahar* bereziki, berau dencz, agian, ikerketa estetikoaren aldetik berricna. nahiz eta. behar bada. cz umotuena.

Gogoeta asko du olerkiaz eta olerkariatz eginik. Teorizazio alderdi hau poesi aldizkarietan sustapenerako garatzen badigu ere, ezin ukatuzkoa dugu, Aita Santik denontzat landuriko ikerketa estetikoak, baduela zerikusi Onaindiaren poetika pertsonalarekin. Ikuspegi klasikoa eta idealdua dakar, baina, aldi berean, XX. mendeko poesigintzarekin lotua. post-sinbolisten haritik ckarria duclarik jakingarriena geure iduriko.

Bi koordenadetan sorturiko lana du: gerraurrekoan eta gerrondokoan. Eta bi metrika alderdi: errezeitatzeko gehiago bata, kantatzekoa bcstea; ahapaldiz anitztagoa bata, durrundariago bestea; errimaz urriago bata, ugariago bestea; diskurtsoz esentzialaago bata. erretorikoago bestea.

Eta bi egituraketa: poema llaburrez bata. poema nagusi zabalez bestea; krokis arabera landuriko poemez bata. estrofa autonomoagoz bestea; aldian-aldikoa bata, luzaz zulaturiko gaia bakarra bestea.

Bikoitza. gainera, iruditeriaz ere: modcrnoa bata. alegorizazioz landua, izadia pertsonalduz analogizatua eta metaforagintzaz berria; bestea, berriz, tradizio esparruko ohituran erabilia, klasikotasunean eraikia, post-erromantizismoko sentiberata-suncz hornitua.

Las Cien Mejores Poesias de Amor de la Lengua Vasca (1975) antologian, bi poema daude Santi Onaindiarenak. Eta ez dira inolaz ere baztertzeak. Honek zera erakusten digu: antologi lana dagoela egin beharra Onaindiaren olerki guztien eremuan. Eta agian autorea bera litzatekeela lan hori egin beharko lukcna, geuk bere olerkigintzaz iritzi zehatzagoa izan dezagun.

Dena dela. orduan ikusiko litzateke olerkari ikasi eta saiatu honen ekarririk aipagarriena. Orduan garbiago agertuko litzateke geuk hemcn nolerebait irudikatu duguna: estetika bat. estilo bat, testigantza liriko bat. Eta uste dugu, orain arte izan duen baino aitorpen mamitsuago bat jasoko lukeela orduan.

ARGITALPEN HONTAZ:

*KARMEL-SORTA-k aurkezten duen eclizio lioni buruz hi hitz: Ahuleginak egin cliru Aita Onaindiureii olerki-lun guztien hilduma osotzen. Eta egille beraren gururiei erantzunik, hiru suiletau hereizi du lun osou: **Goiznabar, Eguerdi tu Ilunabar.***

*Egilleak here **Goiznabar** argitciratzean egin zuen hanaketa, hala ere, aldatii egin dugu zerbait kronologi aldetik, batez ere, olerkiak noiz argitaratu ziren gogotan izanik.*

Ohargarria da, horren gain, Aita Onaindiaren poesi asko bitan eta hirutan argitara emanak izan direla; eta honek behartu gaitu nota kritikueta egin izan diren argitalpen diferenteetako herezitasunak kontuan hartzera. Hala ere, ez ditigu aintzat hartu aldakuntza ezerez batzuk, adibidez inprentako huts kaskarrak, edo eta Bizkaiko eta Gipuzkoako dialektuen arteko aditz-diferentzi ezerezak; eta abar.

Azkenik, hau ere adierazi behar dut, neronek prestatu eta argiturata dudan edizio honek lagungarri izan cluela Aita Onaindia bera, bai lanak ikuskatzen eta hai irar-utsak azterzen.

JULEN URKIZA
KARMEL aldizkariareii zuzendari

LABURDURAK

Egan	Egan. «Suplemento de literatura del Boletín de la Sociedad Vascongada de los Amigos del País». Donosti.
Euzkadi	Euzkadi. (Egunkaria). Bilbao.
E-Gogoa	Euzko-Gogoa. (Bi-illerokoa). Guatemala - Baiona.
KAegutegia	Karmen'go Amaren Egutegia. Larrea-Amorebieta.
K-Argia	Karmen'go Argia. «Karmeldar Abak argitalduten daben illeroko aldizkaria». Larrea-Amorebieta.
Karmel	Karmel. (Bi-illerokoa, Iru-illerokoa). Larrea-Zornotza,
Oleriti	Oleriti. (Iru illerokoa. Karmel-en oleriti geigarria), Larrea-Zornotza.
Pyrenaica	Pyrenaica. Anales de la Federacion Vasco-Navarra de Alpinismo. Bilbao.
PVV	«Príncipe de Viana». «Suplemento mensual de la revista, destinado al fomento del vascuence». Iruña.
Renacer	Renacer. Revista mensual del Colegio (filosofico) de Vitoria. [O. C. D.].
Yakintza	Yakintza. Revista de cultura vasca. Donostia,
Goiznabar	Aita ONAINDIA, <i>Goiznabar. Olerki bilduma</i> , 1929-1950. Bilbao, 1971. 243 orr.
Las cien	Santiago de ONAINDIA - Gregorio SAN JUAN, <i>Las cien mejores poesias de amor de La Lengua Vasca</i> . Bilbao 1975. 215 orr. <i>Bertso berri ta kanta zar</i> . 2 t. [Bilbao 1960].
Milla euskal-olerki eder	Aita ONAINDIA, <i>Milla euskal-olerki eder. Aldiz-urren aukeratuta</i> . Larrea-Amorebieta 1954. 1.199 orr.
Nere baserria	Aita ONALNDIA, <i>Nere baserria (Euskal Pcema)</i> . Bilbao 1985. 187 orr.

1929-1935

MENDIRUNTZ *

*[Neure adiskide Karmel-mendi'ri, au
Aita Rikardo Espinosa Etxebarria'ri)*

Argidiriak mendi tartetik dirdira dagi;
atsegin dira zelaiak;
eguzkiaren urregorritzko^a izpi me-meak
argitu dauz goi-aldiak.

Mendiko gentza, basoko poza eta zoruna
beti izan yataz gogoko;
baita barruan gogo bizia sortu be egin yat
arin bertara igoteko.

Ardi zuriak egiñiriko bide-zidorrez
tontor gaiñeruntz ni noia,
bere burua gora ta gora ortze urdiñaz
bat egitera lez doia.

Betik goraiño gal-zori askoz josita dira
bere lepazur zorrotzak,
bainā bein ara igon ezkeru poz-atsedenez
asetzen ditu biotzak.

Aldapan gora arrisku orok- beraturikan
igoten daunak mendia,
gero an goian, tontor gaiñean aurkituko dau
maitasunezko kabia.

* *Goiznabar*, 13 (B); *Pyrenaica* 4 (1929) 167 (A).

a B Urregoritzko.

TERESE DEUNARI *

Erri askotan maitearentzat
etxe apañak eregitea
zuzetzat bai pozgarria!
Gaur arerio amorratuak
erruki barik egin dabena
benetan negargarria...

Itxas-barnetik jagi dan ekatx
bildurgarri ta asarre au bein
ez ete da ibituko!
Uso gaixuok urruma gozoz
ala izan dedin otoizka dagoz
zeu zaituela tarteko.

Seme-alaben usotegiak
or emen asko erre ditue.
Erre begiak, malkoak!
Usotegitik usoak uxa...!
Or dabiz, Ama, nora jo gabe
abi barik gizajoak...

Ona ni bere negar-zotinka
lerro oneitan azaldu nairik
barruko atsekabea.
Esan, Terese, ekatxai: Geldi!
Ta gizartean zabalduko da
maitasuna ta bakea.

SORTZEZ GARBIA **

Gutziz Altsuak bere loradi bikaiñenetik
bidaldu euskun Maria'k,
lenengotatik artuten ditu izadiaren
aintza ta omen aundiak.

Goi-baratzeko lora ederra zaran Maria
orban bagarik sortua,
entzun egizu seme aul onek egiten dautzun
eskari samur-gozua.

Urregorritzko lañoz batuta eder zakustaz;
Euzkia zure gañeko;
ule matasak dizdiz dagitzu izarren argiz;
illargi dozu oinpeko.

Zure gorputza, larrosa antzera, lerdin guria;
zure aboa, edurra;
zure barrea, egutaizea; adatsa, barriz,
bela lez baltza, kizkurra.

* K-Argia (1931) 333.

** K-Argia (1931) 362-363,

Zorun-baratzan guraso zarrak galdu zituan
 su-labetako sugeak,
 zeru ta lurren, Ama maitea, miazten dautzuz
 amorru biziz oinpeak.

Gogo-etsaia oñaz zapaldu zendun unean
 malkoak joan zirean;
 ordutik ona gizadi-biotz guztiak dagoz
 pozez eztitan lurrean.

Gizasemien negar zotiña gozotu zendun
 Maria Neskutz garbia,
 ludiak beti goratu zaizan egingo dot nik
 alegin aundi-aundia.

Egun-sentian zoragarria agertuten da
 eguzki argi-gorria,
 baña Zu askoz ederrago ta maiteagoa
 zakustaz Miren garbia.

Abar artean surmur dagian aize bizkorrak
 omena ta aintza damotzu,
 ta lorai mosu egiñaz doian uraren otsak
 gora ta gora diotzu.

Gabean lorak, iñontz tantaz lez, bizkortu ezik
 zure maitasun goitarrak,
 nire bizitz au itoko leuke. Sortzez garbia!
 atsekabien indarrak.

Zugandik urrin, itxas nastuan noz ondatuko
 larri dabillan ontzia,
 bai-dala, egiz, Ama laztana, osoro gexo
 ta errukarri aundia.

Ama-altzoan gozaro lotan dagoan aurra
 bildur barik bizi dan lez,
 ni bere Zugaz ekaitz gogorrek adituarren
 bakez nago gau-egunez.

Zure magalpe gozo-leunean, Ama laztana,
 eztago ezen bildurrik,
 Beraz, bizitzan, Zugandik iñoz aldendu barik
 bizi gura dot gaugandik.

AMA NEKETSUA *

Gurutz ondoan ixil-ixilik
ai! negarra dagi gogoz...
Arpegia illun, Semeak legez,
begiak argige daukoz.
Begitarteko malko-errekak
nok, ai! legortuko dautsoz?

Zutunik dago, armola antzera,
abe ezearen oñetan.
Besoak zabal dakus Semea
atsekabe samiñetan
ta ezin emon aringarririk
bere neke zorrotzetan.

Ama biotzez txit laztan eban
Seme atsegin-ontzia
orra billosik, otzez dardaraz,
oñasez lepo guztia,
odolge, larriz, ai! bere biotz
maitasun-laba gorria.

Bein Betleem'go estalpetxoan
alai jaio zan Aurtxoa
ta samurkiro lo eragion
ezti-zatitxo gozoa
zauriz beterik, samiñez lertzen,
gurutzalduta gaxoa!

Orain eztauko mintzo legunik
bere ezti-iturri biziak,
ta joan yakez ezpanetako
larrosai margo gorriak...
Gorputz lerdena maskaldu dautse
osorik min-naigabiak.

Ai, ene Seme! —dirautso Amak-
Nok illundu dau argia?
Nok orriuldu Ili ederra?
Nok baltz biurtu zuria?
Nok, ai! odoldu dautsu biotza
ta nok itzali bizia?

Zelan, Gizkarbi, etxatsuz austen
biotz-barneko ariak?
Zorrotzak, ziñez, Jainko-Amaren
neke ta kezka biziak,
gurutz-alboan so egokola
izan ebazan larriak!

Ama gaxoan mindura latzak
min ilkorrak bai-dazalkez?
Zeatz minduta dauko biotza
zazpi ezpata zorrotzez;
gaxoak laster il bearko dau
onenbeste atsekabez.

Illak or emen bizira dira
obi-lokiak ausita...
Itxas apartsu negar-muzinga
ezek be poztu ezinda...
Samintasanak malko dixuri
Andrea alan ikusita.

Ama mindua! Naigabedunen
poza dira zure miñak;
ondo dakizuz zauritu orrek
neke zorrotzen zadorrak,
gozatu, arren, bizitz bideko
biotz-naigabe gogorak.

Andra larria! Neke latz ori
zerbait nai dautsut arindu.
Begira, Ama; auspaz jarrita
gurutz-oñean naukazu:
bazitz osoan Zeugaz batera
negar dagidala indazu.

ARRENA *

*{Jeremi igarleak, bere aberria erbes-
tetarren menpean ikusirik, biotz-jota,
egiñiko illeta eresia).*

Oroi, arren, Jaun altsu, gugaz jazo dana;
begira, otoi, lkus gure irain-gerena.

Iñoren eskumende gure onibarrak,
gure etxe-ondoan jaun be atzerritarrak.

Aitarik ez, ta umezurtz aul egiñik, itun;
sor ginduezan amak, baltz jantzita alargun.

Txindiz erosiko ura gaixuok dedagu;
su-egurra be erosi bearra daukagu.

Samak ariz lotuta baldan garabillez;
lanez abailduentzat egotarorik ez.

Aigito-siritarrai ogi deskatsegu,
gose-asperra zerbait aseko ba'dogu.

Oben egin ebenak il ziran asabak;
geuk darguz, barriz, aren uts-ordain zigorrak.

Mendeko zireanak jaube biur jakuz;
euren loki-biurrak nok ausiko daukuz?

Jakia bizi-zoriz eskuratzen dogu,
lekarora be gezi^a jarraika yatorku.

Laba gorian letxe, gosete-ekaitz izuak
kiskal^b daukuz biurtu soiñeko narruak.

Sion'go emakumak indarrez loituak,
Juda-errietako neskutsak galduak.

Nagusiak dingiliz ipiñi ebezan,
zarrakaz lotsarik ez eben iñon izan.

* *Goinabar*, 61-63 (B); *K-Argia* (1933) 103-104 (A).

a gezi A gezna; b kiskal A kistal; e laguntzarik A lagungarri; d suminkor A suminkari.

Lizunki erabili ebezan gaztiak,
zigorrez odolustu mutiko txikiak.

Orain ez dager zarrik ate ondoetan,
gazte talderik bere ez eres-tokietan.

Biotz-alaia yaku negu-laiñoz jarri,
baita dantza-lekua zurbil, negargarri.

Gain geukan burestuna oiñetara yaku.
Ai!, oben egin gendun! Errukarriak gu!

Orretzek illun gure biotz pozkabiak,
orrexek dauskuz lanbroz lausotu begiak.

Ondaturikan datza Sion'go mendia,
ta non-nai dakusku azeri-usia,

Zuk, baiña, Jainko altsu, dirauzu betikoz;
zure bakal-aulkia zutik aldi oroz.

Zer dala-ta, gaixuok aitzu gozuz, Jauna?
Luzaro gu ete zure laguntzarik^c baga?

Itzul, Jaun on, gugana, ta gu Zurenera;
aspaldiko egunak betorkuz ostera.

Zuk, baiña, betiko lez gaituzu egotzi;
zuminkor^d jarri zara gure kaltez, Urtzi.

LOREIL! *

Loreil, maite aro,
min-soroski samur;
biotz ondoan kosk
dagikan il, agur!

Oro bizi barri,
Bedats gazte, lerden;
an, mailluki margo,
urdin-jantzi, emen.

Igan oro eder,
naigabe itzalik ez:
zugazpe guztiak
osasun gerizez³.

Polito, bidazti,
landan zear abil;
ez, arren, oinpean
ainbat bizi-leka il.

* *Goiznabar*, 26-27 (B); *K-Argia* (1933) 134 (A).

a gerizez .4 gerizpez; *b* egiak *A* egiok; *c* *Iduriz A* urrean.

Aizeñok orritzan,
iraulka egoak,
maite miñez dagiz
zinkurin gozoak.

Basoan irea,
sagarrek igaliz,
gari saillik ainbat
mototsak agiriz.

Goia dana urrezko
txoriak txintaka;
lizarpeko iturri,
ozen, txirristoska.

Irrikoi zelaiak,
egiak^b orlegi...
Ernera barrien
oe da mintegi.

Lili eztegeak
leiz alkar mosuka,
uribilli antzo
maiteak abeska.

Usain-kutxan darre
izarren malko, intza;
ta oski zuriz, gain,
dabilkie gentza.

Larra-mao leunak
goi-bide ertzetan,
aurtxoak iduri,
maitekor izketan.

Iduriz,^c ez dabe
amets urril ori...
Baiña, at nigandik be
gogai biur ori.

Loreil, maite aro
min-soroski samur;
biotz ondoan kosk
dagikan il, agur!

MAITASUN-AIOTSAK *

Opal-maiko eun ostean didarka gizonari
maite zotiñak darioz Jaunaren biotzari,
Izadi ertz bakoaren Irazaille gurena
ta eguzkiz goiko urdiña eder jazten dabena
biotz garbi eske dago opal-maian oiuka;
ni, barriz, eskar gaiztoko, beragandik igeska.
Baitegi illunean soillik, eztau iñor be lagun,
eta bakartasun artan deadar dagist itun:
«Iges, ene seme? Nora ta zegaitik, laztan^a?
Zorion-iturria uka? A! Erdu neugana.
Ekarstazu maitasuna ta ordaiñez damotzut

* *Goiznabar*, 64-65 (H); *K-Argia* (1933) 169 (A).

a laztan *A* laztana.

bizitz-sorguko ur gardena; eztiz aseko zaitut.
 Atsedean egarriz zetan urrats nigandik urrun
 ezek ase gabe aldi oro ba-dirauzu illun?
 Alaitasun-lora billa zoaz noski mendira?
 Muñoko lili pitxiak arantzazkoak dira.
 Aintza-jaurgotik maitasun utsez jatsi nintzean
 zeugan biotz ona euko nebalako ustean.

Gentz ta bizitz bera nozu. Lurrak eztamo ezer.
 Deskiñan bake-aroa iñondik bai al dager?
 Erdu arin ona, seme; zeure maitetasuna
 da baitegi bakarrean egunoro naukana.
 Ertzik eztau maitasunak. Sua dot biotzean;
 Sar berton, ta ez izotzik izan gogo barnean.
 Zu nigan eta ni zukan loki leunez batuta,
 biotz-muñeak arrago gorian kiskalduta,
 bat izango gara biok maitasunan altzoan.
 Maitasuna dan gozoa! Erdu ona beingoan»,

Eta nik, maitasun-aiots samurrok adi arren,
 askok lez, ez entzun egin, basatzen ibiltarren?
 Ez, Josu, Zeugana nator; zeutzat nire biotza.
 Nigaz nai dozuna egin; urtu gogoko izotza.

USOA EGAZKA *

Norantza, usotxo eder,
 ego zuriskaduna,
 ortze izpitsu zear,
 odeiz gora dabillen
 arranua bai zintzan,
 egalari azkar?

Laiñoak urraturik,
 gotzonen besoetan
 oso ameslari,
 donien biztokira
 zoragarri digozu,
 gizonen pozkari.

Goi-aintzak zoratuta,
 zerurantz artu dozu
 gorazkai leunean.
 Ats likitsa darion
 lurbira zuretzako
 ez izan urrean.

Eregi, goi-indarrak
 goi-beko Andera da-ta,
 zeruko atear,
 Josi goiak abestiz,
 ereskin-txindi gozoz
 donoki atear^a.

* *Goiznabar*, 71-72 (B); *K-Argia* (1933) 278 (A),

o atear A aldeak; b emaro A enaro; c Ez A Ta.

Leku, gogo goitarrak;
Jainkoaren Ama baita
eder bikaiñena,
izar-buruntzaz bekoki,
lerden, nagusikiro,
datorkizuena.

Baiña, usotxo, zu gora
eta ludikuok zer
zure iduri gabe?
Zu urrinduz gero, ene!
illun lezaratuta,
argirik eztabe.

Bizitz-mendiak barna
eskar-apurrak an-or
sasitzan galduta,
bide ez-ezaun biurriz
gaixo uts-utsok nora jo
Zuk lagunge itxita?

Ez; itxaro-argiak
dizdiz begi emaro^b,
eguzkik lez goizez:
Miren, uso goi-zale,
amatxo amultsu dot,
maite nau biotzez.

Ez^c, oi!, ezta amarik bein
semeagaz aiztu;
Miren'ek be eztausku iñoiz
maiterik ukatu.

GEZIZ ZAURITUA *

«O caritatis victima! »
(Hymn. of. S. Teresiae)

Oi maitasun! Jainko, su, onaren iturri,
ekaitz osteko ostadar, ametsen joan-irri,
bizitz olerkiaren lenengo neurtitza,
zu gabe osin illun litzake sortitza.
Garra biztu oi dozu barrenge muiñean,
ta irri leunak loratu ezpanen gaiñean.

Ja z o a

I

Laiño gardenpean
zerbait egazka...
Ni, txepel antzera,
berari soka.

Urtzi'k bidalia,
zerutarra antzez;
suduna dirudi
gorputz egalez.

* *Goiznabar*, 73-74; K-Argia (1933) 294.

Izpiko estuntza
dakar buruan,
eguzkiak letxe
goiz alaitsuan.

Arpegiz irrikoi,
makoa eskuz,
bera dagi egaz
goia zeartuz.

II

Gelatxo zuria;
Terese bertan,
Jaunari biotzez
otoitz-izketan,

Terese'i bularra
dautso zauritu
ta sutzar bizia
barruan piztu.

Sudunak leiotik
oiu dagitsa;
batez, geziaren
durundu otsa.

Maitasun izpiak
gar orren sukini;
ez da, beraz, ilgo
sutzar orrekin.

Azken-aldia

Morgoi zuridun liliak naro
jαιοak dira baratz jorian;
ezti darion maite-sorburu
bol-bol asi da biotz-mamian.

BERE ERESKIN-EKAIK

*(193 3'an, Iparragirre'ren omenez
egiñiko Olerti jaira bialdua)*

Goizaro atsegintsu. Bere mende, alai,
mendi-maldan nenbiUan ardi zurik zaintzen;
latziñak garo-pitxiz, egari ipar leuna,
zorionak altzoan samur nindun artzen,

Laba gori bai-litzan, sutan itxasoa...
Laster dau euzki jaunak ortz-sabaia gaindu;
bere kskuak bai-dau erregarri,
ises zoroan duaz iratxo ta kandu.

* *Goiznabar*, 29-32 (C); *Renacer* (1934, apirila) 17-19 (B); *Euzko olerkiak*, ([Donostia] 1933) IV. 50-54 (A).

Giro ameskor artan gozaro nigarzan
biozkada bigunak, barren-suz jaiোক;
argiz begi-niniak itsu bearrean,
egaz yoakidazan ames-usotxoak.

Basoaren ederra nedan atsegifiez...
Bertatik, ekantz barri, ta argi-izpi artean,
begitartera yatan arobi liraña
masusta gorri, ote, larren babesean.

Aizeño oi-u-zaleak ereskitz etozan,
arobiz barru norbait ba-zegon abesk;
oin-ixil, belarriak adi, ara nintzan,
barrendan jarriz bere zinkurin-entzule.

• * *

«Gaunn magala —iñoan— egunan sort-oe;
agur, Izar, neure lo-zaindari bigunak,
agur, Illargi eder, gautarren soroski;
betor argia naro, ma begist egunak,

Len berun izadia, orain odolezko,
Su-zirrara datorkit begietaraño,
jaiez itxaso, leraz dospa euzki-sortze;
gorriak dagoz gaiñak osertz-barneraño.

Oi goi-maitagar! , zakidaz arnas-emoille;
urre-amesez orni nire irudimena,
maitari-lora pitxiz biotz nekatua;
gaur, ire garra bekit argirik onena.

Itzat, cuzko Aberri, olerki liliak,
ari-ereskin joriz gotuts-jardunean
gora dagidan ire semeen izena
abesmiña sor yat, ba, biotz-mamiñean.

Igandik^a at luzaro emon dot aldia
begietan negarra, biotz-ortzi añuz;
beti gain ebilkidan oroi-itzalen
zauria ezin azal yonat ereskin-soiñuz.

Amesezko uri zear, erbestetu lokiz,
gaxo ta kupigarri nozu ibillia;
zelai, baratz, itxaso ta uriak ikusiz
irato yatan ia edermin bizia.

Baiña i baizen ederrik, begiko Aberri,
ezton uri alairik, ezton ludin ezer;
biotzeko loratzen maitasun laztanez
goiz baten sortua az i, Izar aratz eder!

Ire sabela, Kutun, ezton antzua izan:
goi urdin uri zear euzkoen usiak
edonon aurki dodaz, oroigailu iduri,
izki atzin-eziñez an-or idatziak.

Oi, ene Euskalerra, bitxi kutsugea,
urrindik natorkizu, eresiz biotza;
mendi ontan didorot atsegin-abaro,
i az asaba zarren endaren baratza.

An, urrin dagerkidaz, argi-eun mez gaiñak,
Aralar eta Aizkorri menditzar maiteak,
Anboto sorgin-bilgo, Gorbei adats legor,
euzko seme leialen siñes-jaboleak.

Oraindik urriñago, laiño zuripean
Zugatz donea dakust, irudi indarrez;
bere adar ezeak ta aiten biltokiak
oro beteta dira gomutaki zarrez.

Ibar-zabaleran eta mendiño ertzetan
Maitagarriak daben antzez banatuak,
giro armiñez ardik abaroan letxe,
or-emenka dakustaz euzko etxetuak.

Baso-egiak alai, urdiñez zelaiak,
larrak lurrun-jario, kanduz be-aldeak,
eguzki-estaiz gaiña, lilluragarrero,
ba-dozue zek ase gaur, ene asmenak.

Zer jazoten ete yat? Zek goibel jarri nau?...
Barruan sortu yataz taupada minuak.
Sakon^b alderantz erdel nrntzoera dantzut;
aizean egoetan ereski galduak...

Zer da nik dantzudana? Uri buruetan,
(antxiñatik nazauan) erdera nagosi,
baiña urrin-leku ontan be iturri ondoak
gure mintzoaren etsai atzerri-elez josi?

Ai, ene euzkotarrak, gaizkiñak zarie!
Euskera ama gozoa ainbeste iraindu?
Soiñeko zarpillekaz menditara jaurtiz
zeuen biotz-beroa Amari ukatu! ...

Oiarrez dabil gaxo, alargun antzera,
«euskarriztat dabela besoan erio»;
samintasun zomorrok erraietan ozka,
ta adur txarreko belak urruma dagio.

Baiña ar artea, ene biotz, ez illundu.
Ara argiak dizdiz itxaso ertzean:
Berbizkunde egunaren jaiotza alaia;
ez zurbildu, biotza, pozaren jaiean.

Susper, arren, euzkotar lo-lezaratuok.
Illundi ortatik urten beingoz argitara.
Bularra azkar, biotza maitasun alez
so guztiok irrikoi, garaitz egunera.

Zorion-izarragan begiak ezarri,
adi ortzira, gora biotz ta gogo!
Giro oroz bego loran anai-maitetasuna
ta ezpanetan beti geure mintzo gozo».

* * *

Amaira zan; eztantzut eresik geiago.
Barrun ixil-unea, ezeren ots бага;
zelai-gentzak, batez, gain-oial mea eda
ta ames eztitan, senik bako, eban laga.

Ordun neuk be barren norbait abeslari;
ozen, txindor-txinta lez, egistan durundu.
Olerkari leunaren intzira gozoak,
lei aberkoiak jori eustazan loratu.

Abes-aldi txoriak baso-gerizean,
eztiro dagi urak lats-arruan marmar;
ni, barriz, gaillur zear, oldozkor, amesti...
euskera, ele gozo, eztarian dardar.

ABEAN *

Oldozti, gogo-batu, argitasun miñez,
bizitz-ibai ondolik nenbillan goiz batez
illunabar antzeko izpi me artean
Abea agiri yatan goiko kukutzean.

Ikus-leiz ara nintzan; eta an dakustana!
Lore leitua irudi, zail, tximur soin dana,
Josu, ludi eguzki, Abean zintzilik;
miñen gozagarri dan Eguzkia itzalik.

—Nok zaitu, Argi zorakor, apain odol-izpiz?
Nok zugaitzean josi? —dirautsot errukiz.
—Maitasunak, enetxo, jarri nau onelan:
bere suzko geziak naukee Abe ontan.

Betoz maiteminduak (gero oiuegian)
uda-itzala baita bere adarpian;
artu zugaitz ontatik igali marduak,
neure biotz barneko su goriz elduak.

Zitu maitez umook sarri miztu dodaz,
ta azalez gorri, gozo mamiñez daurkidaz.
Abcak, arantzak dauz; baiña emariak
giz-ao-sabaiari pakoza guriak!

EGAZKADAK **

F.txe ganean
kee mordoia;
geldiro, baiña,
sorantza doa.

Sorgiñak begiz
egin aurrari,
ta an doakio
beingoz amari.

* *Go'znabar*, 67; K-Argia (1934) 81.

** *Goiznabar*, 56; K-Argia (1934) 270.

Errekatxoa
gutziz marmarti;
bein baten yaku
egin itxasti.

Aizea ausirik,
azkar egazka
dakust arrano
urdiña naika,

Gogo zindoak,
ala ta ustetsu,
egaz dagie
Zugana, Josu.

Oi, ene Maite!
gezi bai litza,
Zugana doa
nire biotza.

IL INTZAN *

*{Anboto gaiñetik jausita (1928-VI-21)
il zan neure anaiaren gomutaz}*

II intzan, il intzan i bere,
ene anaitxo maitena;
ta barruan bai dot josita
zoritxar orren eztena.

Ots gaur ik, ereskin negarti;
poztuna ixo, euk otsaldi.

Goiz batez, alai, jolastean
erriok atza ezarri;
ta erbia lakioan lez,
orra, iltzer, aika, larri.

Azkenik... il intzan, il, gaixo!
Errukiz dozak arkaitzak,
txori ozenak txintaz ixil,
oiñaz dardarra zugatzak.

Ezbear ori jakitean,
amaren suzko negarra...
ta ire anai zorige onen
biotz estanda bearra...!

Gabaz, ostera, gora adi nik;
—izarra dakit pozgarri—
ortxe, ire atsegin isla,
ortzian, dakusat sarri.

II intzan, il intzan, maiteño...
Agur!, gu be orra artiño.

ONTZISKA TA EKAITZA *

Oi ontziska gaixo, i bai errukarri!
Zer dagik itxaso suminduan larri?

Nora au, intxaur-oskol urez arraunketan?
Ugarte illezkorraz ari amesetan?

Ala, adu itxastarrak urruti bilduma
ta bertara i be dei, zorakor urruma?

Garden-zale, iduriz, az, ene ontzi; baiña ur
dabilkik ekaitza, arerio makur.

Ekaitz-erraiak dir o:ñaztarriz^a izor,
burrumba cstotsak odei-ganez sarkor.

Irakin diraki ur-zelai gordiñak;
zurbil jarri dira lengo margo urdiñak.

I barriz aurrera, ur-galdorrak magal,
uiñen laztan-zale, estalkiak zabal.

Azatz gazi zear ekaitzaren mende...!
Erruki damostak, itxasontzi txume.

Zabuka, zinkuriz, ondatu zorian,
izu-larri abil uiñen bizkarrian.

Gain dok ur-mendia, gaiztozko zirimol;
ik barriz intzira; baiña garaille, isol.

Or yatork nasian itxaski zakarra;
pot^b-egiñik, ene! , iku dok ondarra.

An... laster gaiñik gain, barriz igerian,
apar zuri 'oarna itxas osiñian.

Uin-sabelak yoek suleza indarra;
il: baiña gaintzeko bunr'zko bularra.

Oi, ontziska gaixo! Jo lenbailen kaira;
urngeak azkar, egik ondartzara.

* *Go':~nabar.* 40-41 (B); *Yakintza* (1934) 335-336 (A>.

~ oiñaz'arriz A oiñastarri; b pot A po,

Eunak aize mende, kai bidean ekin;
 ekaitza igesteko alegiñak egin,
 Ez yak, noski, eder ondartza barruti,
 erason orregaz osoan berezi?
 Ator, maite: aier au aspaldiz kaiak;
 itzat naro yozak ur oztin garbiak.

SARATSA TA ITXAROPENA

Eleizara^a begira zelai deuna, il-iri;
 negar-iturri, bertan saratsa^b dagiri:
 adar gailliak bera,
 uluak ortzera.

Illen biztokitik^h at,
 gero ta miñago,
 karnaba' oiñazdun bat
 txintaketan^j dago.

Itxitax^c aldarri baten gaillur gaenean^d.
 Ixillik, urrats-labur, illetari talde;
 samin-gezi lakatza^e ozka biozpean,
 kutunak ikustera doa iltegiralde.
 Aizeño lora gaiñez,
 laban jostalari,
 lerazko zinkuriñez
 dabil gogaikarri.

Lili zaillak, or emen, bisutsak^k leituta;
 erio-egd otsa soillik da^l nabari,
 ara ixil-loan mende: abe, arri-meta;
 ba-dogu^m orraitino, norbait egalari.
 Biotz-senak ba-igarrenⁿ
 zerbait ezti zana:
 Itxaropen leunaren
 goitiko lastana.

Obi asko dakustaz saillez^f ta zearka;
 ona, ikusle, txiro bat, apaiñik bakoa,
 ama bere aurrean, ler-zori, otoika...
 Oarge^K, matrail bera, datorko malkoa.

Joranez itxasori mosuka eguzki...
 Arratsa dil geldiro: gauak bear toki...
 Ezkillak zaratoska,
 il-eresi joka...

OTOIA **

*(Lenengoz eskiñi neban Jauparen
 oroiz: 1934-VII-8).*

Ur zabilkidaz, Maite, adiskide zintzo,
 gorputzez ur-ur, gogoz oraindik urrago;
 bion maitasun lera, laba gori antzo,
 ditzira jarioka, garretan baitago,

* *Goiznabar*, 43-44 (C); *Yakintza* (1934) 408 (B); *Renacer* (1934, otsaila) 16 (A).

a Elizara *A* Txadonari; *b* saratsa *A* nekosta; *c* Itxitax *AB* Itxitax; *d* gaillur goenean *A* jualetagian; *e* lakatza *A* lakarra; *f* saillez *A* lerro; *g* Oarge *A* Igarle; *h* biztokitik *A* erriz; *i* karnaba *A* karnaba *B* karnak; *j* trintaketan *A* abesean; *fc* bisutzak *A* iparrak; *l* da *A* zan; *m* ba-dogu *A* an bai-zan; *n* Biotz-senak bai-igarren *A* Biotzak ba zigarren,

** *Goiznabar*, 57-58 (B); *K-Argia* (1934) 294-295 (A).

Laztankoi' nozu deitu, ona ni Zuri so;
entzuna dot aspaldi zure aots leuna
maitezko mintzo gozo, eztidun euria;
barnera ots eistazun, eskiñiz zoruna.

Ar lurkoia bait-naz, nitzat esker larregi;
baiña Zuk, ariz ta ariz, dei nozun ezkeru,
gakiozan alkarri, egundo urrintzake:
aopeko izketaldi daukagun unero.

Zutzaz maite mindua netzan illargitan,
zure irritsez, Maiteño, ibil naz ona-ara:
aria idorotean bakar tximisteak
atsedena artzen^a dau bere aisiara.

Zeure jauretcko otsein saillera ekarri
eta esku ezartzez almendun ein nozu,
orio donetsiagaz igurtziz batera;
ta... esker-zor au, zelan neinke nik ordaindu?

Emen naukazu, goizero, ondian dardarti;
aragi begiz dakust irudia soilki,
baiña, egi uts-utsa, ortxe zagoz, Jaun on,
soiñez ta gogoz, eta zaitut ene jaki.

Edontzian ardoa dakuse zentzunak,
siñisimenak, itz ostez, Kristo'ren odola:
ogia egizko soin liparrez biurtu,
ardaoa berebat, odol. Itzen ala!

Sar, goizez, ene barrura, Jaun, ta laztan sutsuz
nire biotz-zirrara oro biur lili;
ludi-aize likitsak ezpei iñoiz ezain
lore onen aratza; bego garden beti.

Ementxe, Jauna, zeure baratz jator ontan,
arri zu!oan egin dot neure abia;
urretxindorrarena gau-aldera beste
atsegarri bekizu nire oiua mia.

Zuri, untza iduri, gogor itsatsia,
maite elez jarduka, eztizko euritan;
alkarregan biotzok dagien pilpira
errez adi daigun, ots oro at, utikan.

Ezpei gure maite ixil barri iñok bere izan:
Zeugaz bat, Maite, aldi oro bizi nadin
ikatza ta sua baizen alkar, estu;
enaite atetiko ezertxoren jakin min.

Zutzat, Josu on, nire biozkada oro,
eresi oro itzuli beite ene barnean;
su kiskalgarri bego bion maitasuna,
be-lokiak ausirik, gorantz jo artean.

KARMEL'GO ARTIZARRA *

Bizitza-itxaso, itxaso urduri,
ik azala zarri apar ta zuri!
Ire sabel-gañez arraun ninioan
gau lañotsu baten; argi bigunik
ez, barnera poza lekarskidanik.

Zumezko ontzi barrun itxaso zear...
Naita arraunlari on, ondrea bear.
Uin-mendiak biur saka ninduan;
ontzitxo yatala lertu nik uste.
Ak, ostera, yasan indar ainbeste;
baña azpira aurretik kaia daurkidan.

Eta itxas-ertzerantz abia nintzan.
Pozik biotz-barne. Dird'r bai-neukan
illunbe-kolkoan argizko gezi;
arresiz bildua itxas-adarra.
ongille barruan goi artizarra,
izpitan eguzki adiña yori.

Zearka, lema-zain, zerbait ibilliz,
zurezko atea, ots, jo nik begiz.
Goiz-iñitarreko diztira-antzo
izpiak destaña ate-begitik.
Dei uste osoz, zan beste zabalik.
Barrukoak ondo-etorri-zantzo.

Legun batelari arrauz eragin
ta ur leiar-manean murgildu nadin;
lenik, baña, txautu ontzi txikia,
apar-litsez izor bai-baitaroat;
dagiodan usu garbiketa bat,
orban eztagidan aintzira mia.

Barrun Artizarra, aurrez, begira;
erasonez ate dago aintzira.
Oi, ene poz andi! Gezal barea!
Eztizko barruti bai-dot idoro;
oin zidar, urre gero; leun azal oro.
Ikusiz, pilpilka biotz enea!

Arrera on: danak nabe besarka;
onek buru-makur, ak esku-munka:
Ba-dabe niretzat itz onik naiko.
Ozen eztarriak gero durundu;
alkarren leiean, gogoz dabesgu
Artizarran deduz eresi gozo.

Neroianan ordez oialezko ontzi;
tint lirain onek bai uretan yauzi!
Leiar-gañez dagit arraun poliki,
Irxasarte otzan, leku sorgiña,
atsegarri dakit ire oztiña:
Enbat naspilduak ez igan toki.

* Renacer (1934, azaroa) 7-8.

Nok iraun, Lur uxu, bame-gozotan?
 Zelan aurki gentza ire menditan?
 Poz bau-naz, u'J ire zorion oro:
 Ume-amesaren sorkunde utsala,
 igesai dakion arrats-itzala.
 Ona nik varrugi maite-abaro.

GAZTARO

Bizitz-mailladian ba-da gelune bat
 gizonok errotsu maitatzen doguna;
 gaztaro sorgiña, goitiko altxorra,
 esker jarioka barre dagiskuna.

Baiña oar, Gazte; ikuskezu ondo:
 len loran egoan sagasti mardula
 orra ainbarik orain; itunean datza,
 soil, igar, biziġe, il-zapi gain daula.

Gorbei ez daukagu beti txapel zuri
 ezta Eretza be odei-moltzo arrez.
 Aro ori laburra dok, iraitzekoa;
 zerbait atsedendu, ta jarrai bearrez,

Baiña ik, kaskarin lez ergel, eugan da-
 «Poz-aro yoagu, betor atsegiña; [gik:
 irrirts-ala, josta-ardoa dedagun,
 azkeak gaitzean oian-sai adiña».

Ta besteratuko aun erio-untzi
 nundikan dabillen bai al dakik, gero?
 Ara: gaur, lurruna-bide, bizkor gabiz;
 ainbeste ostera yagizak unero.

Ardurage ori, abil bildurpean.
 Untzi gaizkor ori el oi dok ixiltsu,
 ebasle gisan, ta txisturik jotzeka.
 Bide-zorroa gert ez-ta, dei ba'zaitu?

Zorro-gertokia ba-dogu arean;
 masti beti jator, —Eleiza kistarra—.
 An sar ta gabiltzan, naitara dastatuz
 aienen odola, —jainkozko eskarra—.

LARROSA LEGOR **

Ene biotz edermin, goazen atera
 egarri bizi au pizkat arintzera.

* *Goiznabar*, 45-46; *Eusko olerkiak*, 1934, V. (Arturo *Campion*, *Elesti-Literatura*),
 Donostia 1935, 165; *Yakintza* (1935, [III]) 20.

** *Goiznabar*, 47-49 (B); *Yakintza* (1935) 99-100 (A).

Negu buru soil ta arnas otza joan da-ta,
gabiltzan landara aize billa eta arbazta.

Zelaien loratzea! Oro erne-naia:
Izadi amandrerren berbizte garaia.

Dana bizona barri. Lurraren antzalda!
Negu'k illik eukana barriro biztu da.

Baratza daukot aurrez; sar nadin bertara;
ta i, biotz edermiña, lasa adi naitara.

Eguzki adar gori —intz zelai zalea—
gesal-oia laga ta goiztik da jagia.

Maite mizkerietan diardu baratzan,
aren lagun, oldozkor, ni bere loratzen.

Baratz oni eun esker, ain dozu beratza!,
ederkun egarriz ez yat ilgo biotza.

Gari-azi soloan egotzia iduri,
barrun dabilkit norbait jaio naita urduri.

Biotz semeak dozuz, barruko taupadak,
jauzkan eguzkitara urten nai leukenak.

Gora doa, lurra urratuz, sorgin-ira kimu;
an, bigura be pikor zurizkaz daukagu.

Bizitza danok eder uda el-garaiez,
ta, bai baratz bai biotz, oro erne gurez.

Lilitegia bai dot bitaiz ornidua!
Dana lore, pipilla, adar apaindua.

Ikus-ala landare ta loratan oro:
akara ta larrosa, zangorri ta mao.

Ak gorri kukulua, onek buru zuri,
ezti darioela danak txau ta guri.

Gau-izarren antzean, daukadaz dizdizka,
aizek ikutzekoan polito zabuka.

Toki zorakor zear ara-ona ibilki,
larrosandoa abar zut ederrez dot aurki.

Aize-begira datza, arduraz zaindurik,
baiña larrosa бага, loreil-erdi izanik.

Ezin etsian nago, larrosoño gazte!
Abar zut, ta lorarik ez; legorra ete?

Ur dabil lora jorran gizon bat zaintsua,
bein gogait egiteke lanari lotua,

Esaidazu, baratzain, jakingura ots nik,
lora aroan gara, ta au^a zelan bape barik?

—Bai, lora aro da; baiña, naita ondo landu,
larrosarik ez dakar; legorra baitozu.

Orri ezez jantzia, ta antzu! Bat-batean,
Kristo'ren pikondoa senak emon eustan,

Madari-ondoan, zardiña izan arren,
alerik ez ba'dakar, aizkora ezartzen.

Areitz enbor igarra mendian zertako?
Etxaldera dakarre, narraz, sutarako,

Listor illik ikusi ete erlauntz atean?
Or nagien zoria. Jarduizu lanean.

Betaz aratu begi nork bere burua,
ta alegi ontan, bekus, ete dan sartua.

BEGI-URDIN *

Ba-dot aurtxo eder bat
ezti utsa dana;
lo dagoanean, ixil,
dagiót laztana.

Begi bi dauz urdiñak,
lilluragarriak;
ainbat argi eztauka
goiko eguzkiak.

Arraskorri sorgiña
dauko bekokian,
mao bi ezpanetan,
urreea uledian.

Garitzan pospoliñak
eder dau abesa;
nik aren begietan
dot ene amesa,

Euzkirik euzkien yat
aur begi-oztin au;
ortzipean beñik-bein
antzekorik eztau.

Zeru dakust beragan,
zorunez betia;
begiratzuz ase daust
edermin bizia.

a au A an.

* *Goiznabar*, 65-66; K-Argia (1935) 30; Euzkadi 23 (1935, 7.159.zenb.) 30.

Bizitz-bidean aurki
ba'dot kulumio,
lagun eske berari
laster noakio.

Oiñaze-geriza gain
dabilkidanean,
argi-ontzi oberik
eztazaut lurrean.

Zer dakardan aspaldi
barruan eztakit,
baiña biotz gose au
agana doakit.

Zer dot...? Au aldakuntza!
Zerbait dakit peitu.
Oi Josu, begi-urdirin,
zer daustazu ostu?

Eiztari trebe, azkona
daust artez egotzi,
ta biotz-mamiñean
zorrozkiro josi.

Neure biotzan jabe
bera dot geroztik:
Bizi nadin erroak
maitean egiñik.

EZTI UTSA *

Miren! Izen ezti uts, oierki iturri;
jainkozko mosu baten gizaz jantzi antza.
Nok, bear aiña, zure izena goretsi?
Zure Ama-biotzan samurtasuna aintza?

Eder sortu-ezaren iduri argia,
gaixoaren itxaro, maitasun eredu;
gogoz Jainkoantzat gai, soñez ozkarbia,
betikoa ezkeru, Zeu ederren zaitugu.

Itzalpe atsegiña, Ama biotz-bera,
sarriru entzun oi nik zure eztidun mintzo;
ots dagistazu bigun barrengo muiñera,
goiz-arora dabesan urretxindor antzo.

Begi-lauso, gogo-min, elorritz biotza,
ludi-itxasoz ibil naz izu-lauorrian;
zure kaia, atzenez, iku, Izar aratza;
ankilla dot egotzi ditxo bare-mian.

Maite-altxor aurki dot magal ezti ontan,
poz-untzi ertzik bako, samin-aringarri;
ta, zurea izan naiez, naukazu miñetan.
Zakidaz aldi oro Ama maitagarri.

* *Goiznabar*, 67-68; K-Argia (1935) 187; Euzkadi 23 (1935, 7.058. zenb.) 10.

LO, JOSU!

Nazaret bide egaleko
bedar gaiñean kuku,
gari-buruen otsera,
lo dago Aurtxo Josu,

Aizetxoa, lapur antzo
mendiska ertzez dabil;
txoriak, izpi-euritan,
iñolaz ezin ixil.

Kirkillak, maite minduta,
—neskatx taldea iduri—
zotal-jauregi atadian
daukaz kantaka, urduri.

Aize, otoi, ez itxartu
Aurtxo begi oztiña.
Bekaitzez legokez lorak!
Odei ene atsegiña!

Laga, Iaga, geidi Iotan
bide gaiñean kuku;
gari-buruen otsera
Io, apatz, ene Josu.

LORARIK ZURIENA *"

Ene Ama: almenen egon eziña!
Zuregan biotzak naiko atsegiña:
argi-ariz urrun doakit adiña:
kanta-zale nozu, azka ene miñña.

Giza-biotzetan maitasun sugarra,
eguzki egunez ta gabaz izarra,
zelatan lorea sor daroan Urtzi
zeuk ekarri zendun, urre zurizko untzi.

Ozkorria bera bekokin dozula,
goizeko larrosa baizen zut-mardula,
oltzaren erdian ederra zakustaz:
nire eder-miñaren asea zakidaz.

Izaki gaixoen poz ta gorde-Ieku,
biotza dardaraz oiuka naukazu:
zure kerizpera nator uste osoz,
estali nagizu errukizko egoz,

Errugea zara, oi Ama samurra!
Sortzetik erruge, zuritan edurra
laiñorik bako ortzi garbi ta oztiña,
aingeru-begiak beste eder ta urdiña.

Urratu ezkerro maitasun-katea
batez jalki oi da urrezko alea,^a
ta urre-ale gaiñez gora doa gogo
zure magalpeko itzal gozoraiño.

Zure jantziaren gorrian dirdaika,
izarren antzera, liliak eundaka;
kutsu bage, aratz, eder, txukun guztiz,
usañña dixurzu larrosena ibilliz.

Bidea galduak eder dau^b argia,
nik zuregan daukit itxaro ezta.
Bizitz-itxasoan uññak arro zabaltzen?
Laztan amakorrez nozu ingurutzen.

* *Goiznabar*, 68-69; K-Argia (1935) 268.

** *Goiznabar*, 69-70 (B); K-Argia (1935) 301 (A).

o alea A elez; b dau A dan,

Oi zeru-Erreg:ñ, Amatxo gozoa,
 bost orri jaso ta zuridun maoa;
 atsegin-jauregi, eskarren jatorri,
 oiñazien azkai, gaitzen gozarri.

Barnean dabilkit Zureganako sua;
 gaur, beintzat, edolan be entzun nagizu:
 itun-itxas ontan zakidaz izarra,
 etsaiak goitzeko egidazu indarra.

Ume zurtzen Ama, otoi gaur biotzak:
 garbi, arren, niri gogoko lausoak.
 Maite ba'zindudaz zor yatzun erara!
 Ordun bai nengcke pozetan gogora!

GOIZA BA-DATOR

Goiza ba-dator,
 aundi ta pozkor!

Goiza ba-dator,
 aundi ta pozkor!

Zeru baltzizka goian
 gorriz da bitxitu,
 eguzkiak dizdizka
 darabil erraifiu.

Eguzki erraiñuak
 bedarrean argi;
 aur setati antzera
 intzak negar dagi,

Lugiña baserrian
 —soloak irrika—
 kortako idi bizkorrai
 ikus zoli deika.

Kanta itzez zamatu da
 Maite'ren abotsa,
 erne-miñetan daula
 barnean biotza.

Goiza ba-dator,
 aundi ta pozkor!

Goiza ba-dator,
 aundi ta pozkor!

Zugatz-puntak aizeak
 ipiñi dauz dardar,
 ta txori-sail ixilla
 asia da barbar.

Txori-argien lagun,
 poz-oiu betean,
 zoaz, neskatx, solora
 eguna argitzean.

Ezpane an irriño
 etxe ko andrea
 senarrari laguntzen
 vabilku maitea.

An naurkikezu miñik
 sagasti ondoan,
 zure kanta doiñua
 dodala gogoa n.

Goiza ba-dator,
 aundi ta pozkor!

KANTUZ!

Arratsa kantuz doa,
—norentzako kantuz?—
ibai-une ixillean
zurmur gozozko uluz.

Txindorra kantuz dago,
—norentzako ete?—
zume malgu gaiñean
zanko biak tente.

Kantuz baita illargia,
—nor ete dau eder?—
zeruan goi ikusgarri,
arnas estuan ler.

Larrosa kantuz dago,
—itaun norentzako—
neure gela itzalpean
usainkor, arrosko.

Kantuz daukat biotza,
—uda-lenez alai—
bion maite-astea
dau jardunaren gai.

ABEREEN OIUAK

Txakurrak zaunk-zaunka:

«Guau, guau, guau!»

Katuak atean:

«Miau, miau, miau!»

Ardiak eskortan:

«Bee, bee, bee!»

Idiak zelaian

«Muu, muu!» orroe.

Txoriak goizean:

«Txio, txio, txio!»

Txiteak bidean:

Pio, pio, pio!»

Beleak mendian

«Kras, kras!» gedar dagi;
txarriak tokian

«Gurgur, gurgur!» beti.

Igelak uretan:

«Kruak, kruak, kruak!»

Aate zalduntxoak:

«Kuak, kuak, kuak!»

Saguak txilio

«Ri, ri, riiik!»

katuak dautsola

eldu saputzetik.

* *Goiznabar*, 15-16.

** *Coiznabar*, 16-17.

LORE-ZAIÑA

Laiñoa dabil goi zear
ara ta ona baldan.
Zu, Edurnetxo laztan, zer
dagizu, txiki eder,
or eure baratz ertzean,
lokartua antzean

Baratzeko loratxuak
nok dautzuz zaintzen?
—Ez dot nik lagunik bear,
neronek ditut gordeten:
jolas-lagun dot laiñoa,
amesle lora-txorta,
Lorak ditut inguruan
eun kolorez biztuta.

Neuk zaintzen ditut arduraz
goizean goiz-goizetik;
neuk jagon oi ditut baita
gaua jausi geroztik,
Poz-giroz ditut bazterrak,
alkarren jabe lorak,
oneik dauz nire biziak
munduan diran maiteenak.

Baratz erdian lore di fiña,
ak damost naro atsegiña;
goian-goian laiño moltzo,
nire baratza bean zerutxo.

LOA

—Loa, lo, zer zaitugu?
—Aur txikia nozu,
ta eskuan daroat
margozko kruselu.

Gaua baltz eldukeran
gora noa ixillik:
ez dot zirri-marratu
nai zarata-mintzik.

Aur txikiak dituzu
buruak gordeta,
iru ta lau ordutan
lorik ein ezinda.

Urreratuz dirautset,
pagu ta irripartsu:
«Ez zarie oindiño,
maiteok, lokartu?»

Ta samurki dixurtset
gantzurik leunena,
ume-begi oztiñak
sorgintzeko bena.

01, EIZTARI!

Zugatzean,
goi-goi, txindorra kantuz;
bean, adi,
eiztari bat iskilluz.

Aizez kea...
Txindorra da lurrera;
luma gorri,
intziriz doa iltera.

Zugatze-puntan,
ixil, ezta kanturik,
Txori leuna
zelaian dago il-otzik.

Eiztari txar:
or muna egalean
nir'maitea
kanta-ots samurrean.

Ez, otoi, ez
bera geziz eratsi;
laztana dot,
neure erraiaren antsi.

Argi-miña,
maite printzaz jantzia.
Zeru-ago
dauan izate erdia.

Iskilluaz
ez su-egin, eiztari!
Bide ertzean
dot maitea kantari! !

NIRE MARRAZKIA **

Intz-orri bi zeunkazan begian dizdizka,
ta ondora naiatzun orren zio itaunka.

Itzala da gogoia, ezkutuz jantzia;
izar-izpi artean or doa bizia.

Gaur, baiña, neure zerbait —marrazki zurian-
josi dautzut ikatzez zeure gogo ingian.

—Zelan diñozu?— Ona: geldi-geldi, otzik,
begitu gozo batez dautzut marra leunik.

Zuk ez dozu somatu nik zuri egiña,
nik bai ikus aragian min esan-eziña.

* *Coiznabar*, 19; *Los cien* (1975) 164.

** *Goiznabar*, 20.

Antsi bat bota dozu miña oartzean,
zeure gogo ixillaren osin-labe mean.

Or baitan daroazu gcrozтик josia
nik barnean eindako aztarna ezta.

Zeure izatean dozu —ur ertz zinbelean-
neure izate zatia, dardar etengean.

BEGIAN MALKOA

Begian malkoa
yabiltzu bero
goi-amesez,
untzorri gaiñeko
dardar artean
txoria lez.

Oraintsu, kantari,
ona yat eldu
goiz aizea,
ta urruti daukien
jaiaren barri
damost mea.

Ez otz ta ez legun,
oianeko itzala
gaiñez dozu.
ta irabio osteko
arnasa dala
diraustazu.

Ganduaren lepo
alai ta eder
dantza zara,
ta uler eziña yat
zure poz bete,
par-algara.

Muiñoan ertzez ertz
oin-arin ta zal
kaiña doa;
maitezko zerbaitek
bizkar gaiñean
bai daroa.

Neguaeren otza
itsumustuan
ager yaku.
Begia, barriro,
pozik eztala,
malkoz dozu.

Gazte pauts-aundia,
oiñotsa dantzut
aldatz beera...

Jakin ez geroa;
zoria dogu
txit gupera.

LEA IBAIA

Sarats ta milizkaz inguratua,
lirain dabil Lea, lamiña zulo!
Goi-errietako basur gardenez
asetuta, oa otzan ta arrosko.

Oleta'tik bera, suge geldia,
diztikor akusta, bai, bitsetan naro;
arnas dagik, alan be, atsegiñez
eta ixil ortan dok ames itxaso.

Armiña artzuloko lamiñ gazteak,
auntz-oin ta sai-erpe, doaz igana.
Bada or barailla gau gerizean
intziri gozoa sor oi dauana...

Ik maite lamiñak, ta areik ots iri:
«Ez gu, otoi, billois itxi, laztana»,
Ni be, or jaioa, intziriz nabil,
zaindu naiz igandik jaraunts nebana.

OIÑAZEZ NAGO! **

Eguna odol-gorri sartzean
gabaz ozkarbi egon ba'daite,
gaur be, ene maiteño, illargia
agertuko da, uts egiteke.

Bart, ona, bide zaarretatik
amesezko besoz genbiltzala,
zeruaren azpi urdiñean
argia ager yakun bereala.

Baiña samiña ekarten pozak.
Ordu laburto areik min-osin
ditut orain; nik ori ez uste!
Egi zirudiñak trankart egin!

Ez ne' oan uste alako poza
iñoiz baltz biurtuko yatanik.
Amestu nitun torre putz areik
nik ez uste jausiko ziranik.

Gaiñ etor yatanaren errua,
neurea dot. Zergaitik nik ete,
bizi nai nebanaren arroiña
ondar gaiñean moldetu tente?

Gaizto az, maitasun, iruzurti,
jas-erakutsi leun az agertzen;
dana dok errez, atsegingarri
ta gero, ai!, sastada emoten,

Zori txar aundi! Ni doakabe!
Illa ez ni baiño zorunago?
Zorakeriz yat neurea galdu,
geroztik Iarri, oiñazez nago!

Gaizto az, maitasun, iruzurti,
jas-erakutsi leun az agertzen;
ta, odoletan dot biotza gorri,
barru zer dana oiñazez urtzen!

ADAR GAINEAN

—Nok ipiñi nau emen?
Adar gaiñean noa
zabu-zabuka samur...
Zabu-zabuka samur
adar gaiñean noa.
Nok ipiñi nau emen?

—Lo egizu, umetxo,
adarrean polito...
Lo egizu, ene uso;
lo egizu, bai, lo, lo...

—Ama, ezin dot, ezin.
Aizeak nau zirkulin
ementxe kulunkatzen;
txoriak abes-otsa
zorakor dauste emoten;
zugatza dot lorakin.
Ama, ezin dot, ezin...

—Lo egizu, bai, kutun,
adar izpian bigun.
Neure biotza dozu
adar orixe bera;
onek zaitu kulunka
gauak tentel antzera
irribar egitean,
argi-begiak zuri
ezpanak gorritzean,

POZIK ETE? **

Asfaltu gaiñez ibilli nintzan,
giza-biotzen txingar artean;
urdin ez zana urdin zala iñosten;
gauaren soiña baizen otzilla
nengon atxillo giza-katean,

Naskaz neban bein erria laga
ta jarri nintzan atzerrirako;
ontzi barnean, urgaiñ arraunka,
ez nintzan ase kresal igurtziz
urte urteak aitu arteño,

Baiña noizbaiten etxerantz artuz,
jaiot-errira elduaz noa...
Pozik ete? Ez; ertzak izuz nau
jarten itxaso erraiak beste.
Gizartea yat min eraso.

Poz nadin aatik, barnea nasai;
sorgin-izpika daukat eguzki,
aizeak dantza kimu erpiñaz,
Naiz-ta itxia, beroa doart
biotz zokoan, txingar jaurtiki,

Iñolaz ezpaita
barneko surik
supazter beroa
baizen ederrik.

NEURI DEIEZ *

Ez,
ez bakarrik goizaro urdiñez,
goizero, euriz, uda astean,
lenengo erne erraiñu beroz
argia dizdiz biurtzean

Ez,
ez bakarrik lorategian
dardar, eguna jaiotean,
arrin samar areitz-buruak
kiribiltzen diran unean...

Ez,
ez bakarrik arrats-bideetan,
txorien ames kolorgean,
ez bakarrik epai osteko
zclaiaren oiuz luzean.

Bai,
baita gabaz izarrak ñirñir
gu ames gozoz agurtzean,
eta kaleko giza izarrak
inbidi biziz indartzean...

Bai,
baita ontzak izua sartu
ta neskatzak arin eitean;
gau illunari deia bota
t'oiartzunik ez izatean.

Bai,
bai, sari nekez lortu iduri,
beti zaitut gogo barnean,
uso urruma baizen ezta,
neuri deiez, oroi ezean.

AMES UTSALA

Len luzakor ziñean,
orain laburra txit:
zure eztarri doiñua
joana dirudit.

Zergaitik onen labur?
Ez al nozu maite?
Igaz, ona ziñala...
Oi! lena izan zaite.

Itxaroa zendun len
begien ninian,
ez zenduan atzenik
itzen jardunian.

Zergaitik aldaketa au?
Len poz atsegiña,
gaur biotzaren barru
czpata samiña.

Eguzkia beerantza...
Bertan murgildu nai?
Ez, etzaite murgildu.
Zakit izpi alai.

Iratxo itzalak dardar
ingurun dituzu,
antsiaz garrasika
zokoz zoko izutsu.

Dana ustelazi oi dau
aldi ibilliak:
uda lena, naiz biotz
ernemin joriak.

OIALDUN ONTZIAN *

Oialdun ontzian zoaz
ederrik, ene maite;
alan be, ur gainez berezi
ez, geiegi etzaite.

Ain urrutitik ez dakit,
ez dakit, izar izun,
nire antsiaren otsa
artzen ete daustazun.

Lar eguratsia zara
aruntz beti, bai, aruntz;
zatoz gaur, antxeta bizkor.
ni naukazun ertzeruntz.

Ez, arren, bota aingurarik,
itxi azke oialak...
Zabala dozu itxasoa,
euri antza dau goiak.

Jolasle zabiltz txairo,
baiña, eneño!, ugarriz
daukazu azpia osoz,
zu atzi nairik guttiz.

Kaio lez eda egoak,
ta erdu ur ertzera,
gozarturik egoaren
zidarrezko ots leunera,

Zugatzak izarra beste
opa zaitu biotzak;
biok, bizitza abestuz,
ux daiguzan izotzak.

Zatoz, bai, etzaitez muker,
zatorkit biotzera...
bi-biok bizi gaitezan
barne arnas batera.

UR-SUGEA •*

Arraunka ebillen Peru
Laida'ko ezpondan,
agur ereska zitula
zil-bedarrak bidean.

Arrats-beran, ito-larri,
suge bat buru tente
ur barrena etorkion
igerika zan beste.

—Lagun zakidaz —zirautson—.
ezin bait dot geiago;
ur ibilliak naroa
gero ta zakarrago.

—Ene, baiña, zer dala-ta?
Ez ba'neu arriskurik...
Zital bat zelan babestu?
Gaixo, ez neuke senik!

—Zitala nozu eristen?
Ez izan orren izurik.
Erensugeok uretan
ez daukagu pozoirik,

—Ez, e? —arrantzaleak ari—.
Indarraren ekiñez
ezin uretan usiki,
baiña andik kanpora, ez?

—Xaloa nozu, ez dautzut
gatxik egingo. Siñets!
—Oiu egian sugeak,
zintzur-antsika makets.

* • •

Indar-atezu ona nai
daunari ez siñetsi:
ona ez miñez, egitez
bear da erakutsi.

* *Goiz7iabar*, 34-35.

-* *Goiznabar*, 37-38.

IPARRAK IRRI

Ipar aizeak atzo, leunkiro,
lili artean ebillelarik,
ego biak urdin,
irri eustan egin.

Norbaitek ixilka
iragar al dautzu,
aize ekarkor orri,
nire poz eskutu?

Gaur, atzo ez lez, burua makur
noa bidetik, gogapen sortaz.
Iparra itun dabil,
ostoakaz dildil.

Nik bere zuk lez, so!, arpegian,
etsi-etsirik muin barrenian,
eun ubel kolore,
miñaren zapore.

Baiña zuk, aizeño,
—par orri nakio—
zabiltza betiro
ezti irri jario.

GORAGO! **

Ibarra gurutzetuz
iruntz-iztil meetan...
Bean ezti garoa,
goi-adarrak lotan.

Lau zabala amets neban
orril astean nik;
lo, deusez eta illik ez,
baiña bai ederrik,

Zure biotza bere
—ibai alai antzo—
dantzari nik uste goiz
jagikeran atzo.

Otz, baiña, idoro neban,
ta ez dot nai ibarrik.
Gorantzako zidorrez
nabilke gogotik.

EZPAI-BIDEZ ***

Ezpai-bidez zabilkidaz
egiaren argi billa;
estura miñak, orbel antzera,
bultz eragiñik ixilla,
nu bai iskanbilla!,
ugin zurbilla
zuzitu dedilla
Goiko Jaunari arren eskatuz
bizitza gurpilla.

Bizitza ez dakik zer dan,
poz-leiar ala min-ura;
onek lauskitzen yaustak biotza,
ixuriaz arrenkura.
Galde dagik: «Nora
doa bira-bira
negu eta uda,
urterik urte, gizaldi luzez,
niri saminki ozka?»

Goiznabar, 39.

‡ *Goiznabar*, 41.

* *Goiznabar*, 38.

Ta naspillean bilduak
 gu goaz beti aurrera...
 Jarets eziña ete dogu iñondik
 jo-muga orren diztira?
 Zorun iturrira
 beti begira,
 biziak dira...
 baiña zalantza edatzen yak,
 oi, gaxo! , biotz erdira.

ERIO

Goiz-argitzez mitxeletak
 poparean eukan ega
 ta alai ebillen goi-min;
 esi ertz egoan, baiña
 pozoi kaikuz omidua,
 aren zain erio gaizkin:
 osto gaiñ eban atzitu,
 kana sar-azoaz gordin.

Odoletan dakust gero,
 ego dardara ostean,
 esi ertzeko mugita.
 Iruntzak laztandu dauan
 bedar izpian gaixoa,
 illik datza mitxeleta.
 Au olan ikusiz ba-dot
 biotzean nik arreta,

Agiraka egin dautsot
 erio il-zaleari.
 Erantzun ordez etoak
 ortzak daustaz erakutsi.
 Txamarraz doa jantzia
 ta onan diño gaiztoak:
 «Zomorro naiz gizon, ziur,
 nitzat dira kidekoak».

Edur ikara atean,
 ontzak garrasia otzez,
 £uda oiñean itzala...
 Aurtxoak oiñaze kuman,
 ezin estalirik ama
 barruan dauan tamala...
 Erio latz!, uluz dauskuk
 josten izadi azala.

Esi ondoko bedartza!
 Lurpean gori odola!
 Txakurra zaunka atetik..
 Mamu egalari gaixo:
 goizaren argia yatzu
 luzatzen abar artetik...
 Odol ixuria taup-taup,
 eta urbil lorak itunik.

ILLUNPEAN ZEAR

Iilunpean zcar zurbil doaz
senar-emazte bi gazteak;
ibilmin doaz ta dardarti,
etsai baltzaren bildurpean
gorputz-arimak izu gorri;
izarrak goian dizdiz illa,
arnas-ots baten basa-pizti.

Alboan zabal eremua...
Autsa arrotuaz dabiJtz azkar;
axerdak dardar aize ikutuz,
otoitza yake arei ezti,
ezpan ertzean eder urtuz;
aspertu barik trikitraka,
biotz-jario alkar ustuz.

Asto gaiñean doa andrea,
larrosa begi biak ñirñir;
bular ondoan daroa aurra,
ama baiño be ederrago,
eztia baizen leun-samurra;
auzoan doa, pausu lerdan,
kemen aundiko, zut, senarra.

Noizka gazteak biotz baikor
emaztea nai dau poztazo.
Urrun, goia asi yake urdintzen,
baita be uri baten torre
t'etxe garaiak argiratzen,
Jose ta Mari dira, igesi,
Aigito'raiño laster eltzen,

BERTSOLARI ZAPUZTUA **

Bide azpiko etxean
—lore baratz narua—
Maiteder bizi da txairo,
barnean dauala sua.

Lili ezpaten artean
—txori zauritu antzo—
naikari biziz aserik
ikusi neban atzo.

fzarrakaz dagi ames
—sai goizale bikaiña—,
barruan dauan atsona
doakola tartaiña.

Zuk, ostera, bertsolari!
—gatza ta pipermiña—
jo dautsazu leio ondoan
goiz-tobera txiliña.

Ez eutzun zirkiñik, baiña,
arean be ak egin,
ez biotzik astin-azo:
atxurdiña zirudin.

Alde zendun andik «matsa
gordin yagok» esanik.
—Ez, geldi, mats ori ez dok
iretztat, ez, iñundik.

• *Goiznabar*, 46-47,

** *Goiznabar*, 50.

ATZIPETUA

Laburrak, ziñez, nire atsegin orduak!
Joana az, ene maite, ibaia lez bizkor,
ta ni oroiz betea emen, ai!, ezezkor,
konta eziñik neure neke ta doluak.

Ez neban iñoiz uste, iñoiz, ez orixe!,
egun artako argi lausorik bagea,
ez, ez yatan iduri izan poz betea
ain laster itzuliko yatanik oiñaze!

Baiña iduri utsa zan, ames gaillena,
nik olan jantzitako jauregi bikaiña.
Nork ete onen erru? Ez iñok nik aiña,
Lorea eden baiña barruan edena.

Maite dardaiz josia ibilli naz zoro.
Bizitz sua itxuratan zoragarri dozu;
ezta, barriz, ispillua egiaren zitu,
ta ni be aren mende nago, gaur, osoro.

Bai, lilluragarria az, elai arrapari!
Dana dagik erreza, zillegi, ederrik.
Oi, ames gaizto! Ezpei, ez, ire esanik
iñok betetu, izan nai ezik lotsari.

ITXI, ARREN!

Ba-noakizu, ta itxi, arren,
ene Senar goi-goiko orek;
ez naizu alboratu,
zure itxas-galtzarrean dedin
nire ibai au asazkatu,

Soroi naizu gerizpean,
t'ene ardura leialari
emon adar merezia,
kezkage atsedan dakidan
zure mosuz arimia.

Besoak luzatu daustazuz,
ta beingoz noakizu eske;
Zuk bait-dozu, Jaun lastana,
zor daustazun ezer gitxia
ta nik zor dautzudan dana.

Lotazi maite agintzeak
barnea atxillotuz biurkeiz.
Nik, barriz, Zu besarkatzeko
daukadaz —mats-aien goritu-
zabal-zabalik bi beso.

Zuk besoak ba'damostazuz,
n'k arima ordeiz emongo;
begiak begiz kiskaltzen,
ezpanak ezpan su-jaurtika,
gaitezan beti alkarren.

Biotza damotzut eria,
zauri orreik bekidaz poza:
bion barneko gorbizak
zeruko atea baitira,
neutzat edegi ziranak.

* *Goiznabar*, 53.

** *Goiznabar*, 54.

AINTZA TA AINTZA *

Zeru ta lur aundi zarean Jauna,
zere aintzarako ein zendun dana.

Milloika izarkiz ortzea garden,
zure ospearen igarle guren.

Lurra, Zuk jantzia gauza bikaiñez,
aspertzake dabil zure gorantzez.

Ala ta jakiña goiak azaltzen,
ederraren dirdai beiak abesten.

Zerk erakar zaitu, zerua itxirik?
Lastoan zerk zaukaz orren apalik?

Belen'go askea erruki aulki,
zure azkenbako aintz-ezaugarri.

Ostoak dardarti dagoz ezerik,
Izadi amaren doiñuz izorrik,

Itxasoak —mamu azkar— kantari
erantzuten dautso zure aintzari.

Barru-espetxean giza-biotzak
antsi gozoka dauz bere ai-otsak.

Biotz eta txori, zeru ta itxaso
goraka daukazuz, Jainko arbaso.

ARRATS-BERAN **

Jauna!, arrats-beerutzen
doa, guztiz azkar...
Sakonean lo guraz
dira aritz, astigar.

Jauna!, ez nagizu itxi
itzal-arte bakar...
Zimikoak barrunbez
artegatsu nakar.

Egun da bizitzea,
Gau, barriz, erio.
Itzalak biotzari
Gau'ra bultz dagio.

Ez ni itxi, otoi, Jauna!,
itzalpean bakar:
zurrunbilloz neukake
betiko zoritxar!

Illunabar dan arren,
zakidaz Zu erlantz;
inguruan burrunbaz
bebik mari-orratz.

Ez, ez ni itxi, Jaun altsu!,
argia il orduan...
Galdua nindukezu
gauaren arruan,

* *Goiznabar*, 55.

** *Goiznabar*, 63-64,

BIURPEN *

Billa nagizu, Jauna,
ez kanpo, Zeugan baiño;
Zu ezik, gaur ezkeru,
asun-pillu yat oro.

Sar eistazu gezia
bigun biotz erdian,
nik neureak josi
ditut zure bizian.

Zelatan nago geroz
zure besoen artean,
geldi ta kukurtua
kulunka bigunean.

Soil, lantzar egoan len
nire gogoa, ai!, iltzer;
gaur, lera neurri gabez
erantzia, txit eder.

Begitu gozoz nozu
bitxikoi apaindua;
zure eskuen ikutuz
cxingartu yat mosua.

Billa nagizu gaurtik
Zeugan, Jainko laztantsu;
bekoki ausart au, or,
apal lurrean kuku.

Zure biotz taupadaz
ur-dagit kresal zear:
ez uin, ez bidutzirik,
ez nau ezertxok dardar.

Ixillaren ertz barna
dagiket urrats betez.
Zentzunak guztizkoan
dodazala atsedenez.

Zuk ditokezu miña
ezpan-saka gartsuan.
Ez, iñoiz bez ni larri
ezpai-ari galduan.

Billa naizu, bai!, gaurtik
Zeugan, Jainko. Or nozu!
Zure da nire izana,
egiz maitezko kimu.

ESKEA

Arotzak dozuz, eta askotxo,
ez dakit nitzat lekuri dan;
baiña ateetan nagoalarik,
bego barruan gaixo au be,
ur ainbat min dagon tokitik.

Legea betez gogoia
zintzoro bizi da, belaxka,
ta Zugan ditxaro soil-soillik,
bere oiñazeen osakaia
Jainko-Bildots ori, Zu, izanik.

Ar nagizu, otoi, Zeuretzat,
ez begira nire ezeukia;
esaidazu eskier noan.
Baiña, ez, Zuk, buru makurka,
«bai» ez ete daustazu esan?

Maitasun garaian ba'goaz,
su-txingar bi egiñik alkar;
egiaz ba'gabiltz batera,
zugatz onen adar ostean
noakizu kuku jartera,

Olan dala, Senar maitea,
leia zaitez bizi naiteño
lagun naila zure arretak;
kisket oni oratzen dausat
jagon naian zure gerizak.

Itxaro onen babes gozoan
ez naz bildur samifiarena;
Zuri, ene Kristo, oratua
eriotzako une Iarrian
biziaz daukat eskua.

Ta Zu eskuan ba'zaukadaz
adiguri ta bezuza aundiz,
biok gagokez alkarturik,
atsegiña ta oiñazea
mimen-suatsuz eratsirik.

1936-1940

ZORATUA *

Ixil-ixillik dago ondartza gorria;
eztabil goizean lez itxas-aize mia.

Ura esi-bearrez arkaitzak zerrendan,
eguerdia da-ta, eguzki galdatan.

Oiu! Norena ete? Neskatil batena.
Ixillaren miesa zarrastu dauena.

Neskatil batek jo dau aitzera laisterka,
aizetara iñarrosiz uledi-mordoxka.

Sohvlerden, zail, aitz-antzo, aurrez ur-zingira;
adi-adi dago urdin-mugara begira.

Eskuz dau arpegia, zotinka, estali;
ene!, aren begiak negarrez iturri!

Zer dau? Zergaitik malkoz neskatxak begia?
Zek oiñazetzen ete dautso biozpea?

Urduri dabilkio asmo, izpi antzera;
maiteak iges ete ontziz urriñera?

Begiak zirkinka ta biotza pilpil,
jauzi azartu baten uretan da murgil.

Au ikus-ta, ur-neskatxak, sorgiñak bai-litzan,
uger-ukaldi gezal gaiñez,^a bar-irritan.

* *Goiznabar*, 82-83 (B); *Yakintza* (1936) 90 (A).

a gezal-gaiñez A gezal-goiñez.

MAITASUN-JOPU *

Oi, zein eder udan Iorak baratzean,
izarrak zeruan, basoan zugatzak!
Oi, zein dan gelgarri itxaso zabala
ma damotsonean illargi aratzak!

Zeure aintza, Jauna, dabe abestuten
zeru ta lurra*k* iñoiz eten-gabe;
Zeuk ipiñitako mugak gordeten dauz
itxasoak bizi ta apartsu, naiz bare.

Zergaitik gizonak zure Legea austen?
Geien zor dautzunak, zergaitik saltzen zau^a?
Zeuk aukeramena emon zeuntsolako?
Orra ba, ene Jaun, ar nire almen au!

Oba dot jopu izan, maitasun-jopua,
zeure kaltez ogen egin baiño, Jauna.
Gaurgeroz jopu naz; tori almen oro.
Joputz^llokarria bedi maitasuna!

OIU - MINA **

Itxas gora eguzkia;
goritu dauz kukutzak,
Ama maite, begi-eder,
sutu, aren, biotzak.

Oiu-minka gizadia,
peitu yako zoriona;
Zuganantza begi biak,
goibel dago gizona.

Otz-otz dago bizitz-ludi.
Zuk ezik, nok berotu?
Sagastiak laru^a ta igar,
nok ostera loratu?

Bial, otoi, guregana^b
zeru goiko argia;
maite-izpiz dardaraztu
gogo-barne lezea.

Edur-meta dirudi-ta,
arren, bero egizu.
Karmel-lora: gizonaren
Ama zara: ez aitzu!

* *Goiznabar*, 124 (B); K-Argia (19.36) 44 (A).

a zau *A* zauz.

** *Goiznabar*, 124-125 (B); K-Argia (1936) 252 (A).

a laru *A* larru; *b* guregana *A* onengana.

SITIO

Gaudi-Egile, gurutzan zintzilik,
Bilos, laidotua, gaizkin-mendean.
«Deun, deun!» «zeruan», «il bedi!» lu-
Iges Ikaslek, begira... bakarrik. [rrean!

Erruge dozu, Beran ez ogenik,
gizona ikusiz, baña, obenpean,
gaizkabide-at, Jainko-asarrean,
gaizkatzearren, or gurutzaldurik.

Maitetasuna da bere eralea,
gizonak, ordez irri ta barrea! ...
Gerorantz so eta argi dagerkio
galduko diran gogo zenbakia,
(biotzan nabaitzen egarri bizia)
sreyo jasan nai dau, eta ayots ; ; ; Sitio!!!

GUDARI! **

«Itxartu zaiz euzkotarrak,
Aupa!, euzkendun gustijak».

Arana-Goiri

Guda-deadarra. Ainbat izkilu!
Zer jazo ete da euzko-lurrean?
Erraldoi izugarria igi bai-litzan,
Euzkadi osoa zutik dakusgu.

Langille ta lugin, zar eta gaste,
Euzkadi osoa alkar arturik,
areyo aurrian daukazu zutik.
Oi, edonok bere burua maite!

Aztien eguna garillekoa.
Nok sortua ete ain gaitz aundia?
Zori txarrak ziñez; or bere erdia:
oro negar-zitu ta gorrotoa.

Arrotza sartzean euzkel-lurrera
turuta adi izan da, zemai-abotsa,
aterrik eztauan izkillu-otsa;
euzkoak beingoan guda-lerrora.

Sumintsu jagi da etsai erkiña
zanetan darogun odol gorrian.
Geure aiton zarren baratz maitean
eurrez sartu nairik zital zikiña.

Odola dario Aberriari,
guda-irrintzia sarkor aizean,
suaga dunbotsa, aldamenean^a;
baña aurrera beti, euzko-gudari!

Baña gure erria ernai eguan;
oar dau etsayen gorroto zantzu,
jagi da bein baten biotza sutsu
izkillu artuta bizkor eskuan,

Leñargia zara, seme garbala,
Jelpian zoruntsu bizi zintzana;
otsein egin nairik bira-biraka
dabilkizu orain etsai zitala.

Zirt-zart ekin gartsu, euzko-gudari!

To gogoz Euzkadi azkatu arte:

katez lotuta bizi baño il obe.

Garaikuntza ur dago, samin-azkarri.

* K-Argia (1936) 128.

-* *Euzkadi* 24 (1936, 7481.zenb.) 8.

a aldamenetan.

ENE BIOTZ NEGARRA *

Sorkaldean agertuz gero eguzkia
txoriak areitz puntan txioka diardu;
maitetxo galduari oiuka daukazu,
negarrez oretua bere abestia.

Aize leunak zibuka darabiltz orriak,
iñoizkorik pozkorren lastxoa dantzari,
goi urdiñera begira lorak maitagarri:
uda-asteana^a eztegu izadi joriak.

Miñez dago txoria, zotin dariola,
oiñaze-aldi artan pozik ete daurki?
Illun-ondo alaikor eguzkiak argi,
ala beti gau illun, beti negar-bala?

Abesari dakitso txoriak saminki,
orrela barne-miñak gozatu oi ditu.
Zar-gazteen begiak askotan añutsu.
Itxi; barru, zotinka, usten dabe aurki.

Zori txarreko litzake
gure biotza negarge.

G U D A R I A R E N A **

Aoan irri, sua barnean,
begi biak amesti,
gudara noa eskun izkillu;
iñoren otsein ez izatearren
gaurtik ni be gudari,
gaurtik ni be gudari.

Mendi ertz daukat etxe zuria,
ez iñori bekaitzik;
lanen sari ogi biguna,
zori onaren altzo gozoan
an bizi nintzan pozik,
an bizi nintzan pozik.

Baña oi, ene Euzkadi maite,
asabaen erria,
gaur il zorian, itun zakustaz,
erpe artean koldar antzera
arerioz josia,
arerioz josia.

Azke ziñan len gizaldi luzez:
gaur oster, zitaltsu,
etsai ankerrak deusez nai zaitu,
baña... alperrik; ezilkorzara;
nok menpeko egin zu?
Nok menpeko egin zu?

* *Goiznabar*, 80 (B); K-Argia (1936) 223 (A).
a uda-asteana A udatz-aroz.

➔ Euzkadi 24 (1936, 7.848. zenb.) 8 [10].

Neure amesen bitxi bakarra,
zin dagitzut barnean,
osoan azke zu ikusi arte,
naita bizia bertan gal bear
zugaitik ni gudean,
zugaitik ni gudean.

Gudara noa, baña ez itun
oñazetua iduri;
alai daroat biotz azpia,
irri dabilkit sorgin-egalez
ezpan-zear urduri,
ezpan-zear urduri.

Amatxo laztan, ez nizaz negar,
zotin orreik irato;
kutuna zaitut biotz-biotzez,
baña Euzkadi^a, guztion ama,
oraindik maiteago,
oraindik maitego.

Ikurrinpean gudara noa,
(ez goibel), bioztuna;
bular-gañean tinko daroat
galtzairu-jantzi ausi-eziña.
Aberri-maitasuna,
Aberri-maitasuna.

Beti be zanga euzko-semeak;
Orreaga'n garalle.
Etsai-nagusi Mungi-muñoan,
Garaitz-abetesc lena Padura'n,
gaur Azkatasun-zale,
gaur Azkatasun-zale.

Euzkadi eder, maitezko lore,
neure odol gorria
zeure altaran dixurit oro;
il arteraño zeurea nozu:
or ene oparia,
or ene oparia.

BERTANBERA ITXIA *

Ire otsa, lenago, gizatsu etorran;
ire kezkek, be, oso nireak zitunan.

Ez egin ezikusi; ire erlantz bizia
aurrean izan yonat gozo, maitatia.

Gaur alan da be arrotz non, bai, biotzean;
geiegi otoiztu aut, baiña i tink eurean.

Aste batzuk dirala goibel nago, ta utsik,
poz-senez gabetua, maitetasun ezik.

Gorde yataz izarrak zerupe baltzian,
ez dabilkidaz geroz almenak neurrian.

Lora bustiak, aurki, ez dakarste usaiñik;
oiuz dabil iparra itxaso aldetik.

Gainditu yatan arren samiñaren loa,
ez dot nai aita zorrotz dakizun Jainkoa.

Ozka dot biotzean sargori astuna...
Bizitz! Ez al az, cgiz, negar-bide illuna?

* *Goiznabar*, 77,
n Euzkadi'n.

GURA NEUKE

Itoka doa bizitza,
pendiz beera ariña;
ez miazkatu nai izan
bestek amets egiña,

Giza-sortzeak gelditzen
dira amesetan dindil;
bakar, aizearen tresna,
idazlearen aril.

Lasterka doa joana
erreka zulo mutur,
ixil zarraren mendean
arri ibillien zintzur.

Itxas-urak lur egala
aparrez dau zuritzen;
nik, geroaren izarra
jarri nai dot argitzen.

Nik gura neuke bizi
—biar!, gero! — dizdizean:
oroitarri lez laztua,
amets naiz sorpenean.

BAKE! **

Bake!, zer ete zaitugu?
zer ete zure ona?
Bake eder! Ta zure billa
dabilkigu gizona...

Goraizu, gizon ertuna,
zure aitzin-erpiña,
ta aintzal gogora Jainkoa,
orrena baita diña.

Aingeruak gaur dabese:
«Gora Jauna ortzean,
ta bakearen zoria
gizonari lurtean».

Ak eban jarri izatezko
legearen ardatza:
giza-biotz barrendian
eraz ta narez betza.

Ta eztau gizonak gura
bere baitan etenik:
erre ta suntsi diardu
odola ixuriz gaindik.

Zuzena, duiña ederra
guztiok maite daigun,
anaitasun ore-pilla
Berak barne sar euskun.

eake! , zer ete zarean
galdez gara onela.
«Erean narea» iñoan
Ausustin'ek beiñola.

Gizon: muiña ez al dozu
maite-orez egiña?
Sumin bizi il eta erre
zabiltz bldutzi ariña..

Goiznabar. 79.

* *Goizvabar.* 80-82.

Zutoin bego gizartean
zuzenaren argia,
estu bego alkarrezko
maitasun lokarria.

Bakea nai dau gizonak?
Itzez beñik-bein maite;
baiña aren azi-garaunik
lurrean erein ete?

Bake eztirako bideak
—eguzki erraiñuak—
ez dira danak erreztu
guk eskuratzekuak.

Baiña muiñak giro beitez
ortarako asmotan
ta zoriaren argiak
dizdiz dagike bertan.

ARTE DRANGALA

Goiko bide ertzeko aldatz-muiñoan
arte bat daukazu, urtez betia,
Enborra sendorik, baiña kimutza
aize ta euriak jana guztia.

Lengoan albotik igarotean,
jakin-min itandu neutson gogotik:
«Tamal aut, arte zar! Ain ago zarpail,
Iparrak errea oso-osor^{ik}».

Arek oiur niri: «Etzaite nitaz
erruki; ostoak ausiko daustez,
ez baiña enborrik eratsi. Ez bein!
Onelaxe diraut eundaka urtez».

Gaurko gazteak be onan ditugu:
aizearen gisa zaratots puzkor.
Zarra, orraitino, berean nausi.
Gaitzean arte, ez aize galkor.

BAKARRIK NOAKE ^{*A}

Gaur goizez atzera laga zaitudan
naigabe joanen gomuta larri:
etzaitez geiago etsai niretzat
etzaitez geiago, ez, gogaikarri.

Bakarrik noake bide zearka,
iñor bage giza illen artean,
argiaren irri ta mosu barik,
ibil-aldiaren zaldi saiñean.

Itzaltsua, makur-une antzera,
clatorkit gaiñera arrats ariña,
iñar-gori asko igaro dan
egun kburraren negar oztiña.

Bakarrik noake. Aurrez-aur dodan
bidean begiak ba'ditut ezar,
nercnen burua dakust osorik
izuaren erpa artean zakar.

Zain dot eriotza, illun, irrikoi.
Obi-gerizak daust izuz gogoa
maillupe ler-azten. Otzaren esku!
Eriotz-algara! Bazi bakoa!

Ba-dot, orraitino, itxaroaren
erraiñu gardena, barru josia:
geroak izango dau bertso oneitan
nire biotz-poz ta miñen barria.

ENE

iSKINA *

Dana odol arrats-beeran,
bai bee-alde, bai mendi;
gero, illaren eskua lez,
dana jarri da geldi.

Uneak iku ondoren,
zcrnai ixil-mende datza;
arkaitz baizen zut-jagia
Oiz azpiko zugatza.

Bat-batez da itxasperatu
adar-gori euzkia,
eta txoriak atertu
arrats-ekiñaldia.

Goi ta bee, oro estaliz,
ikara dira itzalak,
ta ez dakuse arean
nire begi minduak.

Aize mea, ezarian,
mao zuri artean
ames gozotan ete da
iiluna luzatzean?

Mendi, basetxe ta Ianda,
guztiak dauz loak ar:
oindiñokarren, ai!, itzarrik
ene ereskiña bakar.

Ixil mingotsaren pean
oiu batek ots dagi:
ene ereskin gaztearen
min-asper da, ozengi.

Nire biotz gaixoa, bai,
intsiz dozu aspaldi,
Zoriaren doakabe
Jaunak alda ba'ledi!

Igar arpegia, ta ubel,
barrun zotin-ari;
miñetan ore-ogia
gaurkoz baitot janari.

Baiña lor onen azitik
zitua da jasoko,
naigabetuen amesak
azkabide izango.

Ene ereskin negar-bera,
ixil-ezkon aratza:
ots samiñez, otoi, birlora
nire ames-baratza.

Noizbait liliak erneko
czker-eskoi bidean,
igarra barriz biztuko
euskal-biotz muiñean.

ONDAMENA *

Jazki oriskaz dagoz zugatz-adar goenak,
eguzki jaunak ez ditu edo oraingoan kutun;
anai diranen biotzak ikara baten jarritz,
sentipen ez-onez dabil ibar-laiñoa zurrun.

Lerkai ta iskilluen otsa dozu zoraldi biziz
mendi-gerri inguruko luban oiñaren mende;
eta ituna areagotu ta negartea astean,
goi dana beillegiz yaku lauso-azi ta bete,

Beso biak luzaturik, Goikoa dot otoiztu,
zigor onetatik gaizka dagian gure lurra;
iñoiz Arek maite ebalaz zirudin gure egoitza,
gaur iskillots biurtua, dunbada ta negarra.

Balak ats-zurrunka datoz, etsaiak erauziak;
su-burdi gain dabilkigu gorroto, arnas oska;
ondamendiaren ezten biur yaku dan-dana,
negarra ta eriotza ugoldetuz ibaika.

Giz-odola zelaietan da bolbol ixuria:
jausiak dira millaka gazte. Au laido, miña!
Zaurituak be millaka, samiñez dagozanak!
Suarra don, guda! , ire izan muiñeko grina.

Errauts kolorez bazterrak, orbel oriz beteak;
garraxiz dabilta goian —zeren billa?— erroiak;
billoizik ta luze-luze gure pago-areitzak,
eurrez dabez eginbarri azpian giz-obiak.

Ai!, ildakoen itzalak ete baltz, izugarri?
Osto artez txiolari aizea me, arona;
zurmur-ots larrian zerbait diñoala dirudi...
Xistu ariz, illen deia ete guri emona?

Umezurtzak, alargunak dakustaz bide zear...
Kañoi izukorren suak ez dautse sartu dardarrik,
suagaz oituak dira, lerkai-jasez oituak,
adoretsu nunbait bizi-lurra jagon bearrik.

Jazki oriztaz dagoz zugatz-adar goenak,
eguzki jaunak ez ditu edo oraingoan kutun;
anai diranen biotzak ikara baten jarriz,
sentipen ez-onez dabil ibar-laiñoa zurrun.

SASETA IL DA! *

Oi, jausi zara, jausi, Saseta kutuna!
Gaurtik illen arteko egiña zaitugu.
Aizea baizen arin da an-or edatu
zure eriotz miñaren il-izpar ertuna.

Leiatsu maite zendun euzko aberria,
ta Aberritik urin, oi! , jausi zara.
Betikoz jausi zara, leñargi antzera;
biotzak ez nai ziñets, baiña da egia.

Izkillots atergea, lurrak dart oinpean,
sua, kea, garra, gudean gartsuki;
giza gurenak letxe ereiñoz bekoki,
jausi zara azkenez etsaien aurrean.

Erbeste-lurraldetan emon izan dozu,
euskal lurra begira, azken arnasia;
baiña azkatasunaren lora apain-guria
ementxe jaioko da, eder, naro, txairu.

Biotzean min dogu, Saseta maitea,
biotzean min dogu, begian negarra;
samin-uluz daukagu laztan dozun lurra.
errai-dardaraz, izu, euzkotar mendia.

Uso zuri-otzana basoan egazka,
biotzak samin-eunaz dituzu estali.
Baiña zu ego zuriz, arranoa iduri,
argi-itzal-eziñera aldatua zara.

Atsedeen, bai, atsedeen betiko argitan,
barne-muiña eresiz, goi-argiz adiña.
Beuko zu azken baga zeru-atsegiña.
Laster gaituzu gu be, or, goi-alde ortan.

ABERRI EDER *

Maitasun-ontzi, zitori-baratz,
Aberri eder, maitea:
mendi lilitsu ta ibar usaintsuz
buru-oin oso betea.

Gari-sailleko uiñen otsera
lurrak maitari oiua,
urrindik dantzut polpolka doan
lastxo gardenan zantzua.

Zugatz-gerizan zarrak astitsu
aintzin-ipuñen kontari;
txori gaztek, dardar biotza,
abi-auzoan txintari.

Biotz kutunen sugar gorria
sariz ordaintzen dakizu,
ta eder zara. Aberri maite,
egiaz eder zara zu.

Baiña oraindik eder-onago
ludian zara agertzen,
gudari-senak aintza-ereñoz
baldin ba'dozuz loratzen,

Lurrak oinpean, itxas antzera,
aier-murrusa bizia;
sukalde gozo ta eleiz-zutoin,
oi!, dana bera jausia,

Odol orbana dozu soiñean,
begia lausoz laiñoa;
adur txar antzo gain dabilkizu,
garrasiz, bela gaiztoa.

Len eder ziñan, Aberri ona,
gaur obi illauna, triskantza;
Ien eguzkia, izpi-jaurtika,
gaur, barriz, illik gorputza.

Nun ete dozu lengo ederra?
Nok itzal begi-argia?
Zure baratzen ez da nabari
len lez usaintsu lilia.

Ez, arren, zizta odol-begikaz
lengo garitza sotilla:
oro galkuntza, oiñaz-adia,
dana dakuszu pirtxilla,

Aiots ituna dakar izeak:
«Erruki —diño— erruki!»
Ta gora doa, kea bai litzan,
samin-otoitza gartsuki,

Odol-ixurki euzko-lurrean^a,
nai-non ereiñ da zotiña;
ibaiak gorri, igar goenak,
eriok artu lur-gaiña,

Baiña ez auldu, euzkotar gogo,
odol lurrean jausia.
Oi! Zer izango? Zer deritxazu?
Azkatasunan azia.

* *Goiznabar*, 91-92.
a euzki-lurrean,

UR-EGALEAN *

Ibar-muiñotxoan zut gaztaiña makurra;
garitzea beerago, urrezko kulunkaz...
Lizar itzaltsu baten orpoa, balantzaz,
beerago zerbait, urak darabil kizkurra,

Muiñotik jatsi naz, ta, ur-ertzean etzana,
gudari bat daurkit. Lo ete? Ala illikan?
Bedar-ogean datza dirdai eguzkitan,
esku biak bular gaiñ, bits-jariz ezpana.

Ulik dago gaixoa. Iru zauri Iaru
daukaz saiets aldera, odolez beteak.
Orain ez dau indartzen bizi-arnaseak
ain argitsua eban zintozko begitu.

Zurmur gozoz zoazan lizar-orpoko ibai,
jagon eizu gazte au, osorik, eukana
Aberriaren alde opetsi dauana!
Uraren gardena! Jo zuk illeta-dindai!

Atxur-zartaka dot lur-sabela edegi
ta gaztearen soiña bertan dot eratu,
lore zuriz ta lurrez dana dot apaindu.
Jausi ba'nendi, esku on bat nitzat bedi.

BASERRIAN JAUSIA **

Etxat aiztuko ez, gazte,
ire jausiaren latza:
bonbaz jota, ez ustez,
atsegin uan etxe aurrean,
ilda jausi intzan gaixoa;
!en eder intzana soiñez,
ezain dok begikunea,
gorputza loi lakarrez.

Zerk au ortara ekarri?
Ez al intzan errubage?
Sort-lurra maitatzea
noiztik ete dok, noiztik pekatu?
Or intzan beti langille,
maite uala sort-etxea,
iñoiz txarrik pentsa bage,
alai begitartea,

Goiznabar. 93.

* *Goiznabar.* 93-94.

Maite aut nik, ene gazte.
 etsai bonbaz ler-azita
 etxaurrean jausia.
 Lengo txoriak ez yok kanturik
 sagar adarren gaiñean;
 ama dok txit eratsia;
 aita, i barik, biotz lertu,
 min-arantzaz ornia.

Nik, bai!, lurra dauat emon
 teillatu txitxin azpian.
 Miñez esku bete lur
 egotzi dauat obi buruan,
 eta miñez nok aldendu
 ire gomuta latzari
 eziñik iñola itzur.

SUTAN *

Begi-aur zaitut, uril, euskal eleiz zarra!
 Kiskal zakustaz dana, gar, errauts egiña;
 ilkor lerkaz zaitue zanpatu zakarra;
 gaiñ bota dautzue, nasai, errekiña.

Eziñaren garrasi, eriotz-negarra
 zabal dituk edatu, doixtar egazkiña.
 Errugea dok zuzi —ire biotz txarra!—,
 Nork iri, ai!, opako parkamen ariña?

Amaitu eziñeko eztanda gaiztoa,
 gordeleku billako jenteen arrapala...
 Ifernu bizia dot Gernika osoa.

Joanak, azkenik be, doixtar sai gaizkiñak.
 Gaiñez gaiñ errukior da jasten itzala...
 Lazkor dira bazterrak, su-mendi egiñak.

EURIA TA URIA **

Atzo arratsaldez, lerkaiak zetuta,
 ainbat jausi ziran gure uri maitean;
 garrasika zarrak, ta umeak txilioz
 erio-zain oar nitun illuntzean.

Gaur, eguna argituz
 jori da euria,
 eriotz-aldiko
 amaitze larria.

Ixil ta iraun dator, nekatua legez,
 erreriko uri estalpetu nairik;
 egiz, orkatz-nagi euria beerantza,
 erriaren lotsa pizkat babesturik.

Erriko uria,
 txoko lotsaritu,
 euriak nai ausaz
 eun bustiz beatu.

* *Goiznabar*, 94-95

** *Coiznabar*, 95-97.

Dana ingurumari, il-urren bai'litzan;
ta iges doa bizkor uriko jentea
gaitzak artua lez, bide-zelai zear,
ixillik ta txonbo, anpuluhz betea.

Ulinti goriak
itzaltzen euriak,
uri errearen
ondar kiskaliak,

Espaloian zear begira gizon bat,
giza-antzik ez, ta negarra dau jaki;
eztarrian itoz abotsaren oiua,
su ta euriaren triska ur-ur ikuski,

«Madarikatua,
guda zital —diño—;
madarikatua,
i, gizaki gaizto».

Mezuak eskinka dator euri mea,
zidar tantoetan goi-zear atalduz;
ez dirausku ezer, muturik da jausten...
Ez leuke zerbait esango mintzatuz?

Uria dakusa
errea, mutiri,
gomutapenezko
azken min-intziri.

Kei, gar, erre-sunda —Dante'ren ikusgai!
uria dakusa, oi! , txarpil egiña.
Zerbait dau esan nai, baiña, loki estu!,
miña jareinazo dau arras eziña,

Mintza naiez dago
goitiko euria,
miñetan ikusiz
euskaldun uria.

Zabor, arri, zirpil, ondarez kalea.
Aizetan eriotz dabil arramaka...
Ta, umea besoan, zelako iduria!,
garrasi bizitan, nora oa, neska?

Euskal uriaren
miñaz oarturik,
negar zotin-eunez
estaltzen dau goitik.

Ni be, euri ta uri, minkide zaituet.
Zuen kale ertzetan gaur ez dakust, ez,
ume-jolasik, ez saleros-joranik;
dana dager laru, garrasiz, oiñazez.

Eta biotzetik
aut madarikatu
erriak ondatzen
dirukan guda uzu.

ODOL MENDI! *

Bizkargi!, odol mendi!,
eziñaren gaitz lore di!

Zer dogu? Goiza iñartzen...
Zur etsaia? Iratxo,
mamu-kirats, lerdoi min,
gain dabilkigu txatxo,

Luban ertzean sua,
berun jasa bertatik,
Ixil egozanak zut,
joari erantzunik.

Orru biur da izua,
argia da naspildu...
Gorroto indarra puzka,
gibeldiñik ifernu.

Bizkargi!, odol mendi!,
eziñaren gaitz lore di!

Ametza ta piñua
ifarrak dardaratzen;
giza-esku latzetan
eun iskillu sutatzen.

Troka, zelai, aldapa
gorpuz dira estali...
Zapoak milla zaldi
ditu ona bidali.

Osto artean, baltza,
adua didar biziz;
bizia ebagirik
gazteak doaz jausiz.

Bizkargi!, odol mendi!,
eziñaren gaitz lore di!

Maiatza da lore di,
gazteak bizi miñez;
baiña aberria dabe
txautzen bizi-odolez.

Agur betikoz illik
ondoan ditut eunka,
erri alde aituak
zeru arrera soka,

Gau baltzak dau zolitzen
zaurituen garraxi!
Eta il-salmu artean
erriok ots ausarti.

Bizkargi!, odol mendi!,
eziñaren gaitz lore di!

BASOAN ILLA *

—«Euri-jasa ezpa-litz, bota alean,
basora niñoiake maitea ikusten»;
taiu ontako kantuz neskatx gaztea
goibel egoan bere leio ertzean.

—«Guda-otsez, iñoan, gaur maitea yat
basoratu. Euria... Bustiko ete?
Egia esan: jantzi bi dauz soñean,
bat sedazkoa, liñoz eiña beste bat».

Ustez betea, baiña ezpaiak joa,
leio zuria itxirik, ezpan-gorritsu,
eun ori asiari dautso ekiten,
maiteari ein naian jantzi beroa.

Ikaror biurtu zan gaba, ululari,
ekaitzak ler-eztanda tximist gaiñean,
su-karraxi mamuak illun-altzoan,
iskanbil erdian dart erio irrintzi.

Urriñeko itzaren dei zital antzo,
eguna asi-ala izpar baltza yatorko:
—«Etxe-barru zearan neskatx gaixoa,
egin zaitez, ai!, izpar baltz jabe», diño.

—«Illik datza maitea leizar ondoan,
eztau ekaitzak il, ez urak eratsi;
miñak joa egoan, zugazko miñak
orrek dautzu eratsi ixil-zokoan».

Maite-su bik daukee, bai, gazte zangarra
guda-oiñeko bedar gorrian illik:
maitea zinduzan zu biotz erditik,
maitea eban baita Aberri lurra.

LURRA EMOTEA **

Sagasta'n jausi zan,
ta a datorkit gogora,
aren miñak bizten.
Ez dot ezer oroi, aren itzala ezik;
il-kutxaren barnean,
—gau-itz antzeko nunbait—
ixil zetzan, illik.

Aren betertz laru,
aren odol-batuna
begi itxipean,
soiñeko baltzaren isla zimur-azia...
Dantzan zegon itzala
aren inguru oso,
ta egazka argia.

Lau gaztek eroien
bidez bide, txango-sor,
ibil neurrituan.
Gudan, su-lubanean jausi zan gaztea,
aberri alde emonik
odola ta kemena,
bizi-gar lorea,

Il-kutxaren ertza
eio-gaitz eban lertzen
izuaren ortzak,
Oiñen otsa iltegiruntz joian leunki ur-
biotz-zauskada larri [tuz,
ta zentzun zalantzazko
artean utsalduz.

Ixildu zan batez
oin-otsen iskanbilla...,
atea irikirik.
Lau kanako obian jarri eben gorpua,
aberriaren alde
jokatuz il zanaren
gorpuzkin xetua.

* *Goiznabar*, 99.** *Goiznabar*, 100-101.

EZ ITXARTU!

Txindor atsegingarri, txindor neurea!
egun-urratzez zara zu itxarrean.

Ibilli zaitez ego-arin basora
eta esan: «Egizu oiur otsean».

Jo itxasora ta esan eztarri zoli:
«Ots, itxaso, olatur irri leunean».

Jo arin kalera ta oiur angoai:
«Esna zaitez! Orra, eguna atean».

Astin egoak beingoz, ekin mendira,
ta artzaiñari: «Alboka jar abesean! ».

Aizearen ego-mintz igo oiurera,
ta esaiuru: «Oiur, sar dardarrean! ».

Zabiltz, bai, artotzara, atsedean garik,
ta ots ari be: «Z:urkin aize leunean».

Lo daukazu oiurra; jo arengana,
ta esan: «Itxar adi! Ekin otsean! ».

Or torreko ezkillara, oraindik mutu;
esaiuru: «Noiz, ezkil, zaitur otsean?».

Ikus gau-ontz nagia, zulora barik;
esan: «I argi-zale? Ago ixillean».

Jo baratzeke lili gorri artera;
ta esan arei: «Makur, egun aurrean!».

Baiña, arren, oi ene txindor: ez esna
nire maitea bere lo ederrean!

Eriur-lerkai batek jo t'eratsia,
aberri alde il zan atzo goizean.

Oro kanta-joka, ta, nire maitea
bego lur-zaiña bete lo betikoan.

GAU-OIURAK

Itxi da, jadanik, itzal-eun arrea...
Ezta otsik goian,
ez lerkirik bean;
illuntzeko joaz «burdin-gerrikoa»
da ausi zuzenean,
erdiko mintzean.

Gamitz eta Fika —zuen zori txarra-
eun gudari datzaz
oiur-min, iltzeaz;
goiko mendixkatik dantzudaz, itunki,
eztarri-ots giar,
bizitz azken indar...

Illunaren baltza, garrasiz bete!
Aizea yatorku
ala gaiztoz kuin-kuin...
Lurrari itsatsiak, eun gudari illagin.
Etsai, i aut iguin,
eriores az duin.

Ezta otsik goian, ez lerkirik bean,
baiña eun gudari
oiurka lurrean;
piñudi ondoko iparraren ulu
giz-gorpu artean,
dantzari katean,

* *Goiznabar*, 101-102.

•* *Goiznabar*, 102-103.

Etsai odol-gale, ifernu biziak
 zirimol izukoi
 iregan diraki...
 Aulik, zauritua naukak illunean;
 ez jausten baiña ni,
 miña dot ikurdi.

Goietara deiez itzaliaz doaz,
 atsaren gaiñean,
 gudarien espak...
 Eun gudari zangar, eun leoi ziranak
 aitu dauz balbeak,
 ezarriz erpeak.

Ain ete apurra zuen balioa?
 Gau-garrasi batez
 oro al da amaitzen?
 II arren, gazteak, zuen bular-sua
 betikoz ezta aitzen,
 aldiz illezkortzen.

EORTZI BAGEA *

Ene atsa, sai ozar,
 egaz ebillen azkar,
 arerioz ordi...
 Ta i or intzan gelditu,
 luzez intzan otzitu,
 luban biren erdi
 bai intzan illik jausi.

Goitik lerkaiak xistuz
 etozan geiagotuz,
 dana kirats bete;
 eriotz egoan zut,
 zakarki joaz turut,
 su-ego gaiñ azke,
 ez pot, ez ats-arte.

Txima-naas, zoi gaiñean,
 odol-ziztil lurrean,
 apitxin egiña...
 Aurrez-aur guk itxia,
 or ire gorpuzkia,
 ene lagun miña.
 Aundi yat samiña!

Laster lez, bear bada,
 aitz-artetik urtenda,
 bas-iizi uzuak
 birrindu abe egingo;
 nik ditut somatuko
 orrein erpa-joak,
 orrein sistakoak.

Ta i, iñok eortzeka,
 irri-lagun ordeka,
 or atza betillun...
 Obi baten atsedean
 nok iri, gaiña ukatzen?
 Ene intzira, kutun,
 eik itzalez artun.

AURRA LO DAGO *

Ez, ni ez naz lo-gura;
kumatxoan bai daukat
ene aur maitea,
eta au kendu ezkeru,
nire naigabea!

Kuma barruan dago
zapietan etzuna;
ta atea zabalik...
Deslai dabil aizea;
ta lapur gaiztorik...?

Ixil-ixil sartuta
ostuko ba'leuskide
ene izar goiz-zale,
nok barriri itzuliko?
Ez, ez naz lo-gale.

Ez begist lo astunak
begirik estal-azi;
gelako argia
jagon nai dot nik ernai,
nun dan ene euzkia.

Emendik baten batek
eroango ba'leuskit,
—esan egidazu—
biar, ai! nok lekarskit
egun-argi-kusku?

Oi lo!, laga nagizu
lorik baga, mesedez;
au ba'darostazu,
goizean esnatzeko
itsu gaixo nozu.

Ene aurtxo laztana
ba'darostie, izan be,
malkoz dot biotza;
ta loak zelan poztu
ene min garratza?

Ez, ni ez naz lo-gura
gau aizetsu onetan.
Nagon, ba, iratzarrik,
maite-txingarra yatan
aurtxoa zaindurik.

SORTALDEKO IZARRA **

Sortaldeko izar zuri!,
argi egidazu.
Belen aldera, otoi,
—beñola iru aziak—
zuzendu nagizu,

Ba-dot griña leial bat,
danik biziena:
Josu'ren aurrean nik,
seaskari kulunka,
ustu nai barrena.

Baiña gau allunez nabil,
biotza nasirik.
Txoriak kantarik ez
eguzki argiz baiño,
ez baitau kemenik.

Itun dago lorea
gau-oxin baltzean.
Aren gura bizia
nok lekike, illuna
astindu naiean!

Izar! Oi, izar zuri!
Sortaldeko izarra!
Bizitza zear bekit
bide-erakusle zardain
zure argi-garra!

* *Bertso berri ta kanta zar* (II) [1960], 10.

** Olerki 2 (1960) 10-11.

1960

ARADERA *

Naiz-ta ardiak marraztu"
 Urkiola aizetsuan,
 epel nai ozkirri,
 artzain abillen, gazte,
 esan eidak garbi:
 Anboto'ri bizkarka,
 Larrano baiño len,
 Asuntza'n bedar leuna^b
 ardiak ez daben.

Giñarre, azki, ote,
 an ba-dok^c ugari,
 zenbat-nai asetzeko
 ardi, bildots ta aari.
 Liliak be naikoa^d
 urre ta minbera;
 danetan begikoen^e
 nok ez aradera?

Naiz-ta ardiak marraztu
 ta ik oinpean zapal,
 larre lora usaintsua
 beti eder, apal.
 Gotzon egoz abil, ba,
 ene artzain gazte;
 ez egidak oinpean
 loitu larre-lore.¹

Lo kuluxka ba-dagik
 bazkari ostean,
 or daukak esku zuri
 ire jagonean.

Urrin⁸ ba-dok iñoizka
 ames eio-arri,
 ur yagok zelai lore
 biotz alaigarri.

Bildotsak janez gero¹¹
 aren ostoz azi,
 ordekan darie gauz¹
 arnas usain ezti.
 Ta iri, etxeratzean,
 andreak itauna:
 —«Nundik dok, maiteaⁱ,
 dakarran usaiña?»,

Gotzon egoz abil, ba,
 ene artzain mazal;
 ez egidak oinpean
 aradera zapal.

* *Goiznabar*, 158-159 (B); *Bertso berri ta kanta zar* (I), [1960], 44 (A).

a Naiz-ta ardiar marraztu *A* 'n ez dago; *b* leuna *A* mia; *c* an ba-dok *A* ba-kok or; *d* Liliak be naikoa *A* Ba-dira liliak be; *e* begikoen *A* maitekorren; / larre-lore *A* lora maite; *g* Urrin *A* ta urrin; *h* janez gero *A* jan ezkerro; *i* darie gauz *A* dari gabaz
 7 Nundik dok, maitea *A* Nundikoa dok, maite.

1959

IL OTZA *

Aundi, eder, sotil,
 bizi ziñan len:
 Idazti deuna lez
 bikain ta lerdan.

Illargia bera,
 iñoiz zu ikusiz,
 ibar zear lotsor
 joan zan antziz.

Baiña, ai! orain zer?
 Nun poz-atsegin?
 Eriotz-aizeak
 bial zaitu urrin.

DAMUA

Aspaldidanik,
 ene Amatsu!
 lore-intz artean
 ibil naitzazu...
 Gaur, alan bere,
 emen dakartzu
 nire biotzak
 lore-intz mulu:
 damu darion
 itoin dirditsu.

ESAIDAK, ARREN... ***

Ene gelatik ur-ur Mugarra zurbilla,
 ames leun bat dirudi ixil ta giartsu.
 Laiñoa dau biraka nun kokatu billa,
 ta oetzat eskintzen ak lepo malkartsu.

Oi erpin ezkututsu, sorgiñen bil-toki!
 Orrantza yoak ene gogo nekatua;
 akit gupera, otoi, agure iruzurti,
 ire miñez bai yabilk aspaldi gaixua.

Errai-zokoan ixil ik ei dok gordea
 gure erri martzalaren misteri andia...
 Iratzar adi, iratzar, t'esaik maitea
 gure len-edestia zelan zan asia.

* Karmel 9 (1959, 1.zenb.) 10.

*** Olerti, 1 (1959) 75.

*** Olerti 1 (1959) 146.

BANANDU-BEARRA *

Kai ertzean bigun kulunka,
or itxas astuna...
ta jende-mordoa begira,
banan-bearrez ituna.
Urez doazanen artean
zenbat agur ta besarka!
Zar ta gazte, erreka bai'litzan,
zotiñari eraginka.
Azkenik, joan-dei garratza
uin oztin barruna dardar...
Ez uste nik une au zanik
orren minbera ta lakar!
KoJdobi itxasoz doa aruntza,
zoriak erakarria;
ta agurtzekoan, aren aiots
eta biotz-min larria!

Neugana dator leia bizi,
barnean dakar arantza...
Ito-zorian jarri dautso
banan-bearrak biotza.
Ezin itzik bat be taiutu
edegi arren ezpanak;
bizi-beroa ixurigaitik,
ezin balio barrenak.
Arnasea daust edan gura,
nire besoetan murgil;
iparrak altza lez nau lotzen,
begian malkoa zintzil.
Gero... geldi, arnas-estuka,
miñez asea ta laru,
diraust: «Ai, obe, ezpa-zindud
iñoiz be zu ezagutu! ».

1958

ZERTAN? *

Elai bat, eguzki-dirdir,
 Kristo'ren Gurutz-inguru
 dabil egalari.

—Zertan ari aiz, elaitxo,
 Gurutzeari biraka
 ainbestean zoli?

—Jainko-burutik arantzak
 atera nairik diardut,
 ik sartuak bertan.
 —Oi elai, eskerrik asko!
 Bizia dutan artean,
 lagun akit ortan.

ETSI BEAR! **

Oin-arin joan yat igesi
 gaztaro ames betea,
 Ta neguan zelai uzkur lez
 lotu naz, bero bagea.
 Luzatzeko eskatu dausat
 malko bizi ta izu soiña;
 Arek, ostera, ai! itsu ta gor,
 bizkorrago bota oiña.
 Nigandik joan dan arren,
 Aroa doket oroigai;
 Aldi aretaz mintzo ta ames,
 gazte jarraitzea nik nai.

* Karmel 8 (1958. 1. zenb.) 11.

** Karmel 8 U958. 3. zenb.) 9.

OTZA ZARA *

Otza zara, bai, iturri, zu ta zure inguru.
Surik eztozu ezer. Zori onez? txarrez?
Erdi-naspil bizi-ta, ez nik jakin errez.
Baiña gura zeunkedaz beti durunditsu.

Jaunak etzinduzan otz len-burubideetan:
Lur-orpo, leza ta ibai al utsez sortzean,
ba-eban gar sutsua biotz zabalean.
Zu be maitez egiña garai goen artan.

Eten barik darizun zidar-ur garbiak
maitasun kantagai, ala oiñazea?
Guztiontzat ludia samiñez betea,
baiña poz-alai egaz zeruan txoriak.
Zu be, iturri gardena, ez beti malkotan;
ba-do zu biran naiko maitasun ekarkor:
Oe apain eskinka oroldi zea or,
saratsa ta gurbiza beti lagunketan.

Eguzkiak, izpitsu, egu-erdirantza,
sirats gaiztoz josi nai ba'zaitu ziztaka,
or dozu lertxuna zut, burua makurka,
beti gordetzarren zu lerden beratza.

Zure griñaz daukazuz izadi-arnasak
inguruan leiaka, maitale bi iduri;
aize goiztar meia be ostoaz dantzari:
Eder dituzu, antza, intziri ta ai-otsak.

Bidaztia yoatzu, bidez nekatua;
ur ozkirri ertzean ezpana jarririk,
edai atsegarriz polito aserik,
lenari darraikio, indar-barritua.

Biran —opagai ete?— zernaitik daukazu:
Zenbait baso-egazti ta eundaka zugatz;
areik kantari erne, oneik itzal malatz.
Zuk, alan be, barnean sugarrik eztozu.

Zure iduri antzeko ete nik biotza?
Taunak eskerrez ba'nau edertzen naroki,
zelan nik ordain antzo sua ez eskiñi?
Enaiten, ez, sekulan, zu aiñatsu otza.

E G O *

Ego, erreka lerden! Emen nok mintzo-min!
Gaur, beintzat, itz egidak ez ulu, ez zotin:
orrek naiko entzunak ditut oso gordin,
ta begoz oraingoan enegandik urrin.

Elgeta, Mallabia ta Urko ire sor-leku,
arri-sabelpe jaio arren, ez az iñoiz izu;
nirñirka oi dok lurra poz aundiz alaitu,
abotsa izan ik ezti, zidar baizen zalu.

Lertxun, altz, leizar, areitz ta pago, eundaka,
or-emen dozak ernai ta buru makurka;
goiz eta arratsez oro, iñoiz aspertzaka,
igaitik yagok alai maiatza ereska.

Irri-poz bete yabilk Eguna zorotxo,
maitemindu kaskarin biotz gazte antzo:
Ire ots-ari gaiñez kulunka gogozko,
jaio-barri bai'litzan beraren mutiko.

Goian txoriak deda ire ertz urdiñean,
bai ta neskatxa goizez, txangila gerrian,
igana doa pozik, amesa barnean,
ta ik —maitalc izan— pa ari, espn-ertz gorian.

Mendi-beera oala, lotu au gizonak,
eta or dituk ire leiazko ai-otsak:
Korta-barne esituta, murruga zezenak;
a ta i eraso batek nastu, azke-griñak.

Gero, bidean, ibai nausira orduko,
Ermu ta Eibar dituk lagun bi gaiztoko:
Lenago ire zoazan euskera mintzoko,
gaur, erdel-zaletuta, egiñik besteko.

Begitan au aspaldi Eibar'ek gaiñera,
ez yagok iñundik be ire ulu-otsera,
arresiz estaturik jaurti au lurpera,
ta i or abil euzkige zator baltz antzera.

Ni egaz naioakik adimen-indarrez,
ene googa iregan yoat asperenez,
ik bai dok sarriro jazten ames-lorez,
oiñaze-aldian be goi-eroapenez.

—Nitaz oroituko
goiza urratzekoan,
ta eguna laiñoan
bil garaiz okerto?
—Bai, zu zaituket, arrats oria iltean,
nik gogoan ertsia;
itxar nai loz jausia,
nik zu muin-muiñean.

ARTZAIN GAZTEA *

Artzain gaztea
zauri gorritan.
inka bizitan
daukagu.

ai-ene baten
orra nun dogun,
gau eta egun
guztian.

Esaizu, arren:
txoriak kantuz.
errekak saltuz..
zer dozu?

Lizarrak sakon
intziraz dira:
ostoz aizea.
orobat:

Uda eltzean
oro kantari:
artzaiña orla
negarez?

artzaiña ikusiz
negar-jario,
ai-otsak eio
arentzat.

Miñez josita
muiño ertzean.
geriza-pean
zotiñez!

Ixillik, arren!
txori ta muiño.
bedar ta pago:
ixillik

Maitasunaren
dardai zuria
—oso bizia! —
barnean,

Artzain gaztea
orrela ikusiz,
maitasun-dardaiz
mindurik...

1957

A G U R R A *

—Oi, ba-oa, maite?

Ba-oa, ene eguzki,

ene arima zati?...

Oi, egia ete?...

—Bai, ziurki, ba-noa; eta esaidan: «Agur!»

Ez esan itz mergatzik,

ez dot opa zotiñik,

ager zakit samur.

—Ba-oa... noiz arte?

Itunaz mokoz-moko

luzez bizi bearko,

ire itzalik gabe?

—Oraingotan zain ditut izarrak zeru zear:

Txaloz artuko nabe,

kezka ta istillu gabe.

Noiz itzuli bear?

—Ezertxo enerik

ba-daroak aldean

pau baltza zurbiltzean

ni oroitzekorik?

—Uts ditut esku biak; ez, ostera, biotza:

sorgin-ames urdiñez

ta itxaropen utsez

daroat gaiñezka.

—Baiña, maite, zer

egingo bidez-bide?

Urrin emazte ta aide,

eta pozik ezer?...

—Bidazti uts nabilke, maitale txit bulartsu:

arantzaz da bidea,

etsai-arriskuz betea,

baiña ez naz izu.

* Karmel 7 (1957, 1.zenb.) 8.

Eta zer? Mintza naiten orain lots gorrian^b;
 ez dot lur gaiñez bein be sokillik irauli,
 ez muño-egalean^c sasirik ebagi:
 ez zugatzik birlandu ibai-saietsian^d.

Ez dot iñoiz azatzik soloan atera,
 ezta oraindikarren azirik ezkotu,
 artotik ez garirik igitaiz ikutu,
 Jainkoaren esana jaurtiz ezkerrera^e,

Ez dakit nik, baiña bai laiño ta mendiak...
 Geroztik naz gau t'egun zerurantz azartu,
 urdiñaren ixilla nairik estalgetu:
 mendeko nau, alan be, ezin atz lodiak'.

Jauna, Jauna, erruki zakidaz or goitik,
 ez nagizu betikoz albora egotzi.
 Zuk, arren^g; nagizu indar-oriotz igurtzi,
 ta nire atzak dozuz arnariz jantzirik.

Oi, nere ereskin ai-zale, ixil-ekkon aratza:
 ots samiñez, otoi, birlora nire ames-baratza.

Bai, ta liliak sortuko ezker-eskoi bidean,
 igarra barriz piztuko biotz-barren jausian^h.

b gorrian *A* utsean; *c* egaletan *AC* egalean; *d* ibai-saietsian *A* ur-ertz oztiñean; *e* jaurtiz ezkerrera *B* botaz saietsera; / mendeko nau, alan be, ezin-atz lodiak *B* alan be, mendeko nau ezin-atz lodiak; *g* arren *B* oi; *h* azken lau puntuak *B* 'n ez dagoz.

ESKU¹ UTSAK *

Ez dakit nik, baiña bai laiño ta mendiak...
 Min dot biotz erdian, oso ikaragarri;
 lotsa naz soin dardara, matrail-azal gorri.
 Naita luzez bizi, uts dodaz esku biak.

Min baltzez zamaturik mozkortua nabil;
 negar-ibai begiak ta buru apala.
 Norantza zuzen daiket ene urrats argala?
 Ai, ene! Zer gerta yat? Eskale naz zirtzil.

Bai, aritz-kima luze ene esku igarrak...
 Ez bai-dira egundo ezertara saia,
 ezta iñoiz oratu ez atxur, ez laia.
 Ta gaur dakustaz miñez, erreka idor, utsak...

Noizka giz-barne griña garatu orduan,
 ames urdin oingeak eio ditut zoro;
 baita baratze zear larrosa ta mao,
 sarri laztandu bere, irrika mosuan.

* *Goiznabar*, 143-144 (C); *KAEGutegia* 6 (1956) 47-48 (B); *E-Gogoa* (1955, 5-12. zenb.)
 82 (A).

a Esku utsak A Eskuak uts.

1955

zu BAKARRIK MAITE *

Beti on zaiatazan,
ene Jainko maite,
ortik sargori da-ta
gagozan ementxe.
Zugandik nintzean bein
zabarkeriz alde:
ez neuke iñoiz egin nai
beste orrenbeste.

Ba-neban eder-asko
zure esan-aolku,
baiña lera-soiñua
ezin aienatu;
atzotik orraitino
eskerka naukazu,
gogo ta soin osorik
zeurea bait-nozu.

Begi-itsu ta gogorki
zirika ninduzun,
ta nok dei-arrenari
egingo ez entzun?
Emen nagoke, bada,
zaitudala lagun;
biotza, barriz, sutan
dariola lurrun.

Aurrean sagastia
loratsu begira,
larrosak osto zutik
goizeko euzkira:
zurea ta nirea
orobat intzira,
bion biotz-taupadak
bardintsuak dira.

Maitasun-alez astun
galburu bat gara,
itxas-egal emean
kulunka batera.
Lore-pa leunak itxi
ta batuz barnera,
ez nik amor egingo
barriz okerrera.

Argi, lore ta mendi,
len oro maite nik;
gaur ez dot ezer be,
Zeu, Jainko, izan ezik.
Ezpegi inok geiago
gure lokarririk,
ez zabar ta ez otzez,
ikusi etenik.

Bil zaite, bai, barnera,
ta izaki otsez urrin,
adi ene intzira:
eroan eziñean
igara lez bai dagist
biotzak pilpira.

Uler-gaitza dan arren,
siñistu zeinke, maite;
egia benetan:
Aunditasun osoan,
nazan legez naukazu
Osti zuri ontan.

Len laiño loi ziñean,
apakin utsezkoa,
orain onez jori.
Ai! zelan, au ikusirik,
ez zara su biurtzen,
ene kutun ori?

Gogoia

Zu eguzki, ni inguma;
zure bira nabilke,
goiz bare garbian...
Argi ortik edanez,
nai neuke erre, zerbeldu
maite-su gorian.

Leun geziru naroe
zeru-izpi urrezkoak;
geiago ez otzik;
garbitu nagikenik
zabar erdoiz osoan
ez da iñor, Zu ezik.

Ementxe poz-jario,
bular zokoan ixil,
zein egoitz kutuna!
Ikus ez, oar zaitut.
Oi eragin me-samur,
laztantze biguna!

Zugandik naz igesi,
luzaro or-an ibilli
ames uts jarraille.
Josu! erruki zakit,
oiñaze kezkaldean
bai zaitut urgazle,

Emendik at, zer al dot?
Eztabaida zorrotza,
ziraunen edena;
bide ondoan zoztor,
oiñetarako sare,
kalte dakarrena.

Mintza zakit gozoro,
ixillik mintza bigun,
ene gogo barru;
zure goitar bizitzaz
aopeko ez titan
irakas nagizu.

Iretargi billosa
goi sakonean barna
dabil barre dirdir...
Ni geldi nadin emen,
Zuri, Josu laztana,
aterge so ñirñir.

Zure itzal muga bako
ames laiñoz egiña,
ta nire itzal zoro,
etenkor ta gelbera,
alkarregan baturik
begoz aldi oro.

Oi, Josu, maite samur!
neure zaitut osorik,
zeure nozu guztiz.
Biok gagozan emen,
illeti bi antzera,
leia ta su biziz.

Gogoa

Ene osasun maite,
nigazko zure sua
ezta, ez, nakarra;
oiu-intziriz naro,
pipil-etentze iduri,
daukazu bularra.

Ba-neban aurretik be
lar maite agerkirik,
ene Maitale ori:
ta zoriñok oartzu
negar dodaz matraillak,
biotza ler-zori.

Oi! Begiz ez zakustaz;
nabaritzen ostera
maite-min bizia...
Bai, ba-zautugarra,
alderik alde zauritu
naroan gezia.

Goi-ekzutu uler-gaitza!
Ogi ta Ardo pizkaren
antz iduripean,
Zeu, Jainko laztan ori,
oso-osorik zaukadaz
izate betean,

Eta ots dagidazu
ala ezti samurrez
mai done ortara.
Ni, ostera, gose naz,
zure Soiñaren gose,
Zatorkit naitara!

Ortarako nagizu
maite sutan ixio,
illinti antzera:
damu ta garbai-malkoz
elur aratza beite
nire gogo-kerak.

Ta... zorun betikorra!
bizitza sor oi dauan
Ogi deunez ase,
nagoken biotz dardar
lore txorta usaintsu gain,
zure beso arte.

Kristo

Sar zara nire baitan,
ta zurea bai, maite,
zorion betea!
Ez asmatu, ez esan,
gizona alegin arren,
ezin langoxea.

Ni ta zu ikuskaturik
argi-adar bi antzo,
baten murgilduak,
iñartsi-leiaz dozuz
zeru-jagole diran
aingeru ixetuak.

Jaiotekoan, aldiz,
lasto artean nintzan
otz ikaraz etzun;
zeru goian alan be,
eundaka izar zuriak
zapaldu oi nitun.

Ta zure etxea orain
saguxarrez josia
dot osoan aurki.
Ulertzen ete, kutun,
maitasun ezin-jasan
onen ezkutuki?

Ene giza-biotza,
—illuntzeko dardara
sorgin gerizatsu!—,
Muiñean txertaturik
barrenean nor dozun
ba ete dakizu?

MAITE MINETAN

(Alkar-izketa)

Kristo

Oi, gogo ames-zale!
nora ezean zabiltz?

Bil zaite barnera.
Leraen zora-didar
ta 2elai lorak itxiz,
zatoz, maite, onera.

Samur dei dautzut sarri,
ta zain gau-ordu luzez
egon naz aspaldi;
egizko Odol ta Soñez
ba-dautzut nik atondu
maitasun-apari.

Jarri mai zuri ontan,
ementxe, niniz nini,
alkarri begira...
Begi urdinzka orrein
leza barru galdurik
nireon dirdira.

Ba-dakusu au, maite?
Zerete? Al igarri?
Zentzunak iruzur...
Begipe daukazuna
neure Aragi dozu,
neure Odol uzkur.

Artu ta jan naitara;
zure barren **epela**
laster da bizkortu:
or, zure errai zokoan,
maite jabe gorian,
nai dot atsedendu.

Zure billa zerutik
jatsi nintzan; lurrean
zure miñez nabil.
Neurri bardiñekoa
beite, aurrerantzean,
bion biotz-pilpil.

Erdu, bai: zeren lotsa?
Antziña lez, oiñazruz
ez zaitut zemaitzen:
aul, bakar ta oiuka,
zugazko maite-sutan
bai naukazu emen.

Bein soin-billos gurutzan
pekatuen ordaintzat
ikusí ninduzun:
Goiko Aitari bertan
oro eskiñi neutson
zure alde, kutun.

Zabalik dot gerora
bular zauri minbera,
ur garden iturri,
Gaiztoak an egiña
maiteak dagist emen.
Zakidaz erruki!

Oi, irritsez nik opa!
Biotz ataka ori
edegi eidazu;
zeru lurra ar ezin
dabena Bera on-uts
orra ba-yatortzu,

Txuka zotin orreik, betor poz-argia;
oi, nik ez nai ikusi zu lañoz josia!

* * *

Ama dot mosutu gozo ta samurki...
Ene biotz-dardar! Aren matrail gori!

Ta eder-min gose, tokiz naz aldatu,
urrun aizeak daust bularra gainditu,

Gerora, oi! sarri loratze guriak
ikusi ditue nire begi biak.

Ames ta sorgin-poz, aur-jolas ta atsegin,
uriak ditzikor, zerupeak urdin.

Txokoa, alan ta be, nik maite gartsuki,
ta bertan zu, ama, dirdaizko eguzki.

Enarak ba-datoz eltzean beroa,
alan oroimena doakit zoroa,

Urtez zerbait ule zuritua zara,
matraillak zimeldu, mao bi antzera.

Ezilkortzat etsi arren, oi amatxo!
ez gara lurrean iñolaz betiko.

. . .

Bein izpar baltza: zure eriokoa.
Osoz lauski eustan biotz-azpikoa.

Nik ez nai siñistu; baiña, alan be, egia:
gutziz yat itzali beko eguzkia.

Malko ixuri nozu il-obi ertzean,
zure ixil aundia barrendu naiean.

Ta gaurtik aurrera, nire illun nasi!
Algo dot osoan neuregandik jaurti?

Baiña... bego izpitsu itxaro zuzia,
zuk or urdiñetik niri bidalia.

Zurekin, nik bere, atsedean aldia
noizbait dot izango, izarrez jantzia.

Beso leun batek atzekaldetik,
oratu dautso samurki.
lieso pin ori, norena ete?
Bere aitarena, noski.

Zer galzoritik asagotu dan
aur setatiak ikusiz,
«Eskerrik asko, Aita maitea»;
diño dardar, zotin aundiz.

Ego-zabalka kaiok urru...
Bat-batez galpen larria:
arkaitza jorik, urpean murgil
amabi gazteen ontzia.

Oiñaze-larrak iñoiz biotza
odol ba'dautzu, ez bildur:
zu jagon naita Jainko-eskua
beti dozu, zugandik ur.

AMA, AMATXO! *

Zer dagiket kanta? Nor gorets, zu ezik?
Bai al dot, ezertxo be, eresgai oberik?

Ama! entzun, otoi, semeak autorra,
iñoiz aultzen ez dan maitezko txingarra.

Bebilt bai inguruan zure itzal urdiña,
ez zar ez urrunez amildu eziña.

Zuk zelan jakin ez —Goikoak ba-daki—,
or sabel barru sor ninduzun alaiki.

Baita, arrezkeroan, egun luzez zaindu,
Jainkoak lilia baizen arduratsu.

Nik negar, zuk mosu —erlea burrundin—
au luzaro bion arteko zeregin.

Maite zaitut, maite; maite nozu, maite.
gizonak mingaiñez esan ezin beste,

Zer dozu begian, eneño kutuna?
Biotz barne, lazki sar dautzut eztena,

Uts egiñaz baiña damu naz betiko;
ez dot ostera gaitz-biderik artuko.

Barrero be, ama..., begian zer dozu?
Ni alde bearrak goibel ete zaitu?

ITURRIAK NEGAR *

Aldapa-saietsean iturri yaukala,
gaiñez lertzen dautsola pagoak itzala.

Ene laguna ta ni bertan lotu gara,
uraren jauziari oldozkor begira.

—«Zergaitik, adiskide, negarrez itoa,
iturritxo lirain onen jarioa?».

—«Ez, maite, ez dok ori biotz-min oiua;
ori dok lizar-txori poztu-nai ulua».

—«Lizarrak pozteko ez bear ulu miñik;
txoriak barriz ba-dau txinta-jo ederrik».

—«Antz-asper^a gabeok, siñets niri, arren,
Jainko'ren aintzaz dozak barne-otoitz guren».

Lizar-osto artetik keiñu eguzkiak...
Negar-itoin bizi, ak eta nik begiak.

JAINKO BEGIRAKUNA **

Loratsu dago itxas egala,
aldatza, barriz, biguna;
jai jantziz oro, dirdir-keiñuka,
kaioak ba-dau laguna...

Eskoi aldera, zoragarriro,
eguzki galdaz urduri,
zingira zabal geldi-eziña
ispillu garden iduri.

Basa-lilidun ontzi batean,
eresi-oska ari dira
amabi gazte, bekoki alai,
jai ospatsuz bai'lira.

Ur-ertz zear aurtxo txiki bat,
irribar gozoz dabilla;
ustekabeen besotxo biak
luzatzen itxas billa.

—«Zatoz gurekin» —gazte zoroak
ontzi barrutik diñotse.
—«Bai, bai, oraintxe» —oiu leiatsuz
umetxoak darantzutse.

Baiña ontzia noiz ikutuko
lurraren ertza egola,
aurtxo txikia, oso alaiakor,
bertan sartzera joiala...

* *Goiznabar*, 132 (B); *Karmel* 198S-1, 11 (C); *Milla euskal-olerki eder* [1954], 728-729 (A).

^a Antz-asper A Antzi asper.

Goiznabar. 136-137; *Milla euskal-o'erki eder* [1954], 729.

JAIOTETXEA

II

Aspaldian ez-ta, ene kabi zar!
emen natorkizu, biotza dardar.
Opari dakartzut oba eziña,
zure ibarretan gaur goizez egiña.

Atz artean xamur lauskitu eizu,
zure maastiko mats-mordo bai dozu:
eztia darion maite-bertsoa,
goizeko izar-malkoz oretukoa.

Baiña... itxoin, bertso diñot? Egia?
Ez, geiago: ene izan guztia;
oroi ta ederra, alkar josirik,
neure lei-orioz dana igurtzirik.

Ene baserri, baserri,
nik gogoan aut sarri!

Oraindiño gaur be zure ikurdiak
—arri ezain-ezin ta aintza-loreak—
zut dagoz ormetan; goiz arrigarri
ta egun urdiñen gomutagarri.

Sartzen, atezar untzez beteak,
antxiñako zarren odol-eusleak;
kedar jantzi laratz aiztu eziña,
zur, abe, soillaru...; dana nik miña.

Aur-egunen ezti, oso-osorik
zugan itsatsita daurkit oraindik.
Oi, begiok: ase joan-ederrez!
Oi, biotz: mozkortu ardotxo zarrez!

Ene laratxo, laratxo,
nik laster ez aitzuko!

III

Eder, aragikoi, jaiez jantzia,
nok zugan ez ezaun kuma guria?
Zu, oi!, goresteke, nok itzik naiko?
Ederren eder bai zara, maitetxo.

Zugatzak mendia baizen maitia
zaitut nik, enetxo lerdan zuria,
Loreillak dirala, ortxe berotsu,
arrats sorgin batez, jaioa nozu,

Ta gaurtik gerora, len-kabi ontan
bizi nai dot, lertzen ez dan baketan:
goiz-txinpartez gori altzo barean^a,
izar urdiñezko ames artean.

Ene basetxe, basetxe,
biotzean aut maite!

■ *Goizriabar*, 133-135 (C); *E-Gogo*a (19,55, 5-12, zenb.) 82 (B); *Milla Euskal-o'crki eder* [1954]. 725-726 (A).

^a altzo barean B magal beroan.

Areitza

Zarrez zerendurik
Gernika'n Areitza,
Oi, enbor doneari
blei dario atsa!
Aren soiña lenago
bai zala malatsa!
Sari ordez orain be,
guztizko aratza,
agur! , agur! , diñotzu,
iltean arratsa.

Kantauri

Kantauri, zabal-uridin,
pizti gurgur-izu,
e.usko-seme zangarren
bizi-jardunleku,
erditze ixil-barrien
goi-bide zadortsu,
illunabar zuntzakin³
jolasean kuku,
bitsezko ereskiñez
oiu baten dozu.

Joalea

Eta eleiz-ezkilak?
Oi, aren matraka!
Din-don ta din-don, aren
etenbako jarduna!
Txori ta aize lagun,
zer diño itz oska?
Goiz eta arrats, norentzat
ninbeste zarata?
Zoraturik daukazu
zuri agur leunka,

Ganguena

Aizkorri ta Gorbea,
Eretza ta Anboto,
Auñamendi ta Aralar,
Udalaitz ta Igeldo,

Sollube, Urko, Kalamu
Oiz, Urbasa, Ernio,
danak izpi zuritan
urrezko lokiz io
ta zure otsein leial
dozuz poz-jario.

Baserria

Bide-kurutzan nasai
euskal baserria:
ereñotza ondoan,
aurrez mailladia;
oroi-untzez josita
ate nagusia;
odol tantaz egiñik
dirudi gainkia:
baso mutil yaioen
ekarkor azia.

Olerkaria

Amak, ume nintzala,
Euskera goxoa!,
zure garrez eustan jo
izate osoa.
Arrezkero zu zaitut
neure maite alai,
arrezkero zu zaitut
neure min-abesgai.
Amaikak ba-diño
zaartua zareala,
pipi-zerenak janik
il-ur zagozala.

Ta... zu ilten ba'zara,
zelan nik abestu?
Zuk uts emon ezkero,
zelan nik arnastu?
Baiña, ba-dozu lar be,
oindiño kemenik:
urte luzez, oi maite!
zagoz, bai, mardulik.

Itxastarra

Ur geza dot aberri,
 gaur on, biar naspil;
 bere gerri gazian
 arrantzuan nabil.
 Ez dot ezeren kezka,
 ez burun maratil;
 soiña ez daust iñok
 lokarri estuz bil.
 Guztion Jaun: Zu zaitut
 biotzean pilpil.

Padarra

Dei batek gogo zear
 ots eustan bein egin;
 ta neukan oro itxirik,
 ama ta etx_e urdin,
 ixil ta bake-billa
 joan nintzan urrin.
 Eder-ase begiak
 ta biotza goimin,
 bazter ontan ez naz
 czertxoren premin,

Irulea

Goiz urdin ta illunabar
 oi nire zoria!
 Emen nago ariltzen
 artule aria.
 Bakar irun-bearrez
 arilki guztia,
 barruan ba-darabilt
 abarrots ausia.
 Baiña zugaitik jasan,
 ez al da eztia?

Lugiña

Solo-lanean nozu
 lugiña egunez;
 urrezko gari-sailla
 zibuka dot aurrez.

Iñoiz min izan arren,
 orain ikus pozez;
 ala biur yat, bada,
 udabarri-lorez:
 bego nire gogoa
 aren oroi-atsez.

Aitona

Urteetan naz, egia,
 zerbait aurreratu,
 gorputza be apur bat
 uste-ezik mukuldu.
 Baiña oian-pagoa
 beingoz ete auldu?
 Ba-dot nik oraindiño
 adi-argi, onu:
 zu goraltzeko, barriz,
 su gori dan bertsu.

Eusko-ama

Opaz daukazu orain
 eusko semeen ama:
 mundu zear ospeak
 aspaldi narاما:
 kumak seiñez ugaltzen
 iñoiz ez sarama;
 askotariko pitxiz
 ikus nire sama,
 ene sabel-aldien
 aintza dozun zama.

Basoa

Otza igaritakoan
 or udalen jori;
 eguzkik joez gero
 edozer dardari;
 maite-aro dalako
 txara ta beresi,
 urre-kantaz zenbatu
 ezin aiña txori.
 Norentzat orren **polit**
 altz-adarra jantzi?

Bidaztia

Igandik aizkatuta,
maitezko sorterrri,
osto galdu antzera
or nabil aspaldi.
Baiña indar bat etenge,
bailitz ardo barri,
ene barren-eltzean
irakin diraki:
naita urrin-autsez oiñak,
i aut amesgarri.

Semea

Illargi-printzak leiaz
gau-itzala maite;
biotzez dau arenbat
senarrak emazte.
Ama lakorik, baiña,
nekez aurki daite,
ta nik zu zaitut laztan
iñortxok ez beste:
btziak dirausteño
nire mintzo zaite.

Neskatxa

Larrosa loratua
baratzean eder...
Eusko-neskatxa, barriz,
etxez atera zer?
Sukalde barrun zernai
oroiz astun dager,
ta ainbat lora niretzat
zelai-munak ler.
Emen nagoken, beraz,
naita bizi bazter.

Artzaiña

Eder yat goi-erpiña,
mendiz artzain nabil;
lagun ditut ardiak,
txakur eta makil.

Esne, gaztae ori
ta sapedar pipil,
oro deskintzut zuri
oparo ta sotil:
zugana bai doakit
biotz-uxia ixil.

Arraunlaria

Oztin dago zabala,
aizea mee ixiltsu...
Nai bare nai aparrez
egiñik apuztu,
luze ta bardiñean
ur-lepoa neurtu,
lerden nabil itxasoz
arraunlari zaintsu.
Nok uretan gutarrik
iñoiz azpiratu?

Olagizona

Lurrari, ekiñean,
meatz gorri ostu,
sutan erre, antola,
burdiña biurtu:
orixe darabilgu
arlo zeregintsu.
Soiñez auts-koipe arren,
gogoz edur ta su,
cta iñoiz aztutzeka
euskeraz mintzatu,

Gudaria

Gorbei-gara egundo
ikusi ete lar?
Aren muin baizen sendo
ni ba-naz al ta indar.
Guda-ekaitz orluan
nok nik aiña bular?
Lerroan jokatzeko,
nai, adore ta gar?
Euskal-Erri maitea,
zugaz ez naz zabar!

Onela jardunik, au zoragarria!,
Andra bat aurean goibel yat agertu:
zar dirudi soñiez, biotz-astun, laru,
naita lenago izan bakana, bitxia.

«Ez bildurrik —diñost—, Euskera bait-nozu,
zuen izkuntza zar, minbera, guria,
semeen itxikeriz zarpaillez josia;
zuk, beintzat, ez nagizu osoan mirrindu.

Zoaz ortik zear, ta Ama miña iragar,
betoz ni goratzen aldraka semeak,
zitutu begiez nire orma zarrak,
lena bizitara ekarriz poz-dardar».

Samur nau ondoren besotarteratu,
ta, nigan jarririk ezpan biak bero,
bere barren sua niri ezarteko,
goi-arnas leguna bizi daust lurrundu.

Ta gero, nire izar dizditsu sotilla,
arin yat gordea orma zar ostean.
Ene! Sua ñirñir betsain aratzean,
baiña susmoa nik betikoz ete illa!

Min dot, arrezkero, min errai azpian,
ta danak nai neukez min onen zatiki;
zuzper, euskalduna, ta Amagaz erruki,
sugarrik ba'dozu oindiño bizian.

MAITASUN - OPARIA *

Seme-sailla dozula
zure aulki inguru,
lerden ames zaitudan
ele ama aintzatsu:
omen gorazarrerik
urteetan ez dozu.
Olerkariak, alan be,
sor-miña ernatu
ta maite oparia
biziuro deskintzu.

Zeure baratz-ederkiz
osotua dozu:
dardar, su ta biotz-gur,
ai ta neke-gantzu.
Bakotxak, al giñoan,
zelan dan diñotzu,
gaur goretsi naiean
zure poz-eztegu.

* *Goiznabar*, 220-228 (B); *Milla euskal-olerki eder* [1954], 722-725 (A).

lbilli ba'nabil maastian zear,
 aienak oi dabez mosuak alkar;
 zurtuta entzunik nire ai-otsak,
 oparo darie malkoa lorak.

Abetxu gaiñean txindorrek diño:
 «Gazterik mindua gure maiteño».
 Ta beterik dago eztingai gozoz,
 ase al ba'nadi txinta-eriaz.

Bidez ba'nakuse, aurtxoak agur:
 «Bekokian dozu iraiñezko ikur».
 Iguin aut, ba, gizon, guzur ta marru;
 iguin aut benetan ni lotu-esku.

I, barriz, maite aut, leiar urdiña,
 ik bai daikeek goza ene samina.
 Baiña, arren, ez egik ots ain itunki,
 muiñea yat lertzen ori entzuki.

Z A R P A I L D U A *

Min dot, ai!, atzotik, min errai azpian:
 begiai^a darie negar-ur garratza,
 ai-eneka, intziraz aitu yat biotza...
 Ta zugaitik, ele, nozu ler-zorian.

Griñak ixil, bare; arrats-il otzana...
 Ez dot, ez, oraingoz beztunik barrun:
 txori, aize, argi dodazala lagun,
 ames-zale nabil zelai musker barna.

Zer dakust aurean? Jauregi zar urdin!
 Izuak arturik, mozkortua iduri,
 ixil-zirkinpean ara noa urduri:
 ez nik iñoiz izan alako jakin-min!

Ezker-eskoi so, ta eder-apain utsez;
 oro sasi ta lar, joanaren usain,
 oro aztarna zar, ontzak orrua gain;
 ereñotza soilki oraindik orriez.

Sutondoan, noski, ba ete berorik?
 Zalantza bizian, barnera nadin sar...
 An be, baiña, kirats, erdoi ta saguzar,
 nainun ugari da ekaitz mozkin baltzik.

Aldi: or ire lan, dana zar-txilio!
 Ai, zein itxusia asaben egoitza!
 Or, bai, gizonaren zabarkeri latza...!
 Nok leiken barrero lenargia ixio!

* *Goiznabar*, 35-36 (B); *Milla euskal-olerki eder* [1954] 721-222 (A).
 a begiai A begiak.

Goira dot igon nai ego iraulka,
izarren isla mosutu,
ta azkar garaituz ortze oztiña,
argi erriaz jabetu.

Ango goiz-aize, oi!, nok leukake^b
Usno^c goitarrak arnastu,
argi iturrian egarri sua ito,
Jainko-besoan atsartu!

Baiña sugetzar marraskariak
lei ardoz mozkor nakarre;
ta ene gora miñak or epel,
illotzen taiua darre.

UR! UR! *

(Pisuerga ondoan egiña)

Ur! ur!, zokoz zoko arin oan ur!
Zer dala-ta dagik orren mee surmur?
Arri ta zur naukak ertz muskerrean,
ire ai jasoten aize urdiñean.

Gorrotoa yabilk an-or nagusi,
ta bake-eske igana nator igesi.
Gizarteko aize atsitzuz urrun,
zeru yoat ire altzoa, kutun.

Ibillian gartsu lorai laztanka,
ipuiñez diarduk ixil-mixilka?
Ala, ari gaiztozko, mormox-uts abil,
uberkak esitzen aulako zurbil?

Ta iri yiñoat gaur erosta miña,
azalera barik jagon eziña:
i beintzat erruki, urtxo gardena,
neugaz bai darabilt miñik latzena.

Aspaldia danik zori bardiñak
ez ete alatzten gure barrenak?
Erreka yaroat muiñean oska,
iñoiz ixil bako naigabe-erreka.

Bein bota ninduen neureakandik,
ta arrezkero ba-dot naiko oiñazerik.
Aita itxi naioan, ala-bearrez,
ta ama noiz itoko zotin-negarrez.

Gaitzetan nagola urteak dira,
ta noiz barrero ikus zorun-dirdira?
Eguzkiak dagi argi goibela,
pizkaka darion izpi motela.

Nire oiua bai zala garratza!
Zimel eustan ia miñak biotza.
Poz-zuzia yatan osoz itzali,
ta gogo laiño kizkor estali.

Ixil-zale diran maite bi letxe,
gu gagozan emen guztiz as-arte.
Minkide aut, urtxo, samíñez ase;
ik argitu leikek nire errai-leze.

Ordutik, ai ene!, goibel naz bizi:
igar-laru soiña, arima larri,
ta noiz-arte ekingo negar-bidetik?
Eriotzaraño ez ete izarrik?

^b lentake A leukaken; ^c Usno A Usain.

* *Goiznabar*, 116-118; *Milla euskal-olerki eder* [1954], 719-721.

1954

BARRUKO GUDA *

Oiu dagit, itxaso biur:
zer darabilk ain aldakor?
Gain-urdir atzo, amesti jasez,
ta gaur orru dagik gogor.

Barne-samiñik etsianean
leiar gUborra putzitu
ta arrizko esiz baituten auen
aitzak nai dozak zatitu.

Zintzurretako bits atsituaz
ondartza zikin daroak;
mintzatu akit, Kantauri arro,
ire itz-miñetan bai naukak.

Baiña... ez, ixo!, ba-dazaut eta
zerren agoan muturik:
uin-litsean bein neuskan irakur
ta ba-jakiat geroztik.

Barrun ba-dot neuk be guda lakar,
errezto jasan ezifia:
azke ibil gura ene zer onek,
baso usuan lez oreiña.

Biziki digart barru muiñean
etsai biren jotze urbilla;
gain itzal gaizkor bai lebilkidan,
zorapenezko naspilla.

Egaize balak zingira gaiña
nasi oi daben antzean,
zer gordearen dardara bizi
sarriri doart soiñean.

Etsai eraso, burruka latza,
eguzki dirdairik bako!
Uin-jauzika ots dagikanean
dirudik itxaso arro.

Goitik gogoa zidar egalez
dago jantzita: zerumin;
aragia, irrirts murkoa eskun,
ikus beerago: ludimin.

Izanez^a bata ustelkor dozu,
bestea barriz il-gaitza;
lur ala gogok jadets ereño?
norentzat ete garaitza?

Or dabilkidaz lera-sugeak
biotz ganbaran txistuka:
oillo samara mirotza letxe,
jarkitzen alkar eztenka.

Aragiz azke dan gotzon argi
edur egoduna iduri,
Iokiak ausiz ludi ontako
beatzun-arana itzuri.

Baita, eio-zaletsu,
 ba daukat errota:
 argitan ots neurtuka,
 ta bildurkor illunez
 dabil txalapata.

Zorrotxoa, ostera,
 eio bitartean,
 urak me daragoio,
 xamur kanta amilotxak
 atzeko intxaurrean.

Ene zorion bete,
 argi baizen samur!
 Bein baten ames egiña
 —naimen zuri igeskorra—
 gaur mamin yat biur.

Galburu aurkitua
 ona urun biurtu:
 edurra baizen zuri,
 argia baizen bakan;
 zerua loratu.

Eskerrik asko, Jainko,
 bait-zara on-ona;
 ta zuri, urun garden,
 ene patxo bizia,
 kanta aiña ozena.

VII.—Goitar Janari

Egunik egun argiak
 lurra oi dau mosu...
 Goizero nik eskintzen
 Gurutzeko oparia.
 Jaupari bait-nozu.

Zu zaitut gaur, galburu,
 opagai zuria;
 atz artean zaukadaz,
 azur, mamin nagola
 dardaraz josia,

Esan dodaz, bai esan,
 lau iztxo garbi ta usu;
 ta, lipartxo barean,
 Jaunaren Soin egizko
 zara zu biurtu.

Nire jardun gurena
 nok adierazi?
 Goiko Jauna ikurtondu,
 eskuetan erabil,
 ezpane z onetsi.

Ta... zure zori bete,
 galburu orrena:
 ez noski iduri-antzez,
 egiaz baiño, Soiña
 zara Kisto'rena,

Ta Jainko-Soiña dot nik
 janari goitarra;
 il-bearrez bizi dan
 ene izate aulari
 Ak damotsa indarra.

Oi, on-egite aundi,
 itzez esan-gaitza!
 Ai, ene Jainko Jauna,
 beukat nik aldi oro
 eskarrez biotza.

Oi, beti al nagoke
 Zugaz alkaturik:
 Zu nigan ta ni Zugan,
 maite-ardotan murgii
 etengabe iraunik,

VIII.—Azkena

Beñolako galburu,
 Jainko-Soiñ egiña:
 gaurtik bego beti
 bion zin-lokarria,
 iñok azke-eziña.

IV.—**Jorrail-erdi**

Egunak, uste barik,
igaroak dira.
Bitartean, ba-dantzut
iñoiz eskain-dei gogor,
iñoiz barne-intzira.
Ta nik goiz epel batez
erein galazia?
Ez dot egundo aitzu;
arrats-ituna beste
bai-yata eztia.
Negu-garaia zear
arduraz dot zaindu:
begi oriska^b jaioz,
kurloi ta amillotxak
ez dauste aztertu.
Ta udabarri eltzean,
zein mardul dagoan!
Txit eze, ta buru-zut.
Aspaldi dauz urrungaz
durdurak auzoan.
Oi dauanez txilistak
enera ba'dagi,
beingoan araturik,
jorraitxo kirten zuriz
laster dot irazi.
Argia aitu ba'dagi
zorapen gozoan,
ta izarrak goian eme,
ames-zain nagokio
gau-aldi osoan.

V.—**Eldua**

Gogaikarri egoa;
kimak apain ostoz;
ardiak tilin-talan
ubaro-itzala eder.
Garillean gagoz.

Aizearen igurdiz
zibuka garia;
zidar-bitsa dario:
laister yat orituko
barruti guztia.
Geroztik, zu zaintzeko,
txoriak nik izu;
ta leioa alakan zut,
maite kutsatua lez,
adi nagokizu.
Baita, iñoizka, zugana
el naz ustetsua;
eskupe guriz zaitut
igurtzi, ta zuk pozik
esan bide: «Eldua».

Ta nrratsalde urdin baten,
narotua etsiz,
neronek ebagi dot
gari-arlo dan-dana
itai urtu-barriz.

Garandu zaitut urren
arnabar gaiñean.
Au ale-pillo gorri!
Urre-meta emoten
altxor gilgilean.

Zure min da sagua,
baiña nik laga ez:
liñoizko zorroetan
biar zaitut gordeko,
eta itxi giltzez.

VI.—**Eio**

Biran, solo txikiak;
ezker, errekea;
sagastiak, albora;
muiñoan, baseleiza:
ona nire etxea.

Bir-loratuarena
 zure maite-edesti:
 mamin-azal eztia,
 barne-ikaraz josia,
 poz-zero ta illinti,

II.—Aurkitu

Galdurik, ala itxia?
 Nik ez dakit ziur.
 Garia, ebagirik,
 metaetan bil eben
 biotz-esku samur.

Ni ara nintzanean
 zu bakar zengozan:
 solo erdian toto,
 ziñean ainbat luze,
 aurra iduri lotan.

Joranez makurturik
 zindudazan jaso.
 Ta zure begi eder!
 Zelako matrail ori!
 Zein irri-eraso!

Ezin nik azaldu, ez,
 zure izate jori:
 galtzu gorrista mean
 eundaka garauz betea,
 txairo ta ler-zori.

Zu atz artean tinko,
 etxera itzul nintzan;
 ta, pa gartsu emonik,
 kutxa zar lurrunduan
 gorde zindudazan,

Sarri neban, gerora,
 zuregan oldoztu:
 ezo ta bero-alez,
 itxas-ondarra gaiña,
 nai zaitut ugaldtu.

III.—Erein

Otzik dabil aizea;
 zugaztia soin-uts;
 orbel pillo karkabak:
 illeta-jantziz oro,
 Oi, lena ba nekus!

Etxe zuri buruan
 dot baratz txikia;
 baita, eskumarantza,
 ene irizi emokor,
 esiz oso itxia,

Dan-dana neban atzo
 Iai zuriz irauli,
 Egia, aurki, esan au:
 Ian-zorraren aldera
 neke-miña itzali.

Gaur goizez, giro dala,
 dabilket area,
 ta nai neuke bertantxe
 irra neurtuan bota
 galazi maitea.

—Ez lotsa izan, ez izutu,
 ene galburutxo;
 maitale dozu euzki,
 Iurra sabel amakor,
 ta neu jagoteko.

Erein... dot sail osoa.
 Bai dagola lerdin,
 Eguzki orrek: Galda!^a
 Lur amortxo: Ezotu!
 Tu Zuk, Jainko: Kemen!

Gabaz izar maiteak
 —bizitz-untzi garbal
 ixil aundiz betea—
 malko-iruntza ezar dau
 zure kuma-egal.

1953

ARRATS - ESKARIA

Arratsaldeko iruntz-itzalak
jaustorduan lur gañera,
ludi zakarrak izututa,
batu naz neure barnera.

Arrats bera sorgin onetan
entzun, Erregin lerdena,
biotzaren joan-oiua,
oi, nire azken-arrena.

Auzoan zabilkidaz, Ama,
gaitzetik adiña urrindu,
maitasun-ego zuriz estal:
ni, ume, jagon nagizu.

Min-ezpata zear igaroz
biotz erruge jatzun ausi:
indazu, otoi, ene Ama,
zeure garra nigan josi.

Maite min nozu, aspalditan,
zure leraz dot biotza;
adi eidazu, Ama eder,
gaur arrastiko otoitza.

Gorde naizu, samin Erregin,
zeure Ama-besoetan;
zaindu ni bular gañean,
nire babes zeu beti izan,

EDESTI XAMURRA **

(Neure loba Bilbatua'tar Tonetxu'ri, biotzez)

I.—Sarrera

Atz artean zaukadan
galburu guria:
nok lekarkit niri be
opa dodan eskerra,
oi zure zoria!

Bizi-argi lez zaitut
biotzean maite;
ta, zureztat dodaz gaur
agur ta adi sutsuak,
iñortxok ez beste.

* KAEgutegia 3 (1953) 37.

** *Goiznabar*, 230-237 (B); KAEgutegia 3 (1953) 49-52 (A).

BIZITZAKO GOIZA *

Zu, Malentxo iiraña, biotz soin gazte:
 Uda murgil orduko zurbil-kolkoan,
 urdin-orizko lotik iratzar zaite
 ta jolastu alaiez egun osoan.

Gogapen larri, edo sorgin-amesik,
 oraindiño ez dozu begi aurrean.
 Ekin orrela! bizitz-urak, gaizetik,
 zerua dizdiztuko dautzu barnea.

Orain, bizi-naieak odei zakarraz
 gogo-eguna biur baño len sarkor,
 orain, goizez, ez aitzu Goiko Aretzaz:
 gurari leial oro Ak bai-dautzu sor.

Orrela, negar-zelai au igaro usu,
 edozein dala zure oiñatz-zidorra;
 ta nai-ta urteen astunez indarra meetu,
 esku eder zenduke Jainko samurra.

ENE ETXEA! **

Atsegin ta jauregia or bizi izan arren,
 iñon aurkiez etxe barru lez pozarren;
 ortzetiko lillurak aratzen indarrez,
 ta ango beroa ezin aurki ludi-autsez.

Etxe eder, ene etxe maite,
 Etxe eder, ene etxe maite.

Etxetik at, dizdiraz alperrik argia.
 Oi! biur niri, ene etxe gain gorria;
 abes-eioka alai auzoan txoria...
 Emoidazu gaur-gero bake-poz guria,

Zu lako zozorik bai ete?
 zu lako zozorik bai ete?

• KAEgutegia 2 (1952) 62.

** KAEgutegia 2 (1952) 107.

BIOTZ - AGURRA

I

Ego-aizetxo nekatu ezin,
nora oa onen arin?
Sasian garrasi,
loratzan ijuti,
aur bildur antzeko,
arnas ugari, egal zurizko,
zek arabil ain arinto?

II

Ez yak atsegin, noski, egoa
eta ipar aldera oa?
—Bai, olerkaria;
bee-alde atsia,
betikoz itxirik,
ara naioak, biotza pozik,
zabala ukaldiz etenik.

III

Orrela ba'dok, aizetxo maite,
biotz-agur esku bete
eroan egik ara,
ene Erri maitera.
An daukezak eneak,
urrin-oiñazez aurki josiak:
danai nire gorantziak.

1952

EURI! IPAR! EDUR! **

Euri! euri! jorrail-euri!
liliak loran guri:
bei-ezpan ori. bioltxo urdin,
zelai guztiak bardin.
Euri! euri! jorrail-euri!
liliak loran guri.

Edur! edur! edur garbi!
sola ik jantzi dok zuri.
Zain neguz azi ereña,
el ez dedin gaizkiña.
Edur! edur! edur garbi!
sola ik jantzi dok zuri.

Ipar! ipar! urril-ipar!
zugatz-ostoak igar.
Ekaitzak basoan orru,
ate itxi ta sar barru.
Ipar! ipar! urril-ipar!
zugatz-ostoak igar,

Euri! ipar! edur! iru,
gu alaitzera eldu.
Asmo artezez irurak
bialtzen daskuz Jaunak.
Euri! ipar! edur! iru,
gu alaitzera eldu,

Goiznabar. 123; KAEgutegia 1 (1951) 71.

• KAEgutegia 2 (1952) 15.

A L O K A ! *

Geldi dago aloki,
ondartza gorrian lo,
Oi, aloka, aloka!

Arrain-atsa dario,
ta azal zildu ezean
urre-moltso dirdaika,

Illik ete zaitugu?
Ene! , zarboak negar,
bateltxoak txalplaka.

Barriro datoz uiñak;
ta or, izu-izuan,
aren soñña dardarka.

«Aloka ez dago illik
—arraintxoak diño—.
Oi, aloka, aloka!».

Ta ertzera eldurik.
ikus danak batera
aren mosu laztanka.

Asetu^a diranean,
maite-kanta jo dautese
ñir-itzuli-murdika.

«Ez dago illik aloka
—arraintxoak diño—.
Oi, aloka, aloka!».

E R R U K A R R I A **

Ez intzan lureko;
nungoa ete intzan?

Ur bako iturri^a legez
uts ta erdoiz don ao;
matrail biak gorri,
esku biak txao.

Begi zabal orreik
nini oztin dozan,
ta argi ari mean
begituak dantzan.

Urrin-laztan leuna
itzak yoek gartu^b:
ilbizi samurra,
odei zuri mosu.

Ire oin-min nintzan
—ego bariko oiñak—
baratz ortan nai nik
urezatu lorak.

Baiña azketsi, maite,
altzo arratsean,
ire albotik, ai!,
iges bai nintzean,

Oi! Begi jostari
zerbait az azalez;
bertara ezkeru,
barrutik ezerez,

Neskatx koskortxo^c!
—ba-dakit atzotik—
azala don eder,
baiña barrua utsik,

Gerora sarri aut
jolaska oartu;
alan be beti aut
ziñez errukitu.

Ez intzan lureko;
nungoa ete intzan?

• *Goiznabar*. 132-133 (B); KAEgutegia 1 (1951) 41 <A).

^a Asetu A Eta ase.

••• *Goiznabar*, 161-162 (3); KAEgutegia 1 (1951) 47 (A).

^a iturri A iturria; ^b itzak yoek gartu A ire itzak edatu; ^c Neskatx koskortxo A Oi, nezka-kozkortxo.

1951

OI JAUNAⁱ *

Oi Jauna! Or zengozan
len ogi antz-pean,
orain janari zaitut
neure^a biotzean.

Zoro-bidez aspaldi
ibillia nozu;
ez ninduzun, alan be,
Zugandik uxatu.

Esker onezko dizdiz
bigun dot barrua,
Zugandiko ñir-lorez
oso joritua.

Zu sartuz gero^b, dana
enegan^c da samur;
zorion uts biur yat
len yatana makur.

Maite-sua dario
nire biotzari,
ta poz-txori dabilkit
auzoan kantari.

Ogi zakidaz beti
gozo susperkorra,
goi-bizitza damostan
jaki ezilkorra.

LEIOA **

Leio, etxearen begi,
illun ta itxirik dago;
nok eskua lar sorgiña
bera edegiteko?

Ustai zerendu gaiñean
ordua lo zurrunka...
Armiarma eiztariak
aspertu bako kanta.

Ta leiarrean zut dagon
izartxo ergelak, zer?
Onen zoritxar aundia!
Danak aitzuta, or iltzer.

Arratsez, euzkia iltean,
bertatik da edegi;
ta geroz al orogaitik,^a
ezin dau iñok itxi.

Baiña itargi burdian zut,
betarte mirriz da igaro,
sorgin baldar iduriko,^b
mulu-mulu erio.

Leiar ninia da lauso,
izar zuria itzali:
len zabalik^d zan leioa
danbada utsean da itxi^e.

* *Goiznabar*, 170 (B>; KAEgutegia I (1951) 21 (A).

a neure A ene; *b* sartuz gero A sar ezker; *c* enegan A onegan.

** *Goiznabar*, 157-159 (B); KAEgutegia I (1951) 31 (A).

a orogaitik A oro alper; *b* baldar iduriko A baldartxo antzean; *c* ninia A azala; *d* len zabalik A aspaldi zabal; *e* da itxi A itxi.

EGUERDI
1951-1970

- Gabiltzan bide au dozu, Ama,
ortzi-argiak sututakoa,
l'goak: garra guztiz ta ondo-nai;
zuri atsegin yatzun goi-deia
biotzak yakuz erregai.
- Nekatxa zara zoragarria,
azalez urdin, barru-gun zuri:
2'garrenak: nun leike idoro bardiñik?
Zoramenezko ederkai orrek
zuntzutan gaukaz loturik.
- Bai arduratsu dala Jainkoa!
Gariak galisu, azal egurrak,
l'goak: ak nai onek dau zaindari;
guri, ostera, Ama gurena
eratu dausku gidari.
- Zu barik, naiz-ta ondasun bete,
bear aiñako aserik eztau
2'garrenak; gure barruko irakiñak.
Txingar bi letxe, garkin pareko,
or Ama-sume bikaiñak.
- Karmel'go tontor lillurakorra,
Jainko-eskuak eder jaso,
l'goak: dana zugatz, usain ta su;
milla margozko lore artean
zure amasa doargu.
- Zugandikako eder jakitez
—Ama ta Birjiñ aldi batera—
2''garrenak: galanki gara aserik;
oindiño baiña ba-dogu zador,
zer-ikasi geiagorik.
- Garaia betez, —olan uste guk—
l'goak: etortekoa zarean Ama,
eta zakiguz beti eguzki,
2'garrenak: egunik egun artzulo barru
gorets zaiguzan gartsuki,

Euskal-elean trebe zaitugun
gizaki guren, azkarra!
Zuri begira, maixu bait-zara,
maite daigun ele zarra.

Zuk piztu eizu gure barnean
zureak daukan txingarra.
Orixe bedi gizaldi zear
dogun goranai bakarra,

GAU-ERESIA *

«*Andra Maria,
jαιο baiño len,*
Esaera: *Karmel-paldarrak
gogoz gur eben*».

Gauerdi. Giro epel atsegin;
illargia goi albain iruten;
geldi aitz, baso, beresi...
Padar-taldeak, koba barruan,
sail bitan kanta eresi.

Erraldoi zantsu baten indarrez
zerua zear, nasi-nasian,
l'goak: zelan odeiak iradu?
Era berean gure arima
zugana, Ama, doakigu.

Gertu daukazuz gure biotzak,
gure gogoak ernai daukazuz,
2' garrenak: oi amesezko zeru urdin!
Goitar eresiz zu aintzaltzea
da gure gaurko zeregin.

Egun zabaltze sorgin-taiuzko;
laiñoa bean aruntz-onuzka,
l'goak: argia goian eun zuri:
buru ta biotz zeureak gozuz,
labe goria iduri.

Biotzak maite, kantu aoak,
gau ta egun zu Amatzat autor,
2' garrenak: bai egiteko bakana!
Zeru-zati bi diran begiok
itzuli, arren, gugana,

* *Goiznabar*, 228-230,

Ipar aldetik, urrats okerka,
 zeure gitarra zarrakin...
 Euskalerria biotzez laztan,
 euskera gozoz itz egin...
 Naiz-ta jolasen dirdir birundan,
 zeureakandik beti urrin...
 Etziñan iñoiz, o Joxe-Mari!,
 bizikera latz orren duin.
 Egunsentikoz kantari goian
 bai pozik txori azkea!
 Azkenik zakust, barrien barriz,
 sorterri-argiz betea.
 Ase bai ase zeure lur-aizez,
 eder baita aterpea!
 Oiñaz-arteko irri gozotan
 laztandu ama maitea!
 Baiña laztandu orren gaiñetik
 Gernika'n Areitz donea!
 Ortxe bai dozu abaro ziña,
 aterpe ekaitzik bagea.
 Or ez da iñoiz be nabari guda,
 zurrunbil ta alkar iltea:
 so, arren, bere orri artean
 dirdai leunezko bakea.
 Ikara zara, oleskaria!,
 zugatz deun orren azpian.
 Min dozu geroz, ail, barrean
 min ilkorra odolian.
 Ta arrasti botez —atseden naita—
 an urrin, iri aundian,
 «Gernika'ko Arbola» zenduan kanta,
 kartsuki maiteen artian.
 Ixio dira, urretxutar on!,
 zure jarrailleen barneak.
 Oiu egizuz gure errian be
 barrutiko antsi meak:
 lur eder onen maitasun sua,
 oitura zarren uluak...
 Zu giltzapean, baiña, sartzeko
 agindu dabe zibillak.

a erbeste

Maite-azia soloan erein,
 noiztik pekatu daiteke?
 Ire asmoak guzur uts sarri,
 ene gizarte eskerge!
 Ez jan, ez lorik, leiaz urtuta,
 izan zendun lar naigabe;
 ta noiz-edo-noiz aurkitu ziñan
 iñundiko loki gabe.
 Euskal zelaian maite-areitza
 mardo zenduan jarrugi,
 baiña giroa etzan or-emen
 zuk opa baizen eztiki;
 ta sort-lurrari agur egiñaz,
 aldendu ziñan itunki,
 arrotz^a ogia, —oso lakarra—
 dozula aspaldian jaki.
 Euskalerria gogoan beti,
 itxas aldera nabari,
 ogei bat urte or Amerika'n
 egiñak dozuz lotsarik...
 Atsegiñezko leiar-urikan
 eztozu iñoiz edari,
 ta itxiz emazte, seme-alabak,
 barriz zatoz zu kantari.
 Biotz on!, biotz on!, mindu orrek!
 Gurtu eizuz lur joriak;
 kanta dardarti, zora bearrez,
 zabal-zabalik begiak:
 «Ara nun diran mendi maiteak,
 ara nun diran zelaiak,
 baserri eder txuri-txuriak,
 iturri eta ibaiak».
 Ule ta bizar edur gisako,
 naiz-ta ez izan orren zar,
 ainbeste maite zenduzan mendi
 troka zoragarri zear,
 biziteko lain —au lotsagarri! —
 atez ate eskatu bear...
 Atzenik, jaio ziñan txokoan
 illa zara, aitzu xamar?...

ERRIMINDUA *

«O Euskalerra, eder maitea,
ara emen zure semea,
bere lurrari muiñ ematera
beste gabe etorria;
zuregatikan emango nuke
pozik bai nere bizia;
beti zuretzat, il arteraño,
gorputz ta anima guztia».

Iparragirre

Gizon jatorrai omen-lorea
zor guztiok bai dautsegu,
gaur gizon bikain Iparragirre
goretsi naita gabiltz gu.
Erri artean erri goena
izan da beti Urretxu,
jator artean goresgarria
ango semea bai dogu.

O Joxe-Mari, goi-erraiñu min.
argi zakidaz joria,
zure antzera errai-munetan
sua sortzeko bizia:
erria maite, euskera maite,
zeru goitikan jatsia:
ona guretzat, maixu zurrian
zuk erakutsi bidea.

Guraso zarren aritiko
aitor bai zara odolez,
gure oitura sendo zindoak
maite zuk beti biotzez;
ta iskillu otsa goiz nabar baten
bizi ta sarkor entzunez,
orainlik gazte euskal mendira
ziñan aldatu joranez.

Trebe ta ausarta —nok diño bildur
or-emen ziñan burruka,
zeru fedea ta lege zarra
zintzoro jagon bearka...
Baiña noizbaiten, azpiratua,
igesi bear lasterka:
bularra zauriz, negar-malkoa
matralla bera, ibaika.

Erririk erri zabilta gero
Prantzi aldean ituna,
gitarra zartxo barren-pozkille
Iozula bakar laguna.
Eztarri leunez kantu-soiñuan
emon oi dozu eguna;
gauetz, ostera, sorterri-miñak
dardartzen dautzu mun-muna.

Aleman ta Itali zear
bein Suiza'ra el ziñan;
Gotart deunaren erpin buruan
goi urdin deiez zutikan,
arrano sailla yatzun urbildu
zuri entzun-nai bizitan;
baita ekaitzen sabel gurian
kopeta suntsi zenduan.

ZAARTZEN ETE? *

Muiño altzoan dardar
dago krabeliña...
Erio ete dabil,
irrikoi ta miña?

Aldia! Onen leia!
Eta aldiz aurretik
dator Negu zirtzilla,
osto oriz jantzirik.

Otz da... Ordua? Joten.
Nok esan zer danentz?
Arin yoaku dana.
Erio, ertzez ertz.

Latsa, ur aunditu doa
neure leiopéan;
ezker-eskuma lorak
ikus lokatzean.

Or atarian zarra,
larogei urtez zutik;
illobakaz nasteán,
ez dau gura ilterik.

Berrogei egiñak nik,
ta tantai nazala uste...
Ordua barriz joka;
zaartuz ni oarke.

UTS-LAINOA **

Arro, zut abil, igelño.
Baiña zer az, esan? Loi ben?
Ori ozta. Ez al deritxak?
Uts-laiño dok ire izamen.

Enara ezkutu, zear,
ego-uridin, or, amesti;
kasketa dok gogai aizez
betea, gora-min beti.

Lillurazko etxeari
eder jarriaz jasoña,
—zuri, orlegi ta gorri—
ñarñartua dok soiña.

Argi printzetan josia
daukak amesez gogoa;
kiskal bearrez biotza.
zeru-lurrez blei kaskoa.

Aintz betean zear, gazte,
utsaren utsa estaliz,
udalen osto pareko
una dabilkik intziriz,

Arro, zut abil, igelño.
Baiña zer az, esan? Loi ben?
Ori ozta. Ez al deritxak?
Uts-laiño dok ire izamen.

* *Goiznabar*, 214.** *Goiznabar*, 215.

IV

Eskintza

Pertol, arraun, amu ta sarez esitua
iduritzen zaitudan itxastar zaintsua:
biotzetik deskintzut opari autua;
azalez pirtxil arren, maitez oretua,
gal-zorian pozbide zuri opatua.

Poz-jario zakustaz urez egunero,
arraun kirten zuzena eskupean tinko,
Ekiñal indartsuan, oi zelako beso!
Iñoiz be utsik gabe, eguzki naiz laiño,
jarraitu orrelantxe, itxastar begiko.

Arraintxoak maite dau uraren oztiña;
zuk, barriz, maite dozuz ura ta laiñoa,
baiña maiteago urez dabillen arraiña.
Ta nik gogoz maite: zu. ura ta arraintxoa.
Beioa gaur irurontzat nire eskintxoa.

LANDUR DIRDIRAZ *

Landur dirdiraz
e/ dakit nor zirkin **dan**;
illargipean
ez dakit ncr daukadan...

Tiaña, egia,
atsegin jat zelaiea,
atsegin zifiez
lagun-ikuste txit mea.

Betor landurra,
pendiza oso izorratuz;
betor illargi,
nire arima nasaituz.

Samin erpetan
larri naukazu aspaldi
gauak biotza
daustala mintzen biziki.

Nik eskuratu
nebana onen garesti,
batez ni aitzu
ta iges egin daust urruti,

Arrezkeroan,
landur artean nasia,
a nai dot aantzi,
aren iduri bizia.

Baiña ezin dot!
Marmara yatort ibaitik,
eun lelo eztiz
neure izatea mindurik.

Landur dirdiraz
ez dakit nor zirkin dan...
Eta ni miña
eioten nauko tristuran.

* *Goiznabar*, 212-213.

III

Ekaitza

Gezi zorotzez dago eguzki txakilla;
baretsu ura, kulunka neurtuan ontziak;
kaio sailla gain, zear-egan, zer jan billa:
kaio ta ur adiskide min arrantzaliak,
etengabeko zora-ekzutuz orniak.

Odei zuria, batez, zeru apaingarri.
Miesa lez eda da. Zer ete? Ekaitza?
Kaioak garrasiz, zer diñotse alkarri?
Zantzu txar onek nori musin ez biotza?
Arrantzale kementsu, ire zori gaitza!

Murrus itxas erraiak, bai'litzan zezena:
gezal-zintzur miñari ler-bitsa dario...
Tximistak argi; orro trumoik goi barrena;
olatuak ankerki alkarri eraso.
Opari gosez dogu oraingoz itxaso.

Ta ekaitzaren mende, ai! , gure itxastarrak,
Goiko Jaun: esna, otoi, zure al aundia!
Morroi ez dozuz zar ta gazte diran-diranak?
Bai, lagun zakioez, Jaungoiko maitea;
bestela, noski, eurena da eriotzea.

Zurki arraun dagh, ekaitzari igesi;
izu dira portuko arkaitz muturrean;
lenago be sarritan an bai ditu iruntsi
ontzi ta gizonik lar ubil asarrea,
zeruraiño eltzen diran arkaitzen artean.

Ontziak arriskuan ikusi ezkeru,
—aren alde Jaunari otoi ekiteko—
eleiz-torre zarrea kanpaiak dei gozo...
Ta otoi-beso indarrez itxirik itxaso,
barriz alkar mosutu seme ta guraso.

Azkenez, oro gertu: sare, amu, jaki;
ta bakoitzak arturik jagokon lekua,
igitzen asi dira ontzi txiki ta aundi...
Senarrak agurtuaz, andrak etxerantza.
Ixil aundia gero. Goiz-nabar zerua.

II

Eguneroko arloa

Neskatx lirain eduko, itxasoa sotil.
Aren urdiña urratuz, bi-doaz ontziak,
lema eragiñari erantzunik bipil;
baita ontzietan arrantzu-zaleak
gu janaritzearren urez dabiltzanak.

Baseleiza txikia, nasa okertzean;
Karmen'go Ama bertan, irribar ezitan.
Arrantzale ausartak, andik joatean,
goi-otoitza oi dabe loretu aotan,
babesa billaturik irudi zar atan.

Oi, arrantzale trebe, itxastar maratza,
ez aitzu, ez ezetsi leenen oitura zar!
Siñis-begia ernai; or dozu laguntza:
bidez gabiltzanontzat bera baita artizar,
goi-laguntasunezko argiz beti dardar.

Izar orren zainpean, arraun beso zaintsu,
jardunaldi luzeetan olatu bizkarrez;
kresal aizea arnaska, nainun ta gogotsu;
azaletik baltz arren eguzki-ekitez,
kemen-sua darion bularra mamiñez.

Au bai ikuskizun eder! Eguzkia bolbol:
aritxo mee lenengoz; gero, zirt betea.
Goiak dau bea maite. Ta zenbat zain-odol!
Itxasoan bai pin-pin goiz urratzea!
Garretan ura, bost kolorezko zapia.

Ta so arrantzaleak, gizonki, lanean:
amuak eraturik, ur barrura tretzak...
Apar zuria, noizka, gezal urdiñean...
Zelan kanta, itxas-gizon, ire neke miñak?
Arraiñak ba-ditu, izan be, bere izerdiak.

GURE ARRANTZALEAK *

*«Itxasoan laino dago,
Baiona'ko barraraino;
nik zu zaitut maitiago
arrantxuak ura baino».*

I

Goiz-izarpean

Iliik ete bizia? Ala loak artu?
Bide-kaleetan, enel , zein ixil aundia...
Ortzipean dingiliz illargia laru,
etxe gorriak zaintzen aren ñir-izpia:
portu inguru dantzan Itzalaz Argia...

Asper barik iruten Aldi'ren mataza
eleiz-torre zutian joale bakarti:
ixilla dardartuz, lau jo ditu geldika...
Urak bitartean ots; aizeak, intziri:
itxas-uria jaku bat-batez itzarri.

Batelak diardue zabuka kaiean,
aur antzera ur lepoan, oi! , geldi eziñak;
ta zenbat soka biur, —or-emen nasteen,
zidar-iruntzez egin-ezkataz josiak,
illargitxo sorgiñak maitez kiskurtuak,

Begira orain, portu bete arrantzale;
ara ta ona zoli, nasian dabiltza,
errez zenbatu ezin-ala zar ta gazte.
Goizetik lanerako gertu dan erlauntza
kaiak dirudi. Ango jardun-bear latza!

Gizonen laguntzaille, begira andrak be;
buruan itxas tresnak dakarrez biribil...
Taupa gozoz biotzak poz jasaren mende,
kai aldean bai dala naikorik iskanbil,
ta tretzak atontzean, amaika katramil.

Onenbestez ixildu zan,
ta mendiak oindiño
doiñuaren ots luzean
«kantari eder! » diño.
Ordun, kantua zer zanik
ez ekin txauak, zatarrik:
—Bai motza, orraitino!

Ez eban ezertxo esan
karnaba kantariak,
ezta eritxirik emon
gallupa zুমariak,
zur egiñik bai egozen
aren soiñuak entzuten
txintari bikain biak.

Aitzen dauanak goretsi
bear dauz baliosak,
euren garrasiz bestela
balio ez dabenak
mundu-jaun yakuz egingo:
ba-dabe zerbait olango
gaur euskal idazleak.

MIKAK *

Uts-arteak beiñola
izan eben mikak;
asarratu zirean
eta utikan kantak.

Abi barru sarturik
luzaro ez eben,
euren artean ezik,
itzik ateraten,

Beste mendi-txoriak
zurtuta egozan,
itz-ontzi lerdan areik
orrela ikuskeran,

Euren uste apalez
arein joku barik
ezingo ziran bizi,
asko beintzat, pozik.

Joan yakezan oiuka,
joteko esanik;
mikak alan be muker,
lengoan ixillik.

Baiña etzaite izutu,
arrezkero gauzak
obeto darabillez
basarte-oianak.

Lan geiago lugiñak,
ainbeste itz barik;
iñori min egiteka,
bakean bizirik,

Kalean bakeago,
obeto oldozturik:
on danak or dau iturri,
ez dago zalantzik.

* * *

Irrati ta urrutizkl
ba-da ots mindua...
Opor pizkat ez ete
letorke eratsua?

TXERA SORGINA *

Zuk ba-dakizu ondo,
danak dau garaia:
argiaren mintzean
bake aroz zelaia...
Giza-biotzak dakar
irriaren naia...
Zuk entzun zenduan bart
nire kanta alai.

Kanta ori bizitzan
ba-doa, ba-dator,
txinboan lez umea
aize emoilte bizkor;
irauli ta ba-doa
aidean astikor;
atzi nai, ta ba-doa
eskutik labankor,

Olantxe zabilta zu,
maite joku arin;
aketo naiz indartsu
—zure ikutze gordin—,
zauritu daizun dana
izten dozu samin;
naiz-ta kiñuz, beste bein,
oro izan atsegin.

Zauria —olantxe da—
cdolez dagola,
gozo ikutu ezker
zornatsu beiñola,
gorria lora zuri
biur oi da iñola,
begi txera sorgiña
erosko dozula.

BIRI ARROA **

Jaio-barri zan oindiño;
baiña goiz baten, ibilki,
bere abia lagarik
egoak jo bipilki
ta aritz baten gurenean,
amuturrengo adarrean
ezarri zan egoki.

Txio ozena goitik lenen,
mendia gero ixillik;
txiruliru bat ondoan,
ba-zan txorrotxiorik:
neguz aizeak ez eban
arte osto zirkuetan
egin oi ots oberik.

Eztarriaren zolia,
trebe, samur osoan!
Ormea lez arritua
berbera bai egoan.
Ixil egokon karnaba,
ixillik baita gallupa,
ari entzun gogoan.

Ontan birigarroari
iparraren durundu,
gau izartuaren arnasa,
goiz-soiñu, zugatz ulu,
inguruan baturiko
zarrast oro eztarrian
biurtu yakon kantu.

* *Goiznabar*, 198.

••" *Goiznabar*, 201-202.

Oiñazeak geldirik gabe nau ozkatzen,
ez daust ezek eskein nai biotz-poztasunik.
Gomutaz nabilkizu zugandik urrean,
baiña soñez zaukadaz oso aldendunk.

Oi, zoritxar eskerga! Biotzean min dot!
Ta, zer egin? Aizetan uluka soil-soilki.
Ez daustot, ez, iñori opa onakorik.
Ez dot iñor ikusi gura, ez, onako
egon-ezin larrian, oiñazez jausirik,

Deika, deika diardut egunaren luzez,
deika, bai, zinkuliñez, negar garratzean;
alan be zuk eztozu, ez, belarriz artzen
nire dei bizi onen oiartzun ozenik,
ta samiñaren sua yat aziagotzen.

Oiñazez dot biotza, oiñazez soin dana,
negar gauan itorik gunaren barrena,
odol-iturri ditut begi zuloak be.
Onan noizarte nazan biziko ez dakit,
eta iltea, bear bada, ez litzakit obe?

Joan ziñan goiz batez. Betiko joana?
Onexek daust sastatzen izate osoa,
onexek daust —erio sastakai zolia—
barrua lazki, eten gabe, iñarrosten,
II eziñaren kezka, naas-maas ugaria.

Argiak ez dau pozik, ez zelai berdeak,
Zorazi al? Miñaren saria litzakit.
Baiña, maite! Nik eztot gura zoratzerik.
Ilterik eztot gura. Bizia bai eder!
Noiz poztuko nau zure irriak, bizirik?».

Il-kexu oneik jalgiz, lizar adarrian,
maiteño galdu billa asi zan zolia.
Egazti naiz gizaki, bardintsu zorian.

UR-ZIRRISTA *

Bilbo biotzean ba-dogu
Moiua zeia kriketa,
lorategi txeraz zaindua,
erdian daula ur pertxeta,

Or, laster, nekearen muga,
ta aren pixuz beera dator,
txipristin ñarñaritan eder,
atxurdin altzora mormor.

Sarri egon oi naz begira,
eguzkiak an jotean,
nekatu bage, ura gorantza
jauzi bikain ikustean,

Ez, ez yok iñondik iñora be,
ur jario zut! , barne espak
asetuz, zerua ikutuko
ire ekiñezko goi-igesak.

Ortzia mosutu naiz beti,
indar ta indar ur zutean.
Eguratsera egaztu nai
kemen saio mukerrean?

Ago bee, eure indar neurrian,
txiki-muiñean galdua:
goiegi bait yagok urdiña,
euki eure bee-lekua,

• • *

Bakoitzak bere indar
barru begi ausnar.

NEGAR-ERESIA **

II aurreko garrasiz, lizar adar baten,
zegen papar-gorria. Ez eban pozgairik,
t'onela iñarduan oiuka mingotsik:

«Gau t'egun neke biziz, min dot biotzean;
atxilotu lez zuri negarrez nago ni...
Baiña zertako oiñaze auxe —doakabe!—,
entzun ezpa-dagizuz nire ai-otsak,
aidean ba-darraie erantzunik gabe?»

Zigor zartaz narabil zoritxar beteak;
ez dauz nai iñok eroan —ezta egoak be—
zure abi-zokora ene inkesa uiñak,
nire biotzak, urdail ardatz iduriko,
eiotzen diarduan maitezko lakaiñak.

* *Goiznabar*, 195-196.
— *Goiznabar*, 19G-197,

BELAKIA *

Argi-lore eguzkia,
aren euritan, itxas ertzez ni,
Belaki bat ertzean,
urak jaurtia, noski.

Oa, ta asetu adi;
zein arro ta galai abil urez!
Ikus, gora ta bera,
jostaillu ugin-aparrez.

Len tximur, orain ase,
ertzik ez, itxas urdiñez bakar
Gizon biotz urduri,
aditu, egik oar!

Elaitxo bat yoako;
gain ezarri arren, geldi ezin.
Oro zorakeri uts,
ur-jolas ta ego-min.

Ni ari so, oldozkor...
Oi Jainko, Zu ez al zara itxaso?
Ta ni? Belaki zingil,
Zu eta ni or oso.

Belakia, alan be,
itxasoan eta au belakian,
Belaki ezereza
itxas bete nasian!

Zu zaitut, Jainko, itxaso,
ur guztiak Zeugan dozuzana.
Txori, mendi ta lore,
Zuk sortua dan-dana.

Ni bere Zuk egiña,
arnasaz piztu ninduzun gartsu,
ta lore likurta lez,
geroztik zeure nozu.

Nainun zaukadaz beti:
ikus ez arren, soma bai gogor;
billa ez arren, aurki,
eztia ta maitekor.

Zirkiñikan ba'dagit,
Zure baitan naurki oztiñean:
ezker-eskoi, goi ta be,
Zu zaitut barrenean.

Zergaitik billa zaitut
lore usaiñean, mendi-argian?
Utsal-izakiak at,
sar nadin biotzean.

Belakian itxaso,
nigan Zu, gogozko leza-ondo.
Argi-lore biltzea
neugan daroat gozo.

Adi, oi!, zer diñostan:
«Ez zara bat; bi gara, zu ta Ni.
Gogor maite nagizu;
Egille nozu, sari».

Bai, Jauna: Zu itxaso,
ta ni belaki zure altzoan.
Jarrai ortxe, maitekor,
ene biotz-zokoan.

BEKOKI OTZA *

Eguzkia nasai
ebillen goi-ortzez...
nik ezpan gorri zu
jo zindudan goizez.

Su-zuzia legez
zindudazan uste:
soin-gogo ederra,
bero, sua beste,

Baiña nik ikutu
neutzun bekokia
arri zuri zendun,
otza, su bagia.

Soin zati galanta,
dizdiz aundikoa;
baiña aragi txatal
bizi urrikoa.

Udaz goiak zear
eguzkia eder...
Aretik ez artzen
bekokiak ezer?

Goizez, ixil-ixil,
nik zu aoz iku,
ta lili guria
otz neban aurkitu,

Zure bekokia,
ai!, su barik dago:
izotza bera lez,
edo-ta otzago?

Ezer esateke
jo zendun bidetik...
Eta antxe, muturik,
jarraitu neban nik.

ISTINGA LOKARTUA

Ur geldia dot aurrez,
lur zar baten muga;
sasiz, zorna-bedarrez
dau gaiña, argi baga.

Igaz ura etorren
ito-itoka goitik,
gaur ezta ezer jaisten
gaiñeko usa itxitik,

Aizeak dautsaz doi-doi
egalak mugitzen,
ixillak, aragikoi,
daularik mosutzen,

Sasian txintaz dagon
txoriak al daki
bere goi-zorion
kantuaren barri?

Zugatzen amets arte
ixil lokartuan,
zaratarik bage
arrats illunduan...

Igan eztot ederrik,
istinga zabala,
eta bai larri-miñik
i ikusiz maskala.

Igaz ura etorren
usak ixuria,
gaur ozta yak mugitzen
gaiñalde atsia.

* * *

Euskal lur begitango,
sorterri maitatu:
etzaite izan egundo
istinga lokartu.

* *Goiznabar.* 191-192.

•* *Goizvabar,* 192-193.

ERIOTZA *

Nundik ator, esain, errondari zentoi?
Nundik ator, esain, sorgin mintzul ori?
Txapiñez oiñak ta jazki baltzetan goi,
nundik ator olan, arnasaz sargori?

Nora oa, aize-txakurrez inguru,
esku-bete laiño ezpr.n-gaiñ dokala,
aize zaurituak daitezcan ixildu
ta zarrak daitezcan askatu, goibela?

Nora oa, illeun gerizaz betea,
arrats euritsu ta izar itzalia,
basauntz igeskor ur egarriz asea,
uso txunditu lez ganduz estalia?

Norantza oa —ots!—, urrutiko ispillu,
ñarñar-ista'ari mnkopean zear,
maite-jarraigoa atzetik oin-zalu
arrikatzeko soz nasi ta ler-bear?

Nungo are-pillo, nungo elbitz-meta
igaroaz oa, egunen ertz-barna?
A, eiztari izukaitz, ire leiaketa!
Nor opa ete don erakar eugana?

Ire ispillu otz gaiñ ukur dago gaua;
egal illunak be —au olerki otza! —
gandu ozkirria zeatu darua,
artzari dauala leiaren isatsa.

Nundik ator, esain, errondari zentoi?
Nora oa, illeun gerizaz betea?
Ez eistan barruan dardar ein izukoi:
oraindik bizia yonat nik maitea,

EZIN ULERTUA

I, gazte, zer uste dok? Ba-dok goi-txingarra,
buru-barne dizdira, zeru izatezko indarra,

Baiña zer aiz, bestela? Artxo zapaldua?
Txio emeko txepetx? Mendiko gandua?

Jakintsu aiz eure ustez, buru-tente, txotil;
dana ulertu gurean, goi-amesez abil,

Or izadia... Zer al dakik guzti ortik?
Errai ta koskol ba-yok Jainkoak ereiñik,

Ta ik buruaren barru danori sartu nai?
Ez al yak geiegia, ire ames pentzai?

Tangea ta ur txanbilla, begira ontzi bi.
Txanbilleko ur guztia, zer? tangan irauli?

Moduzko aizala be, eziña dok, guztiz:
ire antze kemena yoak uts itzaliz.

Ez egik ulertu nai Jainkoaren ala;
ekiñak bait diñostak eziña dokala.

Ostera: zer aiz, gazte? Zeru txingarra, bai.
Besterik zer? Lillura, uskeri, gora-nai.

A M A R E U N A **

Sapaian arilketan
abillen amareun,
esan eidak, bertantxe,
norentzat dokan eun.

—Euliak opa ditut
arrapatu bertan,
«aurkoz asealdia
palta ez dakid;in.

—Ez naizu lots-erazo
ariltze orrekin;
lorak ditut azpian,
oa egan urrin.

Ezeizu, ez, lorarik
sast-egiñik izu.
Oa, sare ori,
urriñago eundu.

Fedez ustetsu zaito, ekin ez on;
goi ta be, suak zaitu jarriko arat.
Obenak, uste izpiak oro al suntsi?
—Bota ni biotzetik, diñozu garratz;
ez naz ni inñolaz zure onaren diña,
iparraren otza dau ikoak mergatz.

—Alperrik ete gure izketa gozo?
Ez al gara, egiaz maite suz ezer?
—Ez nozu giltzapean maltzur sartuko;
esaidazu juteko trumoi klaska ler,
—Bai, azke zara. Zoaz! Zabiltz arrano,
naiz, lur-urreragoa, zelaiko eper.

Ez diñotzut juteko, baiña azke zara;
ez dozu nik jarrita bidean zotzik.
Gazte zara, bai gazte; zabiltz or zear,
aideko mitxeleta baizen azkerik.
Baiña ori al dozu azke izatea,
maitasunean ezba'dozu usterik?

BETI EUSKALDUN

Ez gara ilkor! ... Ez ete?..
Beti zarreko ta barri...
Jainkoa zar, zar euskal erri.
Zar biok beitez zoragarri?

Jainkoa ortzi goitik,
beian gure lurra jori...
Euskal lur,
euskal erri!
Jainkoak egiña zara zu,
mendi ta ibar narotsu.

Lurrez ez zara zabala,
baiña fedez bai garbala.
Osorik zaitugu lerdan,
egite garbitan guren.

Euskal erri,
lur maite:
Jainko ta erri zaito!

Zure sabel emokorrak
beñola gatzatu nindun,
eta miñak ikutua
orain nabil zauridun.

Euskal lur,
oillo-lur:
nadin beti euskaldun!

PADAR RA *

Bide pendizetik dei
egin neutson zakar:
—Itobear antzean
zer, zer dozu, padar?

—Ori ez litzake ezer!
—arek iñoana—.
—Gizeraillen bat ete?
—Ez, baltzago dana.

Aizea puzka eme
loreño artean...
zurtasunez txakurra
padarra ikustean.

Igelak dagie ots:
—Tentel, ez geiago! —
Ak aurrera lasterka,
su ta gar, leiago.

—Latzikaraz galdua
nora zoaz ortik?
Gosez dagon piztia
al dozu atzetik?

Ergel bat etorkion
atzetik jarraika;
gatxik andiena, antza,
a bai dozu oska.

AZKE ZARA! **

«Neu» gaiztoaren jabe zaitut aspaldi,
al izatearen arrogai txepel.
«Geroa dot eskuan», diñozu alai,
ta azke zara, setati, biur ta sendo;
opa dozun guztira, baiña, ezin el.

Azke izatea gaitz-iturri noski:
zentzunen leio zear sartzen gaitz-moltzo,
azke izatetik dator mintea bera...
Eta amilbera zoaz, arritzar antzo,
gauza etzareala, ezetara be,
lertu-bearra dan gai orri eusteko.

Garbi-premiña dozu argi altzoan,
t'egotz zaitte suaren errai bizitan.
Gaiezko suak ezin zure gaitza txau,
beste su bat, azkarra, bear orretan.
Maite sua da erre ta samiñago:
arimaz garbitzeko, sar zaitetz bertan.

* *Goinabar*, 185-186.

♦♦ *Goiznabar*, 186-187.

Arto ta pagotx, arbi ta garo,
aza ta illar ba-ditut oindiño
bakoitza bere garaiez,
Baita dolara bete sagardo,
ta iru bat upel txakolin gozo
eder zaizkit udazkenez.

Beude besteak uri ta kale...
Oian etzean gu pozik gaude,
ezerk utsik eman gabe.
Barren darama nork bere adu:
nerea onez nai nuke zaitu,
lagun seme ta emazte.

Oi, aitz arteko nere biztoki,
urre gorritzko jantziz aundiki,
antxiñakoen aterpe!
Neguz itxaro, poz bete udalen,
nere lor-miñen arintzaille urren,
biotzez zaitut nik maite.

Ta aiton maiteena jarraiz ekandu,
emen nai nuke bizi paketsu,
zure magalpe narean...
Ta ilkor bizia itzal ondoren,
bukatzen ez dan zeru-atseden
goiz-argi zuri batean^g.

AITARI LOTSA *

*«Aitari lotsa dautsonari pekatuak
jakoz parkatuko» (Ikastuna, 3,3).*

Biotza doart gorapen jario
Zure naia, Jaun, atsegin izanik;
aita goretsi, Zuk nai dozularik,
orixe da, bai, nire zorabio.

Zure naz bildur, eta aintzat dot aita,
berak bait nozu aragiz jantzia,
ta aren bedeinkak dakarst poz-argia;
egite ta itzez dautsot itzal auta.

Aren aulkeriz ez naz iñoz poztu,
ta zartzaroan samin sista barik
nai neuke seme zurrian babestu.

Adimena mee? Gozo dot zainduko,
sortzezko zorra leial ordaindurik,
aitari egin ona ezpaita aztuko.

^g batean A bctean.

Ene aitonen egoitz zuria,
 seme mardulen lore ontzia,
 maite zaitut nik gogoan;
 ta ainbat^c arduraz aiek esana,
 aiekandik nik gaztez jasona,
 ez det aiztuko beingoan.

Emaztea det guztiz lerdena,
 aurki nezaken eder onena;
 urrezkoa du biotza;
 naita neketan, betikoz alai,
 etzekoi, maratz, lanerako gai:
 merezia du buruntza.

Ekarri dizkit zazpi semetxo,
 ederragoak eguzkia baiño.
 Oi, aien zora-musua!
 Gorria dute mertxikarena
 edaturikan masail^d-barrena,
 diruditela zerua.

Egunez landan jolaska bizkor,
 gaez barnean ez daude lo-sor.
 Aur dira-ta, zer egingo?
 Zarrena ikasten asia dago,
 kaxkarrak eder dute artzaingo;
 zazpiak^e ditut itxaro,

Amona ere, ximur biguna,
 —on utsa da-ta, orok kutuna—
 ba-det oraindik etxean:
 egun bitartez lanean Juze,
 ^aritzta jorran ifior ez beste;
 ipui kontari gauean.

Eliza mendi-oñean txairo;
 elaiak dabiltz aren barano,
 atseden barik egazka...
 Nere andre ta semeak lagun,
 igandez meza oi det an entzun;
 baita Jauna artu, aldizka.

Orrezaz^f gero, etxean det nik
 ongi izateko aski gauzarik,
 gogoa alaitzeko zernai:
 oe, arasa, maindira, kirru,
 sukalde, laratz, suil, pertz, maskelu,
 goi ta be zenbat oroigai!

Baita okullu barne ba-dira
 —arto ta elbitz beti begira—
 bei, idi, zekor, txerri ta asto;
 ardi zuriak ere ordekan,
 gaez gorderik, egunez larran,
 ba-dute ume ta esne naiko.

Zeru-altzoan zurbil izarra;
 eguna ez da oraindik urra,
 ta oillarrak kukurruku...
 Oe bero ta semeak utziz,
 sorora noa lanean goiz-goiz.
 Goiz-lanak bai dakar zitu!

Azil eltzean, lurra goldetu,
 eta galazi karez zuriztu
 eskuz jaurtzen det gogotik...
 Negu izan arren, lanik ugari:
 esiak jaso, larrak ebaki;
 ez naukazu iñoiz geldirik.

Otzaren aita eortz ondoren,
 udaberriak, naro ta lerdan,
 neskatx azia dirudi...
 Soroa eze, edur sagastia,
 baratza liliz, zozo kantari,
 lan-uts biur da erledi.

Erein ta jorra, ebaki ta jo,
 kutxetan gorde, errotan eio,
 ba-du ogiak lar neke.
 Ala ere, ez naiz ni aspertuko;
 seme-alabak janaritzeko,
 lanean pozik nabilke,

1946-1950

NERE ZORIALA *

*«Jkusten duzu goizean,
argia hasten denean...»
(J. B. Elizanburu)*

Osto ta abarrez xamur gordeta,
uso-kabirik umez gaiñezka,
ez al dezu ifioiz ikusi?
Alaxe det nik nere kabia,
azal ta barren oso zuria.
Oi, nere asaben kabi!

Eguzkiak goizez, naspil zoroan,
biotz maitale lerden bait-litzan,
gartsuki musu dagio...
Ta aren miñetan, gauez izarrak
sorgin-ipui ta eresi zarrak
kukurumix jo oi dizkio.

Aurrez arkaitza, atzez basoa,
ibarra bean, goian soroa,
bi esitxoren artean...
Gogait zarataz osoan ater,
berrogei urtez —ez^a iñoiz asper-
emen bizi naiz pakean.

Itxuraz, urrun bizi naiz emen;
baiña orrela iduri arren,
ez nauzu iñolaz bakarrik.
Zaunkari zoli ta jatun bikain,
bi zakur txiki ditut atezain.
Ez det iñoren^b beldurrik.

^a *Goiznabar*, 204-207 (C>: *Milla emkal-olerki cdcr* (1954) 727-728 (B); Kgan (1950, 4, zenb.) 17-20 (A). (B bizkaieraz).

a ez *B* ez ni; *b* iñoren *B* ezeren.

Judit

Janak indartu eustan besoa,
Jaunak biotza dardartu;
eta gauerdi odoltsu baten,
arturik bere aolku,
Olopernes'i ezpataz neutson
samea sastaka moztu:
len otseiña zan erri maitea
betiko neban azkatu,

Isai igarlea

Mailladi, kutxa, lar, ostargi, bai,
zer zarie, iduri ezik?
Sakon-sakona eritxi arren,
ez diñotzuet guzurrik:
Ama ta Birjiñ batera danak
—goi-alak eztau eziñik—
Argigandiko Argi-Semea
ara erraian sorturik.

ARGI-SEMEA *

«Ecce Virgo concipiet, et pariet Filium»
(Isai, 7, 14)

Ibaia

Jaunak zorion-baratz erdian
ipiñi ninduan samur.
Uretan sotil, zeru osoa
Iepo-gaiñ dakart antzikur;
zoramenezko zugatz ezeak
biran ditut buru-makur;
otzikara ta eltxun dardarti,
zenbait nai nire oe ur.

Ostargia

Zur da mendian artzain gaztea,
zur itxastarra ontzian,
Iññiraz doan ikuskizuna
izanik begi aurrean.
Euzki zarraren suzko moskola
ager orduko ur atzean
aurlari nator ni zeru-gangan,
soiñeko zuri-gorrian.

Larrosa

Eundaka liliz inguraturik
baratz-munean naukazu,
ogei urteko neskatxa iduri,
lirain, pertxeta, dizditsu;
illargiaren zidar-izpiak
morgil au dautzu lo-leku,
geldi ezin dan aize txoliñak
ekaitz orduan gordailu.

Lar ixioa

Gauza kaxkarra izanagaitik,
ba-dot naiko illarrain-zio.
Larra naz Oreb mendi-gerrian,
ta Goikoak nau ixio;
sua darist, ta kiskaldu barik;
Jaunari esker nakio...
Ta bardintsu, ni onan ikusiz,
Mois'ek be agur dagio.

Noe'ren kutxa

Uiol. Ur-giltzak ortzian eten:
lurrak dardar, gizona zurbil;
zezen antzera, orruz itxaso...
Au bai triskantza ta naspil!
Ni, orraitioño, ur apartsu zear,
itxaro-argia dingil,
bizidun oro suntsitu arren,
ez nintzan nasteen murgil.

Mailladia

Mailladi nozu, bardiñik eza,
urrezko laiño bitsean;
lurrean dodaz oin biak tinko;
burua barriz ortzean.
Gora ta bera dabiltz gotzonak,
Jauna dala gaillurrean.
Onen jakitun Jakob egin zan
bide ertzeko amesean.

* *Goiznabar*, 180-182.

Askor jagi zan ezerezetik
 Jaunak nai utsez biziratuta,
 biran dakusgun gaudia:
 begltu zenbat eder-bitsetan,
 arkaitz, baso ta egia.
 Baiña guztion gain aintzagarri,
 amen mosua baizen dardarti,
 orra KarmePgo mendia.
 Jaunak zuretzat, Odeitxo zuri,
 antola bizitokia.

Suge lez dator ura dantzari,
 eder-ispillu geldieziñez
 mao gorriai agurka;
 ames-goiz urdin, odol-iñarra,
 sua ostoañ jauzika.
 Pipil lizunkoi, bizira naia,
 erle-burrunda, lore-erne zori,
 eun txori batez abeska;
 edur antzera ardiak larran,
 etenbako intxarri oska.

Ta eder-baratz erregiñ yaukal,
 zure baseleiz, Odeitxo garden,
 arkaitz-zuloan etzanik;
 goian dau, zure aintzaz jarria,
 maite-omena zintzilik.
 Eli aundiak, asmo leial min,
 bein iduritan ikas ebanez
 jaso dautzu bikaiñik;
 egi-egiaz, zu gorets naita,
 ba-dau naikoa axolarik.

Otoitzerako ixil egoki,
 arri bizian lañoz egiña,
 ez aundi-zabal, ez medar;
 aurki-zerrenda ezker-eskuma,
 eskuz landuta apain samar.
 Arte-marteka otoi ta ikasi:
 zeregin ortan askotxo dira,
 nor geiagoz, gazte ta zar,
 Oi, Karmel tontor! Igan bai dala
 on guztizko maite-bear.

Biur, zulo ta oker-unetan
 or-emen ainbat, izukor gisan,
 ikusi padar zintzoak:
 zure gurtzaille dozuz, Odeitxo,
 iñoiz be asper bakoak.
 Gau ozkarbian gorets zaitue,
 ta goiza gorri jantziz batera,
 entzun aren malko oiua:
 itzik ezpada, biotz nai gogo,
 danak zuri opatuak.

Arein buru dan Eli igarlea,
 kezka larri bat barrun ba'leu lez,
 or azi-ereille urduri,
 etorteko dan Ama-susmoaz
 adia bai dau maskuri.
 Zertaz da mintzo? Zer erein ete?
 Andra Maria, sortzez garbia,
 odei atako iduri:
 auxe lankideen gogo-soloan
 erein doan azi guri.

Ta ames goi ori egiz biltzeko,
 asmoz jori ta suz garra bera,
 len-Gopatza dau sortua.
 Gerora, padar-biotzak nainun
 Amari maite-oiua.
 Izar naiz euzki, atsedeen barik,
 usain, argi ta doiñuz nastean,
 gogora dakar zerua,
 aren ederrez muiñea daula
 osoan birloratua.

JAINKO TA GIZON *

Mendi sakoska zear, asperen ta oiui,
lur atsegin artean ibillia nozu.

Lur lokiak etenik emen naukazu gaur
Zuri maite erruki eskatzen, ene Aur!

Galtzu ori gaiñean zaukadaz otzetan,
neure biotzetiko maitasun irrikan.

Jainko dirdira dozu giza-jantziz gorde,
nire arima osoz izan daiten zeure.

Aingeruak egazka dabiltz zerupear,
lekuko zintzo izanik bion alkartzean.

Beioa urrun igesi biotzaren otza,
eta bego irripartsu pozaren gatza.

Artzaiñak dau artzaiña besarkatzen alai,
bildotsak saltokari diño: «Emen jai!».

Abestiak abesti dau mosutzen samur,
ames laiñoz da oro ibar eta **gaillur**.

Izadiaren poza zarean Aurtxoan,
irripar bat deskatzut nik bere gozoa,

Aize, osto ta mendi baizen gar eztia
bebil guregan beti zure poz aundia.

ARKAITZ - ZULOKO ELEIZAN **

«*Sacra aedicula in Monte Cartnelo
erecta ab ipso Elia Virgini pariturae*».
(Joan., Inst. Primi. Mont., 1, 8, 19).

Biotz-zokoan —osin illuna! —
nok ez dau senti, barre gozo lez,
uler-gaitza dan maite-joku?...
Zerren ez dakit, baiña mendiak
maite ditut nik iskitsu.

Oreb gaiñean legea iragar
ta Sinai eban gure Jainkoak
beiñola izan bizi-leku;
Tabor munean, argi-dirdir uts,
Kristo'k, barriz, antza aldatu.

* *Goiznabar*, 169.

** *Goiznabar*, 177-180.

BELEN, BELENTXO! *

II

Belen, Belentxo,
zein zuria dan
zure Semetxo!

Belen, Belentxo,
zein samurra dan
zure Semetxo!

Landa-zear yatortzu
artzaiñen leloa...
Txapar-arte aizea,
intziriz ostoa...

Goiz-mosua euzkiak
aiña gori lerdan,
Goiko Jauna berbera
dauskuzu eskintzen.

Zer ete diñotsoe
txoriak alkarri?
Sor-mindua ete da
sagastia larri?

Ta zugan Jauna ikusiz,
biotza yat urtu,
goi-Aberri miñetan
nasaiki gozatu.

III

Belen, Belentxo,
zein bitxia dan
zure Semetxo!

Len ezeuki ba'ziñan,
aberats oingoan:
zeru-lurren Jaubea
zuk dozu altzoan.

Ene Belen, Belentxo,
zein jori zorean!
Zeugandu naizu ni be,
poz-izpi betean.

Nitzat daukazu ausaz, koralez egiñik,
azken atsedean gisan, burko txit pertxeta.
Jadanik jaso dozu meatz sakonetik
niri soñia ertsiko daustan nakar-meta.

Gaur arte, ez naz iñoiz itxasoz ibilli,
ez ugarteetarako arraunez saiatu,
ezta ez dot endaitzik eskuz erabilli.

Ta, eriotz ontzia neure billa dator.
Aize oialak dakaz arro ta putzitu.
Dei dagist begi klixkaz, larri asko, izukor.

GOI-ARGIA! *

Zuok, lorrez jdsiok,
ez negar geiago:
Neskatxaren altzoan
Jesus lo bai dago,
eguzki galdatua
baiño ederrago.

Izar zuri batgandik
jaio yaku Eguzki:
ao gorri, begi nabar,
urrezko uts uledi,
gotzonak izandako
amesa dirudi.

Jainko-arnasa dogu
zerutik jatsia:
gaiñez, edurra baizen
samur ta guria;
barruz, labe antzeko
sutegi gorria.

Argi betikoaren
goi-erraiñu altsu:
gau zurbillaren ala
gura dau amildu;
argi egizu, otoi,
gure biotz-arru.

Aur txikia lo dago
altzo bigunean...
Argi zale txiritak
zear-ega utsean,
karnabak txiru-liru
ereiñotz gaiñean.

Nir dagi Eguzkiak
askaren ondoan...
Ta zerutar taldea
aren baranoan.
goi-kantak dabezala
leratsu aoan.

Ama-altzoan kuku
zagoz, gure Josu,
donoki ta lurrean
iñor baizen altsu;
arren zaitez, Aur laztan,
gugaz errukitu.

UDA ZIGORKARIA

Zernai kiskal oi dokan,
 uda zigorkari:
 gutaz, egun bederen,
 erruki izan adi.

Laru dagoz pagoak,
 garilla izan arren;
 bizi arnasa ozta
 nabaitzen or-emen.

Suzko sasta eztenak
 jaurtzen az zangarra
 ta gori-gori daukak
 izadi bularra.

Anboto erpiñean
 ixio arkaitza,
 ta goiztik gabera Axpe'n
 oritu garitza.

Ibilliz ego meak
 yarabilk txibita;
 egonez, laba bizi,
 dariok garreta.

Nok ire eskutik iges?
 Ez izan erreza:
 errekak itxasoan
 ei dauko geriza.

Sua goian eguzki,
 sua bean lurra;
 oro kiskal-zinkurin
 aran naiz gaillurra.

Ater akigu, gaizto,
 lar dok ire gezi;
 betor aize ozkirri,
 sorosle berezi.

Mendi ta zelaiak
 busti pitin gabe,
 bei, zekor, ardi ta auntzak
 zer ianik eztabe.

Bekusgu, ostera be,
 gaiñ oial urdiña,
 osoan biotz jausi
 ez dedin lugiña.

Uda!, zugatz-soloen
 zorna oi dok edan;
 ez al da, nausi biur! ,
 biotzik iregan?

Zernai kiskal oi dokan,
 uda zigorkari:
 gutaz, egun bederen,
 erruki izan adi.

ITXAS-ONTZIA **

Lanbroaren aide dan itzal auskorretik
 lo artean dei egin daustazun turuta:
 itxasoz andikako lelo bat, ozenik,
 zuri millaka esker, oraintxe eldu yata.

ZAIN EI ZAITUT *

Zain ei zaitut, laborari;
galdua dozu zerbait?
Errazoiz diñozu goizez:
«Egoak ostu nunbait».

Egoak, bai, eutzun ostu
arimako labore;
egoak lapurtu eutzun
len zeukan lan-adore.

Goizero auts-arte loian
diño ak: «Ez, ez; nik ez».
Baiña zu ezpai lanbrotan
zagokit biotz otzez.

Egoak eroan eutzun
—amarrutsu, setati—
ibar apalean zeukan
laborearen erdi.

Egia latz ta labio,
egoak etsi-eziña;
gosepean giza-errai,
neke au ezta ariña.

Apoa orain koaka
dozu —ixekaz ete?—,
auzo zingiran igeri;
diño: «Olan noiz arte?».

Eta zuk: «Ezpai-aska dot
arrezkero biotza;
ego (bardin: gizon orrek),
ostu daustak bizitza».

Zain ei zaitut, laborari;
galdua dozu zerbait?
—«Goizero noa solora,
samiñak ara darrait».

LUR-SABELA **

Lur azalean nabilkizu
gaur oiñazez, biar pozik;
lurrak, ordez, beti adeitsu
ez dauka begitu miñik.

Zabar antzera, gau ta egun
bere igaliak dauz zaintzen:
ezta guraso oberik iñoiz
errai-umeak babesten.

Landara bat gura ezkeru,
zeure dozu baraztia:
sagar bat nai baldin ba'dozu,
zeure dozu sagastia.

Landara bat gura ezkeru,
luzatu zeure eskua;
lurrak ez dautzu zikoiztuko
beraren sabel zitua.

Zer jan, zerez jantzi jarduki,
ez, etzaitte iñoiz kezkatu:
barrenean dau su-labea,
gar goritan oparotsu.

Ona aren gogamen bakarra:
zitu barriak ernazo.
Zer orrek uts-emenez gero,
mundu jaurguan zer jazo?

Ez kezkarik, barriz diñotzut.
Ez dakusula bizirik?
Geroko madari mardula
lurrean datza oraindik.

• * *

Biotz: sugartu zuk be barrua,
geroaz burutapentsu:
lupetz ospetan estalduta
aneika margo dituzu.

* *Goiznabar*, 160-161.

-* *Goiznabar*, 162-163.

ASARRE-BERA? *

Eskua emon neutzun uneño bete artan
 zuk irri-lilia zendun zabal-zabal loratu;
 eta lendanaz ubel ziran ezpain lodiak
 eder jaurtika yatzuzan ondotik geratu.

Nik uste neban olantxerik zala giza-bizia,
 alaikor, samur, dantzari, oroipenez poztua,
 Izan, barriz, zer? Aruntz ta onuntz dabillan masma,
 ixil griña mei darion amurruz aunditua.

Ez ete dozu itxasoa gaiztorik begiztatu,
 asarre mende? Aizea orruka, txistuz zoro,
 mendiak pareko olatu ikaragarritz bistsu,
 ziraun tximistaz blei zerupe konkorra osoro...

Jainko aundi! II eta bizi, aren leia zakarra!
 Nok siñistu, ain laburrik, alako aldaketa?
 Ordun, nok barne-erazi biziaren etorki?
 Irriaren orde, baiña, nok uste sastaketa?

Zuk, bai, —deadarrez dago zauri ezin ertsia—
 zuk, len begiko naiatzun orrek, irri gozozko,
 ezpata sartu daustazu biotzaren erdian,
 ta pozik bage naukazu gerora min aundiko!

INGUMA **

Inguma gaizkin, euskal iratxo,
 inguma berein margoz jantzia;
 malo ezkongai, gau ibilkari,
 ire bildur dok kuman umia.

Izotz-lili lez, edur-zalea,
 illunez ator gelara zurbil
 eta zarraren zintzurra oi dok
 estutu, atsa emonik gurrpil.

Ire eztarrian oiua itorik
 egaztu oi az, gautar inguma!
 Ez nagik, otoi, kezkaz ni jarri,
 ez yat egiaz eder ire luma.

Basajaunaren mezulari piñ,
 gautar inguma!, illun-egoan
 ez akit gogait, ez akit, arren! ,
 ez ni bildurtu, ez, ene loan!

BERESI ONDOAN *

Neure bordatik ez urruti,
baratza dot neuria.

An, keriza ondo zurian
gora ta bera dabil,
egundo gelditu eziña,
elai-sail baltz zuria.

Keriza ondoa zuri,
elai baltzak egalari.

Begiratua, ustekabe,
gora jaso dot kaden,
eta zoramenak artua
ez yat itzik urteten:
Zelan, baiña, lurrean gaitza?
Ixil noa otoizten.

Keriza ondoa zuri,
elai baltzak egalari.

Eder da, Jauna, Zuk emona:
eder keriza, eder txoria!
Zergaitik biotzean gaitza?
Zergaitik gerrak,
odola, eriotza?

Eztot gaur erantzunik
Arrats-beeran, alan be,
neure bordara biurtzean,
arri egiñik dakust
ner'gelako orma zurbilduan
Gurutz trauskilla loran:
keriza eder dirudie
Kristo'ren beso-oiñak,
ta arein inguru, antsi iziz,
parrastaka elaiak.

NEURE BORDATIK **

Beresi ondoan daukak
ik gaiñ gorrizko etxea,
zugatz ondoz, txori kantaz
ta aur iskanbillez asea.

Nik ez dot, ail, ez etxerik
ez zaratatsu aurtxorik,
baiña, i zoriz ikusi arren,
cz yoat, ez, nik bekaitzik,

Danona baita izadia
gauzakiz eder yakuna;
niretzat bere txoriak
txintatzen dau ots biguna.

Eta txoririk ezpalitz
larrean gozo kantari,
zertxobait ba-dot barruan
!cun emona soiñuari.

Ez dot kabirik, ez aurrik
izadiko ibar ezean,
baiña kezbage naiz bizi
neure muin-izotz utsean.

* *Goiznabar*, 154-155.

** *Goiznabar*, 155.

Baiña etzaitu zu
 orrek arduraz jarten,
 ameslari kiñuz
 edozer dozu goitzen,

Burrukan etzara
 etsaien aurka saia,
 argi-mesede
 ezta zure naia.

Ari mee dardaran
 gizona da jausiko:
 zuk, burua beean,
 dana dozu mendeko.

ANDRAKILLAK

Bai andrakil sail!
 Polit garbalak
 ziuurki zuok:
 begiak laru,
 lamiñ itxura
 dozue danok.

Adats gorrian,
 sorgin pareko,
 begizta bakana;
 oin zurietan
 auntz ugelezko
 oskitxo bana.

Leiar artean
 apatx zagoze,
 liraiñik asko;
 ta, aurrekaldean,
 or zar ta gazte
 zazpi begiko.

Goizez, arratsez
 mosu orreitan
 argiak jolas:
 kurloi kolokak
 ur egaztean,
 maitezko solas.

Ames-loratzan
 ziriko jantziz
 mingor ta txatxu,
 nori sortu ez
 mamin artean
 ;;oirako txutxu?

Panpin maiteok:
 atsegin zaree,
 apatx jarririk.
 Baiña, ai ene!,
 ezta zuekan
 giza-biotzik.

Zelako saila
 atze-errekan
 goiz jolasteko!
 Loriaturik
 legokez oso
 lore ta iratxo.

Bero-alerik
 ez dot zuekan,
 ez dot idoro,
 ta esanari
 naita samañez
 eutsirik nago.

Maitea laztanduz
jun da mutilla...
Itsu baizen zoro,
esku artean dauz
aizto ta azpilla.

Amaren soiñeko³
odol gorria!
Biotza, sarraska,
bai dautso atera.
Errukarria!

Azpillean artuz
errai minbera,
laster baten doa
—gaiztoa alena! —
neskaren etxera.

Bidean arbela.
bertan oztopoz;
pilpilka zelaian
amaren biotza,
zurbilla osoz.

Bera jasoteko,
seme gaiztoa
lurrera makur da.
Oi, begipe daukan
biotz gaxoa!

Uriol gisan, odol
gorri-gorria
darion biotzak,
oraindak be galde
errukarria:
—«Min artu al dozu,
ene semia?».

Amaren biotz xalo,
nekez aul eziña:
zazpi ezkutu ditun
kutxa erregiña.

ZURE JOKOA

Zugaitik ba-dira
min-gaizto dabiltzanak;
zurmurrak ba-dira
cgazka datozeanak.

Mendiak odolez
jarri ete bearko?
Ustez, malkotan
alkarri siñistuko?

Bai siñets, ez siñets
gelditzen gara biok,
eta aidean dira
urtzen zurmur gaiztuok.

Zu, baiña, etzara
esana baizen gaizto;
nagiak usterik
eztau bere buruko.

Zuk ba-dozu fede,
itxaro ba-dozu,
gaztetasun gordiña,
zuk ba-dozu maite-su.

Ezin zeinke ezelan
mendi-bururik jaso,
ezin zeinke zanik
indarrez ito-azo.

a oixtiko

* *Goiznabar*, 151-152.

Ta esan zeustan: «Ba-dot
gaur zertxobait zutzat».
Eta irakurri zeustan
leun, olerkitxo bat:
«Eder, guri —iñoan—
biotz doe dakat;
ire begien soa
bedi beti nitzat».

Negar-tanta bi jausi
yatzuzan samingai.
Goian odei zurbillak
ebiltzan alderrai;
illargi tristepean
illunak axe pagai,
ta barne-argi gozoz
dizdiz artzen ibai.

Zumardi itzaltsura
jo gendun geldiro...
Zugatz erpin makurrak
ixil eben giro;
lur bustira eroriz
ostoa leunkiro,
barne-muiña yatzun
naasi biziro.

«Au poza!» esan zeustan,
eta antxe, ixillean,
egon giñan luzaro
ostope onean,
barru-oiñazearen
oiu bigunean,
pozaren intziria
txastatuz betean.

AMAREN BIOTZA *

Ezkara gaur zurtzen
—oi, biotz gogor! —
naita jazokuna
izan arrigarri,
anker ta doillor.

Egi ala ipuin dan
ez dakit garbi,
baiña ba-ziran bein
erritxo batean
neska-mutil bi.

Batak naiz besteak
ba-eben sukar:
bizi kutun eben,
lilluratzeraño,
gazteak alkar

Eguerdi epel
zoragarria,
txoriak eztabe
oindiño atertu
goiz-eresia,

Zumardi osoa
itzalak dauka;
gazte biak bertan,
maite-uruna eioz,
ixil-mixilka.

Izamen txikorrez
neskak diñotsa:
—«Orren maite ba'nok
ene izpi aratza,
azpiltxo batean
ekarri egistak
ama-biotza».

* *Goiznabar*, 149-151.

Zer al dok esan nai, koplari kutun,
kalea ipiñirik doiñutan astun?
Barruan zer dauskuk nai itsatsi,
kanta ta kanta ezin-etsi?

Ire ots zolia, zein ixilletan
ete yakuk biur negar-xaflatan?
Ikusi ta entzun dok dana
su, jainko-belatx, itz bakana.

Ire soiñu otsak, sorgin egazka,
birao biurtu dozak goi-deika,
giza-osto arte berdean
erdi urtuz, nora ezean.

Etsai-gerizak nai ditu deuseztu,
okerra zuzen-az, naspilla uxatu...
Giza-biotzen mosu otsa
dau bere kantagai mergatza.

Bakar-zale danez urondo barna
doa, joan eta joan arrotxa,
anai-lokarriz batu nairik
berbizte ezkutua osorik.

Ukakor ez, baiña dogu baikorra,
bere nortasuna ezta txikarra:
gorputz, adi-eragin, sorpen,
sorkariz sorkarizko naimen.

Asmoaren jitez sortzaille zara,
geroari buruz zuk dozu gara;
«nor» ta «ni» naspilla egiñik
ba-dogu barrun larri-miñik.

Adore ta fede aundiz ornia,
atsegiñez eta miñez josia,
al dakiz ba olerkariak
gero latzaren itzuliak?

Ez ixur, koplari, negar-tantarik,
ez bait dogu orrein bearrik.
Ik illeta muzin ezkeru,
guk be ziur begian malko,

Baiña, olerkari, jo ik doiñua;
ots, kanta, garrasi; esna mundua!
Oa leiatsu euskal lur gaindi,
ta egik didar, oi u zoli!

Nekatua ete? Ar opor doia
ta iñarroz bideko autsaren loia;
uri ta mendi, gar ta kemen,
bota sero didarra ozen!

IBAI-ERTZ ZEAR

Ibai-ertz zear, biok...
Eskutik oratu
t'ezari-ezarian
ninduzun sorgindu.
Eskuan zeukan atza
—ustez lore-buru—
igartzeke, gozoro,
neutzun nik zanpatu.

Esku-andel zear zuk
neure eskua arturik
zeure atz txikiakin
egin zeustan gilik;
nik, otsera, ixillean
zorroa kendurik
eskua emon neutzun
gose atsegiñik.

Zure eskuak, zer?
Lili-buru bi
txit zuriak,
estutzekoan
usain gozoa
darienak.

Ta, zure oiñak?
Aingeru-ego
arin-lerden:
txarrerako sor,
cnerako gert
an ta emen.

Eta azpikeriz
oiñok ba'zinduz
min-zauritu,
ager zakioz
lore antzera
barre argitsu,

Eguzkiak noiz
goria peitu?
Egundo bez.
Olan bizirik.
beti zara zu
zori onez.

BERANDUEGI? *

Gure maitasuna, biotzaren kimu,
lapur aiñakoa yata begitantzen;
ez bat eta ez bi, uste ezik yatorku,
eriotza bera lez dala gertatzen.

Maite dozun arek —ez zuk opa edu-
baitetza leialki ez dautzu esaten;
ur dozun biotza, naiz luze bizitu,
ezta, ez, bertatik maitean igarten.

Ta zure ereguak aintzat ez arturik,
epe txit aundia lauskitu ondoren,
dituzun samiñak lepo-gaiñ botarik,

barriz bideari bakarrik eltzean,
atarian leraz zaitu besarkatzen,
biotza daularik irakin betean.

OLERKARIA

Ez daki norantza; doiñuz josia,
korkor doa gure olerkaria.
Goi-argia dau ixuritzen,
biotzak orruz dardaratzen.

Doala, urrats-me, marmux, betillun,
gau-zatiz jantzia joaku zurrin;
izarren ameslari dabil,
joan eta joan ez gurbil.

Goiznabar. 145.

♦ *Goiznabar.* 145-147.

NEGAR DAGIZU

Negar dagizu guraripean,
samur. Zeru-ertz eguna argituz,
eta zuk —zer dozu?— negarrari.
Zelai urdin aurrean mamindurik
orain au igazi ordukoxe,
agur dagiogun alkarri:
argi-izpizko olatu gaiñean
cksku zurbillok korapilloturik,
agur-agurka goakioz goiari.

Esi ezeak argi-urtika dagoz,
ler-eztandaz lili-aien biziak.
Geunkan oro ez al dozu esana?
Len illa be barriro biztu da.
Damuz, gaitza egin ebenak,
iruntz-istatan dabez niniak.
Alkarri erantzun bearrean,
adi, arren, itz ausi erdiak.

Zerorrek be euri gozatsua dozu
begien ertzean jario eder.
Barruan min dozu, samin gazi,
otzak ezpaitau sortzen zotiñik.
Guzur zintzillak eztau begirik
damu-intz gozotan iñoiz Jer-azi.

ZORION • BIDEKIK

Bizitza zear
zorion-aize
nai arnastu?...
Mingain zitalez
ez iñor, otoi,
zirikatu.

Ezti, me, samur,
urdin, sutsua
bedi nainun,
gotzonarena
zure dirdaizko
begirakun.

Euzki-estaia
illaun zuria
garitzan lez,
bare ta mazal
zabiltz, tai barik,
on egiñez.

Zure abotsa,
ixil, geldia
espe iduri;
uler bearrak
bakar ulertuz
soil ta urduri.

Goiznabar, 141.

* *Coiznabar*. 142-143; E-Gogoa (1955, 5-12. zenb.1 83.

LUR-ERTZEAN *

Lur-ertzean dot dana itxi
ta zidor gaiztoz noa urrun;
dana nai izan dot astiñazi,
baiña gaitzak darrait zurrin.

Gaitz doillorraren mendean
une txar batez dot oro
atzeanerrerik laga,
ta bide itsuz nabil zoro.

Zuri, ama!, agur egin
dautzut, argia astean...
Nork, geroztik, Iagunduko
al daust naigabe latzean?

Itxas gaiztoz nabilkizu
biotza zauri-malkotan,
irritsez asetu nairik
egun-sentiko aizetan,

Soiña irri baten ikaraz,
lora-min ene gogoa...
Ama, eidazu zuk, otoi,
onaren altzo beroa,

Olde ta indar, begoz nigan
gaitzaren zidorra itxirik,
on-deiari itsatsiz, argi
bidez nabilken gaurdanik.

Ama, ene odol-tanto,
biotz erituen poza!,
barnean dodan samiña
eidazu zuk, arren, goza!

BAKAR BIDEAN **

Bakar bidean mintzul ni,
beeko gai utsak lagarik,
etsira eziña osoan...
Zurbil illuna, giz-otso legez,
datorkit bulzka auzoan,

Ugin zitalak narrastu
ugarriak oi dau inka,
ta zii-bedarrak antsia;
nire arima, aspaldi danik,
oiuz dago eratzia.

Gizarteko maltzurkeri
ta biotz-uskeri baltzak
ondo dakizan gogoak
ezin al ditu albora bota
bizkar ditun lor-saldoak?

Neure miñetan itoa
—iltera doan zezena—,
bidez nabil pentsaketan...
Su-mendia dot biotza blei-blei,
zauri gabeko penetan.

Zuk ez nozu begiratzen;
Zuk, Jauna, itxia ete naz?
Donga izan ni Zuretako...
Zure naikuna sarri dot uka,
baiña, alan be, ene Jainko!

Bakarti ta ezin etsiz
ibilki, bide zokoan
Gurutzea dot idoro...
ta aren begitan, auspez nazala,
barrua yat poztu oro.

* Goiznabar, 139.

** Goiznabar, 140.

ZURRUN - BILLOAN *

Zurrun-billoan emen nago,
ez dakit zerk ikarria;
kafe-mai aurrean, utsik,
barne-ar baltzez josia.

Neskatxa baten begi-ziztak,
aragikoia ta garden,
osoz nau, arraiña urak legez,
goitik beera azterkatzen.

Jokalari tzarrak jaso dau
azken-tupiki ugarrak;
laban datorrit oraindio
musika lizun maskarra.

I, mutur-estu, sabel-sakon,
ardao-bonbil maitia!
Ik alaitzen dok giza-muiña
bikain emenez bizia!

Metatuz doa mai birundan
errautsa, ta kea ingurun;
goizeko ordu biak soñutzen
eliz-ezkillak txit astun.

Ez dot soñu-zaratarik nai,
ez begi-zizta goxorik;
gizaki danok ez gabiltza
irrikil bardiña nairik.

I, mutur-estu, sabel-sakon,
ardao-bonbil maitia!
Ik alaitzen dok giza-muiña
bikain emenez bizia!

GEROANIRNIR **

Laster yoaku aldia,
t'egiña deiez atzetik...
Ni bide-ertz naukazu sarri,
zu ezin kenduz begitik.
Zuk egiñiko antz-illuna
ibilli zabiltzalarik,
—joan egunen izpi gozo—
neugaz daroat argirik.

Atzo mindu zindudazan,
kezkatu neutzun biotza:
izate barne ixuri nik
ezpaiaren ur garratza.
Zer egin, zer asmatu neike
atzera be lengo poza,
barriz lortzeko, bai, guriki
estaldu nindun geriza?

Esku maitekor iduri,
or, zeure aurrean, zalu,
ipiñi zendun naimena
ta zuzia zendun piztu.
Dana eban, ezkutu aundiz,
zure irri-parrak azaldu,
betidanik ba'zenkian lez
txera gozoz nun ikutu.

Zuk mintzo, ta nik aditu;
indar berezi bat zeunkan,
camurki jaso-azorik
neure griñen gaiñetikan.
Begi lartan orrein atzetik
zertxobait dei ta dei neukan;
zure gogo garbian eder,
geroa ñirñir nekusan.

* *Goiznabar*, 135-136.

** *Coiznabar*, 133.

1941-1945

LORRATZA *

Ixillaren ezkutu
nork zearo eten?
Mundu ontan, alan be,
orok lorratza izten,

Argia sor daneko
gora doa kea:
aur-amesa bai-litzan,
zeru urdin zalea.

Narras dabil ondartzan
ur-koko ziztriña,
ta joanez dau izpitzen
lerro nas-eziña.

Leza-goian ur-tanta,
bean aitzsendoa:
maite-mosuka dautso
samurtu lepoa.

Arrats-beeran ontziak
—ezilkor bere ustez—
aundiki bide dagi
itxas-azal barez.

Erbi, txoritxo, aize,
ur joan doana:
bakoitzak dau iraunkortzen
norbere aztarna,

Bizitz-aitzean, nik be,
ene erraiñu itxi nai;
goiz-argi ta lore
bekidaz lorratz-gai.

* *Goiznabar*, 131-132.

Oi, zador ezin
ulertu!

Zorionean zorion utsa,
aintza betean be bardin;
egi ta jakintz, zabal ta ondo,
ez zan ezertan, ez, erkin:
alan be Jauna, goiz argi baten,
orra nabari sortu-min.

Benetan Jauna
narotsu!

Iñok ortara beartu barik,
ez iñoren antz-iduri;
arkaitzak izuz jarten dauazan
jainkozko ala itzarri,
ta nai ebana nai utsez eban
bizi aundira ekarri.

Aren itz-arnasa
zein altsu!

Udabarrian zelaia txairo
lora ta pitxiz jantzirik:
alaxe goiak aingeru-saillez
ikus egizuz bizirik;
ta biotz-sutan Jauna goretsi,
ez dabe beste jardunik,

Ene barnean
bego su!

Nok azka :iken
ezkutu!

Izar, eguzki, illargi zurbil,
dana ein eban beingoan:
geroz gau-egun argia eder
zuzi lez dingil zeruan,
len lospel nasi, barren-eziñak
nagusi ziran lekuan,

Argi makur
izpitsu!

Itxas ta lurra, ezker-eskuma,
egin ostean banatu,
bion arteko artu-emonak
artez ebazan galgatu;
mendi ta abere, zelai ta iturri,
dana ederrez apaindu.

Loreak zabal
kukulu!

Gauzon errege izatekoa
egiten asi Jaun Goia...
Gure ait-amak, oi!, eratzean,
ba-zan galanki emoia;
ta aren seme lez, zor dausat nik
esker onezko otoia.

Ager nakion
eskertsu!

Baiña, zer oneik baiño lenago,
—Jaingo-erruki aundia! —
mosu gorri ta bekoki eder,
gorputza bitxiz ornia,
Zu zara, Ama, sortutakoa
edurra baizen zuria.

Ezer baiño len
ni sortu!

Pago-zarbazta legez
zabal beso biak,
zure aienen barri
ba-dau illen zelaiak.

Alboan zuri-gorri
lorak dira erne;
utz-puntaz bat ebai
ta or dozu gorde.

Gudan il semea
or eben eortzi,
ta il-obiko arbela
zutzat maitagarri.

Buru makur, ondoren,
etxera bidean...
Seme bien gomuta
kilika muiñean,

AUSI ADI! *

Ausi adi, itxas-ur, ausi!,
aitz-arteko zilo arrean...
Ire otsaren zurmur latza,
nork adirazo dan aiñean?

Zoria ontsu, arrantzalea,
seska luzez ertzean adi;
baita itxas-koplakaria bere,
ontzi barruan leun kantari,

Aitz-ondoan leun ezarrita
begira nagokik ementxe...
Ire gaiñ eta ertz ugari
dabiltzaz aur, zar eta gazte.

Izaro osteko kaira dator
eder ta ospetsu ontzia...
Or ete datorkit, itzuliz,
nik maitatu neban gaztia?

Ausi adi, itxas-ur, ausi!,
aitz-arteko zilo arrean...
Baiña estutu begit noizbait
joanaren esku zurian⁸!

EZER BAINO LEN SORTUA

*[Nondum erant abyssi, et ego iam
concepta eram. Esak. 8, 24).*

Aita, Seme ta Arnasa done,
Irutasuna or datza;
baiña iru Notin autortu arren,
Taungoiko bakar bakoitza;
maite-korapil estuz baturik,
betikoz dabe bizitza,

Ezer ez goian, ezer ez bean,
Taunak arnasa bakarrik.
Betiraunaren sabel sakona
ezkutuz zegon astunik,
giz-adimenak eztau beragan
au bardintzeko kemenik,

- *Goiznabar.* 122,
n zuria.

** *Goiznabar.* 125-127,

ENE AMATXO! *

«Jadanikan amatxo
otoitzez Jaunari;
bi eskuak ikaran,
so kurutzeari»,

Ba-dot amatxo, nik be,
biotzez maitea;
ez yat iñoiz agortzen
bere itzal emea.

Eleizara jo dozu
malkotan biotza,
Jaun onari egiñik
eskari garratza,

Ez dot bera mosutu
urte bi oneitan,
baiña bizi darabilt
lo ta itxar gogotan.

«Jainko maite, errukior,
emen nozu aiez;
seme laztanagaitik
deskatzut arrenez».

Beti eder ta sotil,
niretzat ezta,
aldiz zaartua zerbait,
edur uledia,

Seme katez lotua
dakarzu gogora,
bat-batean asirik
ibaika negarra.

Oi, ene biotzeko!,
euki adorea:
naita zugandik urrin,
ondo da semea,

Legor, otoi, zotiñok,
ene biotzeko,
errai-barrena zeuskit
bestela lertuko.

Begi emon neutzun, bai,
atzo arrats-beeran,
zeure auzo nintzala
amestu bait neban.

Argia sartzan goitik
zutoin artean blei,
aingeruak dagio
samiñari poz-dei,

Baltz jantzia zakustaz,
amatxo samurra,
joan da-ta betiko
zure poz-izarra.

Obia gero zuk eder,
zurbil ta eraña,
an be zuk, ene ama,
cskari bardiña.

ZALDUN AUNDIKIA *

Ezpai-oroiz betea doa bide zear
 zaldi arrai gaiñean zaldun aundikia,
 gibel geratzen dala bere sorterrria,
 aspaldi aundian
 negar ixurian.

Bide zear yoatzu arrats beeratzean,
 lizar, altz eta ur-usaiñez beterik airia...
 Arek igurtzen dautso buruko uledia,
 goi-tximak astinduz
 zeru-ats lurrunduz.

Zaldi gaiñean doa amusko ta bare;
 biotza dau egarriz, urruti galdua,
 tente, zut, ipar-eske biurtuz burua:
 auntz-osto pareko,
 itsaskor, arrosko.

Kezkaz ta izuz doa zaldun aundikia,
 joan oroi gaiztoak dakarre ebainduta...
 Nork ari sakondu al barrengo apeta?
 Soil dabil zalduna,
 biotza dau illuna.

Geriza dagi, luze, zaldi-gaiñ ibilki,
 biotz-okondoan be geriza dagitso
 —iñoiz uxatzen eztan barrunbe-zimiko—
 ezpata zorrotzak,
 naigabe arantzak.

Arrats-beran, zalduna, ibar-ertzez doa...
 Euzkiak azken izpiz urretan dau jazten,
 oroiz dautsola espa barruan biztuten.
 Oi, gure zaldunak
 dituan asunak!

Ibar-ertz musker zear olan doan jauna
 nor dogun diñostazu? Erriko jauntxua:
 erri-odola miztuz egin dau dirua.
 O gaiztozko usana,
 odola dokana!

Baita be, astiro, norbait il bada:
 eresi eztia aur txiki dala,
 zarrik il ba'dadi, samin-dunbada,

Nik, alan be, beti, nai pozkor nai itun,
 i aut zintzoena espetxe-lagun:
 gau baltzez lastargi, nekean gardun.

EZKER-MUTURRAKIN *

Ezker-muturrakin txautu dot
 matrail-izerdia,
 beetik gora itsatsi yatan
 azal-kandu loaia,

Ta arri baten jesarrita,
 barne-min dantzari,
 begiak emon dautsodaz
 egin bideari.

Basarte: pozaren billa
 eldu naiz onera,
 ta zergaitik dot biotza
 triste, negarbera?

Beian lanari lotua,
 auldu naiz osoan;
 atsedeen eztaia nai dot
 ixil-jarioan,

Zugatz azpian erreka
 etenbako oslari,
 arri koskorrak mosutuz
 doakit dantzari.

—«Erreka —otsegin dautsot-
 i bere kezka al abil,
 bsdar ezeak laztanduz,
 otzaren ots bipil?»

Ta, xinpleki, erantzun daust:
 —«Beti ibilli, ibilli!
 Nik, mendi bakea iztean,
 ba-dot kezka-gili»,

Nik dasat: «Iñolaz bere,
 eztot negar gabe
 ez oianik, ez biotzik:
 bee-ibar bere baitogu
 nausi atsekabe»

Lurperatu Zuk
gure obena,
uiol ez gaitzean biur;
Zu zaitez, Jauna,
gure abaro,
pozaren izpi ta atsedeen-lur.

Bego mardulik
oraindiño be
euskal erriaren enda,
Zu goretsiaz
ta maitatuaz
izan dagian nai dauna.

KANPAI-OTSA

Kanpai-ots ikaror, kanpai-ots garden,
arraio durunduz or goian ozen,
ez egik egundo dei ori eten.

Goiz-jaunak orduko illuna meetu,
ik zoli diarduk ots ta durundu:
otoitz-dei goiztarra an-or zabaldu.

Eguzkia gairez goira danean
ta armindu ondoren urpe sartzean,
asper barik ago ots bardiñean.

Ene kanpai maite. jarraitu intziriz,
biotza bai daustak igurtzen eztiz
ta adia ixiotu eder-gai biziz.

Adur gaizto irzala yabilt ondorik,
izar ta eguzki aiendu barik:
baiña ik bo.-dok naiko niretzat pozik.

Noizka, jaiezkoa dok ire otsa:
urduri ta bizkor, didar bai litza,
uribasoetan azalduz poza.

ZURI DAGITZUTOIU *

«Lurralde oso a.u ondamendi izu-
ga.rri da izango» (Jer., 25, 4).

Barren-barrendik
Zuri dagitzut
otoitz biotzetikua.
Artu belarriz,
gure Jainko ona,
zure semeon oiua.

Gugandik, ausaz,
urrindu dozuz
poz-oiu ta irrintziak,
kale-bideetan
ta gau-jaietan
zar ta gazteen abestiak?

Atzerritarrak
gure-gureaz
dira osorik jabetu...
Zuk emon zeuskun
lur-zati onen
aurka jagirik indartsu.

Gure doluak
ez ete dabe,
gerorakoan, zaratarik?
Gure kruseluk
ez ete geigo,
ez gau, ez egun, argirik?

Gure erruak, bai,
aundiak dira,
olan gu itxi ba'gaituzu...
Lege-bidetik
euskal erria
al yatzu, Jauna, baztertu?

«Niri entzungor,
—Zuk diñoskuzu—
legetik jun zarie urrin,
nire artzaiñai
t'esan leunai
zakarki egiñik muzin».

Zure itzak, Jainko,
agiri danez,
ez al ditugu nai entzun?
Geure eskutiko
txarto egiñez
aurtiki al zaitugu urrun?

Egi-egia;
alan ta be Zuk
errukia Zeugan dozu;
eta zor-ordain
txit ugaria,
gaitza parkatzen dakizu.

Ta itxusi xautu
nai al gaituzu
zeure erra aundiaren aundiz?
ta bedarra lez
eratsi-azo
zeure aoko ats-geziz?

Auspaz aurrean
gaukazuz orain,
ta ez gu itxi saietsera;
entzun, bai, Jauna,
atxilotuen
zinkuriñak, damu-bera.

Treto, Laredo,
Santoña, Berri, itxas-ertz,
zuokan bada
naikoa iskillu eta pertz...
Egin ituna?
Poza? Siñisten guk nekez:
izu larriak
belu gaiñetik oin-iges.

Urrats ixillez...
Danok kezkatan barruak...
Jakin ez, noski,
zer dakarkigun geruak,
ta urduri goaz
ara ta ona itsuak,
Bizi-gogorik
cz damosku, ez, munduak.

Gaur Gibaxa'tik
itxasoraiño azkenge
guda-mutillok
gabiltz nasian, norage;
izurri dogun
alkar jotea ta gose,
itzez ezin nik
azaldu onen gaitz-leze,

IV

Leotz itsian
nago atzotik, katigu;
sei milla ditut,
zori bardiñez, inguru...
bildurrak nauka,
barne-dartaka, txit laru;
biotzak, baiña,
ez daust au gura siñistu,

Jakin dodanez,
jaso gaitue atxillo,
ta ezin esan
noizarte nazan morroillo;
zatar eskinka
edonun dakust naas-pillo,
giltzape-zantzu
bizkar daroat orrillo.

Goi-goiko leio
medar artetik so dagit,
baiña pozaren
argi-printzik ez datorkit.
Noiz artekoa
ete zigor au? Ez dakit.
Itxaroaren
izarra yatan gorde txit.

Nire apeta
suge gorria, or doa...
Leotz ertzean,
goibel Kantauri'k orroa;
goizez ba-dakus
giza-ilketa gaiztoa.
Erre malko dot,
itzal baltz, bira osoa...

Zeruko gure
Aita Jaungoiko aundia:
Kristo, gugaitik,
gurutzan untzez josia:
miñetan gagoz,
ta zaindu gure bizia;
zaindu, bai, zeuen
dozuen Euskal-Erria.

Agur, geure erri
zarean lurrik onena!
Artu zuk, otoi,
guk egiñiko arrena:
ziñez lanari
lotua, zaitez len-lena,
zeure izatea
dozula beti maiteena.

II

Eta... ba-goaz
erbestera, urrats-sor,
gabaz ibilli,
egunez kuku, aldakor;
Gallarta, Muskes,
Zalla ta Bezi, zerga-zor,
zuek gozuez
babestu beti maitakor.

Arkaitz gaiñeko
Gordon, egiz nik zu maite,
eta luzaro
niretzat argi leun zaite;
baita erabat,
Guriezo; nor zuk beste
emon daustanik,
samin gorrian, poz bete?

Atzerri-mugaz
gabiltzalarik galduan,
noiz edo baten
jai ederrik ba-genduan;
poz-oroi oneik
zelan ez josi barruan?
Egia, zifiez:
danetik dogu munduan.

Eguerdi da.
Ibai ondoan gagoz gu.
Bat-batez, goi-goi,
egazkin biren durundu;
gu an ikusiz,
lerkaiz gaitue suntsitu,
ta amaika lagun
arnasik bage, ai! , gorpu,

Gaintxoan ormaz
jabetu dira untz-orriak,
ementxe dauko
zelai santua erriak;
t'emen eortzi
ditugu, malkoz begiak,
aberri-miñez
jausi yakuzan gaztiak.

III

Goiz eder batez
millaka asko gara bil,
bakezko ituna
dogula zio ta burpil.
Iñoren lurrez
zertako ekin katramil?
Geurea galduz,
zertako ber txorokil?

Gainduak gara,
Aberri alde —leoiki—
jokatu dogu,
ur eta lur, zakarki.
Gainduak gara,
plan eta be, ziurki,
Gaurtik, miñaren
otsa guretzat oreki.

Mamua dirudi ziur, ekaitz aize miñak;
zu jagiaz batera lez mamuak asperen;
zu al zara miazkatzen garrasi samifiak?

Illaren kaskamotza azkar —norantza?— jutean,
ekaitz-jasak muturra daust albora zimurtzen.
Beingoz al zaitut urtua len-lengo lurpen?

Egun batez, bai, barrero zara biurtuko
lurrera; baiña aldi ori oraindik ezta asi.
Ez al dozu ariñegi era baltz jarriko?

Aldia ba-doa igaroaz, azia da erain.
Iraiz baten da iñartuko, urpean zarbo lez;
zagoz, bitartean, zagoz, mamu iduri bikain.

Maite zaitut! Ene, maite! Baiña ez naizu izu.
Betorkit bakarrik zure biotz-oiu ezti,
argiaren izpitan, ai!, ta ez ekaitz usu.

O I N A Z E P E A N *

Lanbrotsu gaua;
baltz gu gabiltzan bidea,
ke illunak mende
dauka kiratsez betea;
zaurien zetaz
daroagu loi mintzea,
min etsiaren
zornaz arima barnea.

Eta... ba-goaz,
erakaitz, illun altzotik,
sabel azpiko
erra gainditu eziñik
oraindiño be
etsai dogula orpotik:
ba-goaz bidez,
noraezean, tristerik.

Egun luzezko
iskillu tzarren burruka,
lerkai ta berun
eten bageko eztanda...
Uri-goiena
egiñik ia erreka,
anai odolez
gorri da lotu Artxanda.

Zagoz or, uri
eder, gaur ezain, kiratsez;
lenera zaite
beargin ta zut, ainbestez;
ez gara aitzuko
zure lantegi ta kalez,
naiz-ta malkotan
ibil alderrai, samiñez.

IRI NAGO

Iri nago, aberri, iri nago adi,
len intzala betargi, gaur deadar andi.
Zer zulo, zer eriotz egunok igurki!

Zur-egiñik,
ero legez nagokik, illa baizen illik.
Atzo pozik,
gaur lur jorik,
llun'ek ez opa argirik,

Iri nago, aberri, beazun ustuz,
odol-ibai egiña, olan oartuz;
lengoa ez akit, ez, poz-fedez, ez suaz,

Etsai-aldrak
gaiñez dozak etorri, ta or i ai-otsak,
samin-jasak,
erra latzak,
lurreraturik zori txarrak.

Mendiko amilura bioa garrasiz,
i izen bage, gerentsu, orrelan ikusiz,
igana yoak nire didar-miña irrintziz,

Laido zama
—amabi ezteneko naigabe garrama—,
or arrama,
il-uzama
kuzkur daroak ik, lur ama!

Gaurtik, abil iltzear, dindirriz josia,
txitik jalgi eziñik, abil eratsia,
lur-saiJ, enda ta adore bage, ta etsia,

Baiña, ik bestek,
illerriko ixil-une naiz barne-samiñek,
ez, ez yaustek,
—noren senek?—
biotz-argia barriz itzuliko ezek.

EKAITZ ARTEAN EZ!

Gau zurbillaren kolkoan zure atsa dabil;
orma ertzean putz, aize negarrean irri,
zur'atsren atsa doart goi-betean dindil.

Len ementxe ziñan bizi, neur'biotz-auzoan;
gaur ixillik ta zorige, bakan ta arrigarri,
bakarrik zabiltz alderrai miñaren egoan.

Tantaiak aragi bage, billois, loi daukazuz,
iruntzaren ikutuak dardarti jarriak;
ezerez biurtuko yatzuz aizeak astinduz.

Bide dagiste alaikor aurrera jotean;
ezpai-ariak ariman ni larri estutzen,
ta negar-tantak daurkidaz barriz itzultzean.

* *Goiznabar*, 105.

*** *Coiznabar*, 106.

GOIZA *

Itxaroz oparotsu datorkit goizean
udabarri zelain lez egun-sentia,
maite zabaltzen daula goiz-argi joria
giza-biotz oroen erpin adarrean.

Argi orrek goitikan bere gezna dakar
ta urten-ate bageko bidez bide doa;
pozezko eresia zerura digoa,
ene biotza itxirik min-oiutan dardar,

Goizez oro eder. Bekoki aratzen
ames urdin gorria izarretan dindil.
Lurrari emoteko poz-kezka ta iskanbil
urruneko argiak dira zurrutatzen.

Uhatsa bete da argi dantzariz zorakor,
ta Aita'gana naroa eskuz oratua.
Alaitasuna oro, bigun araztua,
umearen mosua baizen su-emakor!

Ildo zabal biotza, ar daidan argia,
Pozarren lorea da iruntzez astuna:
Ez bedi gaur samiñik, urrun beazuna;
bebil gogo ta biotz argi dantzaria.

Ez negarrrik geigo zidor egaletan,
ez geigo guruzterik orma gerizean,
Ardoa bego, ostera, guztien maiean
gizakia soin-gogo mozkortu laifietan.

Bekar egun barriak itxaro gozua
izadira bezenbat leun nire barnera.
Bigo ene amasa egazka ortzera,
eguzkiaren muiña baizen galdatua.

Ez geiago zabarrrik, ezta erortzerik,
Beuko bakoitzak gertu barreneko ildoan,
poza ta Jainkoaren bake txit goxoa
erne, azi ta ugaldu daitezcan joririk,

LEKANDA'RI *

Goizaro ederrez mendira naiz urten, Izadi-lilluraz biotza gozatzen. Zeanuri dakust azpian, Lekanda zangartsu goiean.	Lekanda! aitaso goi, aitaso zar-lerden! Zanburu daukazu oiñaulki guren. Goian buru-dirdai laiñoa, Beerago gurtzaille pagoa.
Lekanda! Lekanda!, arren, entzuidazu, Zure aurrean zut oiuz bai naukazu. Bidazia nozu txit goiztar, Onaiño eldua soin-dardar.	Begi zorrotzeko erkaba maitati, Bizkaia osoa zaintzen dozu orti. Zu zaitugu beti ongille, Gure soin-gogoen jagole.

Sai, erroi ta bela or dozuz inguru,
Danentzat dozu zuk txera ta maite-su:
Or ardi zuriak larratzen,
Or artzain ernaiak oiutzen.
Gizona ez dozu iñolaz ezesten.
Au ankerra, baiña! Biotz-gea esten?
Inguruko eder osoak
Ondatu dautzuz txit gaiztoak!

Lekanda! noiztik zu, or goian, ain erne?
Zuk ba-dakizu, bai, zer dan mende-barne.
On ta gaitz dakizu guztia
Euskal erriaren zoria.

Aldagaitz ta tinko bai zara aldioro
Zuk dakizu ziur gure samin oro.
Zagoz ortxe beti, aitaso,
Begiratzuz mendi ta baso.

Lekanda! Lekanda! entzuidazu, arren,
Ene barnetiko naigabe-asperen:
Gorde zuk, gizaldiz gizaldi,
Zure erriaren min aundi.

Erauntsi eskerga pean al naiatzu
Zuri nairik oiuz biotza asazkatu:
Ez dozu nirea bakarrik,
Euskaldunarena osorik,

Zure gilborreko agin ostotsuan
Sarri gorde nozu beroki gozoan:
Gaur ona nire eske bizia,
Gorde egizu euskal erria!

1961

ERNE - MINA *

Negu, aita otz, illaun,
soil, jantzi-urria...!
Udazken argiaren
etsai biurria.

Solo-zelai oro illik,
egon samiñean;
zugatzak oi-u-minka
aizeak jotzean.

Itunaren kideko,
ibai astun doa;
ta irriz ez dau, udan lez,
gozatzen alboa.

Bertatik —gogai ertui!—
edurra zoratzen...
Zuri, eder, oparo...
Baiña ez **gustatzen**,

Ustez beste, zer dogu?
Epailla, ume pitin,
or dagerku, txit guri,
soiña daula oztin.

Zorapen samurrean
or yaku guritu,
adarretan bizia
esnatuz zangartsu.

Baratzean aran bat
goiztar da loratu,
ta ondoren kerexak
bota kukurruku.

Agur iri, negu soil,
ego-ausi zale!
Lo ona opa dauagu,
leiaren maitale,

LUGINA TA KURLOIA **

Areitz-kerizpean baserri zuri.
Bertoko etxejaun Jon gazte zalu.
Iñoz gogaitzake solo-lanari
lotua tringu,

Gari-arloa dau urre-kulunkaz
etxe barreneko solo guriak.
Baiña, au zoritxar!, oartu bage
sortzen etsaiak.

* Karmel 11 (1961) 74-75.

** Oleri 3 (1961) 25-26.

Izan be aspaldi, an inguruan,
gose-miñik dabil kurloi taldea;
lasrer bear dautse osoz amaitu
arlo betea.

Eta arei arpegi emon-irrikaz
—liska ta segada arrakari—
lokarriak ditu ipiñi eurrez
gari-zaindari.

Lugin martzalak bedar ebaten
diardu, goizetik, antxe urre samar;
ta kurloe bat orra liskan naasten.
Arek bai liskar!

Lugiñak, aratuz, dirautso samur:
«Tira! tira, lagun! ; ire zoria!
Makiña bat kalte daustak ein aurten;
gaurtik, maitia,
ez dok, arraietan! janari izango
nire garia».

Kurloe gaixoak audia muzin:
—«Jaun ori, etzaitez ain biotz latza;
aragi bagea dozu oraindik
nire gorputza.
Itxon urte bat, ta ordun nokezu
jaki opatza».

Erostak jota be, lugin gazteak
etxera eroan eban txoria,
eta arrautz-opillez ondo xee-tuta,
ak janaldia!

Sarri oi dogu esan,
ta ba-dau bere guna.
«Txori bat eskun obe,
egazka baiño euna».

ALDIA *

Ez dakit, ai!, zer dozun
orla niri begira...
Goian zaukadaz dindil
ezpata meia iduri,
beti dirdira!

Ez dagizu zirkiñik,
ez zoaz iñora be.
Beti murrizt miñean
ene begi aurrean,
ene zutabe.

Ez itzik, ez kiñurik
zuk ez dozu iñoiz izan.
Alan be, zure zerbait,
ba-dantzut barrenean,
ixil-ordutan.

Zure begi-zitzaren
ibai mee lasterrean
ene bizitz-mamiñan
puskak daroastazuz,
noraezean.

LUGINA TA SEMEAK

Jon bai lur-langille zintzo!
Uda ta negu arek lan
gogoz saillari lotua,
baserriko soloetan:
ez dau egundo be izan iderik.
Aratz dauko etxea txit,
aberez korta betea,
ganbara beti aletan
arto ta gam asea.

Urteetan orla bizirik,
zernaizko irriz ornidua,
azkenean eldu yako
beste mundurako ordua:
zorra bai dogu ordain bearra.
Beingoan zazpi semeak
batu ditu oge ondo,
gauzarik asko bai daukaz
orain arei esateko.

«Gutako itxi zitun —dific
Jaunak lur-aberaskak;
neurritz, ba, erabillirik
ez etsi kaltegarriak.
Baiña, kontuz! Or dago-ta untzea!
Zer jan, zegaz soiña estaldu
aukera bear guztiok;
t'eten bako lan-izerdk
jadetsi oi doguz gauzok,

«Solo erdian dozue
ezkuturik ederrena,
nik munduan izandako
ogasunik andiena,
gaur arte iñori esan bagea.
Joan ta billatu zoli;
baiña ez neuke liskarrik
zuen artean nik gura
ori dalata sortzerik».

Aitari lurra emonda
solora dira semeak,
eta altxor billa dagiez
iñoizko lan ta nekeak;
dirurik, baiña, ez agertuten.
Alan be solo zabalak,
olan atxurto ta atxurto,
emon dautsie iñoiz baiño
ugariagoko zitu,

Egun-lana dozu, izan be,
gizonaren ondasuna,
diru-ekarle beiñena,
benetan zorionduna.

OILLARRA TA AZERIA **

Egun eder ondoko arrats epelean,
oillar gangar andi bat zugatz adarrean,
asmoz malmutza,
erpaz zorrotza,
begi-ernai egoan zaintzaille zurrean.

Azeri azpisuge andik igarorik
ta adaburuan kuku oillara ikusirik,
erdi goseti,
osoz itzontzi,
onela yakon mintza, artepean zutik.

* Olerti 3 (1961) 102-103,

** Olerti 3 (191) 223-224,

—«I, ene anai maite! —diñotsa txeratsu—;
gureko asarre ta gudak dituk aitu;
 anai maitekor,
 alkar jasanakor,
aurrerantzean bizi gaitezan baketsu.

Dakardakan au bekik izpar pozgarria.
Ator beera ta ar ene bosteko guria.
 Ator, maitetxo;
 ator, enetxo!
Ospa daigun laztan-zur jai oroigarria».

—«Bai, adiskide zindo! —erantzun oillarrak;
barri ezin obeak ik dakarstazanak,
 Gora, i, azari,
 ene geznari!
Barren-poz-jarriotan jo bizi txaloak!

Zidor beera, urrumaz, yatozak txakur bi,
izpar orren ekarle areik bere noski.
 Betoz laztanak,
 betoz besarkak,
ta alkartze orren zio jai daigun alaiki».

Soin-dardar azeria, txakurra entzunik,
—«Agur, gaurkoz! —dirautsa—, urrin jun bear nik,
 Ona daikala,
 lagun zabala;
biar erabagiko auzia errotik»,

Maltzurkeri matasaz pizti bi eletan...
Zelako barre-zantzo, zelako pozetan,
 oillarra zangar
 astinduz gangar,
azeria igeslari ikusiz lotsatan!

Iruzurrezko bidez dabillenak sarri
berantzat be kaltea oi dau erakarri.
 Naiz-eta trebe
 asko izanik be,
maltzurak maltzurari ziria ezarri.

JOAN YAKU! *

Goibelaren anotsak —edazle asperkor—
ozenki emon eustan zure eriotz-izpar.
Aizeak: «Joan yaku gizaki bat azkar».
Irratiak: «Itzali da Orixe gotor».

Bat-batez zartatu zan ene biotz-euna,
barrena iñarrosiaz naigabe-ziriak;
malkozko ziran gero enegan begiak,
lapa antzera itsasiz zure oro leuna,

Izurriak jota lez —ez diñot guzurrik—,
lengo poza biurtuz oiñaze gorrran,
igige ta elbarri soiña gera yatan:
Ez nik uste, ainbat, zu maite zindudanik.

Gure maixu zintzazan euskal alorrean,
zure urratsen einetik genbiltzan leialki;
esker ona zor dauzu biotzak biziki,
ba-dozu ortarako txingarra enean.

Zeru ta Iur zagokez buruan ereiño:
Jaungoikoak bemoizu or goian dirdira,
ta gure erria bebil zuk emon argira,
izkera ta oitura munduak dirauño.

Atzo zure il-obia dardaraz egoan,
oro argi ta urre, lillurazko dirdir...
Txori bat be kantari, begi biak ñirñir;
aren senaren jabe ein nintzan osoan.

Ni eskale: euskeraren betiko bizia,
izan dedilla beti maite ta landua.
zorunean bait-zagoz doez indartua,
jagon eizu, Orixe, gure ele maitia!

1962

ASTOA TA ZINBURRUNA

Arnas ezilkorra zelai sabelean,
aren atsa galduz zero zabalean.

Baso, landa ta txara oztin,
izadia dager amesmin.

Kepa artzain txikia, giro eder zale,
txirul-oska ibilli yatzu mendi-alde;

baña, euzkiak galdatzean,
aztuta itxi dautzu munean.

Baratz ta muintegi estanda bultzkorrez,
goi ta bee osorik iratzar bearrez,

biziaren ler-naia dozu,
euts-eziñeko erditze uzu.

Txaraz gaiñaldeko barruti ixillean
anton'en astoa daukazu larrean.

Gardu, elbitz, azki ta larra,
zanpatu bear dau gilborra.

Mugita-gain datza zinburrin itxia.
panpox, nasai jaten belarri andia...

Ez daki arek iñundik be
zer tresna daukon mutur aurre!

Jan ta jan piztiak; mugita bere jan,
ta orra... aize emon zinburrin zuloan!

Arek bai soiñu ederra
intziri ebala lasterra!

—«Oi! —astoak ordun—. Nik bai jo ederto!
Ba-naz zertxobait! Ez, enok ain mokolo!

Esku-ezpan dabil artzaiña,
muturrez jo dot nik ak aiña».

Erti-aurikan
batño ikasi barik,
iñoiz molda ete
akats bako lanik?

BELATXINGA TA PITXERRA

Txori artean baltza
dogu belatxinga:
zorrotz dauz erpatzarrak.
pikua eskerga.
Mendi-alde dakusgu
ego bi zabalka,
aren antsia sarri
dantzugu arrenega.

Egarriak eukon bein
gure txori arru,
Uda berotan bait-zan
ura txit eskastu.
Zanburu'n ikazgiñak
lanean aritu;
ara doa egazka
urik ete aurkitu,

Urez dauriki pitxerra
ikaztoi ertzean,
ikazgiñak itxita
irapil tartean.
Pitxerrak ba-dau urik;
baiña zoritxarreen,
a bai dala idorotzen
arras ondarreen!

Larriaren zigorpe
biotzean armin,
ura atera naiean
ta nora jo ez jakin,
Ara buruak emon,
ekin eta ekin:
pitxerra guztiz bete
arbel pitiñekin,

Ikazgiñak lo kukuxka
ebela ederra,
belatxingak arri xeez
ase dau pitxerra;
sama luzea gero
ontzi barna lerra,
ta nai aiña dau sor-az
eztari min erra.

Goen nunbait indarra,
kemenaren areago;
antzea, alan be, biok
baiña ederrago,

AZERIA TA MATS-MORDOA

Orma barruan dauko mastia
Etxe zuriko gaztiak.
Ugari ditu, goian dindiliz,
Mats-mordo eldu gorriak.

Azeri zurra bein eta barriz
Ormaz igoten da zaildu;
Baiña sarritan alegin arren,
Oñak dagitse txirristu.

—«Orma zitala! —ortz arte dasa-
Zer dok ik orren irriskor?»—
Ekin barriz be, baiña alperrik;
Zailduagaitik, ezin Ior.

Uleak tente, lurrun gorputza,
Buru ta atzapar bustia,
Mats-mordoari so biur batez,
Agin-ortz-kriska, etsia:

* Olerti 4 (1962, 3-4.zenb.) 60-61.

** Olerti 4 (1962, 3-4.zenb.) 61-62.

—«Ba! —diño—. Erdi motel zagoze:
 Umotu bage oraindik.
 Urrengo txandan, —illargi-arren!
 Al zagokeze eldurik».

Arroputzak
 aldioro
 atxakia
 gura idoro.

SAIA TA EPERRA

Sai arroputz ta goseak illa,
 ipiña'raiño zan eldu.
 Ta urki gaiñetik eper arrea
 garitzan eban somatu.

—«Zer txarrik ete dagoit, jauna,
 —darantzutso leun eperrak—
 zirkillu ontan askatu arren
 ene barneko sugarrak?».

Aren aragiz bere zilbota
 ase nai eban gaiztoak,
 Ta aiko-maikoka, iruzur utsez,
 azal eutsozan asmoak.

—«Bai, egia dok; askeak gozak;
 bakotzak nai dauna yagik.
 Baiña ik, lendik be, tint zinkulinka,
 kezak naukak, gogaiturik».

—«Tira, epertxo! —dirautso nare-
 ik soiñu bat dok betiko,
 ta didar ori, dei ertun ori,
 etxatak bape gogoko».

—«Zelan daiteke ori? Ni gaur naz
 araba-lautik etorri;
 nik ez dautzut gaur arte, bein bere,
 emen zankorik ezarri».

—«I ez ba'intzan be, iretarrak bai
 izango zoazan ziur—.
 Eta, *zast* mokoz lepozurra ausiz
 eperra zan aren zintzur.

Erru bageak zenbaten dozuz
 era onetan zeetuak,
 indar zakarra ta guzur motza
 dirala euren jainkuak.

AIZEA, URA TA LOTSEA *

Iru adiskide min
munduan ei ziran,
aizea, ura ta lotsa;
izpiño bi lez beti
alkarraz ebiltzan.

Arratz batez, alan be,
—noiz, zelan, nok jakin?
aizea ta ura biak
lagun barik zelaian
ziran alkarrekin,

Aizeak ots: —«Nun dogu
adiskide lotsa?»
—«Ez dakit nun dan»,
—«Guazen bere billa.
Ete aren otsa...?»,

Aizeak zoli-zoli
Oiz tontor garaia
ta trokak dauz araka;
ura, ibar zokoz zoko
luzaro da saia,

Adur gaiztoz egiñik
len-ekiñaldia,
aizeak urari ben:
—«Ezer bai?» —«Ez, ba,
—«Ikus daigun goia».

Aizeak ba-eban goi
naikoa istillurik;
ura b_e andik dabil,
laiño mee ta odei illun,
ete dan aztarnik.

Atzenez, nekatuta,
urak aizeari:
—Ai!, aurkitu al dozu
gure laguna?» —«Ez dot
ezer be nabari».

—«Garbai bizitan, kutun,
daukagu biotza...
Baiña aren atz-izpirik
ez daurkigun ezkeru,
alperrik gabiltza...».

Lotsa gal ezkeru,
geigo nok idoro?

ERLEA TA ERLEROA

Orma gerizan, euzki begira,
 arte ta arkaziz gordea,
 erlauntza dago —enbor zakarra-
 erle langillez betea.

Erlauntz atean —ezkerrerantza-
 mamu bi dagoz katramil;
 zer darabilen jakin naiean
 ara eldu naz oin-ixil.

Erletegia beti izan yatzu
 lan-irrikaren eredu;
 baiña ba-dozuz an be alperrak
 liztor, ero, kulumiñu.

—«Zergaitik, baiña, nozue jaurtzen?
 —Oiuka estu ernagi—.
 Zergaitik, esan, laga bear nik
 guztiona dan jauregi?
 Zer txarrik egin ete yonat nik?
 Iñor il? Ezer ebatsi?».

—«Ez, egia dok, —jalki erleak—.
 Ez dok iñor il; ez ostu;
 baiña onik be, egin dok ezer?
 Ezertan dauskuk lagundu?
 Emen gabiltzak, ezerdi-jasaz,
 lanari bultza eziñik;
 i barriz beti, epel-zerpela,
 ezeri oratu barik».

—«Ori don zera, asarretzeko?
 Ta ni, etxetik, bota nai?
 Euzkiak berak ez al akatsik?
 Itzal bage zugatzik bai?».

—«Ixillik ago, zaizaku ori.
 Ez dokala ein kalterik,
 guk lorez lore xurgatutako
 ezti gorriaz aserik?
 Eder yak iri nagi-bizitza.
 Zertan aiz onen itxia?
 Oa emendik, ta billa egik
 nekerik bako ogia».

Labur ta sarkor bai zala mintzo
 erlauntzeko zain maratza,
 alpertzarrari zurki emonik
 bizi-irakaspen garratza.

1963

BARNE-INTZIRI *

Beingoako itxartzean
—goizrar argidiri—,
barruan dantzut zoli
ots baten intziri.

Gaua itzaltso daneko
ixillez bildua,
ene gogoa dozu
ibilliz auldua.

Eguerdiz, galdatan,
zentzunak nik ernai
ta aiots beraren doiñu
dabilkit lertu-nai.

Zerbait dantzut oindiño,
kez karen artega,
azken-intziri miña
Jainkori arren ga.

Ler adi, ene gogo,
orrelango intziriz,
itxaropen egotan
goiari atxikiz.

AITA ALARGUNA

I

Bidez bide

Dzartada biurkorra? Eten zan aidean
abotsaren miesa. «Ezin dot» iñoan.
Naigabeak eutsozan erpetzarrak josi,
ta senar gazteak, ai!, atsalkor garrasi.

Anitz lore ta kimu eztanda bearrez...
Ak, baiña, eztau iñundik ezpan-ertzik lorez:
Bizitz-argi bagerik osin agortua,
izaki oroz etsita arrazoiz uldua...

* Olerki 5 (1963, 1-2.zenb.) 42.

** Olerki 5 (1963, 1-2.zenb.) 50-52.

«II az! II az, raaitea! » arek oiur barriz;
ta, «ene ez al rrtzanan?», eiagora biziz.
Zakar dabil aizea bide-ertzez zinkurin,
senar saminduaren jantzia lez urdin.

Gero, izar-islatan, zerura begira:
«Bizi! Erio! Zuen puskak onek dira! ».
Ezin ak lokia aska... Ta bide mukerrez
doa pentsati... Ene! oin-lokak top larrez!

Sorgorraren lilluraz saiets da narrastu,
lurrari itsatsirik dauz bean oin ta mosu.
Urrin txakur bat uluz... Munean kirkilla
etenbage jaurtirik asperen zurbilla...

II

Otoitza

Ixilpean gaualdi. Goiak izar apain.
Adiguritsu dabil illazki lur-soin gain...
Kubil datza gizona, ez dagi zirkiñik;
zelatan ditu pizti ta gau-ibilkarik.

Orduz-gero, zotin-uts, bota dau adia,
bakotxak dogun barne-zokora jatsia:
Jainko! Jainkoa! —diño—. Ene Aita guren!
Oker ba'diartutzut, azkets nire oben.

Zirimol dot barrena, naasi baizen erre,
arimea bait-yata atsekabez ase:
Uin biurrizko itxas baltzenean irri,
miñaren irrintzia dantzut aspergarri.

A ta ni ginduzuzan Zuk maitez estutu,
sendian biziteko biok zoriontsu.
Ta, aren sabelean, Zuk ez zendun gatzatu
bion maitezko suak ondutako kimu?

Baiña, ene Jaun ona! Aitu zan gau batez
aren bizi-argia! T'estal eusten lurrez...!
Nire biotz-miñaren mergatza geroztik!
Nok a barriz altx-azo erio-lurretik?

Argi? Laiño? Zuk dozuz eskuan, alare,
bizia ta eriotz. Onetsia zaitte! ...».
Ta, zerbait arindua, maite illaren antza
ikusia edo dau izarrez goirantza.

III

Oroi-arilka

Min-otzikaraz doa erreka ozena,
ertzez iragarririk illaren izena;
onen ur obirantza senar samLndua,
maitearen lurrunez bildurik gogua.

Begien aurrez dauko zupu samingarri,
beingoan dau osoro negar beroz busti.
Ta gero, lapur antzo, andik da estaldu,
pozaren izpi mea dauala dirdaitsu.

Etxe-barne ixillean oroiz ase dau nai,
aren gozoa izanik arantzen osakai:
Emen zetzan erregin, eztiaren pare;
ementxe kulunkatzen seaska txit nare.

Naiz-ta osin-loaren zeru oztiñean,
naiz suete-ondoko zizaillu jagian,
ikusi nai dau beintzat, eder ta zorakor,
atsegin ebanaren arpegi maitekor.

Gela-leiora urtenik, begiak ditu urrun...
Eta, azkenez, intziri: «Ba-zekiñat, kutun;
goiztik larratxoria kantuz goora, beera:
I aunat abeslari zeruan gupera! ».

ENE ADISKIDE *

(Txango batez)

Goiz baten zan. Zerua arre...
Euri-tantak lur gaiñez...
Leia biziz eldu **giñan**,
guztiok zure miñez.

Eta nik: «Bai, auxe! » Ordun,
guztiok buru-utsik,
Gernika'ko Arbola abes
genduan biotzetik.

Or, Urretxu'n, aurkitzean
dardar yakun biotza.
«Au al dozu adiskide»
egin eustien otsa,

Zuri agurka gerora
sarri dabilkit amets
eta, adiskide zurrian,
gogoz oi zaitut gorets.

Euri-tantak bedarrean...

Odeiez zerua arre...

Esna, biotzak, eta, buru-uts
agurtu Iparragirre.

AURRA LOTAN

Eztizko ego-ikutu
dozu soin zurian...
Nor urreratu yatzu
orren ixillean,
ta mosua ezarri
matrail gorrizkean?

Gotzonak dira, nunbait,
Arein poz betea!
Lo-jagole daukazu
biotzño taldea! ...
Egalari dautzue
sorgintzen ogea.

Zeru txikia zugan
dabelako esten
neke ta lorik eza
dautzue arintzen;
doe orren ordaiñez
euki zuk atsedean.

Mugaz andik, emendik
ixil-urratzaille,
arago ezkutuko
aberri-pozkille,
izan zuek betikoz
aurraren zaintzaille.

Lo egizu, aurtxo,
bakerik ogean,
gotzonak bai dituzu
jagole aldean.

IPURTAGIA TA ZAPUA

Zidar koloerz da apaindu
zelai orlegia,
Gau ama goiztar dala
lurrera jatsia.

Ertzeko bedarrean
zuzi mee zurizka...
Zer ete? Zer ez ete?
Izarra dizdizka?

Ipurtargia dozu
gauaren txirlarri,
bere txikian guri
opa nairik argi,

Urreko osiñetik at
—bekaitzaren zantzu! —
zirrin-zarran or dator
soin arrezko zapu,

Gau-argi pitiñari
zoria galtzeko
zitara bota dautsa
aratu daneko.

Il-bearrik gaixoa
aren pozoi mendeko!
Bizi-naiak, ostera,
barruan zimiko!

—Zergaitik nok zizta?,
etsaiari diñotsa.
—Lar argi dokalako
bota dauat bitsa.

Nok bere barrura
sartu bei ardura,

* Oleriti 5 (1963, 1-2.zenb.) 73.

** Oleriti 5 (1963, 3-4.zenb.) 34-35.

1965

APAR ZURITAN *

Goiz gorri

*«Itxasoa dizdiz dago
ortzipeko mugaraiño..*

Arrantzalea naiz gazte,
ur gaiñean arraunlari:
deika nagokio zoli
maite detan kresalari.

Goiz kanpaia dardartzean
irten oi naiz ur-zelaira,
arat-onat dantzaturik
ordu luzez nere naira.

Nereak xamur oian utziz
barne pozak goiz narabil:
etxe, sendi ta laztanen
gogamena ozka bipil.

Baiña, egun argi izanik,
eder zait kiau-txioa,
eta uraren magalean
daurkit poz-irri gozoa.

Aurrean ditut kai ta itxaso,
izar antzo deiez biak...
Noan, sar nadin ontzian,
aizeturik txit biriak,

Bateltxo nere ontzia
lirain, irristakor, mea,
beti dabilkit labainka;
dirudi neskatx arroska.

Zingil, zurezko dan arren,
ezta iñoiz galtzeko bildur,
naiz ekaitzez jasan bear
aize, kaskabar ta elur.

Batel, ene neskatx xume!,
ekan eskua legunki;
ur-osiñaren ixilla
bear diñagu gaur aurki.

Arraun, arraun!, akit eder,
Joan bear degu urruti,
osertzaren mugaraiño,
arago ametsez beti.

Illuntzean, bear bada,
dorreko ezkil astuna
gure galtzearen berri
ematen dabilke illuna.

Ez! Ut, gogapen zurbillak!
I ta ni, ontzi xumea,
illezkor gaitun; bioa
olako gogai etzea.

Ba-goaz ur gainez txairo;
ur, zero, txori, eguzki...
Atozte guri, lamiak,
ta zorazi gu sorginki.

Bil gaitzazute itzalez
goi gorriaren miesan,
amets zurizko ibilgoa
dantza dezagun eztitan,

Boga ezker!... Boga eskui!...
Beso zirkin ariñean,
itxas-grifak eragiñik
oldar-neurri bat-barean.

II

Bitsean oi

*«Itxaso - bare, zelai urdiña,
muga biribil, belar-berdiña»,
Lizardi*

Itxas erraldoi, Kantuari zangar,
asaba zarren garatzez leiar,
emaitz joritan dirdaitsua!...
Ire zintzura sarri dakuste
gazte lerdanak txarkeriz bete:
irri ordaiñez, uko itsua.

Ez dek maitezko itzik neretzat?
Its eta mutu, susmoa daukat
aizela guztiz biotz-okar.
Baiña sabela dek igalitsu,
ta ire bularrez nabil auzartsu.
Gaur ez akit, ez, izan muker!

Apar-itzezko solas goxoan
irekin gura nuker gaurkoan
ordu-loreak emen oitu.
Ba-dakusat, bai: ire barrena
beti kezKaren lerkoi urrena,
ezkutu beltzen min-gordailu,

Ai!, giza-muiña bezin errea,
su ta sista, al dek irea?
Lurrean maiztan jardun gaituk
ari ozkada, oni sastatu...
Otz-erraietan aldi orotsu
arrai-ezpata bezelatsuk?

Parka idak gaurkoz: nik ere, txepel,
amuzkiz izar beruna txerbel
egotzi dit ire usara.
Ez al dek oben? Zor zaion bizi
gabe, gaizkin uts, arraia utzi?
Jaunak zaik utzi giz-naiara.

Ez dek gerizik eguzki-zitzaz,
ez dek tximelet leunik egazkaz,
ezta lorerik, ez zugaitzik...
Ta, alaz, amets-ler ago, agiriz,
apar bitxitan irakin irriz,
poz-izar nun-nai ugaldurik.

Gogai-atalok ulduz, biguiña,
atrapa ditut zazpi burdiña;
durdoiak ere or dabilta...
Txelba ta sabi, takart ta txilo,
murdoka eror zaizkit atxilo,
pozturik neri muin zikoitza,

Ikus barnean, begi-txatxua,
zomorro txiki, arrai larua,
leiar eztitan dager txairu.
Itxas, itxaso!, ik bai sabela
emaitz ederrez astun dekala!
Bete zak beingoz ene amu.

Ezker ta eskui, melar-gupera,
zapartari txoil, inguma antzera,
geldirik iñoiz ere eztira.
Iñoren izu? Bada, bai, emen
aundi ta kaxkar, sorkari garden,
elkar arteko txera-bira.

Dardarka datoz amu ertzean,
burnia dindil zintzur mintzean.
Arnasa diet atzez aitu.
Arrai lerdanak! Neke zait oso
zuek iltzea; baiña ortako
Jaunak zinduzten sorreratu.

Goiak zearka doaz bi kaio,
pozaren mende eifiñ txirrio:
zelai ezean soil ez nago...
Arrai ta txori ba-det lagunik,
biotza neri aratz jarririk.
Laiño zuriak urrunago...

III

Arrats euri

*«Odei-pill arreak
dira agertu;
aize-putz biurrak
ura zimurtu».*

Guda zelai degu ludi ataka.
Kopeta eman zoriari zalu,
ortantxe bai datza bizi-ezkutu:
garaipena lortu etsai-jazarka.

Ur-ibai egian aize errota:
iparra ari zaio egal txistuka,
furunda gorrian jolas biraka,
ari beso zaiñak eratsi naita.

Uste ezik, neri be, liskarra zait sor:
lasai nengola lan arazoturik,
goi-be ixil indarrak gibel mindurik,
zirimol zakarra zait gainez etor.

Dantzari dabilkk batel gaxua.
Aizea len bigun, orain doillorto;
odeiak amiJduz, goitik ur-tanto:
ikaraz asi zait itxas mamua.

Oi, itxas, ur-zelai!, ez akit trabail.
Xumea nauk-eta, erruki nitaz;
enazak xeatu sumin-txibitaz;
etzaidak ez, arren, ontzia zarpaíl.

Ez dit entzun, noski. Goia beltz, zurbil;
illun nasia txit; ez dakust ezer.
Aize, txingor, euri, erauntsia ler...
Erio gordin aize-txistuan dabil.

Izutzeko naiko, ez ote gero?
Aserre dagerkit ur-bidutzia,
bekoz-gain jarri du gezal guztia,
aldi txarrez bezain setati, ero,

Lendik ere, ainbat ontzi ustetsu
zokora zituzten ur-mendi auek;
gaur neri batela eramai batek
ebats dezaidake izugarritsu.

Ur-bitsak, zakarki, jotzen aurretik.
Oi, bein! Txerren dantza dagit ontziak:
atze-albo jo du uin biurriak,
erdi-zartatua larri utzirik.

Uraren barneko irakin miña!
Ekaitz aserretik iges naiean
lemari gaxoa nabil bitsean.
Nork leukaken zori obez osiña!

Kantauri erraldoi!, gura al dek ordain?
Mariñel, gudari, gizon kementsu,
emen, beiñola, ainbat ituan lertu.
Berdin egin nai dek nerekin orain?

Furundak irutan ein dit birea;
urak gainez, azpiz, saiets -egalka,
zoro astinduz, or entzun karraska:
printzatu dit oso batel maitea,

Arraun, tosta, tresna, ontzi erdia,
zabal uretan. Ni ere uger azkar...
Enda odol latzak damakit indar.
Oi, zirimol!, kendu nai didak bizia?

Barnera naiz goi-min, ezur larritan.
Garrasi egin det, biotza tinko:
«Oi, Jaun! Oroena Zu zera Jainko!
Begira nazazu ekaitz-jas ontan».

Dema det izukor mundu-bizia
biotza lez-zori, eskuak ermo,
ditxoidan, sukarrri antzera sendo,
itzalgaitza degun argi-zuzia.

Olari josirik, antsika, nago...
Illunak oindiño atxilo naute.
Dizdiz zirrada urrun? Ontzia ote?
Gaizorian, Jainko!, Zuri batago.

Aitza jo du oiñak. Nun ote nabil?
Ertzera nau, noski, urak dantzaka...
Uin zakar artetik ertun igeska
ormazar mail gora igo naiz gurbil.

Lurrean naiz, itxas zintzurrez azke.
Kemenak ordaiña, atsedeen sari.
Merezia duna eiñik soiñari,
belar muskerrean etzan naiz luze.

Izaro! Izaro! Iri millester,
bizi nauk oraindik. Babes emea!
Ondakiña bai'nintz, ar nazak maitea.
Ur!, ire marradak or azpian ler!

IV

Begi lauso

«Zergatik, zergatik
det negar egingo?
Zerua izar dago
itxaso aldetik»,

Itxaso, itxaso,
ene anai gaizto!
Bost egunez euki
nauk, ai!, begi lauso.

Ire sumiñetik iges egitean,
idoro ninduten Izaro gaiñean.
Aritz-abar antzo, aul ta zatitua,
eraman ninduten zapian bildua,

Gero, ordu luzeak ein ditut etzanik,
osakai ontzia auzo nuelarik.
Erio dardara ito nun antzian,
auntzak izua lez oian ixillian.

Negarrak zitun, ai!, naigabez nireak,
aurtxo ta emazte mende oiñazeak...
Sagasti gaztea, ekaitzak jotean,
aurkitu oi dan lez era zurbillean.

Sendatu-alaxe auzpez jarri nintzan
eman-itza beterik goiko baselizan;
ekaitz-erasoan itzali izarra
an berriz agertu zitzaidan edarra.

Kantauri soiñutsu, ezkutuz betea,
itxaro-argiz ta gogaiez jantzia:
lamiñ ortozak or dabilzkik dantzari
gure Mari beltza dutela aurrelari,

Gaizkiñ aizela? Ez aut, alere, etsai.
Gaixo-orduetan i indudan amesgai:
ire marmar-otsa, iskanbil oztiña,
deiez neukan, neskatx iduri, biguiña,

Doillorra dirudik, barne Ioi: egia!
Zangar aiz, alere; ederrez aundia.
Gaur be ni, adikor, ur-ertzean naukak,
goretsirik ire lengoko zurrunkak,

Zer dion artezki samiñak ez yakik,
Alare, ik egiña, parkatzen diat nik.
Amets dek erraia, emakor, joria:
euskaldunak beuka iregan ogia.

Kantuari itxaso!
Ar zak begi-lauso
eskeintzen diatan
otoizketa bero!

1966

ZIGOÑA TA AZERIA

Udan begiko eban zigoñak
Gauna erriko eliz-gaiña.
Baita azeriak be bira atako
pagadi gerizez zardaiña.

Adiskide min yatzuzan biak,
eta azeriak, oso adei,
zigoñari poz emon naiean
bazkaHzkira ein eutson dei.

Azeriak, txur zalako edo,
ez eutson gertau jan andirik:
edari soilla azpiltxo baten,
ez eban beste zer arturik,

Lukiak laster garbitu eban
bere zatia mutur gaiñez;
zigoña barriz ezer jan bage
gelditu jatzun sabel-gosez.

Iru bat aste joan ondoren
zigoñak oles lagunari,
arren artzeko aspalditxotik
beretzat eukon bas-janari.

Egazti zurrak bonbil batean
atundu eutsan jatekoa;
ta, artzerakoan, ak sama estuz
errez jaritxi eban ondoa.

Bazkaldarra zan gosez geratu:
bonbil sabela bein ta barriz
miazka eban, baita agin-ortzak
erakutsi be sumin biziz.

Zigoñi zurgatxak, au ikustean,
janger zanari maltzur oiú:
«Urri ibilliak dakarren zama
apal eroan bear dogu».

ZAHARRAK **

*«Urte joanen zitalal
Zuek zarpildu-itzalia
Leenera nork lekardake?».*
Lizardi

I.—Ontzia

Begipean zintzilik zakustan ontzia,
zure ospe beteaz dot oraingoz amets:
Aldi'ren zori baltzak, irrikor ta makets,
or zagoz soil ta bakar, ertzera jaurtia.

Maskalduz zoaz ixU, gain dozu zedena,
saietsak zar dituzu, zar ezpan ta buru;
aizearen erasoz karraska dagizu,
Samiñaren intziri, naigabez etena.

* Olerti 8 (1966, 1-2.zenb.) 42-43.

** Olerti 8 (1966, 3-4.zenb.) 32-36.

Or aurrez aurre itxaso, lengo jauna naro,
ur-goran iñoiz txera dagitzu oiñean;
gero, ostera, izten zaitu len lez ixillean,
eraso ta burruka bagarik emaro.

Aitz-ebagiartean, zu bai errukarri!
Len adur-zale ziñan olatu besotan,
ugarri ameslari aize-ziskueta...
Nun dozu, ene ontzi!, lengo biz-sukarri?

Kaioen garrasiak, maxkurren laztanak,
arrats eguzkiaren pa guri berua,
urruti miñiez doan mariñel oiua,
eder ditu oraindik zure muin-barrenak.

Baiña, amets-ardatzean ez jardun biraka;
ezta zureztat geigo urrutira deirik,
ez oial, ez arraun, ez masta, ez gizonik:
Etsiaren mingotsa ats-edan bakarka.

II.—Agurea

Algodoi gisako odeiz daukagu extea;
ezerk ez dau an dei ez ots, dan-dana ixillik,
Sartu naz barruan ni, zar batek deiturik:
Agure bat dozu, bai, urtez txit betea.

Solo ta lur, ingurun, beraxek landuak
ditu larogei urtez. Gaur zabar oean,
mendi gaillurreko arte zarraren antzean,
indarrak ez dau aren gorputz unatuak.

Itz gozoz gura izan dot arnas-adoretu,
aren muiñean jarriz bizi indar eztea;
miñetan, ez daust entzun; baiña eskubia
luzatuz, urteieran, nau gozoz eskertu.

Zarra; oian etzuna. Etxean berorik
ez. Ezta errenak be gaixoa gozatzen;
irradi-oska dautsoz miñak sarri ixiltzen,
dirun ames-sorgiñai purrusta egiñik.

Euskal aitaita maite, ire izamen latza!
Gizarteak iraulia, billois, erre, makar,
matrail zingij, agiñik bage, okotz igar.
Erruki aut egiaz, zar-pildriski gaitza.

Min artean abillen erio bizia,
neke guztien amai, Jainko-mezulari:
Urrezko ereiñotzez eundu zaharrari
miñetik aterako dauan il-zapia.

III.—Agina

Ames gabeko osiña dirudizu, agin!,
or Zanburu gain, bide ezkoan etzuna.
Lau urtez ortxe zagoz, ixil ta ertuna,
mendizale diranen atsedean mokor urdin.

Zer dagizu or, bide ertzean, enborko?
Zergaitik zinduezan narrean ekarri,
ta zergaitik zaukiez or ain lotsagarri?
Zure zur giartsu ez al da ezertako?

Arraba altzoan azi ta luzez bizia,
gizon talde biurrak aizkorak ebaki
ta orra zinduezan idi-lor ekarri;
arrezkero ortxe zagoz, bakarrik, itxia.

Lengoan ba-niñoian gorantz nekatua
ta zuk eskiñi zeustan atsedean gozoa;
nik, ostera, zerorri zor neutzun beroa,
biotzak jalgi eban maitezko malkua.

Gerri aldera dozu ebagi gordiña,
—esku guriz neutzun zauri ori leundu—;
zedean balzak etzaitu oindiño pipitu:
Mamiña dozu, antza, usteldu eziña.

Lagun bela ta saiak egunez dituzu,
illunak dautzu gabaz billosa zapitzen,
iñoiz tximistak zaitu argitan mosutzen;
nik itzalez, alan be, zaitut besarkatu.

Agur, oi agin!, euskal enbor zar zaindari!
Zuk zenduan beiñola zital erromarra,
beretu nai ebalá gure euskal lurra.
Oi, bide ertzeko agin! Gaur gure lotsari!

IV.—Oea

Oe, etxetik landara, tresna zar moltsoan
mamu txiki lotsakor, oin bakar urduri,
oiñazeak jotako maitasun iduri,
oi, nork itxi zaitu or, mandio zokoan?

Iraillez gazte biak buztar ziranean,
mai, oe, arasa ta jarleku barriak
erosi ta zokora zituen zarkiñak.
Geroztik zaukat, oe!, aika bazterrean.

Zartegian auts-ontzi, egokera latza!
Bakar utsean ez dau giza-irri leunik,
ez dau berotasunik, ez txera gozorik.
Nazkaz ta gogoikarri, aspertua datza.

Illargia yatorko iñoiz, ameslari,
ari barne-zauria gantzutu naiean;
kuxu-muzu jardun oi dira bakarrean,
ondoko ibaiaren ots-arian dantzari.

Iñoiz, oi! , ondoratu ta zu agurtzean,
biotz-barm oartzen dot etsipen miña.
Ez al ziñan zu zori obearen diña?
Etzendun ekin, gau ta egun, mesedean?

Zure errai-mintzean ez ete ziran jaio,
urterik urte, ainbat giza-kimu eder?
Ta, orain, bizitzage, trauskilla ta iltzer,
baldar ta lokatua. Ez dozu balio!

V.—Euskera

Argia baizen zuri, arezti ertzean,
eder-eder agiri yaku baserria;
aspaldi an bizi da euskaldun sendia,
lanari atxikirik soin-giro onean.

At-aldetik dirudi tantai-besanga zut;
Aize-txeraz aserik barren-egotegiak,
Gela, areto, okuillu, orma arre zuriak.
Euskal etxe maite, oi zu!, agur dagitzut,

Barrun nago, begi uts. Amona, guraso
ta ume talde, guztiak dabe su berbera,
Baiña, au lor!, miiñean darabille erdera!
Amonarena soilki dot euskeraz jaso.

Samiñak lertua dau amonak biotza,
ezpaitau ak ulertzen etxeko naspilla.
Ia eun urtez arek ein ele gurbilla,
laster dozu aztapar zorrotz eriotza!

Kanta, illeta biur yat; len poza, beazun;
ezin dot ikusi zar a zurbil, miñean.
Barneko poz adia ezin esanean?
Bizitzaren azkenez, orren zoritxardun?

Oiñaze dardar meetan, atera naz andik.
Eta odolaren muin, euskera urduria,
orpoz orpo datorkit baltz-zapiz jantzia,
betikoz ezetsita su-bazter artatik.

Zahartua zu here? Zergaitik jaurtia?
Zar dozu euskal lurra: zu bere erregifia.
Lur onek gizalditan diraun urte aifia
zabiltz, zu be, gure ezpan mintzaira joria.

1967

ILLUNA EI DA OLERKIA *

Itsuaeren abotsa lez
zoria ez yaku bardin,
kezkatu, etenkor baiño.
Poz-jario al zagoz gaur?
Biar raalkoz intzatuko.
Jaio ta il, dantza ta illeta,
a aberats, bestea txiro.

Illun ei da poesia,
Nik ba-nenkian lendik be.
Poz-irria zail da azaltzen;
osoa ez yakulako,
ez ei gaitu barne ikutzen;
illuna, barriz, barnera
igarri bagarik sartzen.

Biotza, dan beste zabal,
erabil oi dot askotan;
ctxat pozezko bertsoa
barrura gozatsu jausten;
gainbera samin-laiñoa
edur-luma lez datorkit,
jori baizen oparoa.

Iñoiz, miñaren arilpe,
goiari ibil naz arnas-eske.
Iltzear dagon txoriak
bizi-beroa nai leuke.
Illun-ingumak argia ames,
orduz lirauken argi-kusku.
Baiña biotzak esaustan:
«Ez min onen poza uxatu».

GAU-JOLASA **

Gauaren zapipean gozo neskatilla,
leio ertzean dago begi-ameslari,
maitez daukala goian illargi zurbilla.

Ames-jolas dagie biak, oso ixillik;
itzik bage itz dagie, arek oni soka;
biotz-miñaren leuna alkarri esanik.

Zer diñotsen alkarri, ixil, txutxu-mutxuz,
iñok ba al daki? Bira orain, bira gero
dabil neskatxa, izpi-soka gain dantzatzuz.

* Olerti 9 (1967, 1-2.zenb.) 22.

** Olerti 9 (1967, 1-2.zcnb.) 23.

Pozak arrotu dautsa osoan bularra,
illargia bait-dauka oiñetan etzuna
izara zuria lez zabal ta edarra.

Jolas dagi neskatxak, jolaslari ixilla,
gora ta beera, ziba iduri zelaian,
gora ta beera, ames-dantzari bipilla.

Eta unearen ertzez —ertze zorrotza! —
batean dira alkartu illargi ta neska.
Oi, zelako ots gozoa arein ezpan otsa!

Arte-txara ostean itzalia dozu
illargiaren mosu maitati zurbilla;
itun neskatxa ontan, bakarrik da lotu.

Min-etsiaren mende dau idoro, ats urrik,
urrengo goiz-argiak; muzin, jolas bage,
begi biak ezo ta burua makurrik.

Arrezkeroz, iñok ez daki zer jazo zan;
baiña neskatx mindua ixillik, gauero,
leio ertzean jarri oi yatzu zelatan.

AMETS MAMITUA *

(Zangotza'ko Lore-Jokuetarako egiña, 1967)

Ametz egin dut. Ta ura dut orai
era zarrean adirazi nai.
Neskatxa bezin eder, zangar,
nere ametsa ponpox sartzeko
gurbil bat bikain, gain-barne urrezko,
landu idazu, urregin azkar.

I

Ur ertzean

Aragoi, Irati'z gaindikatu,
napar lureko ibai autatua,
urdin, txairo, dana zeartuz,
euskal menditar atsez ase,
sorgin-ipueiz agitz betea,
ba-doa Zangotza musuruz.

Ene Zangotza!, esana dut, bai,
zure izena, goitiar, alai.
Anitz makur-une zurizko
ibai zail orren altzoan koka
or zaude goxo, bizi-atsalka,
aur lizunkoiaren kideko.

* Olerki 9 (1967, 3-4.zenb.) 44-47.

EGUERDI, 1951-1970

Suge lepoa itxura dute,
zar izanikan oraindik gazte,
ezker-eskui daukazun maldak;
muiño ta bizkar, landa ta zelai,
zugaitz artean gaztelu arrai,
lirain dira zure sorbaldak.

Bide pikoan apatz jarria,
emen naukazu zuri begial
Begiok, ez otoi, lausorik...
Ikus pozarren azpiko uri
egon-eziña, kabi urduri,
len-oraiñak mendez loturik.

Kulunkaz gorri gari-arloak,
ezin obezko masti narok
urruti-ertzean galduaz...
Poxpolin pillak or dira, noizka,
eiztariaren oiñaze-meta,
cgari azkar ren sistaz.

Gari, mestura, ardo ta igali,
oroz duzu zuk gaiña estali;
birako txapar artean duzu
bizkor ta ugari abere-saldo;
zure semeak ba-dute naiko
jan-edana, uda ta negu.

Onez gaiñera, or dakusazkit
—zein eder diran ba ote dakit?—
Zur-zerrak eta irin-etxeak,
pabriketako ke-ziJlo gurpil
ezin aseak aizetan bipil,
poz-azirik ustez barneak.

Jaiez musikak alaitzen dizu
jendea kalez ta basoz usu;
adorez sendo, lerdan gorputza,
eliz ta etxe, moja ta praille,
Kristoren legez alkarren maite,
eder daramazu bizitza.

Zangotza segail! , zuri eiotzen
emen nagotzu bertsoak ozen.
zuretzat bedi nere didar,
irrintzi bero, oiueztanda;
zuretzat nere biotz-zauskada,
oroz gaiñetik beti zangar.

II

Leñargi

Kondairan zear zure izena
beti izan zaigu argi, ozena.
Zaindari zera mugan jarria;
etsai-mendean maiz jausi arren,
etzera iñolaz, oi <ui guren!,
napar lokarriz etsia.

Aragoitarrak maiz, aundi-miñez,
ibilli ziran zu artu naiez;
baña Adrian'go urak ba-daki
zure semien bular sendoan,
zure alaben odol beroan
zer dagoen, oso ertsiki.

Ordutik zure ikur erdian,
lau taket txuriz panpox jantzian.
S. A. gaillen daramazkizu.
Lena dut amets, lena dut laztan,
zure egiñak ez dakit nolatan
ospe-gaillur aizez aintzatu.

Gerora ere napar lur barna
eldu zitzaigun atzerritarra;
Espoz-Mina'kin zure semeak,
xorta estuan bildurik lerdan,
ementxe bertan zapal zituzten
Abbe prantsesan gud-osteak.

Ibaiak pir-pir, zugaitz itzalez,
Zangotzak irra, seme leialez...
Aldia or orduz arraunka.
Kondaira zear zabilta beti
langille trebe, alai ta amesti,
bizitz-ontzian zimur-ozka.

Urregin bizkor, apail zadazu
 xixel txurikin gurbilla usu.
 Baiña, ez, itxoin; ez apail, otoi.
 Ba-daukat lendik barnean kutxa,
 or dut gordeko nere ametsa,
 bizitza zear maitasun-oroi.

1969

EZETZA *

«Ez, ez» diño umeak,
 ixillaren erdian.
 —Zer emon dautsazu,
 ama, ume txikiak
 ixillaren erdian
 ezezka jarduteko?

«Ez dot izan nai
 aitaren antzeko».
 —Zer ikus dau, ama,
 umetxo toles-bakoak.
 bere ataren kideko
 ez dauala izan nai
 orren setati esateko?

«Ez, ez dot artu nai
 zuk emondako saria».
 —Zer emon dautsazu,
 ama, zure umeari,
 ez dauala zuk emonik
 artu nai autortzeko?

«Ez, ez» orreik oloka dagoz
 ixillaren miesa gorrian.
 Utsik daukaz eskuak
 eta ez ditu bete nai.
 «Ez» diño gauak, «ez» egunak.
 —Zer dau zure semeak, ama,
 orren tematsu ukatzeko?

Gau baltzaren erraian
 danban ikusi dau aita,
 amari zital ziñuka,
 zantar biraoka...
 «Ez, ez dot nai —diño umeak—
 aitaren antzeko izan»,

1970

LUMA USAINTSUA *

Goiz baten bidean aurkituaz,
—ezpangorri ta begi alaitan—
zenkarren zisku gaztain margdzko
edegiz, luma bat emon zuestan.

Biotz latza izan gizon baJdarrak;
nik ez neutzun eskerrik azaldu:
barne-ozpiña txasta irudiko,
nenkarren bidez jo neban mutu,

Bidarloa olan, ixil, mutu,
Gero, luma eskuan arturik:
—«Zerez egiña zaitut, idazkortz?
Dozun usaiñiak ba-dau gozorik! ».

—«Len usainge nintzan, baiña arek
iku nindunetik naz bestetu;
zurgiñiak nindun erara jantzi,
baiña, a barik, nintzake zarpatsu».

Geroz, maite, zeure arnasa dot
nigan, gogo ts soin, ixuria;
geroztik, gau t'egun, dot asmatzen
zure izanaren lurrun eztia.

«T X I K I» **

Eguna urratzean,
laiñoa nagi dabil, pentsakor,
eleiz-aurreko landa **ertzean**.

Ume-oiu zoliak
datoz —izarren intziriak ete?—
ik maite enduzan auxiak.

• *Goiznabar*, 213; Agur 1 (1790, 2.zenb.) 1.

** Karmel 1970-1, 47.

Eta joan intzan
aizeak joa, zerbait artu gurean,
lau-oinka bizi-bizitan.

Ta ez aiz itzuli,
ez aiz itzuli geiago, txakurtxu,
ez aiz oindiño itzuli.

Nun dok, ai! luzatzen,
«Txiki», ene txakurtxo bizkor?
Ire zain nok emen.

Illargia gero,
amar aldiz ikusi yoat
gorriz jantzia, ero.

Eta ire etsaiak,
—sagu, suge, katu, txori, sator.
yabiltzak alaiak.

Atzo jaitu yoen
danak, txilio ta ots betean,
ire illeta goen.

Nun aut, «Txiki» laztan?
Izadi-sabelera, ain ixil,
betiko al aiz joan?

Azken agurrik be
—zetako ainbat itobear?—
niri esan gabe!

LEIO ERTZEAN *

Ez dakit zelan, goiz argi baten
agertu ziñan nire auzoan...
Leio azpiko karel zokoan
eder bai eder zendun emoten.

Euzkiak goitik zeuntzun ikutu
ta zuk muin zuriz lernai biotza;
ez dakit zelan, barren bikoitza
zendun edegi zorten ta kimu.

Geroztik ortxe zaukadaz eder
aize egoetan gora ta beera;
argi-maitale, mindu gupera,
illunde orduz poz-irria ler.

Leio ertzean gurutz besoak
so dagitzut nik goiz eta arrasti;
soaren truke daustazuz josi
maitezko ezten garrez eioak.

Ta gaur joranez zuri begituz,
«Etzaitut maite?», esan daustazu;
eskuz makur-az dautzut nik kimu,
ezpan biekaz beterik mosuz!

Mosuaren kar! Biotz-bamean
biztu daustazu maitezko miña!
Ta arrezkeroan, geldo egiña,
soka naukazu leio ertzean,

ILLUNABAR

1971-1988

1971

EDURRA !

Edurra jaku jausi
mendi ta landara;
zerua erdibituz
dator mara-mara.

Nik ez edurra maite,
bai dausku ilten oro:
amets-mixtoz dot opa
birrindu zearo.

Edurra jaku jausi
gure lur e2tian,
otz dago gure dana
bere egon larrian.

Gazte: ez dok ordua?
Zuzper ik biotza!
Zar: ez ete dakusak?
Jo turut zorrotza!

Edurra jaku jausi
lei-moltzo egiña;
kale, bide ta auzo
or dana bardiña.

Gazte ta zar, leikide,
U erriz mindurik,
zain daigun euskal lurra
eriotz latzetik.

AREITZA

Auts-arre dago goia,
errai-ixilla zainduz;
zuk a urratu naiean
inkezak dagizuz,

Lorez jantzia zara
lerdenik, zeru-min;
ez, ez dozu lortuko
aren erlaiz urdin.

Eguna ilterakoan
malkoa darizu,
taige biran ikusiz
egoaren joku.

Ez dautzut nik esango
zeruaren barri;
ez dautzut nik esango
zer dan udabarri.

Margo ta urduri oro,
pinport zut, ler-bear...
Begitu, abots, kiñu,
ingi-atz, mii-litxar.

Poz-azi, Udabarri!,
auts dagon ortzia;
poz-azi, bai, Gernika'n
euskal areitz mia.

SALATU BEARREZ *

I salatu naiean
nator, neskatz oker;
ez dauskun, gaur, euskeraz
irakur nai ezer.

«Ez dakit» diñon nasai.
Ba ete lotsarik?
Ez dakin irakurten,
ez dakin izpirik?

Ta zelan don begitan
—aragi-lei susper—
arinkeriz, arroputz
ainbat erdel paper?

Gaiztoa ire jarduna,
nik ezin ulertu;
euskal gunaren euskai
len lez ez aunagu.

Ta i olan lur egiña,
nasaikor ikusiz,
dardar yonat biotza⁸
barnea garrasiz.

Euskerarik, federik
guk ez ba'yonagu,
euskal alor^b joria
biur bedi trisku.

* Karmel 1971-2, [III].

*• Karmel 1971-3, [11] (A); Karmel 1985-1. 93 (B).

a biotza *B* odol; *b* alor *B* solo.

1972

LAIÑO A *

Ik opa eunke
ixil-ixilla
nire zera gartsua
loi oroz garbitu
ta aize-ukaldi goxotan
lurrun-bafa biurtu;
eure sorgin-eskuetan,
zeru-anaikide egiñik,
pozkarior zigrit eragin
izar biren altzoan.

Laiño!, euskal lurraldea
gerriz estutzen dokana:
biur, otoi, ene odola
aize-bafada bizkor;
gure erriaren loa
esnarazi nai neukek,
zar ta gazte, ume, guraso
enda-su kiskalkorrean
—burdiña murur gori bi—
alkar erantsi azirik.

Eta bebil, gerora,
ene arnasaren galda
ara ta ona, aspertu barik,
ildako asabak be piztu naiez.

ITZALA

Itzala naz, itzala,
ta ixilik noa;
erreteneko uretan
dot goizez loa.

Bertako amorraiñak
ez dabe ikusten,
nik ditut zapi baltzez
itsu-erazten.

Itzala naz, itzala,
eta nigaitik
aurrak ezin ikusi
goian izarrik.

Iratxoa naz azkar,
ta egaz noa,
ur ta lur banatuaz
arnas ezkoa.

Ene zalditxu otza,
abil bioztun,
bildurra ereiñikan
bidean nainun,

Arnasa daroat zail
soin-barrean,
dirdira dagiana
zume artean.

Itzala naz, itzala,
ba-daki ziak,
ene atsedeen-toki
begi-eztiak.

* Karmel 1792-1, [II].

** Karmel 1972-3/4, [III].

IRU IZARLARI:
YOUNG, DUKE TA MATTINGLY (1972-4-23)

Zertan zabiltz zu, Jon Young,
 ta zu, Txarles Duke.
 Ilkrgi gaiñez loka
 auts-solo urdin arte?
 Gizonak ba-dau sena
 bere oskol barne;
 olakorik ez dautzu
 egin oraiñarte.

Orra eldu zarie
 su-ziri bat abi,
 egalari bizkorrak
 Eli igarle iduri,
 jakin naiean ortik
 zer daukagun berri.
 Ausartak zare biok,
 diñotzuet egi.

Bide luzez ibilki
 ara ta onaka,
 mendi, zelai ta trokak
 dozuez araka;
 emen mailluaz jorik
 antxe barriz anka,
 arri-koskor galantak
 zakura metaka.

Izar ori su-puzka
 egoan unean
 azal agertu ziran
 troskak pillatzean,
 aurkitu nai dozue
 zabilzten bidean
 illargiak ze adin
 daun^a bere izatean.

Iru edo lau milla
 milloi urteraiño
 ei ditue arriok.
 Ai bai arritzeko!
 Illargia, ez lurra
 ez dira atzoko!
 Gora daigun biotzez
 Jainkoa betiko.

* PVV 7 (1972, 76.zenb.) 4.
 a dau.

BIDE AUSIARI *

Euskal bideak eta mendiak
dira —nok uka?— zoragarriak!
Baiña bideak apurtzen,
eta mendiak zakartzen...

Gu aldiz gara ikus gurean
mendiak blei-blei eder utsean
eta bideak txukunik,
ertz eta barru dizdizik,

Euria goitik maiz yaku jausten
mendi-zugatzak indar-barritzen;
baiña bideak, luperiz,
dauskuz ondatzen ixuriz.

Aspaldi danik sendo euria
ta Trabaku'tik beera bidia,
bide kiskila, melaska,
yaku eratxi apurka.

Eta or dago saiets ausia,
or dabiltzanean barregarria.
Ez dok ipuiña, ez azti:
abil arduraz, bidazti.

Burdin-esia, arri-mokor bat
ez da naikoa doanarentzat;
belbillez joan, nai oiñez,
arrisku dogu aur-aurrez.

Euskal bideak, euskal bazterrak,
berez zarie dizdiz-ederrak!
Alan be bear, noizpenka,
arduradunen arreta.

URDE TA TXAKUR *

Ez esan dontsu azanik, ez, ez;
oa, ostera, itaunez
eure alboan miñez diranai,
oa esaten diranez...

Min-zigorpean dagoz milloika,
milloika giza-semeak;
millaka baita darabiltz larri
iñorenaren goseak.

«Neurea neutzat», «irea neutzat»
diñoie lotsa bakoak;
eta zuzena zapalduz ausart
garraxi dagi jauntxoak.

Urde ta txakur, alkarren leian
lur-biziari emonak,
orra aldera, doillor ta maltzur,
ez gero, ustez, on-onak.

I, ameslari, bekain gogordun,
ausi egidak, betikoz,
aurrean dokan bildur-kabia
dardaraztuaz ostikoz.

Egia ote? Maitatzen al dok,
maitatzen egiz? Bai ote?
Eurea dokan Euskal Erria?
Itxartu adi, arlote!

Noiz urratuko yagok argia,
—gizonen aldi doi-doia—
eure erriaren galda labean
piztuz biotz errikoia.

TUTUBIOTUA **

Niz ez dot nai...
ta arriturik nago,
errauts legorra giño;
ta bakarrik nago, pertz azpiko
otea baizen pindar:

arri ta bakar, ezin azalduz
barnean dodan ixilla.

Bear ez dana ixildu bearrez,
garraxika, gau ta egun, esan
bear neukena ixil-araziz,
bai, tutubiotua nago.

Neure kautan, etxean,
kalez nabillelarik,
goiz ta arats neure lankideakin
ez diñot ezer
meko zirtzil onek,

Bizitza
aldatu bear neuke,
jardun-bidea,
zirtzil izatea;
aldatu, bai ezpanak,
eta arpegkk.
Ez dot aldatzen,
ixillik nago,
futubiotua.

Zahartuz noala dirudit,
eta ez naz mintzo.

Ta mundua —gizartea—
kirrizkarro bat bezela,
arin dabil, xixtuan.

Egiaren ordez da guzurra saltzen,
etxe bakoitzean lapur bat datza,
bide-gurutzetan manturioak.

Eta ni ez naz mintzatzen;
tutubiotua nago.
Baiña, noiz arte?
Zahartuaz bai noa...

* PVV 7 (1972, 79.zenb.) 4.

** PVV 7 (1972, 79.zenb.) 5.

AIZE-TXINPARTAZ

Barru-pozari eutsi eziñik
 erdotza'n gagoz jaietan,
 gazte bi onein maitezko sua
 Taunari opaz, benetan;
 Maria Gemma eta Jose Luis
 bertan daukaguz eztitan;
 eurokanako zorion utsa
 dogula danok gogotan.

Laiñorik ezta goiko zeruan,
 ez guregan be kezkarik,
 alboan eder erreka doa
 eskeinka bere soiñutik;
 argi ta kantu, gogo ta gorputz
 anaikor katez Ioturik,
 aize-txinpartaz soloak zabu,
 rorion-izpiz osorik.

Ezkon barrion biotz gazteok
 betiko beitez batuta,
 paurko pozean eta garrean
 beti izanik alkar maita.
 Biziak ditu egun mingotsak,
 eztenik bere ez dau falta;
 baiña fedeak ezar bei orde
 miñean bere poz-tanta.

Ortako baiña gu txatxar izan,
 beraz gorantza jo daigun;
 Jaunak zerutik emongo dausku
 bear dan arnas indardun.
 Aren begipe gozo batean
 gaitzean danok siñestun.
 Ta zuok biok, Gemma ta Joxe,
 zaitzeze beti zorundun,

1973

ONDARRUKO UR-ESIA *

Nik maite zaitudan
ur-esi sundatsu,
aingira antzo, luzatuz,
oi erreka! zoaz zu.

Kai inguru bizitua
ur arrez ditzikor,
arrantzale otsetan
egun oro adikor.

Uin izurtuz kuin-kuin,
izgora danean;
urez urri samar,
izbeera danean.

Ezker-eskuma dantzut
giza-zarata makur,
ardo-gelaetatik
iges egiñik zur.

Zuk ez dakizu ausaz
Apollinaire'n ipuiñik,
arrantzaleen biziak
dakizuz buru-burutik

Kezkak dakizuz, eta
burrukak itxasoan,
kezkak bai edontzi
ez doituen gozoan.

Miña ta poza, loturik,
oi dozu iragar kalez,
zer-janaren nekea
miazkatzen ur-gaiñez.

Ondarruko ur-esi luze,
gaur naukazu ertzean...
Dei sorgiñaren lillura
zintzil daukazu aldean.

OROITZEN? **

Oroitzen zera, maite ori?
Agurra egin zenidan
zuk, musu eta su gabarik,
goiz-argiaren mintzetan.

Maite izan ninduzun, badakit,
beste orduz, bai, laburrik,
eta gaur ere, bear bada,
maitatzen nauzu oraindik.

Egunez, argia dantzari
areitz-adar zurietan...
Zure begien ñirñir beltza
xotil dager amaietan.

Nere bizi-nai urduria
zitzaizun bizi-arnasa;
eta gaur ere, bear bada,
aren miñez dezu poza.

* PVV 8 (1973, 84.zenb.) 5.

** PVV 8 (1973, 86.zenb.) 5.

Zu bakarrik, ni ere bakar,
oiñaz-zantzua zeraman
kopetan izpiz itsatsia,
eta alkar maite gintzazan.

Ez al dezu, gero, bizia
ber, aukeran gaitzesten?
ez al degu, ondu bearrez,
geure biotza kadentzen?

Gaur, ai!, aukeraz bizi gera,
argi-morgil baten illak...
Len maite giñan gu bi-biok,
Nun gaur lengo min sotillak?

Oroitzen zera, maite ori?
Agurra egin zenidan
zuk, musu eta su gabarik,
goiz-argiaren mintzetan.

BAKARRIK *

Elai bizkor antzera joan ziñan urrun,
eta gero bakarrik, oi!, utzi ninduzun!
Ordutik su-malkotan naukatu oiñazez,
zure gomuta goxoz gau eta egunez.

Urruti, oso urruti, urez bestaldera
joan ziñan igesi arrotz-aldera...
Nere oiñazearen erkide ba'zara,
ar zazu onez ene barneko zirara!

Euzkiak, izpi-zurbil, osertza jotean
ementxe naukazu geldu uraren urrean;
zure iduria eder zait, eta atsegiña,
naiz-ta otoitzez, soilki, leundu nere miña.

Ene gau-intziri ez al duzu oartzen?
Kaioen egoetan or dizut bialten.
Urrun bizirik ere, ez nauzu aitzuko?
Nik etzaitut sekulaz gogotik utziko!

Gauak sorgin-lillura jantziak uztean,
ortiko iparraren ii-ego gaiñean,
igor eidazu laztan berozko ezta,
ene miñaren txauki amultsu bizia.

1974

GAZTE!*

Izarra dozu dizdiz
goizez, txit goizetik!,
amets-bete, kardulatz,
goi-bidez joanik.

Arratsez, oster a be,
bizi zuk opilla...
Ni beeko lilluratan,
ederraz nabilla.

Goiari zer ostu nai?
Are, asko peitzen...
Egin gora, gorago,
amets-lorak urtzen,

Erpiñeko bedarrak
seda-euna iduri;
nekatu dan gorputzak
an dau oe guri.

Bean abaildu arren,
an atsedeen-leku...
Gazte!, buru ori ia
erdi-soil dozu.

Lur-kimizak itxirik
jarri goi begiak:
aizez doaz ametsak
gaztetan joriak.

Zeure dozu ludia,
lorekin apaindu^a;
soin eta gogo giar
zabiltz adoretzu.

Aurrera beri, billa,
Gero'k zer lekarken.
Aurrera beti, billa,
goi-laiñotan garden.

BETI AURREAN

Il-urren, lagun, gaur ikusi zaitut;
su etenean eguna, une labur,
beera doala itxas erraian ur,
zure maiteak triste oar ditut.

Sakaka dator izadi-sabela,
sendo ixuriaz biziaren azi...
Ta zu, gu itxirik malkotan blei, gazi,
utsera zoaz bai-zintzaz orbela?

Urbil ametsa dardaraz oritu,
ta azkenez illik zaukadaz aurrean.
Itzal-tiraiñaz, ba-zoaz bidean...
Nire dei-otsa gidari bekizu.

Soiñari lurra dautsagu emongo;
eta nik, lagun, argi zuri gisa,
geure aberri-zalantzen geriza,
aurrean zaitut betikoz izango.

* PVV 9 (1974, 96.zenb.) 5.

^a lorez apaindua.

** PVV 9 (1974, 99.zenb.) 4-5.

ARGI-BITSETAN

Ondar gorrizko erraiñu orduz
oro da gori; suan urrea.
lilluna bizi, lertze sorgiña,
bertan didarka odol-zortea.

Bideko lorik ezaren karga
kantuz nai dau erleak bota;
goiz ixillaren bizkar ostean
bildukor jagi da larrapota,

Txintari dago birigarroa
ibai ertzeko altz-arte urrion.
Ta ik, oillar orrek, nor gora nai dok
landako izkera goiztar eztian?

Auzo zaitudan orma xalua,
euskal endaren irozki zangar!
Argi bitsaren eztei egunez
garrazi baten egik, bai, dardar!

1975

ITZAL ARTEAN **

Argiak asi nindun gazte nintzalarik,
ibilliz ta egonez izutzen orduak,
argiaren laztanak eta, burdin-soiñuak
zentzunak eustiezan jarten ikararik.

Ez, etzan ezer bere okerrik, goizean,
nik aurrez ikuskatu ta oar gaberik;
ez yatan niri ezer itzali bidean,
geroaren ixilla laiñotzen eustanik.

Gaur ez dakust ain argi neure baranoa,
georaren ixilla. Ganduaren dantza!
Nire arima —on, txat— oitu da osoa,
ta barnean dakartzut naspillaren latza.

Orain, urrezko atze zurbillean tente,
aundi ta bildurgarri dakust gero zailla.
Nik izan nai neukean ats-zorion bete,
ez argirik ez otzik, daukat gaur zurbilla.

Baiña betorkit laztan lenaren argia,
barrua poz-arazi oi eustan sorgiña;
bizi zear nik opa izan gidaria,
iñoiz itzali oi ez dan goi-atsegiña.

* PVV 9 (1974, 104.zenb.) 4.

** PVV 10 (1975, 107.zenb.) 5.

GAZTE!*

Ederra zeure kautan illezkortu nairik,
alai zabilta, gazte, eguzki antzera...
Kontuz! Borobil ori laster da itxaspera,
aldiaren pitin bat pozetan jarririk.

Udaz par-eragiñez oro da ederrik:
baserri eta kalez zelako ernerera!
Or gazte-begietan ñirñir-dizdizera!
Langilleen biotzak be, eztagoz illunik.

Arin doa erreka, eder-margoa lez;
zarrak gaztea sarri oartzen esanez:
aldi-uneak doaz aurrera guzurtsu.

Argiaren zitzadak zaitu lilluratzen,
ta gaur eder yatzuna doakizu itzaltzen.
Erne, gazte liraiña, itzala gain dozu.

OIN-ARIN **

Oin-arin zabilta
amets-laiño gain;
ta ikara goxoz,
oroiz ase ezazu biotza.

Joan zaizun nekearen eztena
ez, arren, ezetsi:
azia duzu bizi berriarena...

Atximitxi zaitu
milla koloretan!

Jñoizka, begia zaizu lausotzen
nigarraren zillar zuriz...
Gorde zuk malko oiek;
ez al dizditzu animako
itzak ernarazi?
Oien busti-girotik sortuko zaizu
maitasunaren begi ñabarra.

Atximitxi zaitu
milla koloretan!

LURRA GURE ***

Pozari giltza txit emanez,
urrin dantzatu naiz aurtemin;
denera jo dut ikus-zale,
erri ta gandu ta eder-min.

Erromes izan nai, Etxaun lez,
Erroma, Loreto ta Lourdes'en.
Arrotz-erritik, baiña, kezkaz
ire oroia nik dardartzen.

Ire oroia zitzaidan leun
toki ederrez asetzean...
Venezia'n ta Tivoli'n naiz
dantza: i ilakorik ez da arean.

Arrats sorgiñak, bare, aratz;
uda, zingira gain, gandutan...
Ibarrak lorez zamatuak...

Ire oroia nik gogotan.
Ez dut idoro lur oberik
uri-etxetan, ez itxasoz.
Toki alaiak diran arren,
i augu, lur, guk eder osoz.

PVV 10 (1.975. IOS.zenb.) 5.

* PVV 10 (1975. III.zenb.) 5.

** PVV 10 (1975. 115xenb.)

IKAS ZAZU! *

Begi-barne bi izar neregana urbildu
 ziñan ixillik, leun, guztizko laztana;
 ez nuen ulertu esan zenidana,
 legun bait zenuen oguzi, ta zailu,

Muxura zenidan gero begiratu,
 zeure ikatz-begiak zuzenduz nigana;
 ta zu ikusiz soilki, barnea dan-dana
 irauli zitzaidan —oi!—biurturik su.

Urdin uts-utsak dit biotza samurtzen,
 ta miñez dut zure soaren urdiñaz,
 ain duzu sotilla begi oien sua!

Baita bizi eman zenidan eskua,
 begi-zizta beroz goxoki esanaz:
 «*Ikas zazu, kutun, erria maitatzen!*».

GABON-POZA **

Otzaren muxu zakarraz
 goibelik dot ludia...
 Iñor ez doa gain-leraz,
 ez ernemin lilia,

Aberri-miñez bakarka
 —eta Jainko antsitan—,
 jarduna nozue, deika,
 mendi-zelai zuritan.

Muiñean ba-dot beroa
 —argi-printz eguzkia—;
 bea latz, goiak orroa;
 ez naz bildur, egia.

Eguberri poz betean...
 Zeru-lurren Jainkoa,
 pizti ta lasto artean,
 otz daukazu Kristoa.

Guk, barriz, txori ta mixar,
 ta gorosti lagunak,
 dan-danok izaki azkar,
 zuori nai zorunak!

Zuri bai, aur, begi-urdin,
 ta zuri zar, lur goza,
 jo ta jo ene ereskin
 opa dautzuet poza.

* PVV (1975, 112.zenb.) 4.

** PVV 10 (1975, 117.zenb.i 5.

1976

LANAREN GOSEA *

Iraultzan, Jauna, gaur dabiltz danak,
eta iraultza, eskatzen dautzut;
uka naukazu atsegin leunak,
txaloak bere ukatzen ditut.

Auts gura dot okerra dana,
bakerik ez nik gogor-kerian;
lagun zakidaz, zeruko Jauna,
munduak daukan guzur-tokian.

Mundua nai dot jaso, obetu,
ta lan-min nozu, gizon-miñetan;
jendea nai dot, beti lagun Zu,
zeru-min jarri, argi-patsetan,

Irrits bizia doart or-emen,
entzun itzakaz ase eziñik;
ta Zuk diñozu: «Ona Ni emen! ».
Giza-goseak naroa pozik.

BEERANTZA? **

Beera oa, eguzki on,
ortzi zear beerantz...
Beera baita, ene erria!
Norantz ote? Norantz?

Ik azken-izpiak aulduz,
mendi-bestaldetik
illargia, arnas jori,
or jaikiz jadanik.

Eta ik, ene erri erria,
beerantza jotean,
ba al duk norbait goraka
arnasa betean?

Illunetik jaikiko ote,
eguzki antzera,
orren bizi opa dugun
askatasun txera?

Bi eskuak elkar-tente
otoitzari nago,
urretxindorrak goizari
baño be miñago.

1978

ERORI INTZAN *

Erori intzan, azkenez,
tantai bezela noski...
Nundiko abots ixilek
joa erori ote?

• * *

Arenegun
ilun-garaiez
euzkia beeratzean
mendi maldan nengoan ni,
ik maite induan
Artxandan ixtapeka.

Urrun zegoen euzkia,
Santurtze bezain urrun,
suzko bola betean
izugarriko eder;
eta beerantz zioan
ur-zilartegia
garrezko osin egiñik.

Sua zan lenbizi
gorri, ditzixakor,
galbide uts dituzun
ezpain zabalaren pareko.

Leiarrezko gandutik gero,
izar aitaren irria
eribera ipiñi naiean,
uztai beltza zan sortu.
Biak, luzez, burrukatu zuten;
erori zan euzkia
bits urtuzko ogean,
—loak artu aurra amaren altzoan—

Euzkiak azken printzez
beltzari zizkion kiskali
inguruko ertzak osoro.
Ikusgarria ziñez!

Alere erori zan,
erori euzki gaixoa
nere begien aurrean:
elkar-iltze zakar ostean
suntsitu zitzaidan argia,

Ala-ala, euskal arloan
kemen aundiz jardunik,
erori intzan i ere,
erori intzan betiko.
Itzali intzan, Aresti,
eguzki ditzikor!

Aizeak ez dizu geiago
ille-galparra zirkinduko,
ezta euzkiak ire kopetari
berorik ezarriko,

Gandu beltzez betea orain
ixilik datza Derion
ire gorpu errimea,
apeta etoian jausia.

Ire izpiritua, ordea,
gain dabilkigu urduri
guztiontzat dalarik
ezten zirikalari.

* *Agiriak. Euskal poetak eta artistak, G. Aresti-ren omenez, [Donostia],*

1980

GALTZAIRUZKO IDURI BATEN AURREAN *

Iduriak ez du eguzki izpirik,
beltz dager, erdi beltzik erdi-muiña.
Artistak emen bai ezkutuz du joka,
margoaren antza egin nairik duiña.

Lauki luzatuan bi langa dijoaz
arnetsaren griña bezin borobillak;
azken-muturreran, ezpaita dizditzen,
ez bait da agertzen ezeren euskairik.

Bi langak lotuaz bi lokarri moltzo,
goi ta beeak alkar txit trunbillaturik,
ezkutuzko gogo batentzat mamia,
gorputz bat lokarriz gotortu gurarik.

Atoz, gizon, atoz! Ikus iduria!
An eman diozu! Or zaude zu dirdai!
Jainkotiar zexa, goi-txingar bizia,
eta gizatiar, batean bi izakai,

Lokarri estuaz zaudete arnasa,
ez zerate nor bi, bi batean baizik.
burnia ainbat gori, iñoiz gogaitzeke,
bear duzue igi, elkar itxikirik.

Bego ori loraz. Nor bat zera, gizon!
Gizarte bat zera, eta kosmos txiki.
Agan biribildu korapil naasia.
barne-naigabeko sekulan izaki,

Bizia, kemena goitikan dituzu,
Ospa zazu alai biziaren jabe.
Ez esan: «Gizona bai, Jaungoikorik ez».
Ez, etzera Jainko, goiko indarrrik gabe.

Origaitik dira bi langa elkartu,
bat-bera bai litzan, elkarri arnaska.
Lur-miñak utzirik, jo gora, izaki!
Bizi-ardatz duzu Goikoa irrika.

NEGI A DUN **

Negua dun, bai; ta, i, norantza?
Nola ikustatzen audan!
Aurrean dut ire iduria,
neguz, zorakor, egitan.

Esia daukan aintziñean,
eskuitik gora mailladia;
zut-zut doa lerdin igoaz,
elurño-tantoz txuria.

Gorri oa i, urdin ta musker,
oskiz oiñak, ta ginbailla;
bi ardiño ditun atzean,
gora nairik bide billa.

Zugaitza dun, ezker, liraiña,
ta ur-isola txit apartsu;
inguruka doan mailladi
gaiñean, zelai elurtsu.

* Olerti 1980. 34-35.

** Olerti 1980, 56-67.

Bi etxe zelaian, gain txuri;
urbil, ur-gaiñez zubitxo
zor-zaga txikiz ornitua,
dan-dana lanbrotan txairo.

Urrun, zeru-goia, etxeak
ars epel oro estalduz;
ur-din erdian gurutzua,
goi-giroak ondo leunduz.

Otz aiz, neska, ta sua opa:
mailla gaiñeko bi etxeak
—oi epelaren muxu bigun! •
bafaz dauzkate ke-bideak.

Ik ere, oil, jo zan araiño,
otz bait da, otz-otz atean.
Fedearen sua dun goxo
barne izkutu ixillean.

1981

AMA *

Leun lorea leio ertzean...
Zu zaitut lora, zu nik laztan.
Zu zaitut bizi biotzean,
zu zaitut, ama egitan!

Errepika

Ama, maite zaitut,
beti eder,
beti argi!

Ama, maite zaitut,
neure odol eta arnasa,
muxu-gorri ta alaia.

Zure biotza beti dirdir,
samur ta gozo zure berbak,
oiñaze artean be ñirñir
daukadaz zure betertzak.

Ama, zu zaitut kantagai;
txindorrek adar ganean
kantatzen diardu alai,
zuri kantuz ni muiñean.

Etzaitez zaartu, ez zimeldu,
beti zaitez usainduna;
zaitez beti bero, gozatsu,
zeruan baizen kutuna,

OIÑAZEA **

Bideari dautsola odola zanbulu...
Ez zaitez koldar! Begi emon! Ez dakusu?
Kristo'k itxia
samiña dozu,
oiñatz bizia!

Osoro da nekaitza, goi-aintzaz betea,
azkenik ez daun zeru zorion bidea!

* Olerti 1981. 60-61.

** Olerti 1981, 62-65.

Kristo'ren zauri iarua dituzu —ez uka! —
betirauneko leio lez, argi jaurtika:
 ortik ikusten
 zelai bikaiñak,
 dana edertzen...
Eta Lurreko zelai unetan liliak
jarten yatazan zeru odolez jantziak.

Suntsitzaille gezirik ez dauka Jainkoak
bere eskuetan, eta bai maite pikoak.
 Jainko eskuak
 zauritu doguz
 erru bakoak.
Esku zaurtuak ezin dabe gaur zauritu,
errukia bai dabe onbera, maitetsu.

Mundu-Euzkiak ditu apaintzen ederrez
Lurreko gauzak millaka bizi-kolorez.
 Baiña, itzalduren
 zeru azpiko
 izarra, urren,
Arago, aitu! ilten zidorren ditzira,
ta Geroaren onak ikusten ez dira.

Maindira baltza edatu alako gabea,
—mundukoa ta gogo arena, aurrean—
 liliak oro
 ubelez dira
 jazten osoro;
inguruaren arrats eresi bikaiña,
ezustean oi da urtu, itzali min aiña,

Ortzi sapaian, ikus, gozo baizen lerdan,
ñirñir barriak yakuz alaiki, erneten;
 kai-argi urrin,
 —erakarleak,
 gauaren sorgin—.
Goiko aberrirako bide gidariak,
illun-mamarroaren aiena tzailliak.

Egia dautort: zerbait alai esan naiez,
naiz-eta ez idoro biotzaren pozez,
ezerk ez gaitu
zerurantz miñak
aiña biurtu.

Orla dagi gauak be, orduen ozkirriz,
samin-gauak orixe, goira itzul-eraziz.

Ugoldeak zelaia azpian artzean,
jentea da kokatzen goitxoko unean;
orixe dogu,
ain zuzen bere,
gauaren frutu:
beeko lokatza, itxirik, zerurantz eragin,
giza-xede sotilla zerua izan dadin.

Ez zaitetz urrun-azi oiñaze bidetik,
miñik geienak, zur!, bai datorkizuz
Egiz samiña [ortik.
iñolaz bere
Jaunak egiña.

Askok, baiña, geiegi dauskue pairatzen,
Jaunak nai bezela ez bait dabe sufritzen.

Ibar-landetan zear igaroz ekaitzak
nekegaitz erre ditu sekulako autsak;
loretzan dabil,
usain gozozko
odeiz biribil.

Oa: giz-arimetan ez dozu bardiña [ña?
garratz estutzen dauan kez karen sami-

Miñik geien gizonak abere mordoskan.
«Negar dagiana» ez ete da egitan?
Gazte!, erostaz...
Eta txoriak,
zergaitik kantaz?

Ilkor diran arimak dabilta kantari;
il-eziñak, ostera, dagoz negarrari.

Aldiko atsegiña, gerokoa baiño,
Jaunari emotea al yako zaillago?

Izana baiño
zoria ete
garestiago?

Ai!, bizitz-ezkutua ez dot nik ulertzen
oiñaze-ezkutua ez ba'dot sumatzen.

Izpillu txit narea itxas edatua,
bertan da begiratzen lerdengi zerua.

Ulertzen ete
diñotzudana
nik opa beste!

Nfare ba'lego beti, txoriak usteko
zerua, ta arrisku leukee ondatzeko.

Gizonoi litzakigu tentaldi gorena,
 arriskueta, ai!, arriskutsuena;
 tentaldi bako
 mundu jabala,
 arin, ergelto;
 Aberri lirudiken erbeste begiko,
 Zeru antza leukaken Lur arnas beteko.

Biotz ederduna da gure Goiko Jauna,
 zoriontasun betez dan-dana dauana,
 «Sasiz» asea,
 alan be, dauka bira guztia.
 Arantz-ziztarik ete? Zeure barrenean
 or dozu —zagoz ziur— Jainkoa ur-urrean,

1982

EDER DA KRABELIÑA *

Eder da krabeliña
 zu, Igone, ederrago;
 miresgarri zaiataz,
 zu miresten nago,

Gizaki-baratzean
 zakustaz lardenki,
 larrosaren aillean
 usaiñez ixurlci.

Gazte sasoiz orrela,
 gorritz txit margotsu;
 ekaitz artean bere
 ez zu iñoiz izutu.

Eder da krabeliña,
 zu, Igone, ederrago;
 miresgarri zaiataz,
 zu miresten nago.

Zu zaitut kardantxillo,
 zeru goi-goi kantari;
 naiz garitza emean
 soiñu emokari.

Erlauntza zaitut gozo
 muiño egalean,
 txt lanari lotua
 ezti markatzean.

Gurin jario beti,
 urrezko margoa;
 iñoiz ez goga ikarri,
 orrazi gozoa.

Eder da krabeliña,
 zu, Igone, ederrago;
 miresgarri zaiataz,
 zu miresten nago,

* Olerki 1982, 23.

OTS ILLUNA

Ezer dardaraz bage
kulunk-zarta ezik,
iñok sumatu bage
agertu az goitik.

Ik bai eresi baltza,
negar ixuria!
Abil oindiño igeska,
otz naiz kiskalia.

Neure kautan sar intzan
egal-ots leunean;
ixil goiak zearka,
inkesa me bean:

Orria dager laru
elduz udazkena:
deika dago erio
illaren gurena.

Eriotz-dei dirudi,
me-merik emona;
ego ikutu zakarrez
onantza doana.

Zokoan ereiñotza
jazteko buruan:
baltzik eta itsusi
azurtza onduan.

Zuk bialdua, maite,
ete dot antzia?
Ze izarrek al dauko
zure miiña itxia?

Dagoneko dantzugu
atabal soiñuan,
kont-ezin beste illak
dantzari moduan,

Ito eure naikuna
nire izate barna;
ez bait auna oindiño
so eriotz mende,

Zure ta nire, maite,
laztan lokarria,
eriod dau eroan
betikoz ausia.

1983

NEKATX BAT

Mintzo-gai olerkia,
biok autu eztiz,
aldatz pikean gora
—euri-tantak aora—
giñoiazan astiz.

—Nundik ator, neskato?
nik ari itandu.
—Goian ditut aitonak,
ta guraso kutunak;
areik ditut poztu.

Goi-bidetik neskatx bat
yatorku kantari:
kaikuz nasai jantzia,
samur bere begia,
ulea aizeari,

—Mao gorri az, neska,
ibilli, begituz.
Oi, eder! izan adi
olan biotz-guri,
aita-amak laztanduz.

Barriro be, kantari,
doa bide-beera...
Eusko neskatil oro
—ainbat dituzu txoro—
ba'litzaz antzera!

ZER DIZDITZEN? *

Zer illunik oiuka,
adiskide, dozu?
Zador uts da bizia;
zuk «Gora!» diñozu.

Zer dañostazu, ortik,
zer diran izanak?
Joanez joakuzan
egun its joanak.

Ostoz igar zugatza,
or zarra. Ikusten?
Eder zan atzo bizi,
gaur ikus il-urren.

Gauzak ez dira ezer,
ames soingabeak...
Iratzarrik askotan
buruan erneak.

Naiz zaar ta naiz gazte,
zer dau iruditzen?
Eusko-sume jatorra,
gau-argi dizditzen.

Amesak, zer dizditzen?
Ezaren korroka,
Argiak mintzen begia,
azken itza orroka.

GARRASIA! **

Erria dot garrasi^:
«Aske, aske nadin..
Euri-otsa bidean,
aizea zinkulin.

Erria dot garrasiz:
«aske, aske nadin... >
Aske izateak, baiña,
beragaz dau samin.

Goi-aldean burrunbaz
jaun jaku trumoia;
—zigorra, eriotza—
illa bidez doia.

Bizkor doa eguna,
ta erria intziriz;
arin dator illuna,
t'erria garrasiz.

Bide egalak iltegi,
etxeak lur-jorik;
asarre dabilkigu
erio zororik.

Eta nik diñot, itun:
«Zetan zara, Jainko?
Betiko al gaituzu
min-aldian ito?».

* PVV 17 (1983, 155,zenb.) 9.

** Karmel 1984-1/2, 124.

UMETXOAK *

Eedar-kolorez dago
zeruan izarra,
bakar eta eldurik
muiñoan sagarra

Umeak jolasean
or alaitu parra,
gaztetxo diralarik
barnean sugarra.

Ta, ta, ta,
eskutxuak artuz...
ta, ta, ta,
alkarri oratuz.

Goizean, arratsean
itzontzi umeak...
Ez jakuz aspergarri,
ez, jolas-zaleak,

Landan dabil aizea,
lora artean bizkor;
gure umeak ditugu
gero-frutu pozkor.

Ta, ta, ta,
eskutxuak artuz...
ta, ta, ta,
alkarri oratuz.

ESPETXETUAK **

Euskaldun seme, aberkide jator,
erruki zaitut biotzez;
orbek oria pareko zabiltz
aspaldi danik, zigorrez.

Zure samiña bekigu danoi
bizi ats-bide aberkoi.

Gaiztotzat joa zakusta estiu,
gogo ta gorputz auldua;
ames bat dozu, barru josia,
etxera miñez austua.

Gauez dituzu begiak gora
Jauna otoituz samurki,
egunez barriz espetxe-ormak
dituzu malkoz garrazki,

Zure samiña bekigu danoi
bizi ats-bide aberkoi.

Goizez eguzkik zelaia laztan,
nik zu nai maitez besarka;
etxeokak ikusi nai zaitut
biotz berotsu laztanka.

Zure samiña bekigu danoi
bizi ats-bide aberkoi.

BA-DAKIZU NOIZ ***

Ixil bat daukat nik esateko:
izaki bat dot neure bizian,
ARGI da bera,, illun-aldian,
ezin dot aiztu Axe egundo,
ta ez dot bera geigo ikusiko.

Etzun zentzunik nire ibilteak,
beste itxaso bat idoro arten,
maitasun aren izpillu garden,
ain samurkiro bizi izateak
balio eñik bera galtzeak.

* Karmel 1984-3/4, 122.

** Karmel 1984-3/4, 125.

*** Olerti 1984, 156.

Ba-dakizu noiz giñan maitatu?
Ordutik gara biok kutuntxu.

Ba-dakizu noiz giñan makatu?
Ordutik gara biok kutuntxu.

Itxasoan nik argia billa,
Aren ta nire argi bizia;
ez neban jaso, samin aundia!
bakartadea ezik ixilla,
sua dakarren kemen sotilla.

Lagun barria eldu jat gero,
zuri omenez auxe dautzut nik
zuri eskintzen oso-osorik;
baiña etzaitut zu nik aitzuko,
ta irurok beti kutun izango.

Ba-dakizu noiz giñan maitatu?
Ordutik gara biok kutuntxu.

B A S E R R I T A R R A K *

Asaba zaarren sorgin-ipuñez
bikaindutako zokondo!
Zakdaz beti arnas-emoille,
zakidaz beti sutondo.

Asaba zaarren sorgin-ipuñez
bikaindutako zokondo!
Zakidaz beti arnas-emoille,
zakidaz beti sutondo.

Zuretzat nire kantu bizia,
oi baserritar laiñoa:
lurralde au da, baka zerua,
zure izerdiz jaso.

Zu zara gure endaren ardatz,
zu zara frutu-ekarle:
urteak urte beiñola legez
bizi zu ortxe lengille.

Ene biotzak, txoriak beste
bere abia, gar zaitu;
baserri zuri, baserri eder,
neure asaben sorleku.

Zure fedeak, zure arnasak
gartu bei euskal erria;
on dakigula urteak zear
zure neke ta izerdia,

Asaba zaarren sorgin-ipuñez
bikaindutako zokondo!
Zakidaz beti arnas-emoille,
zakidaz beti sutondo.

SARIAK BANATZEA *

(Bermeo'n)

(1984-VMO)

Amar ditu ekaiñak.
Egun bat emea!
Bermeo'n Batzokiak
sari banatzea.
Gu agertuz batean
fuetak lertzea:
pozak eragin oi dau
biotz-ikarea,

Aurretiez gaiñezka
Batzokin jentetza
jaiari emon nairik
bear eban aintza.
Ara aurreratzean gu
angoen erlantza!
Begietan dirdaitzen
pozaren belatza.

Unerik galdu bage
sariak emoten;
neskatx irripartsuak
izenak erasten,
ta saritu bakotxak
—barrua dardartzen—
txalo artean dautzu
berea jasoten.

Sariketa jaitzeko
bazkaria eder.
Or mai-inguru danok
gu alaitsu ager;
esku leunak mairatuz
ardao, ogi, pitxer...
eratuz maiteder.

Nik pentsatzen geroztik
bikain dala ziñez
anaiak sustatzea
olan jai ederrez.
Biotzak indarturik
arnasa nasaiez.
ta Aberria gurenduz
pitxi maitekorrez.

* Zer (1984, 77.zenb.) 2.

1985

UDABARRIZ *

Udabarriz iskanbil inguruak zoro,
goiz-kantari daukazuz sorkariak oro.
Lux-amari dario erne-miña bero,
leiope troriak nik abeska goizero.

Adar-gaiñak orlegi,
goiz-loraz jantzirik;
eder baita bizia,
autor eizu amesik.

Eta goibel zu, gazte? Zer dozu barnean?
Zek sartu dautzu, ene!, gatza biotzean?
Alai dozu bizia. egiz, uda astean...
Poz adi, gazte, poztu, izadi laiñean.

Intziriz doa ibaia
poza iragartean;
aizeak dardar ezti
nire leiopean

LIZARDI'REN AMESA **

Ames txar bat egiña
nozue lengoan...
Gure erri maitea
txit larri nekusan,
ordeka soil legor bat
iduri. Ez mendi,
ez baserri, ez ezo,
etzan ez agiri...
Ez-ta euskerarik,
gure izkuntz lerdenik,
illa baitzan betiko,
betiko joanik.

Urreratzen naiake,
ta... ba-dakizue
zertan ziarduen?
Asmau al dozue?
Euskal iztegi aundi
bati, arduratsu,
azkenengo orraztuak
egiten iradu,
euskerako ordurako
il-lurperatua
zanik be oartzeka.
Jaun-talde yaiua!

Karmel 1985-2, 102.

* Ka.rmel 1985-4, S0.

Zelai erdian, baiña,
jaun-talde ulezuri
agurgarri batzuek
leiaz ziran ari
mai baten inguruka,
paper eta idaztur,

liburu-sail aundien
aurrean buru-makur.
Bertatik yatan
niri gatzatu:
«Asto ilari
uzkitik zuku».

1986

AGUR, LORAK! *

Ikus gaur uda barri alai jatorkuna;
Oiz dot begi-mende, andik dot argia...
Goiz-doe diztikorra —Urtzi'ren begia—
Lur amak, itxarturik, bera dau zoruna.

Leendik dagoz zugatzak muskillez aseak,
negu luzez etsirik, zuen ernemiña!
Ar eizue guztiok nire agur miña,
begi-gorri ta pinport zuek bai gaiñeak!

Neuk be biotz-barru ba-ditut apetak,
giza-lur astunari zirkin egin naiez;
or zaituet eredu azpitik oldarrez,
olan leunago jataz gogo-guduketak.

Gizaseme gara-ta —ni bait naz oartzen—,
su-garaxia doart, griñen iskanbiUa,
lorak!, zuen antzeko bizi-nai bipilla,
baiña sotil diardut eurak menderatzen.

Xedeari jarraituz noa bizitzan zut,
urteak, illak eta egunak joanik,
ainbeste aldaketa gainbera jadanik,
barrunba asi, barrunba zuri ezar dautzut.

Euskaldun nabil emen, lanari emona;
iñoiz txaloak ditut, iraiñak geiagoz.
Jainko-miñez nabillen, barnean euskal-poz:
saria dakar lanak, jar aolku ona.

* Karmol 1986-2, 109.

Agur, lorak! Eredu zaituet aberats;
Urtzi dozue beti zelanbait ospatzen.
Nik eresi Jaunari, leen-argia agurtzen:
zuek emon ta zabal berorik barne-ats.

LORE LIKISTUA *

Bide-egal nago zutik, lore likistua;
ikus, oi zuok, aitzok! , nire samin otza.
Ernai artu belarriz nire zin-oiua,
poz urriz beintzat ase dakidan biotza.

Zori aldakor! Atzo poz-irriz ezpana,
gaur negar zoramenak nau oiñazez jarten;
oro atsegin atzo, maitezko laztana,
orain zaldi-apatxen otsa dot aditzen.

Eguzkik ez illargik ez ninduan atzo,
ez eurik ez aizerik ez nik nekerazle,
gau-iruntzak be ezin eustan poza itzo,
auzoko iturri-otsa bai neban gar-pizle.

Arrats batean, baiña, bare likitsa zan
nire biran agertu; mamu iguingarriak,
nigana igonik, zori txarra ekar eustan...
Eta arrezkero ditut malkotan begiak.

Eder nindun loretan Jainkoak eratu;
nik, edertasun ori ezaindu gaberik,
luzaroz gura neban baratz-ertz jarraitu.
Pizti arek, baiña, itxi nindun likisturik.

Gerora, irriz neukan ur-zelaiak nau iguin,
atzo kantaria zan gau-urretxindorra
mutu dot, ni loi ikusiz beretzat ez-duin.
Gaur nire zoria bai dala latz, gogorra!

Zugana digot, Jauna, damuz ta errukiz,
goiko izarki lerdenez ez naizu lardaska.
Errudun niaitzu-ta, begiak intz-bustiz,
bean naukazu auspez Zutzat negar-aska.

1987

PATIN BARRIA *

«*Emoidazu ur ori...*»

(*Joan*, 4, 15).

Patiña jarri dabe
neure baratzean:
Iamiñak dabiltz biran,
gaur, goiz-urratzean,

Zuri-oriak dira,
ogetabi osoz,
oiuka diardue
esker kantu gozoz.

Barbar zugatzak auzo,
bedar ezeak dantza;
aizeño ixilla, aren gain,
gau-orduz lo datza.

Biotz-potzutik neuk be
ura dot arauzten,
Jaunari poz-oiuak
dautsodaz ariltzen.

Ezpan-irrikaz dagit
otoitz egunero,
Zuri maitez eskinka
lan-izpiak gozoz.

Zuk be ori ekazu,
ur bizi ortatik,
neure arima barru
alaia sorturik.

AZUR GURA ZAITUT NIK **

Orrela ba litz, Jauna, ez litzakit obeto?
Azur gura zaitut nik, eta aragi gorrizka.
Gaiki naiago zaitut ene begiz neurtzeko,
apur baten zaidazan biotz-miñez besarka.

Gaia nai zaitut, Jauna, sagar-lorea iduri,
ixil-ixillik eta negarrari emona;
aldiaz beti eder, amai bage ta urduri,
niri malkoak txautzen dozula zoriona.

Orrelaxe nai zaitut, izadian gurena,
dirdai zoragarritan, zelai pitxiz betean;
odei illunskan erdian euri-jas biziena,
maitezko sumendi bat giza-osin-barnean.

* Karmel 1987-2. 108.

** Karmel 1987-3. 111.

Ni ar bat nozu zirtzil, ezer-eza ziurrik,
olan ninduzun erne, eta zaitut jauresten;
aurreko makur ortan begi biok jarririk,
munduz jantzita zaitut dardarati ikuskatzen,

Urrun zakustaz baiña, oben-erbatz artean,
ta nik, Jauna, zergaitik argiago ez artzen?
Nik etzaitut gogo, ez, sasiaren errean,
biotz ondoan baiño sugar biziz kiskaltzen.

Oiuz bada diñotzut: «Zatoz poz-iturria,
zatoz maite-truixua; uiol naizu osoro
betearen betez ixuririk grazia,
zoriontsu bizi nadin Zuretzat aldi oro»,

ERREKA ERTZEAN *

Eguna urratu-ala, Jainko guren ori!
oiuka nagokizu, barrua irrirts jori,
Beiñola jolaska lez eder Zuk ereiña,
jaso nai neuke pizkat, bai nintzan oreiña,

Goregi dakart beti gose-guramena,
beian eukirik apal zure eder goiena.
Zure antz-irudia dot ezker-eskuma,
zeru-lurrak sortzean Zuk barreia zama.

Lagun zakidaz berau maitatuz ulertzen,
begiak beera jetsiz Bere gurle izaten,
Goi-oiñetzak aurkituz soin eta gogo Zu
otsein zaidazan beti, barne-leia gartsu.

Ur daukadan erreka dot nik laztan oso,
ura, lorak, sustraiak gura ditut jaso...
Zuk erne-az zenduzan jainkozko arnasaz,
Zeuk zainduz iraun-azten dituzu goi-loraz.

Esan eidazu, arren, Jaun jakintsu orrek,
zer diñotson urari lore dardartiek!
Zer diñotsen urak, zer?, gabaz loratxoari...
Maitasuna kantatzen al alkarri alai?

Jakin-min naz, o Jainko! Jakin gura neuke,
era berean maite zaidazan nik Zu be.
Esaidazu barbar zer diñotsen alkarri,
nik be olan itzegin daizudan Jaun orri.

1988

URARI BEGIRA *

*Oi errealdi meel
zauri ezti **bai** ezti*
(Gurutzeko Jon Deuna)

Emen naukazu, Jauna, ur-ertzean zutik;
atzo ta gaur, ene Jaun, emen ni zurturik
Etzara gogoratzen? Ozen dabilkit ura.
Atzo eta gaur ura, Zuk guri emona,
urrezko lili-baratz artetik doana,
Argi ta dizdiz, eder, ur-abiadura.

Oar bage datorkit egunsentia leun,
ta ni emen naukazu, biotz-zauzkada eun;
ta ura ikusiz marmar-ots, Zu zaitut goresten^a,
Urak legez zu, Jauna, nai zaitut goretsi,
Zuk apain jantzitako liliak onetsi,
eguna urkuldu Zuri eskerrak egiten.

Ez dot odolik nai, emengo bakean,
Zuk ixuria ezik Gurutz-adarrean;
otza bebil ixurka arnasa zitala.
Ura aska barnean lez, kantu-kantaz beti,
olaxe nik gura dot zure baitan bizi,
maitale bai Zuretzat izanik mazala.

Uraren al'oo zutik, Jauna, dei dagizut;
entzun naizu onbera. Aita ez al zaitut?
Negar dagidanean, naiz-ta poz unean,
ar eizu, otoi, nire iou-ots betea,
urarena beizen leun bekizu nirea,
nik Zuri opatua ona etortean.

ZURI NAGO JAUNA! *

Egurats-leku sotil, ibai-ertz biguna;
Zuri bai ixil Orri nagokizu, Jauna!
Ernai nator goizero, biotz ikarati...
Atsegin jat onako bide gaiñ urdiña,
ibaiaren arnasaz bizidun egiña,
Zuri dei maitekorra egin naiez beti.

Zuri kantari doa ibai ez aundia,
oiu gozoz daukola gau t'egun aldia;
goiz argia dizdikor dala goian eten?
Ura bizkortuz erro ta ostoak dardar,
zugatz-gaiñak apurka ixuriz ur-zidar...
Zuk dituzu milla abots eresian jarten.

Ez zakustaz zu bertan, baiña bertan zaitut
egonaren arnasa barne-oiu dantzut.
Begiak ez artzen, ez belarriak oar;
Zu baiña ortxe zagoz, dana indar-azoaz
Nik bizi dei dagizut barru indar beroaz
eta Zuk erantzuna ez al dot nik indar?

Bolbol ta bolbol beti, uraren pareko,
Zuri nagokizu bai, ez nik zu lagako.
Zeru-estalkia iñoiz goibelik ba'lego,
siñist daidan sendoro, zure begi ixilla
auzo-auzo neukake zaintzaille bipilla:
kanta zuk, txori aske; kantau zuk be, ego!

Ibai-egal naukazu zut, Zuri begira,
 adi izadiaren ots ta soiñu zolira.
 Biotza zauriturik nator ona sarri
 eta Zuk damostazu, Aita amultsu orrek,
 nire arima zauriz nekazari onek
 bear dauan osagai ta min aztugarri,

ZUGATZ MOZTUAK *

Mozte-aldia jorik urte-gurpillean,
 zatar dozuez soiñak, bil-uts eta goibel.
 Begira or, asmo txar, Udalak esanda,
 iru gizon serrari, oraintxe dira el.

Bas-eleiz inguruko areitz zut, azkazi
 eta beste tantaiak iñaustera datoz.
 Negar areitz urtetsu, negar bai zotinka!
 erakuts barne-miña adar-puntak malkoz!

Lau astez ona barik, gaur emen nozue...
 Oi, errukarri zuek! Zarpail, odoletan;
 txit murriztu zaituez, ostoge zagoze,
 leen eder ziñienok gaur alkez ziñetan!

Moztuak zakustaze, zauriz ta narru loi,
 Zuok merezi ete olako laidorik?
 Zaarrak egiaz, baiña ederrak zintzazen.
 Zergaitik, oi!, zaituez orren itxusirik?

Azpian kukurio, negar dagitzuet,
 giza-zitalkeria bizi gaitzetsiaz;
 maiatza dalarik ez dager or kimetzik,
 txoririk ez egunez, ezta ontzik gauez.

Ai ene!, baltz dirudit gaur zuen zoria;
 iñori ete mindu ene lor-bertsuok?
 Alan eta guzti be, zakiez pozbide
 zartzaro soil-betean iñausi zugatzok!

ZAINDU GAIUZU *

{Ibarnolako ermitan}

Maite-aizeak gaitu ona arnastu,
arnasgi eder zaran, Ama, orrengana.
Guzur-bidez daukagu mundu biurra,
eta larri igesean gatoz Zugana;
Zuregan ez daukagu kizkur-iañorik,
Zu bai zaitugu argi-izpi gurena.

Izugarri loi jaku ludiko atsa,
gizarteko biziak gu gala-gala;
nazka jakuz gizonak, uskeri-zale,
ar gure biotz-miñak, Izar garbala,
gaurkoz beñik-beñean ulerterazo
dausku bizi-joranen utsal-utsala.

Ixil ontan sakustaz ederrik oso,
zu ikusiz jat arrotzen barne guria,
giza-leize sakona dardar jar jarten
aizeak jota dauan adarño oria:
argi eizu Zuk, Ama, euskotar lurra,
jausirik daukagun gure aberria.

Leenago eta orain, leiatsu datoz
dirdai dagon zure egoitz ontara pozik;
ba-dautsu lilluratan inguru onek
areitz eta arte berdez txit apaindurik:
gozatu Zuk irripar aundi zabalez
euskaldun sukaldeak, poza emonik,

Euri emonkor bedi zure grazia,
lore, bertso ta biotz, zeure dituzu;
Araba, Naparru ta Bizkaia oso,
Gipuzkoa eta beste irugaz batzu,
zeure dozun arnasgai Jainko-graziakaz
mintzo t'ederrez, guztiz beitez asetu.

NERE BASERRIA

(Euskal poema)

1975

(1985n argitaratua)

U D A B E R R I

*«Negu ankerraren
urtarpetik irtenda,
bota dezagun
zantzo bulartsua
Udafitz gainera igonda».*

BASERRI MIN

*Ludi ontan penatzen dut
baserrian jaio ez izatea.
Kaletarra izatea
ludi ontan penatzen dut.
Emcngo bizikerak nauka.*

*Ai\, egongo banintz mendietan
ardien zaintzaketan
eguzkia artuz
ta ur garbia zupatuz
trankil trankil
txirulirulika.*

*Ail , egongo banintz belardietan
beieren zaintzaketan.
Jainkoarekin izketan
zuaitzekin burruketan
txoriekin kantetanao*

*Egongo banintz egon
taloa ta esnea goizean gosalduz
gazta'm erreak su ondoan apalduz
agurei kontu zarrak adituzo*

*Ail, egongo banintz, egongo banintz
zenbat malko biurtuko liraken intz*

Lotsati

GURE ABITXO

Nere miiak ez dio gezurrik,
ez bait du orren oitura:
nere kabian emazteakin
ez dut izan arrenkura,
zor dudan lanak ez dit ekarri
zori gaiztorik ezkura,
pozak ordea noiznai ta nunnai
uxa dit barne tristura.

Nere asabak jaso zutena,
dugu guk geure sukalde:
naiz aizeakin firi-firaka,
naiz jelaz uri bealde,
beti dugu guk —goxoa baita! —
geure kabia arralde.
Alai bagera, ez iñork guri
zergati danik, ez galde!

Nere asabak egin zutela
gaur bi2i geran supazter?
Egia ote? Zingun ta zangun,
loturikan sokil ta auster,
ez al dakargu egoitz eder au
denon kemen-lanez susper?
Ori gogotan, emen ez dabil
iñor ere zuri-alper.

Nere emazte gazte bizkorra
dugu eredu aurrenik,
gero aurtxoak, ikasle zoli,
ez ditugu iñoiz aizturik!
Ni nauzu, damuz!, aita ezaxo!;
baiña lanari emanik,
ez nuke iñolaz egoitz txairo au
lorrindu gura nasairik.

Guztiona da ezmezik gabe
aterpe fiñ ta zuria:
orratik beti deitzen diogu
ozenki «Gure kabia».

Bedi urteetan geure kabia,
urteetan geure zoria:
oillo-lur ontan bizi ostean
baita bekigu obia.

Inguru-biran nolako siska!
Gutzizko joan etorri;
ez da gezurra, egia baizik,
gizonak badu elorri!
Presaka beti, elkar bultzaka,
leizak nunbait eratorri...
Nork ote dio giltza emango
euri-jasa goibel orri?

Beetikan dantzut burdin-jo xea,
gabi-eresi nasia;
maillu-lan otsa, su-atsal bero,
giz-arnasaren saria;
mendarte illetan tximini kea,
lurraren sabel guria,
eskeinka beti berea duen
sabel barneko oparia.

Euskaldun lurra, gure asabak,
taiuz emanik lanera,
bidez zituzten zoztorrak goituz
eraman zuten aurrera.
Ola ta meatz, mendi ta soro,
lur onetsi ta gupera!
Eresi-lanez, oi euskal lurra,
zaude beti gutera!

Gure lur, meatz kutsuz asean,
Asiera-k bein aldian
izan kartsua eman ziona,
gizonak ari-arian
kondaira zear bere esku-lanez
aldatu digu guztian:
ola ta soro, esku ta tresna,
oro darama bortxian.

Aspaldi danik gure asaben
 izerdiz ore egiña,
 odolez noizka busti oi dugu
 mamor biurtu eziña;
 jaiotez zalu, tai bako lanez
 erro biurka, jakiña!,
 bertan tinkoti oi gera denok,
 aritz tantaiaak bagiña.

Bein ta bein, baiña, etxe ondoan
 bekust arrasti argia,
 baratz-zale ta zillar dardaraz
 asperen bezain zolia:
 mendien kate azken gabean
 berdeaz naste gorria,
 zugatz-adar gaiñ, il agiñeko,
 tanta jario euzkia.

Oro da eder euskal errian,
 aran, troka ta itxasoa.
 Zuri gorrizka aldamenean
 neskatz eder lez soroa,
 Auxe dut nere bazter joria,
 auxe dut nere txokoa,
 nere asabai beiñola maitez
 Goikoak emandakoa,

Itz soilka gabe, egi zeatzez
 nai nuke bizi ementxe:
 lana denontzat, ogi kuskurra,
 maitasun gaia ta etxe,

Zabal biotza bebil auzoan
 eguzki galda legetxe;
 nekerik iñoiz baletorkigu,
 betorke baita berantxe,

Nere barrua lasai dudala,
 lo egin nai dut gauero,
 eta kemenez berriz aserik
 Ianera itzuli goizero.
 Kezkarik gabe goiz eta arrasti
 lanari lotu ezkeru,
 diru-orratza goi-bidetzeak
 ez nau jarriko su-bero.

Zillar goseak asko darabiltz
 bizi maillan igo nairik;
 nik nere etxean ba dut aukera,
 ba dut upelka zillarrik;
 Jaunak ezarri esku artean
 onak dizkigu gogotik,
 osasuna ta lanaren griña,
 ba al dugu zillar oberik?

Oi gure egoitza, jatorri etxe,
 muiño gaiñean etzana!
 Guztietatik zara bikaiñen,
 gure Loreder otzana!
 Orma zuri ta teillatu gorri,
 naia doakit zugana...
 Zaitetz betikoz magal beroa,
 gure kabitxo laztana!

ZERU IZARRATUA

Udaberriz gauaro duzu atsegifia,
 dena daukazu dizdiz argontzi egiña;
 orain ez da ortzea kolorez urdiña,
 argi keiñuka baizik txit egin eziña.

Konta, semetxo, zenbat dituzun argiak
 goiko zolan zintzilik zillarrez josiak...
 Ikuskari sorgiñez dauzkagu begiak,
 amets-oiak bizitan xamu estaliak.

Illargi leun dabil erraiñuz betea,
goi ta beak alaituz gure amandrea;
maindira zuriz digu, sortuz ikarea,
aur txikia bezela estali etxea,

Zakur beltzak zaunkaka daude muiñopean,
isla zoroz igelak loi-putzu ertzean,
arat-ona laiñoa narras aranean...
Gu atarian nare gauaro sorrean.

Gaiñeko landan eurrez kirkillak kantari,
agur egin nairikan maiteki goiari;
bide biurretatik gauontza ixilkari
maltzur aundi, urduri, billaka janari.

Eder auen aurrean gure umeak antsi,
amaren magal barru, begi-ñirñir, garrasi;
Josu izar-kontaka berriz zaigu asi,
eta Mikel loak du poliki eratsi.

Beude, bada, kirkil ta ontz kanpoan uluz;
orobat, esker onak biarko luzatuz,
goazen gu lotara; lo-atsedena artuz,
biar ere lanari ekiteko buruz.

IZADIA BAI EDER!

Izadia bai eder! Beti doa aitzina
ernez, aziz, ugalduz xotil ta gordina.

Etzaigu, ez, zikoitza, esku-gizon baizik,
giza-lera makurra maiz piper utzirik,

Gizonaren lana, bai, diru-jokuak du
iruzur ta gezurrez askotan marroiztu.

Lurrak gurago luke, maiatza eredu.
deduzko giza-lanez aurrera bultzatu

Nik maite dut nere lur sail zoragarria,
birloraz beti dakust etxalde ezta.

Sakosta, soro, zelai, muiño ta mendiak,
sorgortuak dakuskit ditudan guztiak.

Neronek landatua dut masti goiztua,
ta muna barreneko sagasti arrua.

Igaz aldatu nitun igali zugatzak [tzak.
lerden, indartsu datoz, uztartuz arda-

Geroak ederrago dizkit ikusiko,
urtez urte dira-ta lerdanagotuko.

Azkartuz dijoaz gaur kukula eskerkak,
ezker-eskubi azi direan besangak.

Ondotzar orrek barne, lurpean ikusgaitz,
ereillearen sena darama geldigaitz.

Izadia bai eder! Beti doa aitzina
ei'nez, aziz, ugalduz xotil ta gordina.

BIRIGARROA

Lo ez dager udaberri,
zuria ta ameslari;
nere lurra —oiu, lore—
abes oska zaizu ari.

Zelaian dut aritz aundi,
beti duzu oztin-zale;
oro biran besarka naiz,
dirudi biotz-maitale.

Egunez du birigarrok
soiña jotzen adarrean,
gauetz berriz zeru intzak
du laztantzen galtzarrean.

Ene aritz soiñulari,
oztin-miñez agoana!,
pozgarri zait ire kezka,
adar-zirkin ta laztana.

Zillarrezko begi-dizdiz
maite-miñen estalpea,
goizetik birigarroak
dik txit eskertzen maitea.

Izarraren eresi lez
ikutzen dik maite-doiñu,
bakartade ixiltsuan,
tobera leun, bizi oiui,

Kezkatan duk ipar aula
ire soiña musukatuz,
kezkaz baita birigarro
ire antsiz, ire uluz,

Nik ere dut kantu kantaz
nere biotz unkitua
—birigarro!, aritz eder!—,
xamur tantoz intzatua.

Jarrai ortxe biok beti
zeru-argiz txunditurik,
abes goxoz, txinta emez
inguruak zauskaturik.

ORO EDER

Irteerarik ez dun kalez
ez nabilkizu ni oiñez,
ez dut ezagun larri-ezteni...
Ez dakust nik ziñez,

porrot egiñaren legez,
nere bizia iguiñez.
Dena Goikoak egiña doart
gizatiar onez,

Aizeak ondar ustuan
diardu goiztar kantuan,
eguzki aita be-betik zaigu
ibilli kukuan;
gaur jeikiz doa gertuan,
egunari dei gozuan,
soro ta baso, alde guztiak
sartuki izpi-suan,

Nork jakin ez dan euzkia?
Izar bat, sugar gorria?
Ozkarbi dala begira zazu
zeru izartegia;
izarrok baiño, egia?,
begiratu zabaldia,
txikigo duzu euzkia, naiz-ta
itxuraz aundia.

Gora-beraka or eder
—ez duzu loan mende ezer—
zugaitz landaren odol zuria;
nok dan ez azter...
Odola begian dager
eztanda zortan laster:
zugaitzai zaie janari giar,
gunerako suster,

Euzkiak azten belarra,
ostoak arek azkartzen,
basoa ere esnetan jarriz
aretxek suspertzen.
orobat argia garden
guri egunez ema-ten,
eta atertzeka bizi-tokia
digu atntzarazten.

Ez nabil ni begi busti,
ezta iñoiz barru negarti;
aur ta emazte ditut maitatzen
zain-muiñak dardarti.
Onek damakit natkai,
kemen^indarra ugari
leen bezain gogoz Iot-erazteko
nere lan-saillari.

UDABERRIA

Iritxi zaigu —pozari, biotz!— udaberri, aro alai!
Neskatxa duzu anitz kolorez, xarmanta, dirudi elai!
Lurraren pean digu arnastu izadi amak txit arrai:
bazterrak oro dizkigu jarri bailitzan milla sastakai.

Oi neskatx sabel, dena duzuna bizi ederrez betetzen!
Egurats epal onuratsuz dizkizu landak loretzen;
ibar egalak dardaka beroz aizea dute ematen,
mendi-zelaiak elkar agurka dantza Ierroak margozten.

Kukuak dio: «Udaberri da; begira, otoi, zelaian! ».
 Eman guztiok eres-txintari, ekin aterge alaiain;
 martinekote ur-gaiñez zailu igaroa da ibaian,
 arrano beltza zuur, erne dabil aizelari uts airian.

Zozo beltz eta birigarroak soiñutu dute uspela;
 txepetxa ere, kizi arrea, ez dabilkizu motela...
 Denon indarrez doiñu zolika eliz-organu bezela,
 laster uxatu dute biratik negu arnasa goibela.

Zugaitzak ostoz, ibarrak lorez dira osoan gaur jantzi.
 Nik ere, zapala! , soin-giltzak oro ditut nagiaz erantzi,
 eta bertatik adore berriz lanari nakio asi:
 jokabide au aintziña baten aitagandik nun ikasi.

IUen artean —bai al dakizu?— ugazaba da jorrailla,
 urte-gurdian berak darama tenterik labore milla:
 izotzik ez-ta, betor laiñoa, orrela bedi aprilla:
 egunak epel eguzkiz oro ez litzake garai illa.

Praka berriak kukuak legez jantziak ditut pozkiro,
 eta kanpora irten naiz goiztik ikustearren zer giro;
 nere arloa begipe daukat dena eder ta aundikiro,
 begiratu bat —nolako txeraz! — ezarri diot gaingiro.

Illun-ezpaian ezkila eder dorre garaian durunduz...
 Len kuzkur nuen soroa daukat ernetzen zizta iraduz:
 soroko lanak gaur-gero, bada, errez dijoaz ugalduz,
 ezin nengoke iñolaz ere bi besoak gurutzatuz.

Kortan dauzkadan abere saillak basorantz ditut atera,
 aize bikaiñez beuren biriak egurastuaz batera,
 ukullu-ormai kare ziritan eman gurarik tankera;
 ez bedi, arren, etxe arloan zabartsu ene joera.

Otak txukundu, txitak atera —ingoak ditut onenak—,
 urbideak leun euki arretaz, garbitu baita lur-tresnak...
 Etxe ondoa beukat apaiñik, ortako nere lerrenak:
 lur aratzean sorten bait dira loretan sorgin urenak,

Egokia dut gaiuko garaia: zugaitzik asko iñausi,
berriak sartu, aienak moztu, patatak jorratzen asi,
pagotxa bota, iderrak, erein, piperrak leiarpe esi,
osoan kenduz kardulatz belar, muskil alperreko ta sasi.

Arrats gorriak eder-aldia ekarri oi du ondoren;
gaur odeiak lits ñabar jario ditugu oro ikusten,
biar aro ona dugu ziurrik artoa asteko ereiten:
«Beltza» ta «Gorri» goiztik ekingo diot elkarri uztartzen.

Ola egiñik irauliko dut artorako lur-sail ona,
zentzun-jokoan agertzen bait da nor dugun egiz gizona.
Nola diteke nekazariak galtzea ortaz mugona?
Ura joanda gero ueska? Ez litzakit zoriona.

Goizez zati bat, bestea arratsez, gogoz lanari loturik,
golde-erroak lurra ozkatuz bei apal biak aurretik,
ez bero ez otz —biotza txintaz— muskildu gabe astirik,
arlo ederra —aurtengo uzta-sail— gertatu dugu beingotik,

Au bai egia! : zori gaitzak oi zoria zer dan aitortu:
gaur eskolatik gure Mikeltxu odolez zaigu biurtu,
oiuka diost lagun koxkorrak arrika dula zauritu:
lili ordez maiz sasiak zorrotz bidez aurkitzen ditugu,

Belar izpirik ezpedi gero sokil artean geratu;
kare ta satsa eman ugari, orrekin ez izan damu;
azi-sail auta giroz ereiñai satsa gaiñetik zabaldu.
ondorenean erne landarak maiz jorratu ta miaztu.

Merke xamam datorkigu gaur ogi errea oraingo;
artoa baiña, talo, mcrokil, eder dalakoan gagoz:
janari ona aberentzako, mamia bezin jan-gogoz.
Bego au zutik: «Gure Deun Markos, artoak azten balegoz».

JorraiJla osoz aitu orduko —gero, nagiak leloa—
erein artoa indabaz naste, nabar egiñik lerroa;
goizetiko mardul datorke, mamitsu bezin sendoa,
udaldi idorra izanik ere izango du ark ondoa.

A DIAK

Mendiak musker saroi ta zelai,
 bazterrak oro guritan;
 uda eltzean belarra bikain
 etxe ondoko landetan;
 baita ardiak, zuri-zuriak,
 trokako pendiz ertzetan.
 Orrela ditut, nik, irurogei bat
 nere etxalde onetan.

Giro ez dala neguz mendian,
 etxean ditut eukitzen;
 ego aizeak jotzen dunean
 larrean dute bazkatzen;
 udaran berriz, ez otz ez bero,
 goiko gaiñetan ibiltzen;
 ango belarra bait dute goxo,
 arantza dira leiatzen,

Nere mendiko txabola urria
 ez da jauregi pertxeta:
 bi arkuilluren lepoan tinko
 bizkarra zear jarrita,
 emendik beera aritz adarrak
 dauzka zalu barreiata,
 auekin berriz beste pillo bat
 antzetsu elkar eiota.

Zoiak gaiñean jarri nizkion
 saiets-alde bietatik;
 ipar-aldea itxirik eta
 egoa dizu zabalik.
 Egal baten dut sutoki oia,
 kamaña beste aldetik.
 Onela ere nere txabolak
 ez du itxura exkasik.

Udan goietan euki oi ditut
 nere arditxo zuriak:
 bagillaren len-egunetatik
 urrilleraiño, mendiak
 dauzka, jan ta lo bertan egiñik;
 berriz ondoren guztiak
 dakarzkite beera, kortan emanik
 neguko egun bustiak.

Urtarrillaren erdirantzera
 umeak eiten dira asten;
 umeetan arrek iru illabetez
 iltzeko ditut ematen,
 urrixak berriz umetarako
 ardura beroz gordetzen,
 gisa ortan dut ardi-saldoa
 urterik urte edertzen.

Ille moztea maiatz azkenez
 egin oi dizut ederki:
 ardiak ortaz larrera gabe
 etxean oi ditut euki,
 ille kentzeko denak izerdiz
 bete ditazen txit ongi;
 olan aisego burutzen dizut
 nere egitekoea noski.

Mikeltxo lagun moztu diedan
 ille mataza galantak
 sortaka salduz ekarri dizkit
 irabazi ez exkasak;
 orrez gaiñera saldu oi datut
 zaar eta gaixo diranak;
 gaztiak ere dakarzkidate
 diru pusketa politik.

Ez dut beorrik, ezta zaldirik,
 baiña ardiekin naste
 sarri dakuskit beor eta bei,
 auntz eta antzeko beste,
 Ta larratzeko leku bikaiñak
 erri-basoak dituzte;
 nere ardi, auntz eta beientzat
 bada belardi naibeste.

Gaixorik sarri dira ardiak:
 txarra da urgeldi artua,
 berdintsu duzu okailla derit2an
 eztarriko aunditua,
 Ez dute ona goiz naiz illuntzez
 erori basur leitua;
 errena ere ardi artean
 aski duzu zabaldua.

Ardura pixkat —egia diot—,
 beti uzten du ardiak;
 ilbeltz-otsailla tarteko izanik
 umetzen dira asiak,
 epail aldera diru mordoa
 dakarkidate arkumiak,
 Onek ordaintzen, gaindizka ere,
 ar-azotako nekiak.

NI EZ EULI NAGI

«Eguzkitan nabillen
 bakan ta sotillik,
 nere egotxuz azkarki
 aizea astindurik.

Nabillen nare, trankil,
 aize-ibiltari,
 asea emanikan
 barneko naiari»,

Ez dut nai lan-deirik
 barnean korronka,
 olako gabe bapo
 nauzu ni egaka.

Onela mintzatuaz
 bizi zan eulia,
 ezertan ari gabe
 udaldiz, nagia.

Lanari nagokion
 udara epelez?
 Zoro, txepel nintzake
 nere ustetan ziñez.

Bndatorkio negu,
 gosezko ta otza...
 Erroz-gora joan zan
 or alper gorotza.

Ukullu ta sastegi
 badut jana nunnai;
 ez naiz gaberik **ilko**,
 ez, **ez** izan ezpai.

Nik beraz ez dut gura
 lange bizitzerik,
 sort ez dakidan ausaz
 oiaiztozko lerarik.

NERE BASERRIA

Lan dezadan, lan gogoz
udaldi osuan,
ta lasago ibilliko
datorken neguan.

Nadin iñurri perkatx,
nadin erle zoli,
arduraz billaturik
negurako jaki.

Gaur erein bear ditut
piper ta tomate,
udarbi, baina ta api,
indaba ta beste.

Udan goxoa baita
letxuga guria,
zatika nik botako
oraintxe azia.

Jorran ibillia naiz
eguna urratzean,
goiko munan daukadan
lur-sagar saillean.

Orrez gaiñ, txau ez ditzan
eguzki galdeak,
ureztatuak ditut
landare gazteak.

Ale asko dakarren
igali zugatzai
alperreko kimuak
kentzen diet noznai.

Bai eta ekin diot
maatsak sulpatatzen;
udaran txakoliña
on da zurrapatzen.

Gorde daidan laztanki
maasti barrutia,
eta sasoiz damakit
edari gorria.

Ez dagokit ondo, ez,
beso biak gurutz,
ezeri lotu gabe
izatea alde-utz.

NERE TXEA

Nere aitaren aitak emen zun oillolur,
ta jazo al jazo ez naizu ni bildur.

Gure etxe ta mendiak santuak dirade.
lanerako dauzkat nik aitzur eta golde,

Ementxe dut gurdia, lankai goresgarri,
ementxe baita daukat iru bei-buztarri,

Ementxe dut etxea, soroz esitua,
mendi oiñean datza ene sordekua.

Zugaitzak egutera, ertz askoz nasiak,
kanta-tokia dute sarriro txoriak.

Banaz dagola ere lei askoren toki,
kulturaz ta oroitzez ez du zama txiki.

Gure etxe, asaba zarren babesleku,
edu onetan zuten aintziña osatu.

Lenen bee-oiñean du zuzenezko zoko,
atzetik luzeago aurretikan baiño.

Teillatuan ditu bi ixurki txit berdin,
aintzin-gibel eta albo eguzkitan urdin.

Ataria, eskaratza, lo-gelak aurrean,
leio zabaldun kortak bereix atzean.

Goian ditut oindio gertu ta egokiak
belar-sapai, ganbara eta aletegiak.

Teilla kiskortua du gaiña estalduaz,
uso-kabi ematen duelarik ausaz.

Aurrekaldean dauzka zurezko besoak,
antzetsu elkarrekin gurutzan eioak.

Aintziñakoa noski egikera auxe,
kanpotik dirudinez omen duzu zarxe.

Muiño ertzean dago aizetik gordean,
lenak giroa begizten zuten egitean.

Egoitza au ez da, soilki denontzat aterpe,
bertan dira lan-ti-esna, gizaseme ta abere,

Etxe ta lur gabe ez da ezer baserria;
eder dirudi, baiña, oiekin jantzia,

Soro, landalde ta abar, geranok loturik,
ementxe bizi gera aspaldia danik.

Seaska eta aterpe, otoitz leku, obi,
len, oraiña, gero dira elkar josi.

Onek ikurtzen dizu euskal askazia,
asaben arnasa, sendi aoz ao utzia.

Euskal izate ardatz semeengan nortua,
gure odol-kaikuan luzez oretua,

Betebear t'eskubidea, gurasoak zaitu,
etxe ta etxeoak, erentzi lez duzu.

Soro-landaz bear naiz geldiro saiatu,
ilJak be bear ditut adei aundiz artu,

Eliz bezela bait da gure sorlekua,
sukaldeko su dut txit sagaratua.

Bi ate-zangoetan Doniane goizez
ereiñotza dut jartzen, orlegi ta ezez,

Kardulatzan lorea erdiko atean
zintzilika dagokit izenta epean.

A T O A

Artoa dugu etxean
 udagoiena eltzean,
 jaki goxoa guraso ta aurrok
 mai inguruko biltzean...
 Ugari xamar ortaz ditugu
 papo gorriak gurean.

Bi eskuekin zartaka
 nago ni sarri goraka
 artoa gure lur maite ontan
 sartu zuna goraka:
 gaur ere nunbait esku-txaloak
 arentzat bitez millaka,

Kristobal Kolon aitziña
 —itxastar gizon ariña—
 or ta emengo euskaldun askoz
 lagun eusgarri egiña,
 Ameriketa-n ibil zitzaigun
 an zer berri jakin-miña.

Atzerakoan —diote—
 arto-bizla ontzi bete
 euskal errira ekarri zuten
 amets aundiz eta maite:
 menderik mende bitez orobat
 onetsiak aiek ere.

Arto mota naiko izaki
 —goiztar, beranduko, txiki—,
 sasoi zaitu bearrez gaude,
 lurra gertatuz txit ongi,
 berein motatik emakorrena
 giroz ereiteko noski,

Lenengo lurra prestatu,
 are ta goldez eratu,
 sokor-mazoa gogoz erabil
 ta mokillak ongi austu,
 gero arduraz azi-aroa
 ausna egiñik, gogartu,

Goseti duzu artoa,
 beti eske jatekoa;
 orregatikan ukullu satsa
 emaiozu oparao;
 arri-siururki egiña ere
 ederki, ederki doa.

Ederra duzu ortaz gain
 landarak eiteko bikain,
 morda bakoitza bakandutean,
 koillara txiki bete lain
 nitratu gatza ez datorkio
 iñolaz ere motz-ezain.

Bekizu beldurgarri, motz,
 garai ontako lei-izotz;
 aro gaberik egiña beti
 aula dukezu eta otz;
 ikara ori jun dan ekero,
 asi zaitkez zail, zorrotz.

Aukera erein aurretik
 onen arto azitik;
 artaburuak gerrian dauzka
 ale bikaiñak soil-soilik;
 oindio ere auta ezazu
 azi astunak oitatik.

Errenkadetan alea
 erein-a2teko era
 neretzat ez da era txepela,
 baizikan oso betea:
 lerrorik lerro —ez aiztu, arren—
 utz za2u beti tartea.

Arto ernea bertatik
 agertzen asi denetik,
 amaiozu bai len-jorraldia
 asko luzatu gaberik;
 garbi dagoen artarte saillak
 dakarketzu onurarik.

Bi lore ditu artoak,
 arrak goien-goinekoak,
 emeak gerrin daramazkinak,
 edo-ta sortutakok:
 bekoak guztiz ernaldtu arte
 ez kendu iñoiz goikoak.

On al da lorak kentzea?
 Azke badabil aizea
 ta artaburuak ezpadu zaintza,
 obe du lorak moztea;
 bizar gorriak dute orretan
 ezpa gabeko ozkea.

Gaitzak baditu artoak,
 gorri sortzen lur ezkoak;
 maiz zortenean azaltzen baitu
 ikatz-miñak, orrilloak;
 zabal ez dedin gaixoa laster,
 erre sail kutsuk joak.

Udazkena zaigu eltzen,
 eta artoak oritzen...
 Pixkaka dira, bizar ta ostoa,
 asten igartuxe jartzen;
 orduan ari zaitetz axolaz
 arto saillak etxeratzen.

Txuri itzatu bertatik
 mandiora sar aurretik;
 eguzkitan jar bear lirake,
 idor ditezen beingotik:
 zeure izerdiz jaso artoak
 ba dizu onik ortatik.

Ondo leortu ostean
 ipiñi itzazu alean,
 buru-torraka, elkar igurtziz,
 burdin naiz laia gaiñean:
 euskaldunak au auzoko lana
 zuten aspaldi batean.

Erein dan arto alea
 ezpei geiegi betea,
 estaliegia dagon aziak
 berandu daga ernea.
 Beraz, ler-errez beuka gaiñetik
 erein dan lurra mintzea,

Artoa on-ona baita,
 etxean ezpedi falta
 sorroan berde, oraskan irin,
 erabat duzu aparta:
 taloa janik aziaz noa
 ziurki sendi galanta.

LILITEGIA

Lore sailla badaukat
 leraz edertua,
 gaurtik ditu opaka
 bost-sei bat arrua.
 Badut zeregin ortan
 emazte zintzua!
 Berak darama orren
 ardura osua.

Berein aziño dauzka
 gaur-gero ereiñak,
 mao, krabelin, txidar,
 burupil bikaiñak,
 eta beste amaika
 txotxetik egiñak,
 azi eta landare
 biarko liraiñak.

Gezurak ez du oiñik,
 errenak lotsarik,
 nor zuk lenago atzi
 gezurtia baizik?
 Ala ere onetan
 ez diot gezurrik:
 loretegia oso
 dut urrez jantzirik.

Orman gora dijoan
 untza biurkorra
 loratzen asia dut
 guztiz lizunkorra.
 Urkitz, gardeni, lili
 so ezazu orra,
 zerk ez dun leiaketa
 erne-min bizkorra.

Lau aldiz egunean
 eldu oi da ona
 berakin ditula aurrak
 nere zoriona.
 Lilitan bera lili
 badu esker-ona
 biotz-barruz joria
 Jaunari diona,

BIZI NAI!

Abar orlzkaz apain-apaiña
 ager zait udaberria,
 zelai, soro ta bide-muiñoan
 zer-nai zabal da bizia,
 —eta bizia maite dut,
 nik nai ez iltzerik—
 zer-nai zabal da bizia.

Illun ondoko argi dizdizak
 margoztu ditu mendiak,
 t'oiar zar beltzak, ito itoka,
 bota dizkigu nagiak
 —eta bizia maite dut,
 nik nai ez iltzerik—,
 bota dizkigu nagiak,

Etxe gaiñeak gorri dauzkagu,
irri barreka leioak,
zillar-lits duzun itxas-ertzari
eder zaizkio margoak
—eta bizia maite dut,
nik nai ez iltzerik—,
eder zaizkio margoak,

Ametsez noa bidean zear
dena dutala irriz biran.
goiza doakit lanean murgil
urruna nairik auteman
—eta bizia maite dut,
nik nai ez iltzerik—,
urruna nairik auteman.

Gazte-garaian atzo nintzala,
nola doazten urteak!
Ille zurixkak ditut buruan,
ez gutxi ere nereak
—eta bizia maite dut,
nik nai ez iltzerik—,
ez gutxi ere nereak.

Eguneroko Ian alorrean
nork du nik aiña naitasun?
Badut emazte, baditut aurrak,
eta soiñean osasun
—eta bizia maite dut,
nik nai ez iltzerik—,
eta soiñean osasun,

Goizantz amari diot igorri
nere ezpain bien Iorea;
ori bazkatu opa duela
zelan dabillen erlea!
—eta bizia maite dut,
nik nai ez iltzerik—,
zelan dabillen erlea!

Irudimenez Iena t'oraiña
elkar oi ditut ederki,
urteko aro ta ibilteak
berriz nabilte dardarti
—eta bizia maite dut,
nik nai ez iltzerik—,
berriz nabilte dardarti.

Izadi-zori, izadi eder,
oa beti zoragarri!
Aspaldi zuri zor nizun sari
gaur gogo dizut ekarri,
—eta bizia maite dut,
nik nai ez iltzerik—,
gaur gogo dizut ekarri,

Beude millaka loreak dindil,
nik laztanaren zirtzilo.
Oro nai nuke nere barnean
artu neretzat atxilo
—eta bizia maite dut,
nik nai ez iltzerik—,
artu neretzat atxilo.

Goizantz emakor, suspergarria,
ezkon-andrea emanik,
ekartzin, otoi, aurretan aunitz,
ni bizi-miñez aserik
—eta bizia maite dut,
nik nai ez iltzerik—,
ni bizi-miñez aserik,

NEKAZARIEN ZAINDARIA

Nekazariok besteak beste
 badugu geure zaindari;
 ona zergatik egun nagoen
 biotz-dardar ta pozkari:
 gaur izan dudan zorion-berri
 opa nioke kantari
 iragar gogoz, alaitu dedin,
 nere talde guztiari.

Orain zertan ta fede gaietan
 naspilla dabil itzala...
 Gure gauz asko antziñakoak,
 gauzez egiñak bezela,
 zakur-ametsak omen ditugu.
 Baldin badugu orrela,
 dena ote da gure asabak
 ondutako ipuin utsala?

Ez, ezta olan! Abere gera,
 baiña abere errazoidun.
 Norbaitek eman dit adimena,
 ta gauzak ditut ezagun;
 norbaitek jarri dit barrenean
 gora-miña garrasidun:
 neregana ez dut ilkorra oro,
 barruak dasat ots-dundun.

Ortik, iñolaz ere, neri etzait
 ez min, ez begi nekea,
 goiz urratzean, arrats apalez,
 zeruan ikuskatzea,
 ez bildurrez, bai begiramenez
 dizdiz utsetan asea,
 gure Sortzaille, gure Babesle,
 Jainko onaren aintzea.

Poz-orditua egin bearrez
 ibil nakizu goizean.
 Poz-iturria, nik alan uste,
 guk daramagu barnean,
 eta bertantxe dugun kezka
 utsarte larriz betean
 nork digu berriz emango guri
 bear genduken aĩnean?

Goizez bai tuntur Ixidor deuna
 ospatu dugu elizan:
 abere sari, barru lillura,
 txistu, danbolin soiñutan.
 Nekazariok jaiez jantzita
 Zaindariaren jaietan
 zelaian zear Irudi deunaz
 meza nagusi ostean.

Orren ondoren tuntun soiñua
 ta dantza bizkor ugari...
 Aspaldi danik nintzakiola
 zorrez Ixidor onari,
 zor ori diot gaur goizaldean
 alai ordaindu berari;
 ezbearretik sorosi bait nau,
 txalo Ixidor deunari!

Ez dut ixil nai: baserrian ez,
 ezta dena izpi zuria,
 lan eta kantu, kezkarik gabe,
 lillurazko Arkadia...
 Kezka, arazo ta naigabeak
 ez dute paper urria;
 gora begira alarik ere
 poza zait dutan bizia.

Otoitz eta lan egiña dugu
 Ixidor deuna gogotik,
 aitzur ta golde artean zuen
 jartzen eskari ederrik;
 zeru-lurretan ondo zekusan
 Jainko lorratza nasairik;
 lur au santutu leikela errez
 ez eizu izan ezpairik.

Ezker-eskubi dugu ederra
 nai aiña Jaunak ereiña:
 lore ta zugaitz, txori abesti,
 izar t'eguzki tartaiña...
 Guzti au bekit neroni ere
 —zeru-lur sari ariña—
 izerdiz lortu bearra dudan
 ogiaren atsegiña.

Pozarren diot: gaur elizan naiz
 izan Ixidor goresten;
 ala ere nik ementxe daukat
 izadi zabala lerdin:
 bertan ari naiz, lan bitartean,
 salmu ta eresiz kirmen
 zor dizkiodan aintza ta ospe
 Jaunari gogoz ematen.

B A R A T Z A

Oiñarri bako etxe apain, dotorea...
 zertako nai nuke nik olako etxea?
 Baserriak bear du aurrez baratztea,
 baita ez urrun ere lore alor mea.

Bazter onean daukat baratz esitua,
 barazkitarako bai eder aiutua,
 txauak batzarre nai duten arlua,
 beti zai nagokion zoko maitatua.

Bertan ditut oparo sasoiz nik ereiñik:
 arbi txiki gorriak, babarmnak zutik,
 berandu loretzen dan ziazerba askorik,
 aza, illar motx, meloi, loraza guztitik.

Piper, tomate ta uda uraza gorriak,
 tipul, apiu ta bainak, azenaio ziak,
 badatozkit errime berotuz euzkiak.
 Auek bai gustuko sutan egosiak!

Igali zugaitzetan moltzo du ematen,
 nik daukadan sailtzarrak zutik oro txorten;
 albertxiku, gerezi, aran bigun gizen,
 garaiz moztu nitunak orain daude lerdan.

Urbil sortu zaizkien —lagun ez ederrak—
 moztu dizkiet kontuz zarba me alperrak.
 Orren garbi jarriaz datozke lasterrak
 udan goxo zaizkigun ale txit xixterrak.

GAZTAIAK

Eskortan ditut nere ardiak
 azaro-maiatz tartean;
 ez dute goian egon luzerik,
 otza bait da udalarrean.
 Urtarrillatik azuriz daukat
 bildostegia betean:
 pose dirala ezta girorik
 ixten dituen atean.

Lankizun badut ardiak batzen
 jorraila eldu ezkeron,
 azkar saiatus bear ditut, ba,
 nereak jeitzi gauero,
 apatza bete esne bistsua
 laket bait dugu goizero;
 gogotik, beraz, eman ditzagun
 Jaunari eskerrak bero.

Nere emazteak gaiñeko esnez
 gaztaiak dagiz antzetsu.
 Irazi lenen oiala zear,
 sutan ondoren epeldu,
 kaiku barnean esne apur bat
 gantzagitan lerdekatu,
 esne lodia mazkelu baten
 eskuz nai zotzez zaflatu.

Mamia gero bi eskuz digu
 estu-azi ta zeatzen;
 mazkelu barne alde batera
 du berriz ere metatzen,
 orrela bildu ta pelotatuz
 oso-osorik oretzen;
 mamia moduz moltzo egiña
 gaztai ore da biurtzen.

Ebaki aitzoz gaztai ore
 zati askotan bereziz,
 puska bakoitza eskuz artuta
 gaztai-zumitzan ler-aziz,
 ondoren beste puska bat ere
 berdin eskukin igortziz,
 or duzu laster zumitza gaiñez
 zazpi edo zortzi zatiz.

Zumitza gaiñez daukazunean
 eskukin goitik sakatu;
 gero farastan gaztai ontzian
 guttia iraulko dizu,
 era berean berriro ere
 atezu-sakan ertsatu,
 osoz dakion esku artean
 gaztan-gazura txukatu.

Azpia guztiz esku maitaki
 dio zumitzari kentzen;
 gaztaia su urbil, txinpartai soka
 arri gaiñean du jartzen,
 eskuz biraka bi aldetatik
 pixkat orizkatu daiten;
 orla gaztaian be-alde biak
 dizdiz zaizkizu gelditzen.

Ostera ere zumitz azpia
 lengo tokian jarririk,
 bi eskuekin zanpatu oi du
 saiets-alde bietatik.
 Eta berriro su urbil du jartzen
 gorriztu dedin osorik;
 zumitz-troxea kendu ostein
 orobat dagi oraindik.

Zumitzan sartu berriren berri,
 lokiz estutu troxea;
 eman gatza ta ipin berezi
 zumitz ta zumitzpekoa;
 ken zumitzetik jaramonez
 ta gatzatu bestaldea:
 maiz egunetan bira dagio,
 leun emanik itxurea.

Gaztai oreka eduki duzun
 mazkeluaren barnean
 gelditu zaizun gatzura
 jarri egizu sutean.
 Berotu baratx gaztanbera
 gaiñetik ager artean.
 Artzazu gero irazkiz ondo
 ta jarri zisku batean.

Nere andreak ongi dakizki
 lan onek ditun arretak
 ta urte barruan beti ditugu
 etxean gaztai txit autak.
 Auzoan ere opa dituzte
 gur, lanaren alortak,
 Orla egiñik sortzen zaizkigu
 maite-suaren pinportak.

UDALDIA

*«Egun bero ta eguzkitsuak
iñoiz izatekotan,
oraintxe yatorkuz. Izpazter
eta mendi-goiak iñoiz baiño
atsegintsuago
oraintxe egiten dira.
Uri-lapikoetan baiño zugaztietan,
arnasa osasunkorraoa artzan da».*

UZTA - UZTA

*Urrun duk, sagasti berri, lorea
Arizti, urrunago elurtea.*

*Gaillurrera igoa dugu iguzkia,
nondik jaurtiko zutago gezia.
Begi-ogeak nork sakon-askiak
gañez ez dakien aren argiak?*

*Uda\ Mendiak i au eguerdi,
ta urrezko opor-aro, ta abaro-aldi...*

*Zigor ontaz, Uda, ba al duk aterpe?
Ara zuzen nazak, luzatu gabel*

*Leioak itxitako janregia
basoak iduri. Lo nagusia.
Baña, badu norbait —zoragarria—
bidazti-zai eder: bai, alegial
Begira non dedan, aterpean zai,
gorputza sotilla, betartea arrai.*

*llzall Baso'ren ume yaukal,
xaloagorik ezin aal:
'oeltxeran, begi bai azal:*

Itzall ...

Itzall...

*Sar naun gelditxe, taupaka biotza.
Ar maitez, otoi, lerregin-arrotza...
Oial illaun batez legortu didan
bekokia. Gero, aldamenean,
atzaidan eseri, andereño otxan,
ta, ai, zein gozo gauden, aopekotan\ ...
Atsdenare:? eliz, zutoiz bete,
osto-pllo la izar izunak abe:
ta i bertan oianeko jaupaleme...*

*Gure inguru lurra lurrin-jario,
urre urtuzko jasak baitaragio.
Euri gorri ortaz basoa aterri.
Gauden, bada, maite, basoan geldi.*

*Uda'. , gar zoragarri, suzko itsaso:
untzi geriza untan nai aut igaro...*

Lizardi

ETXE INGURUA

Gauean izan dugu zerua malkotan,
maiatz euria eder omen da egitan.
Goiztik joan gura dut ikusten giroa,
ta ater baldin bada, nik lanera asmoa.

Lur billoizean dabil zeruaren dirdai,
pozaren irriñoa edaturik nunnai.
Eta lurrak narama gaur ere kanpora,
egunak kentzen didan izerdi arlora.

Baserritar bizitza zailla da, ta eder,
itzez ez, cğiñetan ez nadin ni alper.
Ene etxea zaintzea neroni dagokit,
baseritar bikaiñen orretxek dirudit.

Nere aitak atxiki zidan barne-sua,
ni gogoz bizitzeko lanera lotua:
aren oroitz goxoa aintzaldtu dezadan,
ura maiz gogoraziz erstura latzetan.

Idi gorri, bei zuri lanerako gertu,
ez dute alper-gaitza iñoz ezagutu.
Iturritik ura, ta zer alperkeritik?
Gaitza ixurtzen zaigu loiaren begitik,

Ez dut amets-zororik egundo irrikatu,
iñoiz sortu ba dira gaiña diet moztu,
Nere soro lanetik asko dut ikasi,
zabartzen ba naiz arin belar txarrak azi.

ERE BASERRIA

Jausi zaizkidan ormak kontuz ditut jaso,
arriak landu ditut, eta burnirik asko.
Edu ontako lanak ez al nau gotortu?
Premiak geienetan indar-azten zaitu.

Auzoak eztu inõlaz ni txartzat jotzerik,
al izanik beti dut laguntza emanik.
Ez dut izan samiñik, ez auzi-lipizta,
gozogo da bizia elkar lagunduta.

Lanak dirua dakar, eta zoriona,
baldin ba dagigu legezko zaiguna.
Zuurki begituz lagun ta ondasuneri,
etxaguntzak kezkarik ez damakit neri.

Gaingiro bizi naiz, bai, nere etxe aldean,
sendiaren poztasunak dakarren pakean.
Etxe inguru dutala pozarren biotza,
dabesdan irrintzika lanaren garaitza.

KANTARI BIZI NAIZ

Eztarri leun, biotz giar,
goiz eta arrats kantuz nabil;
lan artean laguna dut
nere Jone beti urbil.

Lizar zuta zait dardaraz
biotz espak aditzean,
batak dio besteari
erantzuten poz betean.

Gure kanta da luzatu
iñoiz mendi gaiñeraiño:
«Nik zu zaitut maite-maite,
txoriak bere kumeak baiño».

Bizitzea ez da ezer
albistea bada palta:
biotzaren arnas meño
duzu, maite, gure kanta.

Berez zaigu guri sortzen,
naiz alaiian, naiz nekean;
etxe-barne, soro lanez,
biok gaude su berean.

Kanta, biotz, kanta zoli!
iñoiz ere aspertzeke:
or oiana abes-maixu,
beti surmur, ez du neke,

fzarrak leun argi dagi
 bere ibilli sotillean,
 argi, kantu gaitezen gu
 alai geure etxaldean.

Orri-loren intzirian
 betorkigu biotzari
 urte aro guztietan
 eiera antzo gu kantari.

GURE UMEAK

Basoan eder da kimu txit orailla,
 sendian orobat muskil berri sailla;
 guk emen dauzkagu iru xima eder,
 iru muxu gorri, ta iñor ez alper.

Senar-emazteok onek lotzen gaitu,
 maitasuna ere biotzean sutu;
 itxarokizuna digute arrotzen,
 ta gogotsugo guk lanari ematen,

Etxean zer ikus, ikasten umeak:
 ezpei agindurik gugan asarreak;
 ezta zabarkeri ezpei izan gugan,
 betarte alaikor edonoiz gaitezan.

Diruak ez nadin itsutu geiegi,
 iñoiz ez dut bera izango maiteegi;
 etzait eder sosa, ez eta zikoitza,
 asko naitik lasai bebilkit biotza.

Aginpide latzik ez dut agertuko,
 ez etxe barnean, ezta ere kanpo;
 olakoak ez du atsegin itxura
 eta bai edonoiz barruan tristura.

Ene lagunaren zorion joriak
 neroni dakarzkit naikari biziak:
 etxaldea jasez dezakegun jaurri
 bear dugu izan guztiok lokarri,

Saiatu ezker den-denok lanean
 zoriona dugu irrikor atean;
 gaitzak zaurituak iñoiztxo bagiña,
 berriro genduke laster atsegiña,

Ume ta etxalde, gure axol beñiak,
 Jainkoak emanik dauzkagu bereñiak
 Baserrian dena guk dugu jasoko,
 ta geroak digu noizbait eskertuko.

LANTSU NABIL

Gaur al duzuna ez utz biarko.
 gurean bai lanik aski:
 etxe ta kanpo eskua zertan
 ezarri ba dut ziurki;
 korta, soro ta baso trinkoan
 —nere gaiñ ditut osoki—,
 naia nola dau a!ako lana,
 ba dut non jardun nasaiki.

Bagilla duzu aro biguna,
 ezin naiz egon geldirik,
 landak belarrez dauzkate gaiñezka,
 arto-saillak guri-miñik.
 Bota berritan zugaitz biztuak,
 aiotza noiz ezarriko nik,
 naikoa kalte bai lekarkide
 pipil ta lore larregik.

N'ERE BASERRIA

Belar guria ekarten diet
txekor ta beiai oparo;
bai gogoz jaten dutela auek
ortz-ots egiñez gozaro!
Ardura, baiña, bear dut izan;
garai onetan, unero,
zaindu ezikan belar geiegi
gaizkia dute zearo.

Barrua puztu ein ez **dakien**
—guztiz baita kaltegarri—
eta sabelak aizetik jagon,
goizez damakiet sarri
belar idorrez osaturiko
bazka laket zalegarri.
Txekorrak gizen, esnetsu beiak,
ola dauzkat ikusgarri.

Zementuz ondo daukate lurra,
aspalditxo neuk jarria;
simaur, ongarri, loiz daukat garbi
abelgorrien azpia.
Kortak ardura gabe eukitzea
bai dala tamalgarria!
Estalpe loiak salatzen dizu
nekezari arlotia,

Beien oea alik onena
jauskeraz daukat egiña;
beuron luzeera baiñon asago
garnu-erreten berdiña,
kortatik kanpo daukadan pozu
batera doa ariña
barazkientzat gero eder dan
txiz-ixurizko ur zikiña.

Ta ganaduak —ez da gezurra-
gisa orretan jagonik,
beti dituzu osasun aundiz
eta ausnarrean gozorik.
Illea legun, ez kizkurtua,
alez askea beterik,
emango dizu euskal ukulluk
zisku bateka dirutik.

Aska betea, oe sikua,
or dauka beiak dirua;
bide ortatik edonork ere
gizenduko du ziskua.
Nik edu ortan nai nuke jarrai
beterik nere ukullua,
etxalde eder au izan dakidan
neretarren eredia.

EURI OSTEAN^a *

Laru-ikaraz dakust lugiña,
ezpaitu beti poz-atsegiña;
udako^b euria
—iraunkor, joria—
ez dugu sekulan arbuiaigarria.

Izugarrizko trumoi zarata
dantzugu; odei-sabel tximista;
zeru goitik azkar
arri xee, kazkabar;
euri tarrapata, erauntsia zakar,

* *Nere baserria*, 64-66 (B>; *Olerti* 1984, 150 (A),
a Euri ostean A Euria; b udako A uda,

Iñoiz, baita, leun dugu euria.
zillar mee, garden, zirimiria;
ostoz osto jausiz,
gainkia igurtziz,
Iur-azaiak duen miesa iraziz...

Oiuz ditugu soroak ernai,
uretan mamor, beste bein alai;
poliki dauzkagu
zelai ta esparru,
belar-zutez guri, bizi, parre-zantzu.

Izar liliak daude kulunka,
aien belarrak mutur makurka,
mutur gorriak ler,
larru-gorri, muker...
Oraitxe bai dala izadia eder!

Aurtxo pizkorrak zelaian dabiltz,
loxin-bearrez garo ta elbitz...
Loretxoen pare,
goia dute maite,
belardiz ibilki ater-azi gabe.

Otoz otoan sartu da kanta,
ikus^c txoriak alai eundaka;
beti jauzilari,
kantuz dira ari
laiño gainez kliska dagon euzkiari.

Dena da didar, gazte irrintzi,
arnas berritan zorion antzi;
aur, txori, galburu
irrika dituzu.
Nik orobat gazte doart biotz-barru.

Jator tantai dut euri udako,
au aiña eder etzait ezertxo;
larriren^d larria
maiz naiz ibillia,
alarik ere zait txit arrigarria.

Malko ostean xamur dakusgu
ezpain-egalean irriaren keiñu.
Olaxe udaldian
arrasti txit eztian^e
dunbots, oiñaztu ta euria nastian.

GURE EGOITZA

Gaur bazkal ondoan denok,
senar-emazte ta umeok,
etxe aurrean jarriok,
—pozaren aundiz biotza lertzen—
kanta ditugu guztiok,
dardaraziaz bazterrok,
zolituz geron eztarriok,
Elizanburu-bertsuok:

«Ikusten duzu goizean
argia hasten denean,
menditto baten gainean
etxe ttipitto aintzin xuri bat,
lau haitz ondoren erdian,
xakur xuri bat atean,
ituriño bat aldean?
Han bizi naiz ni bakean,

Nahiz ez den gaztelua,
maite dut nik sor-lekua,
aiten aitek hautatua.
Etxetik kanpo zait iduritzen
nonbeit naizela galdua;
nola han bait-naiz sortua,
han utziko dut mundua,
galtzen ez badut zentzua,

Etxean ditut nereak,
akilu, haitzur, goldeak,
uztarri eta hedeak;
jazko bihiezt ditut oraino
zoko guztiak beteak.
Nola iragan urteak
emaiten badu bertzeak?
Ez gaitu hilen goseak,

Landako hirur behiak,
esnez hanpatu ditiak,
ahatxe eta ergiak,
bi idi handi kopeta zuri,
bizkar beltz, adar handiak,
zikiro, bildots guriak,
ahuntzak eta ardiak,
nereak dire guziak,

Ez da munduan gizonik,
erregerik ez printzerik,
ni bezein urusa denik;
ba dut andrea, ba dut semea,
ba dut alaba ere nik;
osasun ona batetik,
ontasun aski bertzetik,
zer behar dut ghiago nik?

Goizean hasiz lanean,
arratsa heldu denean,
nausia naiz mahainean;
giristino bat ona dut artu
nik emaztea hartzean,
ez du mehe egunean
sartuko uste gabean
xingar hezurrik eltzean.

Piarres ene semea,
nahiz oraino gaztea,
da mutiko bat ernea;
goizean goizik bazken erdira
badarama artaldean;
segituz ene bidea,
nola baitu egitea,
ez du galduko etxea.

Ene andrea Maria
ez dan andre bat handia,
bainan emazte garbia;
irri batentzat badut etxean
nik behar dudana guzia:
gald'egiten dut grazia,
dudana bezala hasia,
akabatzeke bizia».

Ene alaba Katalin,
bere hameka urtekin,
ongi doha amarekin;
begiak ditu amak bezala
zeru zola bezin urdin;
uste dut denborarekin,
oraiko itxurarekin,
andre on bat dion egin.

Ez dugu behar lurrean,
ongi bizirik etxean,
utzi laguna gosean;
ez du beharrak sekulan jotzen
gure etxeko atean,
non ez duen mahainean,
oturuntza ordu denean»,

ERDIRANTZA

Zuk, nekazari orrek,
ez al duzu oar,
ez al duzu igarri
udaren irripar?

Jo ta kea lanari
oratu bearko
bagillaren manua
bukatu orduko.

Motak ugari ditut
belar gurizkoak,
ebaki ta sapaira
eramatekoak.

Abereentzat belarra
—ezin ukatua—
galtzu ta pentsu ordez
bere bizikua.

Ona dut sail aunditan
belarra eduki,
osteango labore
batzuk baifio obeki,

Goiz oni badagiot
segea ezarri,
ondoren berriz ere
datorkit ugari.

Nik asteak dirala
ditut belar saillak
ebaki, ta, legortuz,
ornitu sabaiak.

Orla negu aldian
belar eta pentsu
errezago bazkatzen
kortako ganadu.

Segaz epai ostean
ondo bai idortzen,
sari iraulikatuz
xardankoz aizatzen,
Zenbait eta geiago
obeki gozatzen;
onetan ez naizu ni
sekulan aspertzen.

Iruntzak ez dezaion
gau-orduz kalterik,
illuntzez dut pillatzen
moltzoak egiñik.

Ta biaramonean
euzkia irtenez
berriro dut ipintzen
dan bezin zabalez.

Aski ondu danean
metatu sapaian,
au duzu dagidana
urtero bagillan.

Iñoiz badit euriak
landan arrapatu,
oindio zorrotzago
artzen dizut kontu.

Zillo bat ere badut
etxe saietsean,
aspalditxo egiña
uda etortzean.

Kezkarik asko dizkit
onetxek uxatzen,
aldi euritsutan
nitunak sari len.

NERE BASERRIA

Goiraiño zanpaturik
belar aski artzen dit,
ta ezin obekigo
bagillez datorkit.

Ebaki ta ekarri,
ez dut lanik asko;
oraingoz ez naiz beintzat
len aiña eioko.

Nere auzoan batzuk
badira oindio
olako ez dutenak
etxean ario.

Ola dabiltz on zer dan
ez dakitelako,
baserrian nasaitsu
lanari lotzeko.

EZLARI ONA^a *

Nere andreak ona, ona du eskua,
orrez gaiñ baita guztiz duzu asmotsua;
okerra nun antxe du bertatik kaku^b,
ta gaixo zegona ark dizu sendatu.

Txakur txiki bat aurren genduan ekarri,
arratoi-saguemzat zala-ta ongarrri;
baiña oilloak ere zitun iguingarri,⁰
ta txarto^d zerabilzkin begitan azarri.

Nolatan utz-aziko joera gaizkia^e?
Tamalgarri* zitzaigun aitzurraz iltzia.
Ezin asmatuz bear zuen osakia^g,
andreak laster zion ar-azo onbidia.

Txakurra sartu zidan otzare¹¹ aundian,
bertatik asia zan txilio bizian;
oillo zar gero jar zion saietsian,
elkar onez artuko zutenen ustian.

Baiña, ez, etzan giro! Nolako burruka!
Jone-k oindio¹ kanpoz darabil bultzaka
barrukoak ondoxe¹ astin-azi naika,
eder ba litzakion barneko matraka.

Or duk or, txakur gaizto! Jarki zak oraintxe!
Ez al duk bear bada giro onik ortxe?
Len itukan aurrean oillo, txita ta aate,
ase adi or autzak betekatu arte!

Gure txakur txikiak azken-epai uste du.
Zer, zer izan duk ori! Nola aiz xuritu?
Norekin duk mokaka^k egin ain kementsu?
Zer egin leiza ortan? Irabazi, galdu?

* *Nere baserria*, 72-74 (B); PVV 17 (1983, 156.zenb.) 10 (A).

a ona *A* trebea; *b* *B* antxe du bertatik eskua *A* txakurra, ark eman zentzua; *c* iguingarri *A* mazkagarri; *d* txarto *A* gaizki; *e* gaizkia *A* gaizkiña; / Tamalgarri *A* errukarri; *g* osakia *A* osakia; *h* otzare *A* otzarre; *i* Jone-k oindio *A* Andreak oidik; *j* ondoxe *A* onginge; *k* mokaka *A* mokoka.

Ez, ez dizu geiago oillorik uxatzen,
lastertxu ikasi du aiskide izaten;
ez dizkigu geroztik oilloak kiñutzen,
eta are' gutxiago atzetik ekiten^m.

IGELAK

Geron esparru azpian
osin txikia dago,
ertzez ertz neurtu ezkero
beetik da zabalago.

Euria jaustean beti
kantuz dituzu igelak,
azke dituzte ta nasai
eztarriko ugelak.

Illargiak argitzean
badute arramantza,
ura goitik gaiñera
eroria ba litza.

Igel osin barrukoak,
ene igeltxo bizkorrak,
bota, bota atertu gabe
garraxi biozkorrak.

Nere laguntxo zerate
bei-zaiñean naizela,
ta maite zaituztet maite,
illargiak bezela,

Igel, igeltxo arreak,
kanta nere sortetxe
ondoan; ez aspertu, ez,
iñoiz! Jarrai olatxe!

Eman intziri ta oiur
eguna iratzartzean,
kanta eresi ta lelo
argia lokartzean.

Jo kanta samin artean,
jo kanta pozez ere...
Igel, igeltxo maiteok,
zaitzeze beti nere.

ZUGAITZ ARTEAN

Bero-galda dut-eta, noan basorantza,
besoz beso dudala Itzal begi-beltza;
askotan arrua dut nasai bere erlantza,
neke miñak biurtuz atsedean apatza.

Eliz dugu basoa —eskarien etxe—;
eskerga ta pinpirin, misterioz bete:
zugaitzak dira zutoin, txoriak joare,
ni jaupari arrotza ta besteak beste.

Nere basoak goitik errekastoa du
malda beera doana, polpolka, berritsu.
Bazter zoragarria-, dirudi gaztelu,
ille luzezko lamin maitagarritz zaltu.

Joria da oiana: ote txiki, txillar,
pago azal zurizka, kulubiz ta lizar...
Baso nasai jario, guztiz duzu zangar:
eun margozko miesa mguruan bakar.

Zugaitz adar makurrak, sasiak, arantzak,
aritz zaar, gorosti beltz, Iats ondoko altzak,
nereak ditut oso basoko zugaitzak;
begirale naike jo ez ditzan gaitzak.

Ondotan asko dauzka ene baso itsuak
ta ez ditut ikus nai bat ere galduak;
denak dira nereak, nik arretaz zainduak,
nere aurretikoak beñiola sartuak.

Nire aitak ba zuen ere landara gar:
ametz, ereiñotz, urki, agin ta gastigar,
izai, ezki ta intxusa, sarats, lertxun txapar,
eundaka jar zizkidan oianean azkar.

Zaarrak ordezkatzeko or dut muntegia,
egutera begira ertzean jarria;
urtero dut berritzen une berezia,
ugaltzeko darabilt ezkurtxo berria.

Pago ta aritz damaidate etekin ugari:
azpigarri orbela, ostoa janari;
zura bait dute iraunkor, urtero eurari
ateratzen diet nik ikatz berogarri.

Auetxek izan dira euskaldunen tantai,
eusko mendi osoa estaliz txit arrai;
bañia urteak dirala pipiak jo errai,
ta aizkora ta auts urdiña izan dute etsai.

Basoan daukat sail bat irabaz yaioa
damaiten aritz gorri ezin obekoa:
osto zabal mardula, ezkur gisakoa,
aitzur kirtentzat ere giar onekoa.

Artea berdin ostoz arrosko neguan,
zain lodi, mutur zorrotz, pendiz afritsuan;
pago saillak metroak dituzte inguruan,
arotzaren lan-maian lan-errez osuan.

Lur apo samarrean datorkit lizarra,
gurpillak moldatzeko egur bedegarra;
urkia eder duzu mendian bakarra...
Ezeren itzal gabe bai lerdan zumarra!

Argi zalea da altza, ur-ertzean zabal,
etzaio ez begiko abetxoan itzal;
zur ederreko dira arkazi ta makal,
ezkotsu dan lurtean aize-txeraz daldal.

Zugaitzotan garaien izan zan gaztaiña,
damurik eramana gaixoak aintziña;
zura zuan ederra, itzal, errekiña,
irail-otsail tartean azkurri bikaiña.

Ez al dute merezi —ken irri-lorea! —
gure zugaitz panpoxak txapela kentzea?
Nik orrela dagitzut, oi baso nerea!
erakutsiz zuri, Itzal!, ene lots-legea.

Or dut muiñoan polit ene bizitoki,
baiña biri-auspoak zuk ezarten garbi;
aizea duzu biran osasun izaki,
ta iñoiz atertzen ez dan soñua samurki.

Agurka naukazu gaur, ene baso kirmen;
itzala, zura, poza didazu ematen...
Euria ari denean adarrak dizditzen,
beroak kiskaltzean ezkoa gordetzen.

Mendi soil-gorrikoa latz idor izanik,
lur ori goxoago dala uste duta nik.
Leorra uxarazteko ez dugu zu lakorik,
nik maite zaitut maite, biotz biotzetik.

Barrenean lei dala zukan ezta izotzik,
negua izanda ere, ez dut emen otxik;
uda dala, ordea, aizea goxorik,
ene lan-izerdiari atsedan emanik.

Ondo dasa esakunak: «Baso ta ibaia, auzo;
au ez duen etxea egiz lander, gaizto».
Bego, beraz, betikoz jori ene baso,
uda-mdñeko sasoiz denontzat abaro,

G A R I I L L A

Bijoa zarra igeska
eta betor berri,
auxe duzu munduan
biziaren zori.

Lenago garia guk
ereiten soroan,
arez lurra ederki
gertatu ondoan.

Maitagarri nuen nik
soroan garia,
gaiñ-gaiñez zuelarik
bero eguzkia.

Dizdira zuen eder
ertzaren ertzean,
txindiaren goxoa
emanik barnean.

Egoaren indarrak
zerabilzkin urdin,
sorgiñaren gorputza
bezelatsu arin.

Iparrak zun iku len
oro kulunkatzen,
arnasa maitagarritz
dena bizi-azten.

Eztugu gaur garirik
kulunkaz soroan,
ezta ere txindirik
imurtziz golkoan.

Gaur lenaren zimikoz
sarri nabilkizu,
gariaren oroiak
udan nau zauritu.

01 LOAK

Goizetik soro lanera aurrean
atsegin zait gosaria,
zuri-gorringoz arraultz bikoitza
zartaian erregosia;
egundo ere ments ez dakidan
maratza dut emazia:
oillotokian onek beti du
oillo pillo errunlia.

Oilloak zaitu bear dituzu
asieratik aurrera,
lenengoz beti enda onean
egizu zeure aukera.
Oroi zu beti: ez egin, arren,
alperreko saiakera,
oillo txarrakin etor ez zaizun
txanpon urri sakelera.

Nere andreak ba dauzka naiko
enda oneko oilloak,
axola biziz esku-atsegin
unero zaindutakoak.
Estalpea du maiñaz egiña,
otak ere ikustekoak;
erdian leku oillo gorriak
eroso ibiltekoak.

Oillo jartzaille onak dizkigu
janak lasterxe ordaintzen,
ugari baita txanpon politak
arin dizkigu ekartzen:
arrautzak beraz osasunakin
sosa bait dute etxeratzen,
zaitu ditzagun poliki asko
oilloak etxean lerdin.

Azokan sarri gure arrautza
dute askotaz gurago,
soro ta zelai aurkitu jana
bazkatzen oi dutelako.
Udazkenean eta neguan
ortaz bai diru geiago
nere andreak arraultza gorritz
irrikoitsu oi du jaso.

Gure oilloak politak dira,
arraultz jartzaille bikaiñak;
ibilteko bi anka dituzte,
bi ego ere ariñak;
soiña ez aundi, ez eta txiki,
oso dituzu liraiñak.
eurai begira sarritan ditut
izan nere atsegiñak.

Geienik toki itxian euki
 oi ditu nere andreak,
 ingurumari baita noizikan
 ibiltzen dira azkeak,
 zelai-bazter ta sats pilloak
 azterkan zorrotz erpeak
 egundo ere akitu barik
 lanean geldi-gabeak.

Estalpe txairo itxitakoa
 ona duzu aukitzea,
 geiago baita iñolaz ere
 olakoan ematea;
 larogei edo, ta emazteak
 duan gure oillo taldea,
 ederra dala dirudi ontaz
 eukeratu zun endea.

Begira, otoi: batzuk dituzu
 buru lodi ta luzeak,
 gangarra makur, gorri kokotza,
 begiak bizi arreak,
 azkazal motzak, auts margoz lumak,
 anakak olako gabeak,
 lepoa lodi, iztarrak sendo:
 auek dira jartzailleak!

Gaur goizean sasteian dabiltz.
 Zertan? Jaki goxo billa.
 Ar ta xomorro, belar guriak,
 or da jateko bipilla,
 Oek bazkatzen duten oiena
 arraultz gorritan dabilla,
 ta auena duzu arraultz goxo:
 egi duzu biribilla.

Guk beintzat ortan, zuri ta gorri,
 pilloa dugu etxean,
 ta arraultz-opilla etzaigu palta
 ez goizez, ez illuntzean.
 Poliki daude gure oilloak,
 poliki asko atean;
 poliki daude baita barruan,
 kuluska goxoz otean.

BEIAK

Ez dut korta bete bei, bostekin nik naiko;
 eurok antz-eder, aski ditut esnerako:
 esne gurintsua bai dala sekulako
 jaki bizi-erazle da goi-baserriako.

Len txekorrak nituen urtean sei azten,
 orain esnera nago bei auekin zuzen:
 urbiltxo dut erria, an esnea saltzen,
 irabazi polita didate eskuratzen.

Kanora-antz bikaiña dute gure beiak,
axolaz bazkaturik baitira guztiak,
belar-pentsuz dauzkate aska ta gairdiak
eguerdi, gau ta goiz ederki orniak.

Berriak atzeman naiz zarrak aldatzean,
zuurki jokatu bear saleros-uean:
beirik aundienak ez izan geienean
ugari ta joritsu esnea jeiztean.

Nola daiteke igarri beia dan esnetsu?
Beiak, nolako enda alako kira du,
bairña etzaitzez ortan geiegi fidatu,
bei-enda asok errez iruzurtzen zaitu,

Bei guri biribilla ez duzu esnekoi,
orri jaten dun oro aragi eiten oi,
esnetsuari soiña ikusten zaio doi, [idoi.
gantz-bilgorrik ez dauka, baizik esne-

Nere bost beiak gtiztiz dirade bakanak:
begiratu biziko, xamur ta otzanak,
ondora urbiltzen aise uzten didatenak,
belaun-beera buztan mee luzea dutenak,

Gozo, zume xamarra daukate azala,
lasaia, liñabera bai litzan bezala,
Bular-estuak obe sarritan dirala?
Sendoago deritzait bularpe zabala,

Errape txit borobil egoki egiñak
ditut nik erazteko arras atsegiñak;
erro azalak bear dute izan bigniñak,
sabel alde doazten aundi urdiñak.

Bei esnetsuen iztar ingurua oro,
ille txikiz betea bear du izan oso;
esne gabeak orde ez du onelako,
ille luze zakarra dizu eskeiñiko.

Bei onak bear ditu txuri motz adarrak,
kozkor gaberik erro ta titi muturrak,
ille goxoz beterik barrengo iztarrak,
olako beiak ez dira esne iturri txarrak.

Ene bost bei zangarrak, ene irabazpide,
Txuri, Gorri, Apala, Nabar ta Gorride,
zuekin aspaldian naiz txit adiskide,
zuen begitua zait ziñetan pozbide.

Udazken eguerdiz zelaian biribil,
nolako itxura duten ene beiak pipil!
Eguzkiak birea zeruan darabil,
gure bost beiak poza bizkarrean zintzil.

MAITEA KANTA-GAI

Nere maitea langille
 beti daukat nik etxean,
 bera langorik ezin idoro
 naiz-ta ibilli garatzean;
 biotza dizu eskerga,
 nagirik ez du soñean.

Ezkondu nintzan egunez
 etxera nuen zoria:
 begiak ditu argi-ñirñirka,
 aoak dixur ezta;
 etxean dut abaraska,
 bai eta bizitz-argia.

Iru aurtxo dizkit eman,
 beste ainbat ekarriko;
 ez dut ortikan sabel irendu,
 ezta ere sein-gabeko:
 ziur aski nik ez dut nai
 idor danik neretako,

Osorik nai du besarka
 aberats-iturri dana,
 ortako badu zentzu zolia
 umetan artu zuana;
 arlo oituan dabil eta
 pozik dagi bere lana.

Begira: mundu osoa
 maitezko sutan daukazu,
 maitasunak du dena neurtzen,
 asko diranak giltzatu,
 dardaraz giza-barnean
 oztik dagona kaldatau.

Bakarrik nabil lanean?
 Otoz-otoan datorkit
 gogapen aJai: nere maitea
 urbiJ dudala dirudit;
 onek ziurki goiz ta arrats
 arnas berri damakit.

Aren oroiz dena dakust
 ederrez kuin-kuin jantzia,
 etxe barru ta etxetik kanpo
 iruditzen zait guztia
 artzeko deiez daukadan
 sagasti igalez zuria.

Maitearen besarkadan
 —suzko lokarri leunean—
 guztia digart loretu naiez
 udaberri esnatzean,
 baita neguak jelaren
 arnas itsa bialtzean.

Besarka orren beroa
 altsua baita ziurki:
 umeak irri, oianak txalo,
 kortako txalak ikoti...
 Nik ere diardut pozik
 lanari lotuz osoki.

Bego bai etxe alde
 lorez loratan lertzer!
 Aur ta emazte beti aurrera
 etxeko zaindari eder:
 gure maitasun giroa
 ezpei iñoiz ere soil, alper!

LAN ETA LAN

Indarrak badu berea dun lana,
 gauza astunak jasotzea:
 arri bat gora indarka jaurtiz,
 gorantza du joerea...
 Gorengo maillan xixtua amaituz.
 utzi oi dizu igotea,
 ta berriz ere beerantza dizu
 bere b;rezko jotzea,

Guk, baserrian, indar dagigu
 jardunik denok lanean...
 Geure kemenak bata bestekin
 uztartuz egin-alean,
 sendi osoko aurrera naia
 atondurik ein berean,
 senar-emazte ta ume txikiak
 orobat goaz bidean.

Uztaillez goitik dabil euzkia,
 gu ere lanez goi-goitik:
 landa-muiñoak belarrez daude
 beren emaitzak oparik,
 ni erne nabil sega-tresnakin
 al dena mandioturik,
 edo-ta muna ertzetan tente
 meta txuntxurak egiñik.

Guriño dagoz arto-alorrak;
 bigarren aldiz jorratu
 bearra dute; nik, lanpetua,
 ezin atsedetik artu...
 Sustrai ondora lurra ekarri,
 belar gaizkiñak uxatu...
 Gogo ta era apur batekin
 oro dut laster gainditu.

Eidu zaizkidan lur-sagar goizak
 bearrezko zait atera,
 ta esku goxoz lur-zaflak kenduz
 bizkor eman legorpera.
 Ale umotuak bear dituzu
 saskiz eraman etxera,
 berakatz eta kipulak berdin
 bilduko nik idorrera.

Ur-eske dauzkat piper, tomate,
 uraza ta baina aldakak;
 goiz-illuntzetan alai dituzte
 artzen nere ur-parrastak;
 ortako ditut gomazko ziri
 biurkor luze bakanak,
 jolaska legez arlo aundia
 ureztatzen didatenak.

Ardura xamur zaitu dezadan
 nere etxalde borobilla,
 orla neguan ez naiz joango
 auzora bizikai billa.
 Etxe ostean duzu baratza
 azoka zelai sotilla,
 bai eta ere urte barruan
 nitzat lan-leku ez illa.

ENE POTXOLO

Gure potxolo,
gure maitea,
oso gaitugu geurea.
Lotan zaudela
dira eztiak
aingeru orren begiak.

Orain gau da-ta,
egin zuk lo, lo,
geure begien potxolo.
Ama ta biok
alboan gagoz
zu bete nairik pa goxoz.

Ezpain ertzean
irri lorea
nola daukazu, maitea!
Zeure ankatxu
zuri txikiak
dabiltzuz goxo biziak.

Soin txiki ortan
maitez beiñola
ezar genizun odola;
geurea zera
oso geroztik:
ez dizut, laztan, gezurrik.

Geure potxolo,
geure maitea,
oso zaitugu geurea.
Lotan zaudela
dira eztiak
aingeru orren begiak.

ERLEAK

Eder artean eder ditugu
etxe aldean erliak...
Zer-nai ordutan gozatzen gaitu
urre dirudin eztiak,
mamutz txikiak joran gartsuan
osa oi duten gorriak.

Oroi dudala, aspaldi danik
dugu guk erletegia,
egutera so, muiño ertzean
gure aitonak jarria:
urtero bertan jasoten dugu
upeltxo bete eztia,

Lau erlauntz ditut, laurak berdiñak,
Ango iskanbilla unero!
Zoraturikan egon oi naizu
tinkorik bertan goizero!
Jarraibidea damakigute
guk ikasi nai ezkeru.

Irutariko erleak dauzka
erlauntzak bere barnean:
batzuk leiatsu —nolako auna! —
beti dabiltza lanean;
erle-mandoak ez dagi ezer,
erregiña aur-giñean.

Erla-emea bakarra duzu,
 ego-motz ta sabel-luze;
 zakarra duzu erle-mandoa,
 langille txikik naibeste,
 ogei bat milla erlauntz batean
 ba dituzu batez beste.

Bakoitzak ditu bere izkilluak:
 langilleak du eztena,
 norbaiti sartzen ba dio ezin
 iñolaz ere atera,
 eta azkenik erioak dizu
 eraman gaitz-itzalera.

Erla-emeak miztoa dizu,
 baiña kakorik gabea,
 iñori sartu ezkerero ere
 errez du ateratzea;
 erle-nagiak ez du izpirik
 ez du pozoikor ziztea.

Erle-alperrak bizi osoan •
 ez digu lanik egiten;
 ta erregiña bere arloan
 zaizu bakarrik saiatzen;
 ari eta ari, urte luzeetan
 arraultzak dizkigu jartzen.

Langilletatik sail batek digu
 erregiñea zainduko;
 batek atea, bestetzuk dute
 lore-autsa ekarriko;
 besteak, berriz, leia bizitan
 ura dekarte eztirako.

Eguzkitara dauzkat erlauntzak;
 bero aundia danean,
 aize-emaka dituzu batzuk
 erlauntz-ataka aurrean,
 ola-gizonak diruditela
 izerdiz auspo lanean.

Ezautzen naute? Ez dakit. Baiña,
 ez ditut iñoiz uxatzen;
 uda ta negu, bear danean,
 naiz urbil xamar ibiltzen;
 alarik ere, nausi zurrian,
 ez naute iñoiz eztentzen.

Erlauntz urrean uxa ezkerero,
 bizi-sumin dira jartzen,
 eta geingoan oartu gabe
 miztoz zaituzte ziztazen;
 osterantzean pake-zaleak
 zaizkit unoro izaten.

Eztia atera gura ba diet,
 pekorotz errez nik ketzean;
 zorabioan sartu ezkerero,
 bat-batcz dira lelotzen,
 eta ezeren arrisku gabe
 eztia diet lapurtzen.

Nere erlauntzak iruna egoiz
 dituzte: or lantegia
 erregiñak du oroz aurrena,
 or gero ezti-tokia;
 erregiña ara sartu ez dedin
 erdian du sare itxia.

Sare ortatik —oi jakituri! —
 erle-langillak dira pasatzen,
 ez erregiña, aundia baita,
 ez zaizu ortik aratzen;
 kartzelan dagi bere bearra,
 iñoiz ez dala aspertzen.

Ene erle-mu!ko! Sortaldera du
 bere urrezko lantegi!
 Goizez goiztik du geienetan, bai,
 erraiñu-jaurtika euzki:
 isla dirudi ekuru gabe,
 beroakin naste argi.

Goxo-goxoro daude erleak
 argi-izpitan egabera;
 goiztar epela arnas ondoren
 denak dagite lanera,
 egun osoan —oi gizon alper! —
 izanik leia berbera.

Uri langille, pare gabea,
 ez duzu emen nagirik,
 erle-mandoak mokoka laster
 ildakoak izan ezik:
 gizakiontzat ba dugu emen
 ikaskai guen ederrik!

Iraillez diet nik ateratzen
 erraian duten ezta;
 ez diet, baiña, osorik kentzen
 duten ezti orrazia,
 neguan ere izan dezaten
 bear duten janaria.

Izaki pitin, erle maiteak!
 poza zerate neretzat.
 Egin arloan eredugarri
 zaudete beti guretzat.
 Zuok goretsi naiean dut nik
 bukatzen ez dan kanta bat.

UDAZKEN

*«Urrilla atxeratit ezkeru,
udazkena koiko zabal etxe aurrean
dogu. Artotzak eta bedartzak,
sabaira etorri gurarik.
Baserritarra wduri dabil:
solora ta basora, andik ona,
au ekarri, bestea eroan,
burdian eta b'zkar gancan,
iia ta orbelak azpigarri,
barazki ta igaliak
eskatzaren pozgarri».*

MENDIKO ALAITASUNA

*Mendi ganetik ikusten dira
zugazti, landa, zelaiak,
basetxe zuri, baratza eder,
errekak eta ibaiak,
Mendian dagoz eguzki argi
ta etxe osasungarriak,
biriak garbi erabilteko
iñtm baño be obiak.*

*Txoriak euren abes ederrez
baso ta mendi, goi ta be,
zekor, bei ta txal, bior ta moxal.
ardi ta bildots baitabe,
euren arran ta txilin-soñuan
orrua, irrintz, bee ta bee...
Ludian danik eresi soñu
ederrena sortzen dabe.*

*Iñora baño len agertzen da
 egazkia be mendira;
 txori-abesti eztsuenak
 mendian entzuten dira.
 Euskara zarra mendian dago,
 Jaungoikoari begira.
 Mendian dagon alaitasunaz,
 mendi-mutillok, nun dira?*

K. Enbeita

NEREA DA

Lur-azal ditut bi belarriak
 zerbait aditu naiean;
 meatz intzira dantzut gogotik
 lurraren sabel barnean,
 ta ura darion sorburu leuna
 asper gabeko aidan,
 lertu-bearrez arri ta sustrai
 bakoitza bere otsean...

Aritz buruan txoriak kanta,
 baso piztiak oiua,
 berderik zaigu negu ostean
 zumar-altzaren kimua,
 bat-batean da belarra erne
 eldurik bere ordua,
 gazteak ere biotza malutz
 erauzi dute ujua.

Ibar ta mendi, arkaitz zerrenda,
 eremuko lur elkorra,
 ola ta etxe, baserri zuri,
 zelaietan zoar txekorra.
 Kantauri ere, erraldoi belatz,
 gure lantegi, alorra:
 guzti au dugu Jaunak emanik
 euskaldunaren altxorra.

Euskaldun jator, goral ezazu
 duzun aintzazko zoria;
 arri airoan emen ziñan zu,
 auxe zure lur-aldia,
 geroztik ere gurbilki asko
 —lurrari kenduz ogia—
 ementxe duzu menderik mende
 igaro zeure bizia.

Etsairik naiko izan dituzu
 orain bezela lenago:
 erromatarrak onera ziran
 zuri bizkarra mozteko,
 iber, arabe, godu ta izurri
 el zitzaizkizun guztizko;
 anai arteko liskar zitalak
 ondatu zindun geroko.

Zuk ala ere dirauzu gordin,
 ez duzu gogo ilterik;
 ekaitz ostean lañoz ase
 dirdir dagizu eguzkik,
 orobat, ene aberri maite,
 zaitut arnaska oraindik,
 be^oak zabal, emakor beti,
 ainitz urtez bizi nairik.

Zukin dauzkozu nere abenda
indartsuaren orriak,
egite zintzo, oitura garbi
armarrian idatziak:
egintari ta jakintsu aundi
—ez dira ezetsiak—;
oien izenez daude jantzita
euskaldun erri ta uriak.

Mendi-mazelak, aran ondoak
—zer ez al duzu auzoan?—
gertaera ta gomutagarritz
gaiñezka dira osoan.
Bear bezela gure edestia
t'odola osatzekoan,
ori da sartzen aberriaren
abots-eresi goxoan,

Gure musika, euskal kantagai,
mintzaera, esan ñabar,
Jainko ta lege, odol-izan sotiJ,
aurretikoen dantza zar,
asaben lurra —izerdiz ordi—,
oro nai, kemen ta suar:
gure aberri izamen onek
dagi euskalduna zangar.

Gaur, ene erria!, eskubidez aul,
erdi itorik zakustaz,
txit eroria fedez ta legez,
izkuntza, jolas, oituraz.
Baiña nai dizut muiñean ixur
—ene baserri kemenaz—
izate barne zindo dakartan
bizi-lera, euskal arnas,

GAUDEN OSASUNTSU

Euskal lurreko giza-semea
egiz dugu eragille,
naiz baserrian, naiz-ta kalean
beti dabiJtzu langille;
—eta pozarren, pozarren,
ardoa edaten—,
beti dabiltzu kngille.

Euskalduna bai jatun galanta
eta edale obia,
baiña urdailla laster gaixotzen
ipiñi ezik neurria;
—eta pozarren, pozarren,
nrdoa edaten—,
ipiñi ezik neurria.

Arrasti beeran, min-oñazetan
ba zabiltzate gogo-txar,
barne zaizute jan-edanaren
samiña puztu ez kaxkar;
—eta pozarren, pozarren,
ardoa edaten—,
samiña puztu ez kaxkar.

Euskaldun denok gera ziuarki
ederto jaten dugunak,
eta jaietan —nork guri uka?—
maite ditugu lagunak;
—eta pozarren, pozarren,
ardoa edaten—,
maite ditugu lagunak.

Euskal errian iñon ez beste
dabilta urdaillez gaizki;
gaitz onen erruz amaika doaz
illobira ere noski;
—eta pozarren, pozarren,
ardoa edaten—,
illobira ere noski.

Urdailla dugu eio makiña
beti lanari lotuan,
jan-edariaz lar zanpaz gero
gaizki lebilke eiuan;
—eta pozarren, pozarren,
ardoa edaten—,
gaizki lebilke eiuan.

Gabiltzan beti errazoi bidez,
jan-edanean neurritsu;
barneko gaitzak aienatzeko
dezagun buruz jokatu;
—eta pozarren, pozarren,
ardoa edaten—,
dezagun buruz jokatu.

Neurritz jan-edan ezkeru —jakin! —
ernego zerala soñez,
zernaitan lerden ari izateko
obe zaizu gutxi janez;
—eta pozarren, pozarren,
ardoa edaten—,
obe zaizu gutxi janez,

Indarra dizu oiturak ere,
arritzekoa ez zaizu:
iñor jatunik ba dugu biran
gu ere gaitu zaletu;
—eta pozarren, pozarren,
ardoa edaten—,
gu ere gaitu zaletu.

Bazkal ondoan uda ta negu
loaren pixkat dut artzen;
onek dit berriz lanaren griña
barruan neri pizkortzen;
—eta pozarren, pozarren,
ardoa edaten—,
barruan neri pizkortzen.

Euskal erriko langille orok
soiña bear du kementsu,
jan-edanean neurri doi-doia,
atsedenan berdintsu;
—eta pozarren, pozarren,
ardoa edaten—,
atsedenean berdintsu.

TXAKOLINA

Biotza dabilkit arin,
egazka balitz egaztin:
kanta zarrak dio ederki: «Txakolin eta txakolin!,
atsegin aundiz edanda, txakotiñak dit on egin»,

Txakolin zalea nauzu,
adiskide amorratu;
bazkal aurrean dut edaten, janariz ere urrupatu,
edari bizi au etzait iñoiz etxean faltatu.

Badira maasti ta ardantzak
aien ta ostoz aratzak,
laborari onak egiñik maiztxo izerdi azantzak,
sail-lerro pixuz zanpatu, naiz eta izan zalantzak.

Nik ere badut nereaa,
eguzkira beti bea;
samur dio agutaizeak eman arnas emea,
eta urrillez pozik diot eskatzen mordo betea.

Ari askotarik daukat
zuri, beltz eta gorrixkak:
ezpaitira ere Naparru-n bezin guri-garaienak,
bai bederen iñungori zorrikan ez diotenak.

Bada ardoa Naparra-n,
baita Baigorri ta Araba'n
baiña txakolin ezin-obe Bizkai-ko Kantauri mugan,
esku goxoz landutako egutera pendizetan,

Olaxe dut nik maastia,
arri >a sasiz garbia,
pizti-etsaien aurkalari inguruan du esia,
abe txiki ta zugazñoiz itzul-inguru ertsia.

Zarautz, Getari, Orio,
Ondarru, Luiu, Bakio
txit dirak txakolintegi dionak egia dio;
nereak zorrikan iñori ez, orraitio.

Badu aiotzJanik naiko,
urte barruz osatzeko;
aien alper ausartak aiotz makurrez ebakitzeko,
lerro bitarte medarrak lur arrotan eukitzeko.

Gero ongarritu ederki,
zomorroz zaitu osoki,
azufre dute mazkaltzen zaindu gabeko maastiak:
mildiu, txakarmalua agertu aurrez erauzi,

Baita usteldura zuriak
ta zizari urdin jantziak
osotoro dute mazkaltzen zaindu gabeko maastiak:
maasti emankorrek bear ditu lei-antsi zoliak.

Goitik datorkit euria,
goitik eguzki zutia,
biok dute lurra pizkortzen eman-aziz janaria,
biok orditzen didate bero ta ezoz maastia.

Maiz txakolin bearrean
nekazaria etxean...
Zergatik ez digu, ba, toki babes, aldapa barnean
maatsondo sail bat landatzen uda-goiena eltzean?

Orrela egin nuen nik,
eta aspalditxoan danik
urrillez egin txakoliñez eztarria lagundurik,
lanari ekin oi diot, nekatu arren, alairik.

Udazkenez, leia gartsuan,
gabiltza gu maats bilduan;
ego aize epelez goaz otar ta guraizak eskuan...
Gure poz-jario ziñez morda saillak batzorduan!

Prest dauzkagu maats usulak,
prest baita tolare tresnak;
zapal-opillez trinkaturik ale anpatu gurenak,
or azaltzen dizkigute beuren gilborño gardenak.

Lan atsegiña dagit nik,
aurrak ere lagundurik...
Uztaillez izango dut, gero, edateko txakoliñik,
neke-lorra Bakotiar odol gorritz gozaturik.

UK LLUAK

Nekazariai noiznai
gozagaitz bezaie
oizko egoitz dutena,
ctxe ta lurralde,
loi-zulo eukitea,
zikiña ez beste,
zar kolargazko pilla
korta ta suete:
gabiltzan arazo ontan
aldioro erne.

Kortak leio gabarik
ez izan doituak,
kaltekor bait dituzu
aizege lekuak;
nik ormetan iriki
dkut argitsuak,
egun onez zabalik
txarrez ixtekuak:
orrela dira, egiz,
ene ukulluak.

Etxe biran guztia,
zoko bazterrak garbi;
ukulu abereak
bear dute argi,
azpi ta gaifiez dena
ganadu bizitoki
ederki aizeturik
bear dugu euki:
arduraz txukunduta
sapai ta ardoki.

Sats-kea ez bait da ona,
ez, abereentzako,
aspaldian dauzkat nik
bi metatan tinko
simaur mulko galantak
ukullurik kanpo;
abere atsa ere
kirats duzu oso:
beude, bada, zabalik
maiz ate ta leio.

IPURTARGI ORDEZ

Bakoitzaren zoriona
zer nori dagokiona,
ezpei iñoiz izan, otoi, norberari
egoki deritzaiona.

Gure asabak aintziña
arpetan bai atsegiña!
ar-olio gero, eta krisaillua,
bai aiek argigai fiña!

Zeru goietan izarra
beti dabiltzu edarra...
gizonak badu adimen argia,
baita soiñean indarra.

Tresna maskarrak egitan?
Baiña aiekin zeuden pozikan,
etzuten besterik millaka urteetan,
arraiea!, bearizan.

Gaur ordea nola goaz
aurrera! Argi sendoaz
uriak daude eguzki gisako,
dendak dirdir eun margoaz.

Lengo ipurtargi ordez
nik ere argontzi betez
daukat neronen etxe-bira bazter.
Sorgiña dirudi ziñez!

Olan gaiñera —nork uka?—
eletzia ona baita,
ezusteko suz arrisku gutxigo
gure baztertxo onek dauka.

Bikain aizatzen dizkigu
zoko illun-adarrak usu,
eguna laingo jarritz argi-dirdai
sukalde, sapa ta ikullu,

O milla bider zuntzunak
ortan bat ez datoztenak!
Lur-azpian dart dagite oindio
edu ortan uste dutenak.

Arin dabil berebizko
arian indarra tinko,
eta argontzia daramakit beingoz
su dizdizariak meiko.

Arriskuk ere dituna
badazaut; sendotasuna
zaitu bear dut —ez nadin ezaxol—
gal ez daidan osasuna.

Aria ba zait apurtu,
oin-legor nik moldaztatu:
lur bustian ez tximi'st-mutur biri
batera ezorik iku.

Iñoiz eskorta barruan
aririk izan dut suan;
sarreran diot muturra ebaki
ta zait itzali usuan.

Lendik nolako aldea!
Irrati eta plantxea,
telebixta, garbigaillu ta tresna
indar bidez guk betea.

Ortzian izarra garden,
gurean argia lerdin:
baserria onek dagigu pozkor,
oro lan-zale egiten.

Oi asmatzaille guren, zu
gogoangarri zaitugu;
menderik mende zu goretz bearrez
iñoiz ezin gu aspertu.

POZ - ARINDUZ

Nere anima, goretzazu Jauna!
gutziz aundi zaitut, ene Jaun eta Jainkoa!
Aundi ta eder zaude jantzia,
estalki duzu argia.

Ortzia okl-txabola bezela zabaldu duzu,
zure egoitzak ur-gaiñean eraiki dituzu.

Odeiak ezarri dituzu gurditzat,
 aizean egaletan zabilta.
 Aizeak dituzu aurretik Zu iragartzeko,
 su bizkorrak zure zerbitzuko.

Ezarri duzu lurra bere orpoetan,
 ez da kolokatuko menderen mende-
 Itxasoz bildu duzu soñeko gisan, [tan.
 urak mendi gaiñean kokatu ziran.

Zure zemaz joan ziran iges,
 izutu ziren Zuk ostots egiñez,
 Joan ziren mendietan gora, ibarretan bera,
 Zuk eman zenien tokira.
 Muga ipiñi diezu igaro ez dezaten,
 berriro lurra estali ez dezaten.

Ibaiak sortu dituzu iturrietatik,
 eta xirripan doaz mendi artetik.
 Basa-pizti guztiei ura die ematen,
 basastoei ere, egaria il dezaten,
 Zeruko egaztiak bizi dira ur-ondoetan,
 ematen dituzte beren txioak muskilletan.

Mendiak zure egoitzatik ureztatzen dituzu,
 lurra zure eskuko emariz asetzen duzu.
 Sortzen duzu belarra abereentzat,
 landarea gizonarentzat;
 atera dezala lurretik ogia.
 giza-biotzarentzat ardo alaigarria;
 aurpegia olioiz legundu dezan,
 ogiak giza-biotza zuzpeltu dezan.

Atseden dira Jaunaren zugatzak,
 Ark landaturiko Liban-go izaiak.
 Aietan egiten dute kabi egaztiak,
 aien adaburuetan du etxe amiamokoak.
 Mendi garaiak basauntzendako,
 arkaitzak azkonarren zulutako.

Illargia egin duzu noizaldia mugatzeko,
 eguzkiak ordua badaki sartzeko.
 Zuk illuna egin eta gaua sortzean,
 an dabilta basa-piztiak arontz-onontzean.
 Leoikumeak orroka eize-billa,
 Jainkoari eskatzen diote beren jakia.

Eguzkia sortzean badoaz iges,
beren gordelekuetan dira etzaten.
Irtetzen da gizona bere lanera,
bere arlora, goizetik arratsera.
Bai ugari direla Zuk egiñak, Jauna,
zugurtasunez egiñak zearo,
lurra zure sorkariz batea dago.

Itxaso aundi zabal ortan narraziak ugari,
bizidun txiki ta aundi.
Badabilta itxasontziak ortik ara,
Lebiatan zuk egin duzu ango jostagarri dala.

Guzti oiek begira dauzkazu,
garai onez jana eman dezaiezun.
Zuk emanik artzen dute,
Zuk eskua zabalduz onez aserik daude,

Aurpegia gordetzen baduzu, ikara dira,
arnasa kentzen badiezu, iltzen,
beren autsera biurtzen.
Izanik daude zure arnasa bialtzen baduzu,
lur-azala berrierazten duzu.

Bedi Jaunaren ospea sekuletan,
poztu bedi Jauna Berak egiñetan
Lurrari begiratzen badio, au ikaratzen,
mendiak ikutzen ditu, ta kea sortzen.

Eresi egingo diot Jaunari, bizi naizeizño,
goratarre nere Jainkoari, ni naizeizño
Bekio atsegingarri nere leloa,
nere poza da Jainkoa.

Itzali bitez ogendariak lurretik,
ez bedi gaiztorik gaurtik aurrera.
Nere anima, goretsazu Jauna! .

G A R B I K E T A N

Txoriak kantatzen zuen
goizean goizean,
Jone kantari zegon
ereñotz ostean.

Astero oi zun egin
erropa garbitze;
auzoko ur-askatxoan
arek lana merke.

Oial, jantzi meetxoak
eskuz igurtzika,
ta zapi koipetsuak
tiñan beratuka.

Lixiba lanerako
eunak tiñan sartzen,
gaiñetik miesa bat
eta autsa zabaltzen,

Ur irakiña gero
ematen autsari,
nola baratze-zaiñak
kortaitza lurrari,

Ur onek auts arteko
karea dizu urtu,
ta loi artera jatsiz
zikin dena kendu.

Au lenago genuen
gizalditan zear,
gaur-egunean ez da
olakorik bear.

Gaur arago bearrez
gabiltz, biotz-dardar,
ta garbigailluak or
denerako amar.

Gure Jone geroztik
ementxe daukagu,
garbiketak egiñaz
etxean gogotsu.

Txoriak du abesten
lizarraren puntan,
Jone-k ere darabil
kantua gogotan.

Bebilkit orrelaxe
pozik eta Ierden,
aurrai ta neri nainoz
laguntza ematen.

M A I T E Z A I T U T

Etze osteko geiziak
orizka ditu orriak,
urrillak oro digu marguldu:
goietan mendiak,

zingira ertzetan ziiak
usan belarño guriak:
nik ala ere ez nuke opa
uzterik biziak.

Txoriak dabiltz urduri
 kuku egiten neguri,
 ipar dan otza aldiz lagarik
 Afrika dute uri,
 zati baten egoitz guri,
 ausarti ta mutur-zuri:
 alda-irritsik etzaiku erne
 oraindio guri.

Iritxirikan urrilla
 goizegi xamar otzilla,
 egazti saillak doaz urruti
 giroaren billa,
 an utzirik ipar illa
 elur-aizetan zurbilla:
 nik ala ere, sukalde Jaztan,
 zu zaitut pozkill.

Beerantza dator artzaia
 utzirik goiko sarioa,
 bisutsak baitu dena biurtzen,
 oraindik sasoi
 izan ezta ere garaia,
 negua dabil ernaia:
 ni berriz emen, naizta zearrak
 zakar jo eztaia.

Bebiltza besteak ibil,
 jan eta edan biribil,
 sabela plin-plin, ñarñar begiak,
 bi oifiak kolokil!,
 lanerako zurruna ta il,
 bizkarrean zapal-makil:
 ni nabilkezu, lanari joa,
 etxe ingurun bipil.

Make zaitut, oi baserri,
 jaiotetxe zoragarri!
 Zugandik alde, ai!, nintzanetan
 zure oroiz larri
 —zindudan ain maitagarri-
 ez nuen ezer atsegarri;
 ementxe zure naia betetu,
 zitzaidan pozgarri.

Bijoaz egaz txoriak,
 bebiltza saJdoka antsiak;
 nik ez dut gogo euzkirik urrun,
 nere baserriak
 aski ditu bero-izpiak,
 erakar zantzuz jantziak;
 zu ta ni etxe, bat-bat gaituzu
 bizi-naiez josiak.

IZENA

Iru muskilño dauzkat nere kabi maitean,
 irurak ditut laztan iñortxok ez bestean:
 batak du begi goxo, besteak muxu gorri,
 irugarrenak dizu iruditzen ozkorri.

Jaioberri zirala bataio egunean,
 altxa nitun irurak euskaldun izenean.
 Bertatik begi-samur ezpaneaz naiz miingaiñez
 euslceraz asi ziran aita ta amari deiez.

Aita ta araa langorik samurra dan izenik
ez dugu oraindikan ezagutzen solasik.
Azi ta indartu beitez amaren besoetan
euskal izkera dutela maozko ezpaitan.

Maite sua biori digute maiz azaltzen,
arnak die irakatsi Goiko Jauna otoizten:
lur-aitamak gara gu, goian egizko Aita;
aurrak bion izenak, euskeraz eder baita.

Zentzunak garamazki bide ortatik zear,
bakoitzari berea bear diogu ezar;
egoki datorkion izenez dago dana,
nik ere aurrari euskaldun izen bana.

Gure seme-alabak beude bai euskaldun.
bestela neu nintzake gaitz orren errudun;
aurrak sortu daneko du bere aberria,
gureak odola be geuk biok ezarria.

Duten bizi-ixurki guk diegu oretu,
giza-miñetan ere nai gintuzke lagundu:
ez dut bide leunik nai; gurasoen katea
ez bedi zabarkeriz eten, edo ta xea.

Txiki auen naigabez naizu naigabetuko,
dituzten egarriak naute egarrituko;
Jainkoa ta erria diet ziñez erakutsiko,
nere etxeko arriok bitez ortan lekuko.

ZUGATZAK INGURUAN

Norbere lurra —gizalege da—
arretaz dugu jagoten:
aita-amagandik erentzi utsez
artua dut nik gozatzen:

etxe-bazter au muiño gaiñean
aurrekoak jaso zuten:
osorik dut nik aiek jaikia,
etxe, mendi ta lur lerdan.

Erentzi ori nekazariak
 kontuz sorosi bear du,
 odol-katea eluke egundo
 zikiñez bear erdoitu;
 euskal bazterra, zuri ta eder,
 ibar ta troka inguru,
 begi-niniak, biotz-ondoak
 dizkigu beti alaitu.

Baserriari jasik onena
 zugaitz ezeak damaio,
 ugazabaren ardura fiña
 ortan ongi datorkio:
 sagar, madari, maats, melokotoi,
 ur, piko ta marabio
 biran ditula, euskal etxea
 nori eder ez dakio?

Zugatzok berriz ekarkor dira,
 pixkat saiatuz gero;
 alc ederrik badut nik beintzat
 maiatz azkena ezker:
 gerizak gorri —aurtxoak aiña—,
 aranak ori, urtero;
 uda eltzean, sagar, madari
 jateko dut goizero.

\^Tola dirade nere aurtxoak
 ainbestetan muxu gorri?
 Zerk uste duzu, igalik ezik,
 eman diotela ori?
 Osasun margoiz borbor badira
 ez die zorrik iñori:
 bai orde unero irensten duten
 sagar, madari ta ikori.

Nik beraz nitun arras ugari
 igali zugaitzak jarri,
 ingurumari ondo aitzurtu,
 simaur, ote, eman ongarri,
 uxaraz baita zenbait zomorro
 ta zizari kaltegarri;
 orla didate otarka legez
 jan-ale emea ekarri.

Euskal errian lenago artan
 gure baserri bakoitzak
 landatzen zitun inguru bira
 ainbat motako zugaitzak;
 aspaldi, baiña, dagona kendu
 ta zabarrak, oarkaitzak
 izan zaizkigu, tamal aunditan,
 lur-langille neke-gaitzak,

Dirua gura? Eraman txairo
 azokara otar mean
 anpolai gorri, aran oriak
 ta bruñoiak uztaillean;
 iransagarrak, ur eta intxaurrak,
 udareak iraillean,
 sagar, mizperak, eta maats-mordoak
 txiki ta aundi urrillean.

Eperrak kanta soroan xotil,
 zugaitzak itzal etxean,
 eguzki antzo irripar berriz
 igoz bete danean.
 Ni ere berdin ager naktion
 Goiari egin-alean
 tantai antzeko gaiñez dudaJa
 ezker ona biotzean.

Orrez gaiñera izadiari
 nik orobat lagundurik,
 jantzi ditzadan etxe iguruak
 landare berriz gogotik;
 negu eltzean ola izango dut
 jateko ale fruturik,
 eta umetxoak —iru larrosak—
 masailak oso gorririk.

B AUNTZ

Maitez, adiguritsu
 esan zidan Jone-k:
 —«Patxi, auntzik nai ote?»—
 Bertatik neronek:
 —«Pizti egoki autak
 al dituzan oiek?»—
 Zaindu ezkeru baietz
 esaustan emaztek.

Geroztik, bada, bi auntz
 dauzkagu ukulluan.
 Bizar luze ta anka mei
 itxura ez dute noski
 bertxiña lekuan.
 Legeak beren aurka
 dira liburuan,
 zugaitzak orzka lertzen
 dituztelakuan.

Zergaitik ez dituzu
 lokiz ondo eratzen?
 Auntza etxe inguruan
 txiroen bai omen,
 bi-iru buru edonork
 bear lituzke etxen:
 ona lekarkioke,
 irabazi lerdan.

Auntzarentzat eder da
 jan-bazka zernaiko,
 abe, orri, ta ota,
 sasi-kimu trinko...
 Zai-zukua neguan
 ederki datorko;
 garbi ez danik, baiña,
 ez dizu irentsiko.

Emakor, sendo duzu
 auntza sarobean,
 esne osasuntsu du
 errape leunean.
 Ume, gazte naiz zartxo
 gaixorik etxean?
 Auntz-esnea bai duzu
 onenik arean.

Ekarle da osorik:
 aumeak erditzen,
 urte-buruz lauraiño
 sarri ditu izaten.
 Ez du lan aundirikan,
 ez miñik ematen,
 esne ta gazta berriz
 dirua jasotzen.

Auntzak nekez izan oi
 dizu gaitzepelik,
 aren esnea egiz
 artu zuk gordiñik.
 Gazta koipetsu dator
 —ez izan zalantzik—
 auntz eta ardien gurin
 askodun esnetik.

Begoz, bada, gurean
 bi auntz bizardunok,
 birako lar-sasiak
 jan oi dkuztenok.
 Noizka auntz aragia
 jango etxeuok,
 jai-igandez obeki
 izan naidugunok.

URA

Nora-ezean euki bear da
 ura baserri ondoan,
 urik ezikan ez dakit nola
 bizi daiteken auzoan.
 Egarría urak itotzen digu
 naiz etxean naiz basoan;
 arpegi, esku, zapi ta dana
 urak zuritzen osoan.

Urak berdintzen baitere dizkit
 kortako ardi, bei, idiak;
 soroko gari, arto ta indabak,
 zelaiko belar, aziak,
 guk ugariko daukagun urak
 arnasten ditu guztiak.
 Orretan ditu Jaunak merezi
 denon esker on biziak.

Naiz izotz gogor, arri bezela,
 naiz bigun iturri antzera,
 naiz lurrinduta, zabal ta urdin,
 goi-laiñoen egoera,
 beti zaigu bai onuratsua
 uraren keiñu gupera:
 goiaren ixur betorkigu, ba,
 ogitsu gure etxera.

Egoitz osteko sakon-arruan
 ots dagi goitik ur-latsak,
 lenago.sarri ara zuzendu
 bear genitun urratsak;
 edo-ta euri zaneko urak,
 itoiñetako ur-utsak
 gozatzen zitun —tanga tangaka-
 gure zintzur aski latzak.

Orain ordea ez dugu zertan
 arru barneraiño joan:
 ur ederra gaur nai beste dugu
 geure eskaratz baranoan;
 goiko aitz-azpi apakintsuan
 ur txit gardena zegoan:
 lanaren lanez azkenik gendun
 etxeratu oparoan.

Aitz-ura duzu, azpitik dator,
 uda ta negu otz xamar;
 kare artetik irazi arren,
 geiegirik ez, eztakar;
 on-ederra da idi-beintzat
 etxe aurrean pirri-par,
 ta suetean, agortu gabe,
 alaiturik gure batzar.

Ur, ur gardena! , mendiko ura!
 guk biziki opatua!
 Iritxi zaitez zurmur goxozko
 udaro izan naiz negua.
 Txori malatsak, esker aundiko,
 deskentzu goizez kantua;
 nik ere berdin opatzen dizut
 biotzetiko gar-sua,

GOIZEKO IZARRA

Gora dut zeruan izarra
 nik ogea uztean,
 egun urratzetik igeska
 itzala doanean;
 sarri-sarri dut txeraz agurtzen
 etxetik irtetzean.

Illun aurrean leen argi dut,
 iñoiz musu betia,
 iñoiz laurden erakusten du,
 baita iñoiz erdia;
 oso biribil naiz erdLkiña
 beti dut nik maitia,

Naitaez bear du gizonak
 ark emaniko poza,
 egun-nekeak goibel jartzen
 dionean biotza:
 udaberriz naiz udagoienez
 laztan dut bere erlantza.

Ik ere, izar, baduk samiñlk;
 otza omen aiz oso,
 ta argi-izpirikan ez duk
 neroni emateko;
 illargiaren edu aiz nunbait,
 gure lurraren urko,

Euzkiari dabil jarraika,
 gaur eskoi, biar ezker,
 lore inguruan tximilota
 dabillen bezain laster.
 Bekit etenge nere arloan
 lanaren sari eder.

Baiña eguzkitik jaso
 bialtzen diguk aurki,
 dukan ortatik errukior
 guri emanaz noski;
 orla ongilli aiz, biotz-bera,
 gutzat egiz soroski.

Izar!, igan bizirik ote?
 Belarra omen duk or.
 Dena delarik, neretzat aiz
 goiz ta arrasti zorakor!
 Ik jarrai, otoi, zeru orretan
 pozemaille dardarkor!

TXERTAKETAK

Etxe baranoa dut zugaitzez joria,
 sagar, okaran, prisko, mizpil, madaria;
 urte barruan ditut arretatsu zaintzen,
 puda, makets ta aiotza noznai erabiltzen,

Zugaitzak barnerantza iru zati dauzka,
gaiñ-azal, barne-egur eta biotz-una.
Azaibe zear doa landare izerdia,
gora ta beera iñoiztxo aertu gabia.

Azalak ere bere zatiak dizkizu,
bein edo beiñik oartu ba duzu;
azal-gaiña, mamia eta azalpea;
gaiña duzu geienez orlegi ta mea.

Udan izerdiz zaio azalpea asetzen,
erdia berriz mami duzu izendatzen.
Txertatzekoan auek badute garrantzi,
bildu bear dira-ta bi izerdi-toki.

Lurrak susterra dizu osoan indartzen,
landarak du, ordea, txertoa azkartzen.
Jakia dio kentzen lurrari landarak,
eta landareari orobat txertoak.

Nik urtetik urte dut sailtxo bat eztitzen,
orrela ditut ainitz igale-abe ugaltzen.
Txertaketa dut saio txito atsegiña,
urtarrillez nik pozez egin oi dudana,

Ortako, zugaitzari gaiña diot lenen
aizto makur bereziz kontuz ebakitzen,
eta ziri batekin printzatu ondoren,
urteko adartsua diot bertan jartzen.

Mentu epaiak beukoz bi naiz iru begi,
baiña zaintzeko, arren, izan leia bizi;
begiok aziz ez dute ona eguzkia,
ez otza, ezta aize zakar biurria.

Txerta-lan osatua txibista aurretik,
elkar diran zatiak ondo begiturik,
erreskadan daudenez bear dut ikusi:
emen ereba dabilte lleba, larri-aldi,

Eztitutako alde guztia dut lotzen,
xaboi t'erretxiñazko oreka erutzen,
lokatz-ore orrekin goi ta bee azkenik
bira diot igurtzen ezin obekirik,

Azalean begiak ikus adarretan,
aziz dituzu lore naiz adar berritan;
begiok azalakin kendu ondorean,
landare azal barne jarri txertatzean.

Urbilduz ere ditut landarak eztitzen,
biltzeko zillai gaiña bildu-tokian ken;
bi adarrok elkartu ta lotutakoan
«urbilduz» ibil zera txertatze arloan.

Txilibiturik egin al duzu agiaz?
Ken gaiña mentuari ta ipiñi arretaz
landare biziari azal-odi auta,
orixe duzu azal-odiz txertaketa.

Ontaz gaiñera, ugal, genitzake osoz
aziz, olaziz eta orobat ukendoz.
Azi aukeratua soroan da ereiten,
lenen duzu ernemin, gero gora jotzen.

N'ERE BASERRIA

Moztu landareari adar bat maketsez,
beronen alde bata estal eizu lurrez:
laster zaizu piztu ta landare biurtu,
baiña beukoz bi begi, lurlean naiz goitsu.

Landara adarra jatxi ezazu lurrera,
erdi bata estali lurrez biotz-bera;
bestea taket bati lotu polikiro,
ta au epe labur zaizu landare egingo.

Urte barruan legez olako abeak
azpiko ezoz ditu sustraiño beteak.
Epai, ta naien duzun lekuan landatu.
Ditudan txertakerak auetxek dituzu.

P I N U A

Zugaitza beti, edozein dala,
osasungarria zaigu,
ikatz airea kalte zaiguna
ordegai biurtzen digu;
piñu ugari etxelk urbil
landatzen baldin ba duzu,
ez izan, otoi, zalantz izpirik
biriki gaitzik eztuzu.

Gora dezadan Lekeitio-ko
Yaxtza-ko Adan jaun ona,
gure mendiak piñuz apaindu
zizkigun zaldun gizona,
nik ere umetan, oso errime,
ezagun izan nuena.
Txalo areri zarta ozentsu,
alaber ere esker-ona.

Sarri esan da piñua motza
dugula, arrotz-tantaia;
litekena da, baiña ala ere,
aitor dezagun egia:
gure ingurua zugaitz gaberik
ala zugaitzez jantzia,
—illerri ala toki alaikor—
ote bizitzeko obia?

Itxusi duzu mendia billoiz
tontor, malda ezer gabe;
lengo zugaitzak, aritz, gaztaiña,
pago mordoska ta beste,
gaitzak zizkigun eraman zalui
mendiai ekarriz kalte,
bazterrak utziz larru ta elkor
ezeren erruki gabe.

Metro erdi ez zugaitzik gabe
nere aitak oi zun esan,
larre-sasirik ez dugu, orde,
bear itsuki iñondikan;
dela gaztaiña, naiz dela pago,
naiz piñu zernai motatan,
guztiak eurrez dakarkigute
euri, bero, poz aukeran.

Gure basoko aritzak ere
gaitzez ondatu zirean,
beste askotxo amil zituzten
aizkoraz jorik lurlean.
Eta bestorduz aberats aski
zitzaigun euskal larrean
axola gabe indartu zan bai
sasi-otea narean,

Nere aitak ez zuen orrela
 basoak larri, tristeki,
 iñolaz ere ikusi gura
 ta piñua zun ipiñi;
 esanak esan, gure mendiak
 gaur dute onik nasaiki,
 irabazia eman digute
 zur ta egurrez ederki,

Ez esan beraz neri gezurrik,
 piñuak ez dira motzak,
 asko dituzu oso apaiñak,
 goraka beren kukutzak;
 azkar eta izai, itxas-piñuak,
 larizio ta alertzak,
 saillean guri zeru-miñazten
 dizkigute, bai, biotzak,

Nere piñuak aize babesa
 daukate, ta lur gizena;
 oraindio ez dute gaixorik,
 insignisa dut onena,
 ardura aundi gabe, igartzeka,
 gorantz egiten duena.
 Besteak beste, auxe zait neri
 guztitarik betorrena.

Piñutan mordo ederrak ditut
 nerea dudan lurrean,
 azpi-adarrak moztu nizkien
 bost urteko ziranean;
 orain dauzkat sail ikusgarriak,
 denak taju bikaiñean:
 poza dakartet, barneko poza,
 igandez begiratzean.

«Urre berdea» esaten die
 mendian dugun lerrari,
 orrelaxe da izanik ere
 tantai sendoak ugari:
 egur ta zurez ogei urtetan
 poztutzen du nekazari,
 diruz ederki lagundurikan
 baserriko etxeari.

Egia diot: etxeko lanaz
 ongi dator ler-txanpona,
 neretzat beintzat gezurtia da
 aintzin-gibelka diona.
 pagoak eder, aritzak obe,
 gure lurren jariona,
 baiña jorian piñuak dakar
 gure ziskura gauz ona.

AMONA IL ZAIGU

Begi-bizi, malgua zan
 gure amonatxoan,
 eztizko parra goxotan
 zeukan beti aoa;
 ez nuen nik ifioiz ere
 sudur-xustu ikusten,
 aren itzalak berriz
 alaiz ginduen josten,

Urtetsu zalarik ere
 zerbaiteri ekion,
 ta nik bekaitzez, egia!,
 begiratu oi nion,
 Gure endaren basaJore,
 euskaldun amandrea!
 zuk utzi bizi-zerrendan
 ba dugu ikasbidea!

NERE BASERRIA

Urril-lenez il zitzaigun,
etxe alboko ostoako
ori jarrean; zartadan
bota zun erioak.
Begi-keiñuz zigun «agur»
ozt-oztan denoi esan;
artez zitzaizkigun jarri
bi begiak malkotan.

Beresiko lorak zimel
dakuskit arrezkero.
txoriak ez dabilzkigu
len lez alai unero;
odei-beltzez da estali
zeru azpiko izarra,
izadi denak du eder
aren itzal-negarra.

Goizean dugu eraman
—malkoak jo begira! •
bai, ixil, triste lagundu
diogu illen errira...
An utzi dugu otz, zurbil,
beretarren artean,
bt-i'pizteko itxaroz noski
azken-tanga unean.

Ziurra da eriotza
ludira danarentzat;
soiña jaiotze ta il egiten,
orixe da legetzat.
Zu, amona maite ori,
etzera iñoiz geiagotze
ezpan-goxo ta bizkorki
gurean ibilliko.

Baiña, soiñez jausi arren,
ba duzu zerbait ilgaitz:
duzun zori orri buruz
oso zait mintzogatzen;
ezpiritu duzu illekorko,
eriotz aldak zaitu
gogoen atsen-lekura,
an argia dukezu.

Zeure duzu onezkero
berikoz il eziña:
eriotzak eman dizu
ezilkortazun eiña.
Ez malkorik, ba; bizie
dagokie negarra,
oindio ilkor diranen
min-zitxada lakarra

Bemaizu, ba, Goiko Jaunak
argia, pake autak;
zeuzkan gurari guztiak
bete ditzala baita,
Zabiltz, aurrerantzean.
—irriparra aotan—
ipui zarren kontaria
ortxe Jainko altzoan.

Zure oroitza ezitia
bego emen gurean,
zure itzala bekigutze
gantzu zauri-miñean.
Ementxe gelditzen zaizute
zizaillu urteduna,
ipui elezarrik asko
alaitz entzun zituna.

Bekigutze arnas-emaitze
zure irripar goxua,
ta lanerako bultz-gaillu
duzun izpiritua.
Jauna: Zuk eman, Zuk kendu;
egiz zaitut goresten,
Zure begien aurrean
gara denok makurtzen.

NEGUA

«Emen dogu, etorri yaku,
 etxeraño sartu da Negu baltza.
 Or dabil, bere praka zar
 eta bizar aundiakaz.
 Ate-leioak itxi arren,
 alperrib da. Iñoren baimen
 barik, eta edozein zulotik,
 barruraiño eltzen da. Illa
 batzuetdn beroni ostatua nai ta ez
 emon bearko.
 Mendi-goietatik edur zuria,
 ipar-aldetik aize otza,
 egun laburrak eta gau luze-luzeak;
 eguzkiak zelako arpegia dakarren
 ikusteko be,
 ez dausku sarritan eperik emoten».

NERE BASERRI

Goiko mendian
 nere baserri;
 bere izena «Gainzuri».
 Nere jaiotz-lekua,
 kabi zar, eztitsua.
 Biotz barruko
 lore maitea
 nere guraso
 zarren etxeal...

Nere guraso
 kutun, laztanak,
 cgizko euskaldumak,
 beti zintzo lanean,
 ongi bizitu
 ziran pakean,

NERE BASERRIA

*Negu txarra zanean,
etxeo sukaldean,
an giñan beti
ipui kontari,
baita ere gure euskal
kanta zarrak kantari.*

*Danak il ziran...
gaxo-maiteak...
Kristau berdingabeakl ...
Ta eskerrak beudeki,
ikasi nuen ongi,
goigoratzen gartsuki,
nere baserri
lilluragarri,
gaur, lan egiñaz zintzo,
emen ongi bizi naiz,
paketsu eta alaiki.*

*Nere asaben
basetxe zarra,
betikoz nik emango
dizut bizitzeko zuk
bear dezun indarra,
izan zaitezen
sendo ta azkarra.*

*Zintzo ekin bear dut,
gogo onez, zuregatik,
neretzat zeralako
AMA on, zoragarril...*

*Basoko lurrin
gozoaz nere
barrena ongi ase,
beko kaleko
kutsu txarretik iges...
Ori da nere
asmo bakarra.*

*Bestela uste gabeen...
irentsiko dituzte
iguinarrizko arrak,
gureak diran
baso, sagasti,
mendi ta ibarrakl !*

Ariztieta

NI BASERRIAN

*Aintza du irriki noiznai gizonak
ez du nai otsein izenik:
neri naikotan esan didate
otsein naizela lurretik.
Uriak ote du ala lurrak
ematen poz aundigorik?
Au jakin-miñez zauritua naiz
aspaldi ontan errotik.*

*Atzo futbola ikus duguño
izan nun Bilbon zoria:
ostikoz bizkor leia zirala,
an bai oiú, garraxia!
Ibil-bearra kalean ere,
ezin egona bizia!
Gure txokoan, guztiz bestera,
dena dugu ixil ezta.*

Joku ostean saka ta bultza
 ibilli nintzan kalean.
 Kotxe ta jende, zer abarrotsa!,
 beti arrisku artean.
 Nik ez dazaut, nola arraie!,
 olako iskanbiJ asean
 egunik egun, zoratu gabe
 iñor bizi litekean.

Gau duzu. Giro otz. Ezarian naiz
 ibai ondora iritxi.
 Zubia dut gaiñ; argi ontziak,
 dena daukate txit zuri;
 Bilbo bai aundi! Gizarte leiak
 zoroen kezka dirudi;
 oiñen urratsak itzal artean
 dardaraz naute ipiñi.

Ixillez luze, irel-suzko lez,
 urgain zaudeten ontziak!
 Zuok nai neri barne atxeki
 orratz aundi ikaratiak!
 Itzala ta argia, aitu-eziñak,
 uztartu ditu zoriak,
 teknika zuurki molde-aziaz
 gizonen jakituriak.

Dirdir dagite millaka margoz
 kale zokoak zearo;
 gorri ta berde, ori ta zuri,
 ñirñir daukat leku oro;
 gaurkoz bederen argi-margotan
 asetua naiz osoro,
 baiña ez aitor urian bizi
 ditekelarik gozoro.

Senak eskatzen dion guztia
 duela sendo eskuan,
 gizasemeak ba al daki ondo
 zer daramagun buruan?
 Gaurko egunez usterik ote
 bere gora-nai zoruan?
 Ezbear punpak ezertxo ere ez
 erakusten zartakuan?

Ni ere etxean, baserritarra,
 neretik beti neurritsu^
 kopet-izerdiz eskuraturik
 ogi-zerrenda gogotsu,
 obeki nabil, ez, otoi, uka!;
 gorputza zimel, indartsu,
 adimena zail, argiz ornia,
 errime ta osasuntsu.

Ez, nadin makur —zoro nintzake—
 oker-ontzia denari,
 naiz-ta tai gabe, giro azterka,
 lilluraz jardun kantari.
 Doazte uin zakar, ekaitz aseak,
 doazte urrun abeslari:
 bebiltza ortik beetarrak zoro,
 turuta joaz ari ta ari.

Uriaz guztiz bestelakoa
 dut nik nere baserria;
 gizasemea ez dagi sosak,
 lanak dakar sos joria.
 Osa dezagun etorkizuna,
 zuurki dugula begia,
 Pozkida bekit bakar-zokoa
 ene lanaren saria.

OIANA LERDEN

Etzetik urbil xamar maite dut basoa,
 tantai ta egur txearz beterik osoa.
 Ainbeste bitxi eder dagidan Jainkoa
 onetsi dezadan nik, eskerrez kolkoa.

Oi, ene baso xarmant, ene lantegia!
 Maizetan dut egiten igana bidia!
 Mendian zut izaki eguzki gezia,
 iregan duk otzana beratxen izpia.

Adar oritan guren dauzkat gaur aritzak:
 urki, pago ta lizar, nolako orritzak!
 Izaiak auen pare dituzu mirritzak;
 zuok goraiatzeko uts dagite itzak.

Legorpea beterik adarrez metaka,
 negurako dakartzit narras, kirrink oska.
 Enbor jausi, enbor zut, emen ni goraka
 ire itzala, adin luze, eskuz txaloka.

Auntzak eta beiak or dute janaria,
 nekatutakoan nik abaro guria;
 oillagor ta zozotan dator eiztaria:
 ire etsaia bai ziztrin, ezin siñetsia!

Guztikoak dituzu zuamu ondotan:
 erkin, txapar, gerri-motz, muur-luze diran
 burbuz mordoa; bosteun urteko tantaitan
 ez gutxi; denak geure ditugu, egitan!

Gure asaba zarrak sartu ta landuak,
 euskal enda zarraren lekuko zinduak,
 ta euskaldun biotzak aise ezin aiztuak.
 Aritz, pago, agiñak!, ar ene txaluak!

Aspaditik dantzugu aizkora motzaren
 maiz berriztatuaren durundua ozen.
 Ire anaiak eurrez dituzte suntsiten,
 eta piñu lerroak, orde, zutik jartzen.

Eder dakionari buruz arritua,
 begira naukazute oroz txoratua!
 Zuetarikoren bat ikusiz txautua,
 samiñez sentitzen dut biotza lertua.

Nik geiago maite aut, oian txit maitea,
 ez aut nik eratxiko, oroitzaz betea;
 ire sabel-leizatik, au ezti-unea! ,
 lenaren oiartzuna datorkit me-mea.

I aiz, oian berdinge!, aintziña batetik
 euskaldun erriaren jantzigai onenik;
 ik dituk ikusiak burrukak itzalik,
 ez zutenak gurean bat ere zentzunik

Oian lerdene!, ezerik iraun zak ik beti!
 Triste ta zarpilletan ez aut nai xkusi.
 Bai lapar ta sasiz gaiñ, zornea dardarti,
 aizeakin noizgura dantzatzuz ijuti.

Ez beitez ixil-azi txoriak kantari,
 iri emanik poza ekiñaz txintari;
 auzo doan erreka, goitik zillar-ari,
 bemaizu ere poza barne soiñulari.

Elurrak ere ez beitzu neguz auts adarrak,
 ez eta oker-azi kukutza gañerik;
 udaberriz tzoriak beukate lekurik
 beuren kabi berriak jartzeko goxorik.

Baita neretzat ere, oi baso maitea!
 zakekez aldiro kabitxo ase,
 poza jarioz beti, zurmur emalea,
 zertu dezadan berton ene sail betea.

NEGUA

Larru soillean murriztik dago
 otz eta kixkur negua,
 zugaitz tantaiak ez dute soiñik,
 guztia dager oildua.
 Eguzki aita ostoa artetik
 gaur datorkigu auldua.
 Gau illuna ere —eriotz itzal—
 lar daukagu luzatua.

Egiñen txarrak izan oi ditu
 negu txumil arlotiak:
 puzka ta puzka arkondin biziz
 jazten dizkigu eriak,
 eta sarritan ozpel ez obez
 txit gorritzen belarriak,
 baita noizik-bein surraren puntan
 biribiltzen dindirriak.

Bizia lotan, ala illik dago?
 Ez da iñon bizi zantzurik...
 Ostoa artean ez da entzuten
 txorien txorro-txiorik;
 gure astoa ixillak datza,
 zaldiak ez dago irrintzirik;
 udan bezela orain ez dago
 artzain mutillak santzorik.

Baserritarrok etsaia dogu
 negu otzaren zartako:
 iñoiz jalkika sartu oi digu
 udaberrirantz ostiko,
 ta artoak makur, gariak gorrin
 dizkigu laster jarriko.
 Ardatz bakoitza bere egurrean
 dabil guretzat obeto.

NERE BASERRIA

Errukarria udagoienez
izanik lei-ardurea,
mandioetan bildu ezpada
negu guztiko alea.
Negu etsaiak, maltzur, askoren
lepotik dagi parrea,
betosko goibel eta praka zar
iñaurturik otz luzea.

Urrikal ditut negu sasoiak
udan lasaixe izanentzat...

Lurra landuaz bizi garanok
ar dezagun au legetzat:
jan bear dugun ogi-sorburu
lana izanikan gureztat,
txiñurri antzo bera dugula
akulu baita saritzat,

Bizi nai dugu! Iñolaz ere,
eriotza da negua!

Biziak eta eriotzeak
gerra dabilte estua...
Guk ere bada ez dezagun, ez,
kolkoan sartu eskua:
lanari sendo guk jardunikan
ager daitela kukua.

Naiz-ta ifarra firi-firika
setati eta ziztriña,
etxe barruan —nere munduan—
beti dut zeri ekiña;
bei, txerri ta ardi, baita besteak,
ausnarra dute berdiña:
azpia imoiz ez bezate euki
pekorotz-txixez zikiña.

Nere andreak oilloak dizkit
arreta biziz jagoten,
janari bero, sukalde-zabor,
arto-alekin nastutzen.
Iñoiz ardoa nastu diela
ixillean naiz oartzen,
orla bai dute arraultz geiago
neau aldian erruntzen.

Aldian badut aldiko lana,
ez nadin iñoiz alperra.
Aletegiak beteak ditut,
baiña dute ikus bearra;
noizik noizera ustelik bada
begitu txoko bazterra:
auzokoa be ustela denak
usteldu oi du lasterra.

Udazkenean nuen ekarri
egur lodia etxera,
arte, aitz eta pago mukurra
narratzu nun aterpera;
orain, ordea, asti unetan
aizkoraz zeetzen dut bera,
ta negu luzez ere etzait palta
supazter egur-aukera.

Belar-tokiak oraintxe ditut
satsitu alik ondoen,
euri-elurrez satsaren muiña
arras zaie barneratzen;
txori simaurra ere bostetan
gaiñean diet zabaltzen.
Nolako zaintza alaxe digu
lurрак frutua ematen.

Urtarrilla da garai ederra
goitar illargi zangarrak
ilbera dula bere ibillian
madari eta sagarrak,
aiotzez moztu ta garbitzeko
maatsaren aien alperrak:
kare-esnea. erabiltzen da
zuri jartzeko adarrak.

Landa-esiak iñausi ditut
neurri berdiñez poliki,
jausi zaizkidan orma arriak
atondu baita ximenki,
ta bide-ertzeko erreten urak
botazi ditut artezki.
Etxe bazterrak txairo eukitzen
langille onak badaki.

Ortan ez nuke zabar izan nai,
 bizkor ta erne baizikan,
 negu naiz uda nere etxaldea
 eukirik beti aukeran.
 Kanta dezala, otzetik iges,
 lertxun saldoak goietan:
 ni eten gabe arituko naiz
 nere neguko lanetan,

ARGI ZAKURRA

Bart illuntzean Jone emaztea
 edlu zitzaidan lazturik;
 ortuan zala, etxerakoan,
 argia zuen atzetik.

Garraxiz zion: «Ona etorritz,
 ugar bizia saltoka
 izan dut gibel, eta biotza
 jarri dit bira-biraka».

Nik azkar nion egia azaldu,
 beretzat aitu eziña;
 neroni ere bein eta berriz
 geratua zait berdifia.

Anitz eratan erne oi zaigu
 erretzen ez dun argia
 gau-itzaletan gabiltzanean
 izutzen gaitun zuzia.

Iltegi, ur loi, potzu, istinga,
 naiz arrain, badago usteltzen,
 lurriño gorantz darielarik
 gaeuz oi dira egoten.

Baserrian maiz oiñetakoak
 —abarka ala oski zauli—
 azpin dugun zikin artean
 errez oi ditugu irauli.

Sats naiz ustelez oiñetakoak
 euki ezkeru loiturik,
 ta lur gañean oiñak ipiñi,
 sugarra duzu ondotik.

Orrek euskeraz badu izena:
 ustel lurriña erretzen
 sugarrez baldin iñoiz ba zaizu,
 argi zakurra da deitzen.

Ez du berotzen, ezta erretzen,
 baiña ederki bildurtzen.
 Nere andrea orrek jarri zun
 biotza bira-biratzen.

SUAREN IGURTZIA

Ume ta gurasoak emen bildu gara,
otz-erpatik igeska gauden naierara.
Naro gauden ementxe otzetik urruti,
ta bebilkigu sua txinpartaka jori.

Aurrez dugu laratza; su-galda, azpian,
mingain gorri doala gora lei bizian,
Suak urtuko digu otzaren ezpata,
ortarako langaillu egokia baita.

Gora ta bera dabiJ suaren urrea,
so gaudenoi eztizko biurtuz barnea.
Erara bai gaudela negu arratsaldez,
aldi-miesa eoz mingaiñaren otsez.

Ederra dugu sua, izaki bikaiña.
Ba ote garbitzeko ezer berau aiña?
Begira gagozkio ametsez josiak,
gogoetaz beterik suzko igurtziak.

Gora dezagun izkor suaren pizkorra,
beronen iñolazko izan aldakorra.
Auxe bekigu, arren!, barnean bizia,
iñoiz peitu gaberik arrats igurtzia.

EGIAK JALKITZEN

Ez dut alperra izan nai
ezta jokalari:
auek bai abe oker
urbil etxeari!

Zerk ote daramazki
gizonen bizitzak
Udako ekaitz-jasak,
neguko elurtzak.

Ez zuk neurtu gizona
gaiñ daramanetik
gogo-biotzez zer dan
oartuta baizik.

Begira!, gora dora guztizko dantzari,
igurtz goxo egiñik mokor sabelari.
Aziz nai du miazka goi daukan laratza,
ke-adarñoa ere irrikaz gorantza.

Laratz azpian zaigu miztotan zatitzen,
elkarri diotela laztana eskeintzen.
Joria duzu ziñez suaren musua:
orrela bear luke gizonak eskua.

Txingar gori bizkorra, laratzaren azpi...
Oi, giza bizitzaren bai litzake irudi!
Millaka ego ditu suak dantalari...
Mezurik ote dio gaurko neskatxari?

Barnea dit gogaitan emeki arrotzen,
azalez naula berdin beroz gorritzkatzen.
Gure amonak ere diardu kontari,
beti legez ekiñik arrats-ipuiari.

Iñortxoren bekaitzik
ez dut biotzean:
jaio, il denok dagigu
era berdiñean.

Azalari bakarrik
ez zuk begiratu:
ots aund'ko dunbalak
aizea du barru,

Baserritar kalezale,
etxearen ondatzale:
egia biribilla,
nor gezur emale?

Lur-langille, aiskide,
ur duzu gezurra,
ta zabilkez arretaz
izanikan zurra.

Neguko eguzkia
bezain kaltekorra
uri ta kalekoen
solas labankorra.

Elkarraz ezin bizi
gaua ta eguna,
ezta ere gorroto
eta maitasuna.

Iruzurra zirkinka
umeen biotzean.
Erensugeak jaio
lilien artean?

BEI BAT IL ZAIT

Lazgarri aiz, erio!, lazgarri ta zakar!
Bizitz-aria dakik xeakatzen azkar.
Bei bat nuen *Apala*, langille, esnetsu,
eta lengoan zidan erioak lapurta.

Bi begi zeuzkan eder, oro ikus-naita,
apala nerizkion otzana zan eta;
bizkar luze aragi guriz ornitua,
c'-rapea luzanga esnez zanpatua.

Ez, etzuen akatsik nere bei apalak,
kortan naiz zelaian soin-kaizu zabalak;
eta beste egunez —nolatan ez dakit—
erio maltzurak, ai!, arrapatua dit.

Tantai agitz ederra laster zun itzuli,
begi aurrean zidan kolpeka irauli:
sukar aunditan zion gorputza ipiñi,
ezur-muiñetaraño sartu-aziz otza.

Begi. mutur, ezpaiñak zitzaizkon gorritu,
bizkar-gaiñ ta iztarretan aundituak soildu:
gorotza gero egin zuen odoltsua,
ixuria zuen bai bazi sarritua.

Albaiterua deitu nuen ber-bertatik,
sendagaia genion ar-azi gogotik;
egiazko arduraz gintzakion lagun,
baiña oro alperrik, laster il zitzaigun.

Ezin nuen siñetsi! Baiña egia zan:
«Apala», nere beia, bizi gabe zetzan.
Lazgarri a'z, erio!, lazgarri ta zakar!
Bizitz-aria dakik xeakatzen azkar.

Nere beiarri zion erioak ezarri
garmu-sukarrezko gaitz oso bildurgarri,
eta nere tantaia zortzi bat orduan
zerraldo, eroria zeukan ukulluan.

Usteltzen jar zitzaigun itzetik ortzera,
eta lastertxe genun eramán lurpera:
gaitz kutsukorra baita, toki karetsuan
gure Apala errerik ipiñi genduan.

Nola sar ote zion erioak gaitz ori?
Mendian? Ukulluan? Ez dakit ziurki.
Egun oro egin dut korta garbiketa,
goi-erpiñean izan dute iñoiz larreta.

Gaur ezkeron nabillen ardura berotan,
korta ta mendiak obeki gogotan.
Aska, orma ta azpi ditut kareztuko,
epai-urratadunak bereix nik jarriko.

Lazgarri aiz, erio!, la2garri ta zakar!
Bizitz-aria dakik xeakutzen azkar:
gure bei ona datza lurrari emana.
Orain maiz erxean joaten igana!

ZIRIKALDIA

Zertan abil, anaia,
itz leunak urtutzen?,
tentatzaille bezela
belarrira igortzen?
«Zelai miñak uxatu
—diostak tentelki—
bizi nai baldin baduk
munduan alaiki.

Sarats zimelen bidez
nintzoan aspertu,
orain nauk bapo aski
urian bizitu.
Gurdiaren kirrinka
ez nai diat entzun;
urian ditut orain
arrai milla lagun,

Aspergarri zait orain
sueteko sua
ta maiatz astean
sagarren kimua,
Emen bean nabil ni
egiñik gustua,
nai beste jolas, jan ta
edanik ardua.

Ez dit baserri lanak
ezertzo esaten,
ezta ifarrak ere
biotza eztitzen.
Zer ekarriko didan
zoriak ez dakit,
baiña gaurkoz beintzat
poza emen daurkit».

Ene anai zoroazko,
ez neri gezurrik:
kaletarrak zabilte
pake-poz gaberik.
Ni orde baserrian
biotza lasairik,
ez txiro, ez betea,
beti ornidui,

EREINTZAK

Egun astean ez du nagirik
 larratxoriak kantari...
 Bizi naia dut non-nai den ere,
 sendo nik ere lanari.
 Iritxi bai zait erein aroa,
 bota bearra dut gari,
 uda eltzean izan ditzadan
 lau zirikoak ugari.
 Txoriak goian eztarri eder,
 ni nakion arloari.

Noiz dan didazu galdetzen neri
 aziak erein aroa?
 Azi bakoitzak dizu benetan
 bere sasoi ta giroa:
 San Martin-ez da gari azia
 botatzeko ordu laxoa;
 berdin urtaillez bada zabala,
 azak nai du galondoa,
 ta babakin bat irar illarak
 edertzen dute soroa,

Arto ta potxa ereiten ditut
 ederki maietz lenengoz,
 arto arteko pagotxa ere
 ondo dator Santiagoz;
 San Migeletan ditut bazterrak
 betetzen aillurbe-liñoaz,
 artatxikiak udaberri du
 beraren garai osoz,
 arbi-patacak bagil-irail
 lur landuan samur datoz.

Arto-indarrak, arbi-patacak
 potxora ditut ereiten,
 gari ta olo, belarki danak
 aurrera dira botatzen,
 berdin aillurbe, pagotx-irukoitz
 purran ditugu zabaltzen;
 laia zulora ortu babea
 oi da geienik egozten.
 Alan ta ere, bakoitzak duen
 ereinkera duzu onen.

Aziak nai du erein ondoren
 aletin aundiko zaintza:
 euririk eza, izotz larregi,
 zomorro txatxu sapatza...
 Jagon ezikan Jaster batean
 andeatzen zait ereintza,
 nik uste osoz amestu nuen
 arbi-sailla naiz artotza.
 Jorrai yaukalez bear dut zaindu
 erein nun azi bakoitza,

LANDAN PENTSALARI

Animari beera eman ondorean,
 abelgorri zai nago igande goizean.

Abereak dabilzkit belarra bazkatzen,
 nik landako pentokan goxo dut atsedean.

Laiño artean sorgin kuku dut eguzki,
pozarekin pakea zelaira dakarzuki.

Argiaren izpia goitikan datorkit,
biotzaren oiua zerurantz doakit.

Zuk egiña naiz, Jauna, Zeuretzat egiña:
zure goi-guraria bekit atsegiña.

Zuk ezarri zenidan azken elburua,
egite onen bidez eskuratzekua.

Zuk dituzu egite onak sariztatzen,
ta, zuzena bait-zera, txarrak zigorkatzen,

Artez iñarrosiaz zuzentza sarte,
bakoitzari dakizu ematen berea,

Asko dabilta emen iñoren odola
edanik, gauzea leun aurrera doala.

Baiña oker doanak zuzena bear du,
txarrari zor-zigorra bearko kitutu.

Bizi digart barruan zorion egarri,
une ta ordu oroz nakar parregarri.

Gura izanikan ere ezin da baztertu,
akullu orren zizta bear dut nozitu.

Giza-biotzak nai du zorion betea,
on gutzia eukiaz amairik gabea.

Orain irria nai du lorekin batean,
ta zorion berdiña eriotz ostein.

Baduzu beraz, Jauna, neretaz saria,
betikoz daukakedan zorion bizia.

ESKALEAK

Aklatzik aldatz egunak goian
artu du bere arkua:
emen datorkit gazte taldea
yaukal dutela kantua,
Deun-Agate-ri eskein nairikan
bere bezpera lelua.
Neronek ere kantu ostein
bearko lasai eskua.

«Illun-abarrez zuen etxera
gatoz gu alai abesten,
baserri ontan abegi ona
dizugu denoi eskatzen.
Gazte taldeok aterik ate
oitura dugu berritzen,
t'euskaldunari zorion utsa
diogu pozik opatzen,

Ekandu danez ikusi dugu
alkate jauna goizean,
aren baimena emen daukagu
gaur ibilteko eskean.
Barne pozarren arnas berria
dizdiz begien ertzean,
kanta dezagun Deun-Agate-ren
jai-aurreko illuntzean.

Gazterik zion gure Agate-k
Jaunari eman bizitza;
munduko griña, aragi-deia
ezertako ezpalitza,
oiñaze biziz zaldun biurrak
suntsitu zion gorputza,
baiña Agate-k Jaunari zion
eskeiñi bere biotza.

Orain begoaz, etxeko jauna,
bertso-kantaz zu goratzen;
barrua duzu urre gorritzko
dizugu pozik esaten:
seme-alaba, emazte lirain
eta zeuretzat nabarmen,
dim-apurraz zori betea
dizugu denok guratzen,

Eder zeruan dirdir izarra,
eder soroan goldea:
baserri ontan zu zara izar,
abaro eta jabea.
Goiko Jaun onak egin bait zaitu
gure erriantzat moldea,
zerroren esku bedi guretzat
zillar sosakin betea.

Lerden elizan aldare erdian
arri zurizko zutoiña,
aren gaiñean beso zabalik
zeruko Ama Birjiña;
umetxo begi-zuriz bildua,
zeru-biotzez egiña:
zure emazteak etxe onetan
dirudizu erregiña.

Pazko egunez jantziko ditu
sei gona bere soiñean,
zuri-nabarra azpikoa ta
gorri bizia gaiñean:
buruz asmotsu, eskuz maratzta,
oso dalarik jasean,
etxe ardura eramateko
ez da beste bat aldean,

Bion frutuak ona jalgita,
bi mutil koxkor ta alaba.
Naizta aurrenik bion artean
izanik naiko ler-kaba,
azkenik bipil, izerdi aundiz
utziaz lanez karkaba,
egiña zagoz dirudizula
antzetuz lengo erkaba.

Etxe ontako muskil liraiñak
musua dute zuria,
matrail zabal —lili pareko—
guztizko dute gorria;
begiak bizi, ortzak irtetzen,
ago txiki ta guria,
goiz-urratzen lez izpi-jarioz
dula ezti-orrazia.

Etxeko andre dugu ementxe
ezpan ertzean par-antza:
muiño gaiñean lertu agiñik
bekusazute arantza,
beso zurian dakartzigula
lukainko korda aratza.
Ona eltzean bagenuen guk
zuen sari konfiantza.

Osto artean illun-abarrez
txoria dago kantari:
gure biotzok, idek ataka
goitiko esker onari.
Agur!, aurrena, aldendueran,
etxeko nausi jaunari,
eta jarraian barne-jauzika
etxeko andre denari».

NEGUAREN EGONA

Negua, naiz ez ernai, ba doa gorantza:
«Neguaren biotza San Bizente otza».
Elurra ere izan da; muiñoak oraindik
maindira zuriz daude segail estalirik.

Gesuko lanik ez dut atariz kanpora;
ausnarka dut kortea; nadin su ondora:
gu bai negu beltzeko illun-abarretan
goxo gaudela, lasai! , sukalde onetan.

Neguz dago bildurik sendi euskalduna,
uda ta udazkenez eziña duguna;
guraso ta semeak alaiki supazter...
Lurrean ba ote da oberikan ezer?

Zurbil ta errukarri milla bider dana,
sutondoan mintzor'k ez dnn etxe barna.
Euskal sendiak badu orren arriskua,
ekaitzak ots dagi-ta, etsaiak puztua.

Maiz esan dit Jone-k, irri-parretsua:
«Lana bezain bearra dugu barne sua;
familiko bizitzak urrea dirudi,
epea billaturik bear dugu igurdi».

Emaztea dut ziñez lagunik leunena,
eta umeak ditugu altxorrik onena.
Maite nik emaztea andregai nuela,
orain nai dut jagon nere giltz bezela,

Bere iritzi-esanak lotsaz ditut artzen;
itzez, egitez ta arpegiz mee natzaio usten;
biotza du maitetsu, goiz-kerexa bezain,
muin-barruz gozatsua, ta kolorez bikain.

Aren ederrak lorrai poz ematen die,
t'ezpanai irriparez eztiá darie;
zindo dakust aurrekin aren eziketa,
bigun ta jakituriz beti alkar-izketa.

Biori zaigu eder buruz jokatzea,
elkarri erakutsiz bear dan lotsea:
neri dagokit lana kanpo ta ukulluan,
ura etxeoandre bedi sutonduan.

Ez diot nik iñori legerik jarriko,
bakoitzak osa beza bere egiteko;
dan legez ar bakoitza, zein eder zein zatar:
lege onen aritik egin bide azkar.

Uskeriz ez egundo iskanbilla atera,
argia ta illuna bijoaz batera;
egunari berea emanez leialki,
or-ango albisteak, ez puztu arroki,

Sua da dirdiratzen enbor-ertz erdian,
poz dauzkagu biotzak pakezko ozkarbian.
Amonak zizaillutik diardu ipuinketan,
aur ta nausi gaitula adi ezpaiñetan.

Zuri-zuri elurra teillatu erlaxean,
 izotz ziztorra dindil xorta etengean...
 Gu gauden orain beintzat maitasun kamari,
 ederra egiñikan supazter onari.

OTSAILLEZ

Zurubi gora Negu badoa,
 otso illean sar gera;
 atzo Eguzki-k txeraz dizkigu
 izpiak igor lurrera,
 eta otsailla izanik ere
 badute lorak ernera.
 Baiña neguak oraindik duke
 bere sumin esnaera,
 bizkar gaiñetik astinduz zapla
 berozko gili gupera.

Sasoiz euria, sasoz elurra
 ditugu beti etekin,
 gaurko biguna biar ankerra
 iñolaz etor ez dedin,
 otsaillez bego mendia zuri,
 zerua goibel ta gordin;
 adu txarreko illa dugu au
 euritsu ba da, atsegin
 izango digu lugiñak aski,
 baita igali, gari mozkin.

Euskeraz bada esakun zarra
 otsailla belztu naizkoa:
 «Egur^tokian sartu omen zun
 beraren aitzatzakoa:
 ama ordea leixibontzira
 bota omen zun gaixoa».
 Dena delank, muzin, aldakor,
 agertzen zaigu osoa,
 ez jan ezta lan dugunarekin
 arduraz ibiltekoa.

Bazter inguru ba dut lanik,
 ez nadin beraz nagitsu:
 soro lanean darabilzkidan
 tramankuluak berritu,
 urak ibiliz egin zotaskak
 ta auzobideak berdindu,
 kortako egal, orma zilloak,
 sapai azpiak zuritu:
 Nere ta nereen bizitoki dan
 etxe aldea txukundu.

Nere andreak du aspalditxo
 oillotegian oitura,
 azpi ta ota garbi izateko
 berak du egiz ardura,
 emakumaren esku maratzak
 obe du ortan aztura.
 Otsail aldiko txita mordoia
 ongi bai dator errura,
 bi oillo loka sartu dizkitzu
 mimen-otzara barrura.

Aspaldi dauzkat igali-zerak,
 —sagar, madari, kakiak-
 esku goxo ta iraupen muker
 azal ta sustrai garbiak,
 adar ta enbor itzaiñen aurka
 boordel-saldaz igurtziak.
 Olaxe ditut gesal, zomorro
 ta bestelako piztiak
 adar, besanga enborretarik
 udarako erauziak.

Sagasti landak txukundu ditut,
 ta kitnu berriak sartu;
 madari-ondo igaz sartuak
 aurten dizkitzut txertatu,
 adar zurgarri ta gailla alperrak
 ditut errukige moztu,
 Loretegiko bazterrak ere
 atzo nituen apaindu.
 Labur: aurtengo iñaus-lanak
 ilberan ditut amaitu.

Azitarako arbi-udarbiak
 lore-tokira aldatuz,
 kristal azpian tomate, uraza,
 piper ta kuiak eratur,
 leketako illar ta babarrunak
 orma ondoan lekutuz,
 porru motz lodi, ostro zuridun
 azelkia lurreratuz,
 osatu ditut neguko lanak
 gogo bizi ta kementsuz.

Etxe barruan, korta-leioak
 aizea bear berritu,
 nere abereen ogeak ere
 gogoz bear ditut zaitu,
 loi ta zikiñak, zoko-egalak
 arreta biziz garbitu;
 atsedean guri dezaten beti
 eta esnekoi agertu,
 azpigarria, dena delako,
 sarde-puntaz barreiatu.

Obari asko dauzkagu lanak
 batez ere uda-goienez
 zoli egiñak baldin ba dira
 negu latzaren bildurrez.
 Sasoiz nitun ganbararatu
 labore saskiak eurrez,
 intxaur ta sagar, gaztaiña ta urre,
 maats, kaki eta tomatez,
 piper, lursagar eta bestelakoz
 ainbat otzara gutxik lez.

Baserri baten ez dator gaizki
 urte guztiz txerriak,
 guk emen beintzat orixe dugu
 naitaezko janaria.
 Berandu xamar izanik ere
 atzo il genuen txerria,
 bizkar mardula, anka txikiak,
 saietsez ongi betia.
 Urdai ta zezin aurtengo urtez
 guk bai lapiko gurria!

ASTE SANTUA

I

Eriotz-epaia

Pilato-k du eman
 epai gaiztoa,
 gurutzan josteko
 gure Jainkoa.

II

Gurutzea leporatzen

Lepoz daramazu
 gurutze latza:
 ar eizu baita
 nere biotza.

III

Lurrean eroria

Emen da jausi
 Kristo lurrera,
 lurra jasotzeko
 zeru gaiñera.

IV

Kristo ta Ama

Maria-k dakus
 bere Semea,
 gurutzea bizkar
 nekez betea.

Simon zirinatarra

Gurutz eramaten
 Simon-ek legez,
 dizut lagunduko,
 Kristo, nik pozez.

VI

Beronika

Arpegiko izardi
 ta odoletan
 zapia du busti
 iru izurretan.

VII

Bigarren aldiz jausi

Bigarrenez Kristo
 bean da jausi,
 ta neri biotza
 ez ote ausi?

VIII

Jerusalen-go andreak

Andre taldea urbil
 doa megarrez:
 damu gaitezen gu
 geure egin -txarrez.

IX

Irugarrenez lurrera

Gure onik ezak
 dauko gaillurra,
 iru aldiz Kristok
 jo digu lurra.

X

Kristo billoizik

Ona nun daukagun
 Kristo billoizik,
 soin-gogo eztala
 miña besterik,

XI

Kristo gurutzean

Esku eta oiñak
iltzez josita,
emen daukat Kristo
oi nere Aita!

XII

Gurutzean zintzilik

II zaigu Jainkoa,
zeruko argi:
gogora gaitezen
orain ta beti.

XIII

Kristo ta Ama

Gurutze gainetik
Ama damaigu:
dongak izan arren,
Ark maite gaitu.

XIV

Kristo obian

Illobian daukat
Jainko maitea;
zintzo bete daidan
bere legea.

XV

Kristo berbiztua

Kristo piztu zaigu
illen artetik;
gu atera naiez
gaiztakeritik.

NERE BASERRIA

Millaka bertsoak gaur, ene baserria!
Kezkaz beterik doa nere animia,
kezkaz izan ezikan ez naiz kantaria,
zure maitez naukazu pizturik guztia!

Zure izena opa dut, «Loreder», edatu,
czpan-ertzez eraman gozo baizen kartsu,
urrun abesten duten olatuk gainditu,
aizeak ego-gaiñez ditzan dantzaratu.

Zoazte, bertso leunok! , zoazte aizetan,
nere poza iragarriz zorion atsetan.
Amaren soak zidan zure itza eman,
ark jarri zidan baita garra ene baitan.

Bertsoak, ai bertsoak!, zabiltzate urruti,
Bidez bide zoate aur-talde dardarti.
Nerekin nere kezkak, zaitezte ausarti,
ez baitut nerau gabe leia ez olerki.

Neraugatik egin dut zin zain-odola,
ene ametsen bizi zerori zerala;
amets eta zain-odol, giltz-arri bezala,
bizi naizeño zu, bai, nere izar garbala.

Gaztetan zu zintzaidan abe ta zoria,
nere barnean osa zenduan kabia;
lertuko ba litzakit zurekiko izpia,
biotza litzaidake lertuko guztia.

Zorionaren billa, oi doakabeak!,
asko doaz kalera, usturik etxeak.
Maizterrak uzten ditu itai ta goldeak,
oillo, baratz ta kirru etxeoandreak.

Ez ditu iñork geroztik zugaitzak moztuko,
ez osto ez adar mee iñork iñausiko.
Ukulluak aremuz dirade jantziko,
ta erlauntzen atakak txiñurritz josiko,

Goiz oillarrak jotzean be antsi goxorik
ez digu axuriak egingo iratzarrik;
ez orru, ez irrintzi, etxea bakarrik.
Utsik dan baserriak bai dula zori txarrik!

Ene baserri polit: gau zuriz, esaidazu,
zer duzun lo artean goxoki amestu:
oianak duen arren bere kautan deitu,
zuk otsez kuin-kuin duzu zeure ixilla zaitu.

Eder, barnekoi zait zure jarduera,
ixil eta zarataz nasturiko era:
txori, abere ta aurren oskar egunera.
gauzez doart illargi musu-ots leun-bera.

Iizi ta mimentz tarte aizeak intziri,
maite kanta sorgindu gogo dizu zuri;
zure egonaren meeak bekarkigu guri
lanaren alaitasun, sari ta adiguri.

Ba ote zure altzo langorik iñontxo
urte-korapil luzez bizia izateko?
Aize garbia duzu, nai beste jateko,
ogi-tremes mamitsu, nai aiña asetzeko.

Nun dituzu geiago neskati guriak,
morrosko sendo ta ume arpegi gorriak?
Baserrian dauzkazu andra errimiak,
gizaseme bulartsu, langille ta argiak.

Naiz-ta idi dema onai ta antzeko dostari
berebiziko griña leiatuaz ari,
baserritar zintzoa kale bizitzari
oratua baiño ez duzu jokalaria.

Kale kutsutik duzu baserria azke,
oso duzu fedezko, arras Jainko-zale,
auzo ar-emanetan elkar Jaguntzaille,
goiz eta arrats zaizu otoitzak esale.

Baserritar bizitzak baditu nekeak,
—ez dut ixillazi nai—, baita naigabeak.
Nungo bizimoduk ez? Uste du jendeak
zoriona berezko duela kaleak.

Bai zera! Urian errez da fedea ukatzen.
Giza-molde sotilla ta oiturak uzten,
eman itzari aise irripar egiten,
biotz guztiaz elkar ez dute maitazen.

Euskaldun erriaren izate bipilla,
gure asaben bizi, edesti sotilla,
baserrian oraindik daukazu ixilla,
oien arnas egotsa biziro dabilla.

Zoazte, ba, neurtitzok! , zoazte aizetan,
nere poza iragarritz zorion atsetan!
Barnea izpi-jario amak esan zidan,
aren gogo neurrira gu beti gabiltzan.

GEIGARRIA

OLERTI (TA TESTU LITERARIOEN) ITZULPENAK

(EUSKERATZAILE; S. ONAINDIA)

BIBLIOGRAFIA

- ANCELLE, *Bizilza eskulua*, Giza-bizia [Karmel 1968-2], 17-18.
- Luis AROSTEGUI GAMBOA, *Poemas inacabados. Amaitu bajo poemak*. Bilbao 1969. 97 orr.
- Migel Anjel ASTURIAS, *Bolibar*, Olerti 10 (1968, 1-2.zenb.) 84-87.
- » » » *Kredo*, Olerti 10 (1968, 1-2.zenb.) 87-88.
- » » » *Arlaixoari*, Olerti 10 (1968, 1-2.zenb.) 88.
- » » » *Neure izeneko goi-aingeruari otoitza*, Olerti 10 (1968, 1-2.zenb.) 88-89.
- BECKER, *XUVgarren rima*], Olerti 6 (1964, 3-4.zenb.) 99.
- Bergili'ren Enea'rena euskeraz*, E-Gogoa 7 (1956, 3.zenb.) 100-108; 7 (1956, 4.zenb.) 111-115; 7 (1956, 6.zenb.) 77-86; 8 (1957, 3.zenb.) 100-105; Olerti 1 (1959)48-55; 119-128; 184-190; 2(1960)55-61,122-128,245-251; 3 (1961) 61-67, 231-240; 4 (1962, 1-2.zenb.) 110-116;
- BERGILI, *Idazlanak osorik*. Bilbao 1966. 383 orr. (Euskeratzaileak: A. Ibiñaga-beitia - A. Onaindia. Argitaratzaile: A. Onaindia).
- J. M. BLANCO WHITE, *Ccuari*, Olerii 1 (1959) 157.
- Bertold BRECHT, *Zer artu zuen gudariaren emazteak?*, Olerti 1984, 193-194.
- Dabid'en eresiak*, Karmel 7 (1957, 1.zenb.) 12; 9 (1959, 3.zenb.) 12; 10 (1960) 71, 103, 135, 169; 11 (1961) 10, 73, 108, 130, 162. KAEgutegia 12 (1962) 20.
- Dar.te-ren Jainko Anizerkia*, Karmel 8 (1958, 1.zenb.) [III-IV]; 8 (1958, 3.zenb.) [III-IV]; 8 (1958, 4.zenb.) [III-IV]; 8 (1958, 5.zenb.) [III-IV]; 8 (1958, 6.zenb.) [III-IV]; 9(1959, 1.zenb.) [III-IV]; 9 (1959, 2.zenb.) [III-IV]; 9 (1959, 3.zenb.) [III-IV]; 10 (1960) [64a-64b], [96a-96b], [128a-128b]; [192a-192b]; 11 (1961) [32a-32b], [96a-96b], [128a-128b]; KAEgutegia 12 (1962) 142-145; (*Garbitokia*), Olerti 1980, 123-125; Olerti 1981, 153-156; Olerti 1982, 98-101; Olerti 1983, 253-255; Olerti 1984, 222-226.

DANTE ALEGHIERI, *Jainko-Antzerkia*. Bilbao 1985. 366 orr,

Ruren DARIO, *Ertia*, Olerti 10 (1968, 1-2.zenb.) 115-126.

Gerardo DIEGO, *Zaiti*, Olerti 5 (1963, 3-4.zenb.) 65-66.

» » *Lorik-eza*, Olerti 1985-86, 307.

» » *Urbion gaiña*, Olerti 185-86, 308.

Esopo'ren ipuiñak, Olerti 8 (1966, 3-4.zenb.) 114-125; 9 (1967, 1-2.zenb.) 86-96; 9 (1967, 3-4.zenb.) 103-112; 10 (1968, 1-2.zenb.) 105-114; 10 (1968, 3-4.zenb.) 122-131; 11 (1969, 3-4.zenb.) 52-61; Olerti 1980, 119-123; Olerti 1981, 149-153; Olerti 1982, 95-98; Olerti 1983, 249-252; Olerti 1984, 217-221; Olerti 1985-86, 309-313.

E. A. EVTUCHENKO, *Ezteau ospatua*, Olerti 9 (1967, 1-2.zenb.) 84-85,

» » » *Bide-laguna*, Olerti 9 (1967, 3-4.zenb.) 101-103.

» » » «*Gizon bat il dabe*», Olerti 10 (1968, 1-2.zenb.) 75-76.

» » » *Jazoten yatana*, Olerti 10 (1968, 1-2.zenb.) 76-77.

» » » *Gure belaualdiko onenai*, Olerti 10 (1968, 1-2.zenb.) 77-78.

» » » *Damua*, Olerti 10 (1968, 1-2.zenb.) 78-79.

» » » *Biotz on, mutillak*, Karmel 1970-2, [III].

» » » *Neure Ama*, Olerti 1983, 233-234.

» » » *Ez naiz jaiio*, Olerti 1984, 213-216.

» » » *Zein-leinka*, Olerti 1985-86, 304-305.

Julio FLOREZ, *Maite eresi betikorra*, Olerti 9 (1967, 3-4.) 97-98.

F. GARCIA LORCA, *Ezki illa*, Olerti 1 (1959) 158-160.

» » » *Soloa*, Olerti 1 (1959) 160.

» » » *Guraria*, Olerti 3 (1961) 43.

Johann W. GOETHE, *Faust (Der Faust)*. Bilbao 1986. 305 orr.

T. Agustin GOITISOLO, *Sei poema*, Olerti 10 (1968, 3-4.) 118-121.

Horati'ren odak, Egan (1955, 5-6.zenb.) 12-15; (1956, 3-4.zenb.) 15-17; (1957) 272-273; Olerti 1 (1959) 32-34, 91-94, 167-170, 237-240; 2 (1960) 40-43, 106-110, 166-168, 239; 3 (1963) 45-47, 134-136, 217-219, 284-285; 4 (1962, 1-2.zenb.) 105-109; 4 (1962, 3-4.zenb.) 88-94; 5 (1963, 1-2.zenb.) 120-126; 5 (1963, 3-4.zenb.) 67-72; 6 (1964, 1-2.zenb.) 100-101; 6 (1964, 3-4.) 84-88; 7 (1965, 1-2.zenb.) 112-117; 8 (1966, 3-4.zenb.) 99-102; 9 (1967, 1-2.zenb.) 103-107; 10 (1968, 1-2.zenb.) 126-132; 10(1968, 3-4.zenb.) 132-137; 11 (1969, 1-2.zenb.) 57-62; 11(1969, 3-4.zenb.) 62-69.

Vicente HUIDOBRO, *Olerkera*, Olerti 10 (1968, 1-2.zenb.) 73.

Joana IBARBOUROU, *Aldia*, Olerti 7 (1965, 1-2.zenb.) 83-84.

» » *Bidea*, Olerti 7 (1965, 1-2.zenb.) 84.

» » *Jareipena*, Olerti 7 (1965, 1-2.zenb.) 85.

» » *Itxas-ontzia*, Olerti 7 (1965, 1-2.zenb.) 86.

- Joana IBARBOUROU, *Eriotza*, Olerti 7 (1965, 1-2.zenb.) 87.
 » » *Galdua*, Olerti 7 (1965, 1-2.zenb.) 88.
 » » *Irel-suzko*, OJerti 7 (1965, 3-4.zenb.) 66.
 » » *Pikondoa*, Giza-bizia [Karmel 1968-2], 61,
 LOPE DE VEGA, *Ze,- da au?*, PVV 11 (1976, 120.zenb.) 7.
 Antonio MACHADO, *Ura borbor*, Olerti 1 (1959) 219.
 » » *Zer dagik?*, Olerti 1 (1959) 219-220.
 » » *Oraindik ez*, Olerti 1 (1959) 220.
 » » *Umeen kanta*, Olerti 1 (1959) 220-221.
 » » *Itxarrik*, Olerti 1 (1959) 222.
 M. MACHADO, *Gaztaro*, Olerti 1 (1959) 90.
Mao Tse-Tung'en olerkiak, Olerti 10 (1968, 1-2.zenb.) 81-84.
 Gabriela MISTRAL, *Jaungoikoaren arrabita*, KAEgutegia 2 (1952) 63.
 » » *Bildur*, Karmel 8 (1958, 1.zenb.) 12.
 » » *Txapelgorritxo*, Olerti 1 (1959) 29-30.
 » » *Ertia*, Olerti 1 (1959) 44-47.
 » » *Ni ez nago bakarrik*, Olerti 1 (1959) 223.
 » » *Morroitzaren atsegiña*, Olerti 2 (1960) 53-34.
 » » *Kulunka*, Olerti 2 (1960) 103.
 » » *Bildots zuritxo*, Olerti 2 (1960) 138.
 » » *Ama ituna*, Olerti 2 (1960) 160.
 » » *Eguzkiari abestia*, Olerti 1983, 247.
 » » *Itxas-ontzia*, Olerti 1983, 247-248.
 » » *Alestar neskatxa*, Olerti 1984, 210.
 » » *Gili-gila*, Olerti 1984, 211-212.
 » » *Orfeu-ren semeak*, Olerti 1985-86,306.
 Pablo NERUDA, *Lautaro'ren aziera*, Olerti 11 (1969, 3-4.zenb.) 46-47.
 Amado NERVO, *Oldozketan*, Olerti 2 (1960) 121; 3 (1961) 137-138.
 Giovanni PAPINI, *Bante zoriondun*, Olerti 1 (1959) 199-200.
Parnaso colombiano en euskera. Kolonbiar oleri-txorta euzkeraz. Buenos Aires
 [1968]. 257 orr. (Euskeratzaileak: L. Akesolo, J. Beistegi, I. Goikoetxea,
 S. Muniategi, J. Onaindia).
 Giovanni PASCOLI, *Zortzi poema*, Olerti 10 (1968, 3-4.zenb.) 114-117.
 Boris L. PASTERNAK, *Getsemani'ko Baratzta*, Olerti 1 (1959) 88-89.
 Saint-John PERSE, *Goralpenak*, Olerti 3 (1961) 291.
 R. G., *Ain nozu aundial*, Giza-bizia [Karmel 1968-2], 62,
 RILKE, *Olerkaña*, Olerti 3 (1961) 289.
 S. TERESA, *Il-ezinez*, Karmel 1970-4, 15-16. (= PVV 10 (1975) 5).
 SELGAS, *Eriotzorri*, K-Argia (1936) 61, (= Goiznabar, 83-84).
 » *Lilia*, K-Argia (1936) 78. (= Goiznabar, 84-85).
 » *Laralsa ta Nekosta*, K-Argia (1936) 150. (= Goiznabar, 85).

- William SHAKERPEARE, [*Amalaukoak*], Olerti 1 (1959) 225-227.
- SHELLEY, *Auena*, Olerti 1 (1959) 31.
- » *Iretargia*, Olerti 1 (1959) 31.
- » *Zortzikoak*, Olerti 6 (1964, 1-2.zenb.) 102.
- Jose Asunci6n SILVA, *Doniane-zurak*, Olerti 9 (1967, 3-4.zenb.) 99-100.
- » » » *Illak*, Olerti 10 (1968, 1-2.zenb.) 74.
- Rabindranath TAGORE, *Erronda ekus-eziña*, Karmel 8 (1958, 5.zenb.) 5.
- » » *Umea orrela dozu*, Karmel 8 (1958, 5.zenb.) [IV].
- » » *Noiz eta zegaitik*, Karmel 8 (1958, 6.zenb.) 29.
- » » *Asiera*, Karmel 8 (1958, 6.zenb.) [IV].
- » » *Izen txarra*, Karmel 9 (1959, 1.zenb.) [IV].
- » » *Jostailuak*, Karmel 9 (1959, 1.zenb.) [IV].
- » » *Maitagarrien lurraldea*, Olerti 1 (1959) 41-42.
- » » *Erkatuaren aberria*, Olerti 1 (1959) 42-43.
- » » *Euri-eguna*, Olerti 1 (1959) 113-114.
- » » *Ingizko ontziak*, Olerti 1 (1959) 114-115.
- » » *Arrantzalea*, Olerti 1 (1959) 115-116.
- » » *Beste ertza*, Olerti 1 (1959) 116-117.
- » » *Merkataria*, Karmel 10 (1960) 64b.
- » » *Barne-deia*, Karmel 10 (1960) 96b.
- » » *Idazlea*, Karmel 10 (1960) 128c.
- » » *Gizurena*, Karmel 10 (1960) 179.
- » » *Karteru txarra*, Karmel 10 (1960) 192b.
- » » *Loraen ikastola*, Olerti 2 (1960) 53.
- » » *Gizontxo*, Olerti 2 (1960) 179.
- » » *Amabiak*, Olerti 2 (1960) 238.
- » » *Atzena*, Karmel 11 (1961) [32b].
- » » *Lirikar eskintza*, Karmel 11 (1961) [32d],
- » » *Deiez*, Karmel 11 (1961) [96b].
- » » *Pikondoa*, Olerti 3 (1961) 229-230.
- » » *Onespen*, Olerti 3 (1961) 230.
- » » *Lenengo jazmiñak*, Olerti 3 (1961) 249.
- » » *Uzta*, Olerti 5 (1963, 1-2.zenb.) 115-119; 5 (1963, 3-4.zenb.) 73-77.
- » » *Iru poema*, Zarautz 1963. 176 orr.
- Te, Ioseph, celebrent*, Karmel 11 (1961) [64f].
- TRUEBA, *Amaren lelo*, K-Argia (1933) 360. (= Goiznabar, 78-79).
- M. UNAMUNO, *Eremuan*, Olerti 6 (1964, 3-4.zenb.) 96-98.
- » » *Igaro zirean*, Olerti 6 (1964, 3-4.zenb.) 98-99.
- » » *Logos*, Olerti 6 (1964, 3-4.zenb.) 99.
- E. URKIAGA (Lauaxeta), *Ad Jesum*, Olerti 1981, 61-62.

VERDAGUER, *Maitasuna*, K-Argia 3 (1933) 9.

» *Gabon-gaberdiko lilia*, K-Argia 2 (1932) 8.

Wal, WHITMAN, *Onezkoak egin*, Olerti 1 (1959) 90.

Karol WOJTYLA, *Gogoa, utsune arrotz*, Olerti 1982, 87-92.

» » *Uraren dizdizari abestia*, Olerti 1983, 241-246.

» » *Ama*, Olerti 1984, 204-209.

» » *Lur santuetara erromes*, Olerti 1985-86, 297-303.

I Z T E G I T X O A

Iztegitxo onetan bakarrik itz batzuen azalpena agertzen da, au da, Aita Onaindiak bere argitalpenetan (batez ere **Goiznabar** eta **Nere** baserrian-n), kontestu berezi baten barruan agertuz, eskeintzen ditun itz batzuen azalpena.

Abe — zutoin
Abetxu — zugatz txiki
Adia — intziri
Aien — maats-txerden
Aiots — deadar
Aiotza — matxetea
Akara — nardoa
Aketo — sapatz
Ala — indar, min
Aloka — itxas-bedar
Antsi — egon-ezin
Apatz — txairo
Apo — arro
Aradera — bedar usaintsu
Ardantza — maasti
Ardatz — kimu
Arobi — aterpe
Arralde — arkaitz
 - urnn
Atezu — tenkera
Auna — neke
Auster — auts
Azantz — indar
Azarri — ausart
Azatz — erreten

Baitegi — espence
Baitu — oratu
Baratz — geldiro
Barrendan — zelatan
Bazi — saltsa
Bazken — larre
Bedats — udabarri
Bedegar — berezi
Belaki — txupera
Berein — anitz
Bereiñak — askoak
Bertxiña — kolore
Betorrena — **ugariena**
Birlora — zauskada
Bisuts — auts-aro, aize-elur
Bitxi — apaingarri
Bota — kimu
Buruntza — koroï
Buru-torraka — igurtzi

Dasat — esaten dit
Dedagu — edaten dogu
Dil — ilten da
Ditxo — **kai-barru**
Dixurzu — ixurtzen dozu

Eguzki tattaiña — buru iritxi
Ekai — intziri
Ekantz — egokera
Elorri — kezka
Erdoitu — **ondatu**
Eregu — laztan
Ereskin — jo-gaillu
Ergiak — zekor
Eri — atzamar
Eriotzorri — adelfa
Erlantz — dirdira, dizdiz
Esne-idoi — potzu
Ezponda — ur-ertz

Gailli — gaiñeko abarrak
Gallupa — mendi-txonta
Gandu — lanbro
Gantzu — usainki
Garatzean — usaika
Gaztai-zumintzan — gaztan-ontzi
Geldo — bildurti
Gentza — bake
Gilgil — bete-bete

Illeun — kartzeta
Ingi — papera
Iñaurtu — zabaldu
Ingi — papera
Irrikitu — zulo txiki
Isla — dizdiz
Isol — ur-jasio aundi
Itsa — ubel
Izinga — ur-potzu
Itzaski — olatu aundi

Jarauntsi erentzi
Jas — ganora
Jaupari — apez
Jaurgo — aginpide
Jela — isotz

Kaden — goibel
Kain — laino
Kaio — itxas-txori
Kaldata — piztu
Karkaba — zulo
Kimu — muskil
Kriket — apain
Kolorga — kolore bako
Kortaitza — simaur
 Kruselu — argi-ontzi
 Kukur — gangar
Kukutz — erpin
 Kusku — goi-goi

Lakain — ule-moltzo
Lanbur — ziri-miri
Lander — beartsa
Lats — errekesto
Latzin — lur etze
Lerdekatu — zapaldu
Lerkai — bonba
Lertxun — kurlu
Likits — loi
Likurta — usainki
Lipar — aldi-une
Lits — argi-ertz
Luban — trintxera
 Lur **aratz** — garbi

Malo — txori-malo
Mao — krabelin, xulufirin
Marabio — marrubi
Marroiztu — pirtxildu
Martzal — prestu
Maskal — baldan
Maskelua — galdara
Miasma — amaraun
Migura — usture
Milizka — tamarindo
Motots — kurkutz

Nakar — gogo barik
Nare — trankil
Nekosta — zipresa
Nozitu — sufridu

Odola begian — kimu berri
Oltza — erretaula
Ondi — altare
Ordegai — oxigenu
Orrilloak — elduak
Ota — oillo-aga, lo-toki
Ozke — kulunka

Padar — bakarti
Papu — alai
Palagu — eregu, laztan
Pauts — matrail-zabal
 Pendiz — aldatz
 Pentokan — muiño
Pentzai — abaro
Pototx — lodikote

Sakosta — aitz-arte
 Sarte — aga
Segail — apain
 Siska — naikeri

Tai — cten gabe
 Tirriña — ur-ibillia
 Tuntur — gaillur
 Txintxin — ur-jauzia
Txolin — itz-ontzi

Uberka — erreten
 Ueska — ur-aska
Ugin — olatu
Untza — untz-osto
Uraga — erremu
 Urusa — zoriontsu
 Usa — erri-baso
 Usi — lodi
 Usma — sumatze
Uspela — toki itzaltsu
 Uzu — muker

Xima — bota

Zabarkeri — nagikeri
Zaflatu — erabilli
Zaltu — abaro
Zalu — bizkor
Zangar — kementsu
 Zarpaildu —• mirriztu
Zarpil — dandar
Zearrak — zear-ipar
 Zentoi — erraldoi
Ziia — ziri, zume
 Zikiro — aari
 Zikoitza — zeken
 Zinkulin — intziri
 Ziriko — seda
 Zisku — pardel
Zola — azpi
Zume — bigun
 Zumitz-txorea — lotura
Zurrun — astitsu, nag, astun
Zuzitu — suntsitu

AURKIBIDEA

Amorebieta-Etxanoko Alkatearen eskutitza	VII
Aita Santi Onaindiaren olerkigintza	IX
Argitalpen hontaz	XXV
Laburdurak	XXVI

GOIZNABAR

1929-1935

Mendiruntz	3
Terese deunari	4
Sortzez Garbia	4
Ama neketsua	6
Arrena	7
Loreil!	8
Maitasun-aiotsak	9
Usoa egazka	10
Geziz zauritua	11
Bere ereskin-ekaiak	12
Abean	16
Egazkadak	16
II intzan	17
Ontziska ta ekaitza	18
Saratsa ta itxaropena	19
Otoia	19
Karmel'go artizarra	21
Gaztaro	22
Larrosa legor	22
Begi-urdin	24
Ezti utsa	25
Lo, Josu!	26
Lorarik zuriena	26
Goiza ba-dator	27
Kanruz!	28
Abereen oiua	28
Lore-zaiña	29
Loa	29

Oi, eiztari!	30
Nire marrazkia	30
Begian malkoa	31
Lea ibaia	32
Oinazez nago.	32
Adar gainean.	33
Pozik ete?	33
Neuri deiez	34
Ames utsala	34
Oialdun ontzian.	35
Ur-sugea	35
Iparrak irri	36
Gorago!	36
Ezpai-bidez	36
Erio.	37
Illunpean zear.	38
Bertsolari zapuztua.	38
Atzipetua	39
Itxi, arren!	39
Aintza ta aintza	40
Arrats-beran.	40
Biurpen.	41
Eskea	42

1936-1940

Zoratua	43
Maitasun-jopu.	44
Oiu-mina	44
Sitio.	45
Gudari!	45
Ene biotz negarra	46
Gudariarena	46
Bertanbera itxia	47
Gura neuke.	48
Bakea	48
Arte drangala	49
Bakarrik noake.	49
Ene ereskina	50
Ondamena	51
Saseta il da!	52

Aberri eder	53
Ur-egalean	54
Baserrian jausia	54
Sutan	55
Euria ta uria	55
Odol mendi!	57
Basoa _n illa	58
Lurra emotea	58
Ez itxartu!	59
Gau-oiuak	59
Eortzi bagea	60
Iri nago	61
Ekaitz artean ez!	61
Oinazepean	62
Zuri dagitzut oiua	65
Kanpai-otsa	66
Ezker-muturrakin	67
Zaldun aundikia	68
Ene amatxo!	69
Ausi adi!	70
Ezer baino len sortua	70

1941 -1945

Lorratza	72
Zurrun-billoan	73
Geroa nirnir	73
Lur-ertzean	74
Bakar bidean	74
Negar dagizu	75
Zorion-bidetik	75
Beranduegi?	76
Olerkaria	76
Ibai-ertz zear	77
Amaren biotza	78
Zure jokoa	79
Andrakillak	80
Neure bordatik	81
Beresi ondoan	81
Asarre-bera?	82
Inguma	82

Zain ei zaitut	83
Lur-sabela	83
Uda zigorkaria	84
Itxas-ontzia	84
Goi-argia!	85
Belen, Belentxo!	86
Jainko ta gizon	87
Arkaitz-zuloko eleizan	87
Argi-semea	89

1946 -1950

Nere zoriala	91
Aitari lotsa	93
Padarra	94
Azke zara!	94
Bei euskaldun	95
Ezin ulertua	96
Amareuna	96
Eriotza	97
Bekoki otza	98
Istinga lokartua	98
Belakia	99
Ur-zirrista	100
Negar-eresia	100
Txera sorgina	102
Birigarroa	102
Mikak	103
Gure arrantzaleak	104
Landur dirdiraz	107
Zaartzen ete?	108
Uts-lainoa	108
Errimindua	109
Gau-eresia	111

EGUERDI

1951 - 1970

Oijauna!	115
Leioa	115
Aloka	116

Errukarria	116
Biotz-agurra	117
Euri! Ipar! Edur!	117
Bizitzako goiza	118
Ene Etxea!	118
Arrats-eskaria	119
Edesti xamurra	119
Barruko guda	123
Ur! Ur!	124
Zarpaildua	125
Maitasun-oparia	126
Jaiotetxea	130
Iturriak negar	131
Jainko begirakuna	131
Ama, amatxo!	132
Maite minetan	134
Zu bakarrik maite	137
Esku utsak	138
Agurra	140
Artzain gaztea	141
Ego	142
Otza zara	143
Zertan?	144
Etsi bear!	144
Banandu-bearra	145
II otza	146
Damu	146
Esaidak, arren	146
Aradera	147
Aurra lo dago	148
Sortaldeko izarra	148
Goiza	149
Lekanda'ri	150
Erne-mina	151
Lugina ta kurloia	151
Aldia	152
Lugina ta semeak	153
Oillarra ta azeria	153
Joan yaku!	155
Astoa ta zinburruna	156
Belatxinga ta pitxerra	157

Azeria ta mats-mordoa	157
Saia ta eperra	158
Aizea, ura ta lotsea	159
Erlea ta erleroa	160
Barne-intziri	161
Aita alarguna	161
Ene adiskidea	163
Aura lotan	164
Ipurtargia ta zapua	164
Apar zuritan	165
Zigoña ta azeria	169
Zaharrak	169
Illuna ei da olerkia	173
Gau-jolasa	173
Amets mamitua	174
Ezeta	176
Luma usaintsua	177
«Txiki».	177
Leio ertzean	178

ILLUNABAR

1971 - 1988

Edurra!	181
Areitza	182
Salatu bearrez	182
Laiñoa	183
Itzala	183
Iru izarlari	184
Bide ausiari	185
Urde ta txakur	186
Tutubiotua	186
Aize-txinpartaz	187
Ondarruko ur-esia	188
Oroitzen...?	188
Bakarrik	189
Gazte!	190
Beti aurrean	190
Argi-bitsetan	191
Itzal artean	191
Gazte!	192

Oin-arin	192
Lurra gure	192
Ikas zazu!	193
Gabon-poza	193
Lanaren gosea	194
Beerantza?	194
Orori intzan	195
Galtzairuzko iduri	196
Negua dun	196
Ama!	197
Oiñazea	197
Eder da krabeliña	200
Ots illuna	201
Neskatx bat	202
Zer dizditzen?	203
Garrasia!	203
Umetxoak	204
Espetxetuak	204
Ba-dakizu noiz	204
Baserritarrak	205
Sariak banatzea	206
Udabarriz	207
Lizardi'ren amesa	207
Agur, lorak!	208
Lore likistua	209
Patin barria	210
Azur gura zaitut nik	210
Erreka ertzean	211
Urari begira	212
Zuri nago Jauna!	213
Zugatz moztua	214
Zaindu gaizuz	215

NERE BASERRIA (EUSKAL POEMA)

Udabarri

Baseri min (Lotsati)	219
Gure kabitxo	220
Zeru izarratua	221
Izadia bai eder!	222
Birigarroa	223

Oro eder.....	223
Udaberria.....	224
Ardiak.....	227
Ni ez euli nagi.....	228
Nere etxea.....	229
Artoa.....	231
Lilitegia.....	233
Bizi nai!.....	233
Nekazarien zaindaria.....	235
Baratza.....	236
Gaztaiak.....	237

Udaldia

Uzta-uzta (Lizardi).....	239
Etxe ingurua.....	240
Kantari bizi naiz.....	241
Gure umeak.....	242
Lantsu nabil.....	242
Euri ostean.....	243
Gure egoitza.....	244
Bagillaren erdirantza.....	246
Ezlari ona.....	247
Igelak.....	248
Zugaitz artean.....	248
Gari-illa.....	250
Oilloak.....	251
Beiak.....	252
Maitea kanta-gai.....	254
Lan eta lan.....	255
Ene potxolo.....	256
Erleak.....	256

Udazken

Mendiko alaitasuna (K. Enbeita).....	259
Nerea da.....	260
Gauden osasuntsu.....	261
Txakolina.....	262
Ukulluak.....	265
Ipurtargi ordez.....	265
Poz-arinduz.....	266
Garbiketan.....	269
Maite zaitut.....	269

Izena	270
Zugatzak	271
Bi auntz	273
Ura	274
Goizeko izarra	275
Txertaketak	275
Pinua	277
Amona il zaigu	278
Negua	
Nere baserri (Ariztieta)	280
Ni baserrian	281
Oina lerden	283
Negua	284
Argi zakurra	286
Suaren igurtzia	287
Egiak jalkitzen	287
Bei bat il zait	288
Zirikaldia	289
Ereintzak	290
Landan pentsalari	290
Eskaleak	291
Neguaren egona	293
Otsaillez	294
Aste Santua	296
Nere baserria	297
Geigarria (Olerkien itzulpenak)	300
Iztegitxo	305
Aurkibidea	307

